EUSKAL TELEBISTA
ETA
EUSKARA

© ELKAR, S.A. Donostia

Dep. Legal: NA. 1.467-1985
ISBN 84-7529-315-8

Fotokonposatzaile eta azala: LENTE. Lizarra (Nafarroa)
Inprimatzaile: Gráficas Lizarra, S.L. Lizarra (Nafarroa)

Joan Mari Torrealdai

EUSKAL TELEBISTA ETA EUSKARA

ELKAR

SARRERA

1983 urteko urtarrilaren 0.00 ordutan egin zuen bere lehen emanaldia Euskal Telebistak. Hilabete bat iraun zuen modu sinboliko eta testigantzazko batetan, harik eta otsailaren lehenean programaketa erregularra hasi arte. Harez gero, hamaika hilabetez lau orduko programaketa izan du ETBk, astelehenetik ostiralera. «Aproba-urtea» izan da lehen aldi hau. 1983ko abenduaren 19an 1984eko programakuntzari eman zitzaion hasiera, asteroko 20 ordutatik 40-42 ordutara igaroz. Urte hau, «Garapen-urte» izendatuko da. 1985ean ildo beretik doa ETB. San Migeleko behin behineko Ekoiztegitik ematekoak ziren barne-produkzioak hasi dira aurten. 220 langilerekin 46 ordutara iristen da ekoizpen osoa. 1985-1987 urteak «Finkapen urteak» ziren ETBko arduradunen asmotan.

Euskal Telebista hau, projektu eta praxi, era askotara eta alde askotatik azter daiteke. Modu ugari horietako bat hautatu dugu guk gure lanerako. «Euskal Telebista eta euskararen arazoa» da guk aurkezten dugun aztergaia. Analisi soziolinguistikoa da funtsean, hau da, ETBren projektuan eta praxian hizkuntzak sozialki nola funtzionatu duen aztertzea. Lan honek zabala ematen badu ere, materialki bakarrik da horren zabala. Zeren eta, funtsean, gai ardatz gutxi batzuen inguruan biltzen bait dira pro-

jektuak zein eztabaidak. Aztertu baino aipatu askoz gehiago egiten da hemen. Esan bezala, arazo bat bera da beti aztertzen duguna, euskara telebistan, edo, hobe, euskarazko telebista, nahiz eta programazioaz, historiaz, egituraketaz, antolamenduaz edo grebaz ihardun.

Arazoaren garrantzia ez dugu zertan azpimarraturik. Berez ageri da garrantziaren handia, kontutan izanik ETBk sorterazi duen literatura osoan berak duela nagusigoa eta gehiengoa, modu batean edo bestean, zuzenean eta zeharka. Garrantzi hori, bestalde, are handiagoa da Euskal Herriko Informazio-Zientzien Fakultatearentzat, lehen aldiz bateratzen bait dira historian euskara eta telebista modu egoki batean.

Ikerketa hau ez da 1983ko lehen minutuarekin hasten, hots, ETBren historiarekin batera. Hobeto esan, ETBren beraren historia ez da une horretan hasten, urte batzu lehenago baizik. Aurreko urte horietako bilaketak, planteamenduak eta egitasmoak ere aztergaia izan ditugu. Zertan esanik ez da azken bi urte t'erdiko praxiak eman digula materialik gehiena. Aztertu gabe uzten dugu, baina, azken hilabeteotako ETBren bilakaera (greba eta gainerako tirabirak), iruditzen bait zaigu gorabehera hauen egiazko izaera eta zentzu sakona atzematea eta balioztatzea nekeza eta arriskutsua dela harik eta prozesua bururatu arte.

ETB eta euskararen arazoa zertan den ikertu nahi izan dugu guk. Eta hori egiteko, zabaletik jo dugu, deskribapen gisa askotan. Horrela jokatzeko izan ditugun arrazoiak bi dira nagusiki. ETBri berari dagokiona bata, eta ikerketaren testuinguruari datxekona bestea. ETB, hasteko, gaztea da oso, eta egituratze-prozesuan dago, berak bere buruari projektuan markaturiko burupenetik urruti oraindik. Zaila da, kondizio hauetan, behin betiko ebaluazioak nahiz balioztapenak egitea. Bigarren arrazoia ere ulerterraza da, kontutan eduki behar bait da aurrelanik gabeko azterketa dela hau eta arazoari egiten zaion lehen hurbilketa sistematikoa.

Azalpenean ere ikerketako metodo bera erabili dugu: zabaletik jo dugu hemen ere. Esan nahi bait da, aipuak, pasarteak, testuak, deklarazioak idazlanean bertan integratu ditugula, bi aldiz inoiz, lanaren irakurketa eta ulerpena erraztearren, iturri eta dokumentazio aurkigaitzetara irakurlea etengabe bidaliz ibili gabe. Jokaera honek esplikatzen edo/eta justifikatzen du luzera ere.

Lau kapitulutan banatu dugu lanaren azalpena. Lehenean, historiaurrea eta Eusko Jaurlaritzaren egitasmoa aztertzen ditu-

gu. Projektu horren eztabaida soziala bitan banaturik ematen dugu. Bigarren kapituluan, protagonisten perspektibatik begiraturik azaltzen ditugu gizartean eman diren jarrerak. Eta hirugarrenean, eztabaida hori bera gaien perspektibatik arakatzen dugu, hau da, protagonista horiek eman dituzten arrazoiak eta kontrarrazoiak. Laugarren kapituluak hiru ataltxo ditu barnean: laburpen asmoz egindako gainbegiratua, azterturiko jarreren interpretazio-saio bat eta, azkenik, proposamen nahiz gogoeta gisako oharkizun batzu.

Bibliografiari leku garaia eman nahi izan diogu lan honetan. Saiakera barik, ikerlan unibertsitarioa izaki, lan honetan modu berezi batez erabili nahi izan dugu alderdi metodologiko hau. Iturriak (aldizkariak, dokumentuak nahiz txostenak) eta literatura orokorra eskaintzen ditugu bertan zehatz eta mehatz.

Amaitzeko orduan, gure esker ona agertu nahi diegu Ramon Labaien Kultur Sailburu ohiari bere artxibategi pribatua miatzen uzteagatik; Luis Alberto Aranberri, «Amatiño», ETBko Zuzendariari Herri-Erakundeko informazioa eskaintzeagatik; Erramun Etxezarreta, Erakundeko Administrazio-Batzordeko partaideari, Batzordeko informazioa uzteagatik; Juan Karlos Da Silva, Eusko Legebiltzarreko letratuari, Parlamentuko materialak eskuratzen laguntzeagatik. Modu berezi eta aparteko batez eskertu nahi dugu Karmelo Garitaonaindia irakaslea, zuzendari gisa, memoria honen ardura bere gain hartzeagatik eta eman digun laguntzagatik.

Memoria hau Euskal Herriko Unibertsitateko Informazio-Zientzien Fakultatean aurkeztu da, 1985eko urriaren 17an.*

(*) Epaimahaian Dr. Pello Salaburu (mahaiburu), Dr. Mari Jose Azurmendi eta Dr. Karmelo Garitaonaindia izan ziren eta «bikain/sobresaliente» kalifikazioa eman zioten lanari.

IKERLANEKO AIPU-SISTEMA

Bibliografi oharren deiak esponente gisa adierazten ditugu zein bere lekuan; eta eman, dagokien kapituluaren azkenean ematen ditugu.

Eurrez erabili ditugu egunkariak, aipamenetan ikus daitekeenez. Laburdura-sistema erabili dugu aipatzeko orduan. Laburduraz adierazi ditugu zenbait txosten eta ikerlan ere, baina hauek bere tokian seinalatzen ditugu.

Egunkarien laburdurak honako hauek dira:

CO: *El Correo Español - El Pueblo Vasco.*
EP: *El País.*
GN: *La Gaceta del Norte.*
NU: *El Noticiario Universal.*
TV: *Tribuna Vasca.*
VE: *La Voz de Euskadi.*

Gainerako guztiak bere osoan agertzen dira.

Idazlan bakoitzaren informazio hau ematen dugu bibliografi oharretan: egilea, idazlana eta data. Informazio oso-osoa atzeko Bibliografia sailean aurkituko du irakurleak.

I. HASTAPENAK ETA OINARRIAK: ETBren PROJEKTUA

1. ETBren HISTORIAURREA

1.1. EUSKARA TVEn

1.1.1. Historia laburra

Laburra eta motza da –ezteusa ez esatearren– telebistan euskaraz izan duen presentzia. Presentzia sinbolikoa, beste ezer baino gehiago, harik eta ETB martxan jarri arte.

Zera azpimarratuz hasi behar da: ez Frantziako eta ez Espainiako telebista estatalek bereganatu edo inkorporatu dute euskara, katean funtzionatzerakoan. TVEri buruz L. Iriondok dioenak berdintsu balio luke ORTF zenarentzat ere:

> «TVE creo que lleva algo así como treinta y dos años en el aire y que yo recuerde hasta el pasado año, precisamente en un programa de José María Iñigo, no dijo una palabra en euskera; yo no he oído nunca hablar en euskera a nadie. Y llegó en un momento determinado dijo gabón, yo me refocilé muy a gusto porque pensé

que ya empezaba eso a marchar, que había dado las buenas noches en euskera y que podíamos pensar que el futuro de la TVE podía ser un futuro realmente autonómico, realmente comunitario, realmente entendido, que todos podíamos tener participación en esa fórmula de Estado que aquí se ha dicho. Ciertamente es muy poca cosa lo que hasta ahora se ha demostrado, y realmente la razón por la que esta televisión nuestra, Euskal Telebista, sale a la calle, y sale en un proceso de urgencia política, un proceso de urgencia cultural, a la desesperada, el 1 de enero de 1983, es por esta absoluta carencia de contar con los medios de comunicación propios»[1].

Euskarak telebistan izan duen presentzia, eskualde-mailako presentzia izan da. Eta hor ere eskasa eta berantiarra. Datu batzu bil ditzagun:

1975ean, Bilbon kokatzen den «Centro Regional del Norte» delakoak –edo, ezagunago den Telenortek– «Euskalerria» programari eman zion hasiera, astero ordu-erdi.

1976an, FR3 hasi zen Bordaletik hamabostero 15 minutuko magazine bat emititzen, Maite Barnetche-ren zuzendaritzapean. Gaur egun, iaztik hasita, astero ordu-erdi ematen du, ordu-laurden batez magazine eta ordu-laurden batez euskara. Albisterik ez dute sekula ematen.

1981ean eraiki zuen TVEk «Telenavarra» Iruñean. Minutu bat inguruko emanaldia eskaintzen du Telenavarrak euskaraz. Euskarari egiten zaion burla bezala salatu du EHEk, eta emanaldi motz hori suprimitzea eskatu[2].

Historia labur honen barruan, Telenorteko esperientzia zehaztasun gehiagoz aipatuko dugu, saio-balioa izan zuelako gutxienez.

1.1.1.1. «Euskalerria» programa

1975eko abenduaren 12an hasi eta 1977ko abuztuan itxi zen programa-sail hau. Denetara, 60 bat saio osatu zituen.

Ordu-erdiko emanaldi hau hiru zatitan banatu ohi zen: erreportaia intenporala, garaiko erreportaia eta haurrentzako «Pinpilinpauxa».

Programaren arduraduna Jose Mari Iriondo zen, eta honekin batera lantalde bat zegoen: Joan Mari Iraolagoitia, Xabier Kintana, Enkarni eta Manolo «Txotxongillo»koak. Mementu batean edo bestean, beste zenbait ere ibili zen inguruan: Manu Oñatibia, Martin Olazar, Jose Mari Etxebeste, Anjel Unzueta, Jose Mari Otermin.

Bi urte eskas iraun zuen programa honek airean. Porrotaren arrazoien artean, arrazoi profesionalak eta ideologikoak daude, alde batetik; eta azpiegiturarenak, bestetik.

Lehenengoen artean aipa genitzake telebistaren «berezitasuna» ez ulertzea, euskara-mota, aukera politikoak, etab. Kasua da, ekipoa eratzerik ez zela lortu[3].

Profesionalik, liberaturik, dedikazio osoz honetara emandakorik ez zen inor tartean, eta, beraz, tarteka-marteka egin behar zuten lana.

Baldintza hauei, azpiegituraren aldetikoak erantsi behar zaizkie, hots, mediorik eza, ekipamendurik eza: Bilbok ez zuen magnetoskopiorik, emanaldiak Madriletik zuzenean eman ohi ziren, zuri-beltza eta 16 mm-koa besterik ez zegoen.

Kondizio hauetan aurrera jarraitzerik ez zegoela eta, bertan behera uztea erabaki zuen lantaldeak. Aipatu ditugun arrazoiak dakartza J. M. Iriondok, eta beste bat gehiago: erakundeen apoiorik eza:

> «Programarekin segitu genuen, hirurogei bat programa egin genituen, eta mementu batetan ikusi genuen ez genuela aurrerakorik egiten. Bilbon mediorik ez zegoelako, eta bestalde gu ere beste lanetan genbiltzelako, eta dedikazio handirik eman ezin genuelako.
>
> Garai hartan Franco hilda zen, eta guk nolabaiteko apoioa espero genuen hemengo erakundeetatik baina ez genuen jaso, ez hitzez eta ez bestela. Honela gelditzea erabaki genuen eta jendeak gure gelditzea ez zuen sentitu. Ikusten zen garbi programa hura jendeak ez zuela segitzen, ordu txarra zelako etabar, etabar»[4].

Kondizioak aldatuz gero, jarraitzeko prest agertu ziren J.M. Iriondo, J.M. Otermin, X. Kintana eta A. Unzueta, 1977ko abuztuan bertan Telenorteko Zuzendariari, Francisco Etxeberriari, egin gutunean. Segitzeko kondizioak, hauek ziren: ekipoa, berauek eratzea; kazetaritza-Fakultatearekin harremanetan jartzea; lan-kondizio eta ekipamendu hobea, ekipoaren esku.

Gutun honek ez zuen erantzun ofizialik jaso. Hori bai, hilabete batzuk beranduago, J.M. Iriondori dei egiten diote Telenortetik, kolabora dezan.

1.1.1.2. «Al fondo el hombre» programa

1977ko urriaren bigarren astelehenetik 1983ko martxoa bitartean iraun zuen programa honek, J.M. Iriondoren eskutik. Erda-

razkoarekin txandatuz, hiru astez behin eman ohi zen. Egia esan, hori baino hobea zen TVEren aldetik Francisco Etxeberriak egin eskaintza: ordu-laurdeneko teleberria, ordu-laurdeneko euskarazko eskola eguerdian, «Al fondo el hombre» hamabostero. Eskaintza honi J.M. Iriondok ezin izan zion erantzun, bi arrazoigatik batez ere: bat, bestelako lanetan okupatua zegoelako bera; eta bi, kolaboraziorik ez zuelako inguruan aurkitu[5]. Gauzak honela, J.M. Iriondo 1983an ETBra pasa arte iraun zuen euskaraz programa honek. Geroztik euskaraz mututu egin da Telenorte.

Telenorten euskara gehiago ez egitearen arazoa, honela epaitzen du J.M. Iriondok:

> «Programa gehiago edo euskara gehiago egiten ez bada alde batetik ni errudun naiz, baina bestaldetik Euskal Herria ere errudun da. Ni saiatu nintzen Donostian Irrati eta Telebista Eskola sortu zenean bai Euskal Jaurlaritzako eta 'Telenorte'ko arduradunak elkarrekin biltzeko, baina alperrik izan zen guztia, handik ez da lanik sortu. Bi alderdi horiek ez dira elkartu, eta gaur egun telebistan ez da egiten Francorekin baino euskara gehiago».
>
> «Asko salatzen zaio Bilboko telebistari –eta ni salatzearekin oso konforme nago– ez duela egiten behar adina, baina esan beharra dago neurri handi batetan ez duela egiten ez zaizkiolako kondizioak ematen. Nik ez dut inoren aurpegia garbitu nahi, badakit haiek zeintzu diren, baina gauzak diren bezala esan behar dira»[6].

Ikusten dugunez, J.M. Iriondok euskaldunen laguntzarik ezean ikusten du hein handi batean programa horien porrota. Baliteke. Baina sakonago jo behar delakoan gaude arazoak objektibotasunez epaitzeko. Gure ustetan, ezinaren arrazoia euskaldunon eskasian baino areago bilatu behar da TVEk berak ordezkatzen duen hizkuntz politikan, filosofia linguistikoan.

Hizkuntz jarrera hori erakutsi nahi genuke hurrengo paragrafoan.

1.1.2. TVEren hizkuntz politika

J.V. Idoiagak telebistei buruz egina duen lanean, TVEren hizkuntz politika aztertzen du azpi-sail batean[7]. Politika horren adierazgarri bezala, 1981eko ekainaren 28an RTVEko Administrazio-Kontseiluak onarturiko «Principios básicos de programación» aztertzen du.

Dokumentu honetan Espainiako batasunak duen garrantzia,

kezkagarria da. Telebistak egin behar duena, zera da: «contribuir al refuerzo de los sentimientos de unidad nacional», zeren eta, diotenez, «no es controversible el que nuestra sociedad atraviesa una crisis de identidad nacional».

Hau delarik abiapuntua, Estatuko hizkuntzei ematen zaien tratamendua bidezkoa da, beraz. Azpimarratzekoa da kultura eta hizkuntza espainolari «zor» zaionaren eta besteei «eskaintzen» zaienaren arteko aldea:

> «Los medios asumirán con plenitud la defensa, promoción y divulgación de la cultura y el idioma de la Nación española. Igualmente serán respetuosos con los hechos culturales y lingüísticos diferenciales de sus nacionalidades y regiones, fomentando su difusión y la general 'comprensión' hacia los mismos»[8].

Analisi semantiko batek zeresanik aurkituko lioke testu honi. Esanguratsua da, zalantzarik gabe, espainola «con plenitud» hartzea eta gainerakoak «errespetuz». Politika diferentziatu honen ispilatze bat da TVEko programazioa, kultur sailean adibidez. Nazionalitateetako eta eskualdeetako kultura eta hizkuntza bereziak ez dira aipatu ere egiten.

J.V. Idoiagaren ondorio beretara gatozke, azterketa sakonik egin gabe ere: Galizian zein Katalunian nahiz Euskal Herrian ematen den programaketa Prado del Rey-ren esku dagoeino, jai du bertako hizkuntzen garapenak. Euskal kulturaren eta euskararen desarroiloa, bertako telebistaren desarroiloari osoki eta estuki itsatsia dago[9].

1.2. AURREPROJEKTUAK

Euskara telebistan ikustearen errebindikazioak, arestian aipatu bezala, urte asko ditu. Euskararen marginazioaren sinboloa zen euskara telebistatik kanpoan izatea, euskaltzalearen gogotan. Errealitatea hain hitsa zen, non ez bait da harritzekoa «Euskalerria» bezalako programa batek halako arrakasta sonatua izatea; lehen esan bezala, ez horrenbeste barne-merituengatik.

Urruti zegoen, bada, euskal telebista, ametsetan. Franco hil ondoren, «dena posible zen garai hartan», posibilitate berriak lantzen hasten da euskaldun jendea, eta horien artean dago telebista. Premiaren handiak egitasmoak martxan jartzen ditu. Hiru aurkezten ditugu hemen, eskuartean ditugunak: «Anteproyecto

para una televisión vasca», «Informe para la creación de la televisión de Euskadi y red de emisoras de radio OM y FM» eta «Plan inmediato para una televisión vasca». Gorputz hartzen hasten dira ametsak. Eta projektu hauek konkretuki 1977-1979 bitartekoak dira. Gerora, Eusko Kontseilu Nagusiaren ondoren, Eusko Jaurlaritzak oso bere egiten du arazo hori aurrera eramatea.

1.2.1. «Anteproyecto para una televisión vasca»

«Asociación de Cineastas Vascos»[10] edo Euskal Zinegileen Elkarteak bere gain hartu zuen Euskal Telebista Autonomo baterako aurreprojektua moldatzea. 1978ko otsailaren 28rako burutua zen txostena. Eskuhartu zutenen artean aurki ditzakegu: L. Aizpuru, A. Amigo, J.K. Unzurrunzaga, M. Aldalur, J.M. Gutierrez, J. Franco, J.M. Villela.

Talde profesional diren aldetik heltzen diote langintzari, baina egokiera konkretuetatik at («haciendo abstracción de todo posibilismo»). Planteamendua moldatzea eta taxutzea –hitz batean, testu definitiboa– politikoen gain eta sortu berria den Eusko Kontseilu Nagusiaren esku utzi nahi izan dute.

Hiru alternatibatan biltzen dituzte artean emandako eritziak oro:

> A) ALTERNATIVA PRIMERA: Espacios televisivos vascos con texto bilingüe y con dirección, programación y realización autónomas de periodicidad variables, e insertos en una cualquiera de las dos cadenas emitidas a través del centro emisor de Bilbao entre otros dos espacios no vascos.
>
> 2) ALTERNATIVA SEGUNDA: Creación de un centro emisor de programas en Fuenterrabía similar por sus dimensiones y por la dotación de elementos técnicos y personal al existente en Miramar (Barcelona), a través del cual y con el nombre de tercer canal se emitirán diariamente extensos espacios realizados y dirigidos por técnicos tanto dependientes de Prado del Rey como del centro emisor de Bilbao.
>
> C) ALTERNATIVA TERCERA: Tras la apertura de una escuela de Televisión vasca, ubicable en un punto del territorio, lo más equidistante posible de las capitales de los Herrialdes, a la que tendrían acceso, previa la debida selección, todos los residentes del ámbito, apertura de un canal enteramente autónomo en el que respetando los techos de censura marcados por el Gobierno del Estado español, toda la actividad de creación, económica, de programación, periodicidad, contratación de anuncios, conexiones, etc. fuera enteramente autónoma»[11].

Egia esan, hiru alternatiba baino areago, hiru aldi, fase edo etapa dira horiek.

1.2.1.1. Euskararen tratamendua eta lekua

a) *Lehen alternatiba*

Programazioaren eskeman, 3. lekuan aurkitzen dugu euskararen tratamendua.

– Alde batetik, euskara bera gai bezala; alegia, euskara irakatsiko du telebistak: «una breve clase de euskera que llamaríamos la Ikastola de TVE»[12].

– Bigarren, haurren munduan bi hizkuntzak nahasirik erabiliko dira: «un espacio infantil bilingüe con entrevistas a niños de ámbito con inquietudes artísticas, culturales o científicas»[13].

– Eta hirugarren, filme txikiak azpitituluz doazke, euskal eta erdal azpitituluz: «se sugiere si el Centro Emisor cuenta con elementos para ello que a los cortos en castellano o en euskera, se adicionen subtítulos en el otro idioma de forma que el televidente que no comprenda perfectamente el euskera o el castellano, pueda seguir el programa con facilidad»[14].

Euskal Zinegileen Elkarteak proposatzen duen telebista, ikus dezakegunez, telebista elebiduna da. Ikuspuntu estatistikoa erabili dute erizpide bezala. Hobeto esan, erizpide estatistiko eskuzabala: izan ere, euskal hiztunen kopuruari % 10 eransten bait dio proposamen honek, euskararen sustatzearen alde. Honela diote hitzez hitz:

> «En la distribución de los espacios a emitir en ambos idiomas, se partiría de los datos oficiales que marcan el grado de euskaldunización actual del ámbito, rebasándolos a efectos de programación y en aras de un fomento de nuestro idioma en un 10% como mínimo, y aumentando dicho porcentaje si dicho grado de euskaldunización creciera conforme los programas se fueran sucediendo»[15].

b) *Bigarren alternatiba*

Bigarren fase honetan, emanaldi-portzentaiak gehitu egingo lirateke: bateko, entzulegoak euskarazko programak aise ulertuko balitu, eta, besteko, publizitatean euskarazkoak sartuko lirateke:

> «Condicionado todo el proceso a una comprensión *real* y sin esfuerzo de los espacios en euskera por parte de los televidentes del

ámbito, los programas que controlase la co-dirección vasca rebasarían los topes señalados en la primera etapa en lo que a porcentajes se refiere, iniciándose la inclusión de anuncios con texto en euskera en los espacios publicitarios, dando los propios anunciantes en nuestra lengua la medida del grado auténtico de euskaldunización alcanzado en el ámbito»[16].

c) *Hirugarren alternatiba*

Fase honetan, euskal telebista autonomo eta propio bat erabiltzean, telebista-eskola, tresneria teknikoa, giza taldea, irakaskuntza eta enpresa-eredua aipatzen dira, baina ez da hitzik ateratzen euskarari buruz.

Ondorio gisa esan daiteke, Euskal Zinegileen Elkarteak telebista elebiduna proposatzen duela, elebitasun estatiskoaren gain eraturiko hizkuntz programazioarekin. Hizkuntzen erabilera nahasia, eta osatzailea gainera, nahiz azpitituluekin nahiz programa berean euskara eta erdara txandatuz egina.

1.2.2. «Informe para la creación de la televisión de Euzkadi y red de emisoras de radio OM y FM»

Projektu honen abiapuntua dexente urte aurrerago dago. Gipuzkoako Foru Aldundiak lurrak eta etxea eskaini zizkion 1974ean TVEri Zentru Igorle eta Programaketarakoa Hondarribian eraikitzeko. Ez eskaintza honek eta ez geroztiko elkarrizketek eman dute fruiturik, harik eta lantalde bat eratu arte 1977an. 1977ko irailean lantalde bat eratzen du Gipuzkoako Diputazioak, telebista euskaldun baten sorkuntzari begira lan egin zezan. Hobeki esan, telebista eta irratia, biak eman zitzaizkion lantaldeari aztergai. Telebistari buruzko txostenak 12 folio ditu, M.O.E.k sinatu zuen[17] eta 1979ko maiatzean burutu zen. Lantalde horretako partaideetan izen ezagun asko aurkitzen dugu: I. Olaizola, I. Beobide, M. Oñatibia, J. Intxausti, J.M. Etxebeste, J.M. Iriondo, J.J. Azurza.

Txosten honen egitekoa azpiegituraren muntaia pentsatzea da, euskal telebista batek har dezakeen biderik ez bait du inork ezagutzen. Izan daitezkeenen artean, hiru bide ikusten ditu txostenak:

a) hirugarren kanal esklusiboa sortzea.

b) bigarren kanala esklusibitatez telebista autonomiko bezala erabiltzea.

c) bigarren kanala ordu batzutan erabiltzea.

Hiru posibilitate hauetatik edozein gauzatzen delarik ere, Hondarribiako estudiotan gertatuko lirateke programak.

Txosten denetan honek zehazten ditu gehien telebista eta bere ingurua. Bereziki nabarmentzen du telebistaren eskola sortu beharra. Ikerketa aski zehatza aurki genezake bertan eskola honen hainbat alderdiri buruz: lekua, talde irakaslea, funtzionamendua, tresneria teknikoa, aurrekontuak, programaketa, eginkizunak.

Telebista euskalduna, ETV (txostengileek honela idazten dute), «el vértice de la pirámide del quehacer cultural vasco» bezala ulertuz, ez dira estonagarriak aitortzen dizkioten helburuak, gerora, bestalde, horren maiz errepikatuak:

> *«Tecnología para impulsar al máximo el proceso de concienciación nacional vasca, de su personalidad diferenciada a través de la euskaldunización y consiguiente afirmación cultural vasca»*[18].

Hizkuntz arazoaren azterketak bere lekua du txostenean. Hiru puntu bereizten dira hor hizkuntz tratamenduaren alorrean:

1. Elebitasuna ez da hemen emanaldi-orduen portzentaien banaketaren arabera ulertzen.

2. Aurkezle guztiek jakin behar dute euskara. Izango da programarik euskara edo erdara hutsez. Baina bai informatiboetan eta bai intereseko igorpenetan, bi hizkuntzak berdenboran erabiliko dira. Esan nahi bait da, adibidez, mahainguru batean euskaraz zein erdaraz egin dezaketela solaskideek, aurkezleak edo moderatzaileak beste hizkuntzan laburpena egiteko modua egin behar duelarik.

Aldibereko elebitasuna, eta osatzailea, proposatzen dute.

3. Hirugarren puntua haurren programaz ari da: euskara ahalik eta lasterren sartzera jo behar da programa hauetan.

1.2.3. «Plan inmediato para una televisión vasca»

Plangintza honen egilea J.J. Azurza da. Telekomunikabideetan Injinerua, gizarte-komunikabideen idazkari teknikoa izan zen Eusko Kontseilu Nagusian (1979.05.21-1980.04.30), eta Eusko Jaurlaritzan gizarte-komunikabideen Zuzendaria (1980.05.19-1982.04.30).

Helburu argi bat markatuz hasten da J.J. Azurza: Euskal Herriko erakundeen esku egongo den telebista propioaren sistemaz hornitu behar du Euskadik. Nola egin hori, hona oraingoz batere argi ikusten ez dena. Hipotesi bat baino gehiago aztertzen du:

a) TVEk Euskal Herrian eskaintzen dituen erraztasunez baliatzea.

b) Katea berri bat sortzea, Eusko Gobernuaren esku legokeena.

c) Euskal erakundeek berek programa batzu eratu eta TVEren kateatik ematea.

d) Legeria aldatuz, telebista-katea pribatuak Euskadin sortzea.

Lehen aldi batean TVEren estazioak erabili beharko badira ere, J.J. Azurzak TVE honi bi salakuntza egiten dizkio: bat, azpiegitura eskasa izatea Euskal Herrian (Telenorte), eta bi, baldintza horietan euskal programak ordurik txarrenetan izatea. Kostu handia eta etekin txikiegia.

Plangintza bat berehalakoan martxan jartzea proposatzen du J.J. Azurzak. Bi etapatan: bat, «hemos de crear un plan mínimo culturalmente idóneo», eta bi, «otro plan más completo considerando aspectos culturales y políticos».

Plagintza honen helburuak ere, bere motxean, argi eta garbi agertzen dira proposamen honetan:

> «Los dos objetivos deben ser para el PNV la euskaldunización, la vasquización, el afianzamiento de la identidad vasca»[19].

Plangintza honen barruan, berehalako ekintzak proposatzeko orduan aurkitzen dugu euskararen arazoa. Gauza asko egin behar denbora berean, hala nola: RTVren jokaera lurralde autonomikoetan ezagutu, Eusko Kontseilu Nagusiak Telenorte kontrolatu, finantzaketa aurkitu, eta, noski, koloretako estudioak antolatu. Azken puntu honetako zortzigarren eginkizuna bada ere, hementxe aurkitzen dugu euskararen lehen erreferentzia: «formar equipo de doblaje al euskera»[20].

Telebista elebiduna proposatzen du J.J. Azurzak. Gutxienez bi kanal nahi lituzke egileak, bata osoki euskaraz. Kanal bat bakarra balitz, ordea, euskara/erdara, ordutegiak txandatuz izango lirateke. Euskarazko programa hauen emanaldi-esparrua Euskal Herri osoa da, erdal eskualdeak ere bai, espreski azpimarratzen duenez.

Trantsiziozko eta aldi bateko etapa bezala ulertzen du J.J. Azurzak euskara eta erdara kanal beretik ematea, baina ordu desberdinetan kasu horretan ere, adibidez, TVEren bigarren kanala Gobernu autonomikoaren eskuetara igaroko denean. Egiazko soluzioa bi euskal kanaletan dago: bata euskaraz eta bestea erdaraz[21].

1.3. INDEFINIZIOTIK LAUGARREN KANALERA, BIDE LUZEA

Telebista errebindikazio-gai izan da lehenik. Gero, urteak geroago, estudiorako gai eta projektu zehatz.

Euskal Telebistaren asmoa, gogoa, eskaria, exigentzia plazaratzen da lehenik. Gero badira, ikusi berri ditugun aurreprojektu hauek bezala, hurbilketa eta zehaztapen batzu. Baina ikusi dugu zein airean zegoen euskal telebistaren definizioa eta diseinua. Ez dago projektu argi eta definiturik. Urrats asko egin da asmoetako eta ametsetako telebista horren atzetik. Euskal telebistak definizio bila egin duen bide horixe agertu nahi genuke hemen.

1.3.1. Eredua airean 1979an

Telebista propio baten guraria, errebindikapena eta bilaketa, ikusi berri dugunez, bazegoen 1979 aldera. Hori argi dago. Batere argi ez dagoena, telebista horren diseinua da.

Saio, ahalegin eta analisi guztiak bi aukera nagusi hauen artean kokatzen dira. Mutur batean, telebista arras propioa dago, sortzeko dagoen katea. Beste muturrean, TVEren oraingo sarea, non hutsarte batzuez baliatzerik izango den. Batean zein bestean daude abantailak eta desabantailak. Lehen bidearen abantaila nagusia, bistan da independentzia dela. Desabantaila, aldiz, finantzaketa astuna. Bigarren bidearen abantaila azpiegiturarena da, baina desabantailak ugari; horien artean, Prado del Rey-rekiko dependentzia eta programazio-orduen desegokitasuna.

Tartekoa izango litzatekeen hirugarren bide baten hipotesia ere airean dago: hirugarren kanala. Futboleko Mundu-Txapelketa dela bide antolatu eta hedatuko litzateke honen sarea, eta honetaz balia daitezke Estatua eta Komunitate Autonomoak akordio baten bidez.

Hiru bide desberdin, eta denak airean. Eta bitartean, Irrati-Telebistaren Estatutua eztabaidatzen ari ziren Madrileko Gorteetan.

Indefinizio hori maiz aurkitzen da garai hartako literaturan. Ez aztertzaileak eta ez agintariak zekien nondik nora jo eta nola joka. Erakuskari bezala, hona garai hartako Eusko Kontseilu Nagusiko Kultur Kontseilari zen Gotzon Olarteren deklarazioa, 1979ko urrian:

> «Según se desprende de las negociaciones habidas con el Gobierno español el segundo canal de TVE podría pasar a manos de las Comunidades Autónomas e incluso existe la posibilidad de crear un tercer canal»[22].

Indefinizioa, hasteko, Madrilen dago, ez bait dago eskaintza garbirik negoziatzeko orduan, gerora lasaiago ikusiko dugunez. UCDren fluktuazio politikoek badute honetan zerikusirik.

Indefinizioa dago Euskal Herrian ere. Ikusi berri ditugu dudamudak zertan ziren. Aipatu aukera horiez gain, telebista pribatuak bazuen defendatzailerik bere aldetik[23].

Horren profil eskaseko egoera honetan, Euskal Gobernuak hautapen erabakiorra eginen du, hots: telebistarako Eskola eraikitzea, jendea prestatu ahal izateko, edozein hipotesitan ere azpiegitura hori premiarik larrienekoa zenez. Horrela, bada, edukina eta formula juridikoak argitu bitartean, prestakuntza profesionala lantzen da. Eta hori euskaraz. Eskola hau da, inolako zalantzarik gabe, euskal telebistarako egin den lehen urrats erabakiorra. Diputazioko lantaldeak proposatu zuenetik egin da biderik. Euskara «de forma no demasiado elemental» ezagutzea eskatzen zuen haien txostenak. Profesionalki euskaraz gertutzea da oraingo eskolaren filosofia[24].

1981ean, aldiz, askoz argiago du hautabeharra Eusko Jaurlaritzak. Bide luzea egin da, egin ere, 1979tik hona. Datarik gabe aurkitu badugu ere, zalantzarik gabe 1981eko bezala eman dezakegun dokumentu batetan, bai aurrean dituen aukerak eta bai jokabidea, biak ditu argi eta garbi Eusko Jaurlaritzak. Urte honetantxe hartzen da laugarren kanaletik jotzeko erabakia. Diogunaren argigarri da Eusko Jaurlaritzaren hurrengo testu hau:

> c) *Actitud del Gobierno Español. Alternativas.*
>
> c) 1. Las opciones que tenemos son: realizar nuestra Red TV,

como 3.° Canal de RTV, o crear de forma autónoma un 4.° Canal Vasco. Los estudios realizados son aplicables a ambas soluciones.

c) 2. Opción 3.° Canal. Se basa en la presentación por parte del Gobierno Español, a las Cortes Generales de un proyecto de Ley autorizando su creación. Gestión y financiación de las inversiones y de los costos a cuenta de la Comunidad Autónoma. No habría problema de frecuencias y existiría la posibilidad de dar a parte de los gastos el carácter de computables. Fue la fórmula que se adoptó en los acuerdos firmados con Arias Salgado. Resultado: nulo.

RTVE da a los eventuales Terceros Canales un carácter de COMPLEMENTARIEDAD con respecto a los otros dos, con primacía en las mejores horas a los programas «nacionales» de carácter común. Por otra parte se pretende regionalizar el euskera o el catalán no solamente en un sentido geográfico, sino sobre todo en un sentido conceptual. Se les reservan los campos de interés «local». Lo demás, incluídos los doblajes de producciones extranjeras (base de la programación) son monopolio del castellano. Esta concepción que no parecía existir en la época Suárez/Arias, es hoy muy clara. Por otra parte, no está claro, a la vista del eventual desarrollo de las TV privadas, si el Estado mantiene la idea de los Terceros Canales, como no sea en un bajísimo nivel infraestructural e informativo.

c) 3. Opción Cuarto Canal. Por aplicación directa del artículo 19 del Estatuto.

Es de sentir que el texto no se redactara con mayor precisión técnica, pero de todas formas, si la Comunidad Autónoma puede «crear, etc.», se sobreentiende que el Estado detentor de frecuencias y bandas VHF tendrá que señalar las disponibles para la Comunidad Autónoma, sin lo cual la potestad del artículo 19 pierde todo contenido.

Sabemos que existen reservas de frecuencias y sabemos cuáles son (en particular las del hipotético Tercer Canal) y las que usarían las TV privadas). La concesión de frecuencias es una cuestión de simple voluntad política. Sí o no. El resto se resuelve en una Comisión Mixta Técnica a nivel de ingenieros.

c) 4. La situación es pues clara: el Gobierno Español puede optar por concedernos el Tercer Canal o las frecuencias necesarias para operar el Cuarto (esta última solución sería la mejor para NOSOTROS), o puede negar ambas, o puede dar largas al asunto, como lo ha venido haciendo.

En caso de negación rotunda, sólo cabe el Tribunal Constitucional, la movilización popular y seguir adelante con la realización del proyecto acoplando nuestras instalaciones a las bandas de frecuencias que sabemos que están libres. Si da largas al asunto, realmente no cabe otra opción que la expuesta anteriormente: movilizar la opinión, realizar las obras, y prepararnos a un choque frontal en el momento de empezar a emitir o antes.

1.3.2. Negoziaketaren zenbait urrats

Eusko Jaurlaritzak, eta honen aurretik Eusko Kontseilu Nagusiak, zenbait urrats egin izan du telebistaren atzetik. Seinalatu ditugun zalantzak, ereduari buruzkoak batez ere, ez dira behingoan ezabatuko. Historia lekuko –eta orain hemen dakartzagun datu hauek historia horrexen erakuskari dira–, gogoa, bilaketa, zalantza eta definiziorik eza, dena nahasian ageri zaigu, oraingo ikuspegitik begiraturik. Hari kronologikoak erakusbidetzen du hobekien esfortzuaren handia.

1979

Urte honetan bi urrats garrantzitsu egin dira:

- Lehena: Idazkaritza bat eratzen du Eusko Kontseilu Nagusiak, Euskal Telebistaren arazoa ikertzeko, planifikatzeko[25].
- Bigarren urratsa, urte bereko abenduan egiten da: Gernikako Autonomi Estatutua. Legeria honetantxe arautzen da Euskadiko gizarte-komunikabideen arazoa. Honetan funtsatzen da laugarren kanala eratzeko erabili duten lege-babesa, Eusko Jaurlaritzaren intepretazioan, hain zuzen 19. artikuluan eta 6. agindu iragankorrean.

1980

- Urtarrilaren 10ean, Moncloako Ituna sinatu eta hiru hilabetera, Espainiako Gorteek RTVEren Estatutua onartzen dute. Eusko Jaurlaritzaren salakuntzen arabera, Moncloako Itunarekin kontraesanean dago Estatutu berri hau, bi puntutan bederen:

Aurrerantzean RTVEk onartu behar ditu frekuentziak eta potentziak. Hori bateko. Eta besteko, Gorteen baimena behar du hirugarren programak, zein ez den hasiko, gainera, harik eta bigarren kanala Espainiako lurralde osora iritsi arte[26].

- Ekainean, «Comisión Mixta de Transferencias» delakoak txosten bat egiten dio Espainiako Kultur Ministrariari, Komunitate Autonomoaren nahiak eta desioak agertuz, telebista eta irratia eskatuz, nahiz eta gero, benetako orduan, tratu-gaietatik at geratu izan[27].
- Hilabete geroago, uztailaren 24ean, RTVEko Zuzendari Nagusiak erantzun egiten dio Eusko Jaurlaritzako Kultur Kontseilaria-

ri, eskariak oro praktikan ukatuz. Arrazoiketa honekin: jabegoa Estatuari dagokio eta frekuentziak jadanik harturik, okupaturik daude. Telebistari dagokionez, eskaintzen duena zera da: bat, RTVEren aldetik, Euskal Herriari begira egindako programak gehitzea. Bi, koprodukzioak egitea edota erostea. Hiru, hirugarren kanala RTVEren Estatutu Juridikoaren bigarren artikuluaren arabera bere garaian erabakitzea. Eta lau, Produkzio-gune bat hemen egitera konprometitzea[28].

- Urriaren hiruan akordio nagusi bat izenpetzen dute Eusko Jaurlaritzako Kultur Kontseilariak eta RTVEko Zuzendari Nagusia zen Fernando Arias Salgadok. Testu honek izugarrizko garrantzia izan zuen Eusko Jaurlaritzarentzat, alde batetik, bere egitasmoa ia osoan betetzerik zegoelako, eta, bestetik, laugarren kanala sortzeko Estatutuaren interpretazioa onartzen bide zuelako.

Testu hau bere osoan emateak merezi du, negoziaketarako hartu zuen pisua kontutan izanda:

> «En relación con la Televisión de la Comunidad Autónoma Vasca se ha llegado a los siguientes acuerdos:
>
> 1.° Tomar las medidas oportunas para la aplicación del artículo 2.°, punto 2, del Estatuto de la Radio y la Televisión. En este sentido se preparará por Radiotelevisión Española, en el plazo de un mes, un proyecto técnico, así como un estudio económico y un calendario para proceder a la instalación de un canal de televisión propio de la Comunidad Autónoma del País Vasco, que podría estar en funcionamiento dentro del segundo semestre de 1982.
>
> 2.° Sin perjuicio de lo dispuesto en el apartado anterior, RTVE emitirá, dentro del cuarto trimestre de 1980 y, en todo caso a partir de 1.° de enero de 1981 (de acuerdo con el Gobierno Vasco) hasta 20 horas semanales de programación específica para el País Vasco, salvaguardando el porcentaje y distribución de los horarios establecidos para la programación nacional. El número de horas se irá incrementando a medida que se vayan mejorando las condiciones técnicas y las disponibilidades financieras de RTVE en la Comunidad Autónoma.
>
> 3.° Dentro de esta línea de potenciación de la programación específica con destino a la Comunidad Autónoma del País Vasco, que podrá ser indistintamente en euskera y/o castellano se dará prioridad al establecimiento de un programa informativo en euskera, diario, que se emitirá a partir de la hora de cierre de la emisión nacional de la segunda cadena de TVE (UHF), respetando los límites horarios de terminación de toda la emisión con carácter general.

4.° Sin perjuicio de lo previsto en los apartados anteriores, ambas partes contemplan acuerdos concretos por la vía del correspondiente contrato para comprar, o en su caso, coproducir, programas que produzca o proponga la propia Comunidad Autónoma, aumentando en consecuencia, las horas de emisión previstas en el apartado 2.°

5.° Respecto de otras posibles instalaciones de televisión, de acuerdo con lo previsto en el Estatuto de Autonomía del País Vasco, el Gobierno español se compromete a plantear la reserva de frecuencias necesarias a estos efectos, ante los organismos internacionales competentes, así como, en su caso, para el resto de las Comunidades Autónomas»[29].

R. Labaienek, aurretiaz esana dugun bezala, sarri egin dio dokumentu honi erreferentzia. Eta K. Garaikoetxea lehendakariak, Madriletik bueltan, deklaratu zuen: «Euskadi tendrá su televisión»[30].

1981

- Uztailaren lehenean, Kontzertu Ekonomikoa lortzearekin batera, 500 milioitako aurrekontua inbertizen du Eusko Jaurlaritzak Euskal Telebistaren eraikuntzan[31].
- Irailaren 11n «laugarren kanala» sortzeko gertu dagoela dio Eusko Jaurlaritzak. Baimena bakarrik behar, omen[32].

Matías Rodríguez Inciarte, Lehendakaritzako Ministrariak eta R. Labaien, Kultur Kontseilariak irailean izan zuten elkarrizketaren ondorioz, urrian «Comisión mixta técnico-jurídica» eratzen da. Administrazio Zentrala, Eusko Jaurlaritza eta RTVE ziren partaide. Frekuentzien banaketa aztertzea zen eginkizuna[33].

- Abenduaren 31n Eusko Jaurlaritzak «Radio Vitoria» erosten du[34].

1982

- Otsailaren 2an Madrileko Gobernuak eskuratu egiten du hirugarren kanala sortzeko baimena gestionatzeko eskumena.
- Maiatzaren 20an, «Euskal Irrati-Telebista» Herri Erakundea sortzeko 5/1982 Legea sinatzen du Karlos Garaikoetxea lehendakariak.

• Uztailaren 19an, 157/1982 Dekretuaren bidez, «Euskal Telebista-Televisión Vasca, S.A.» akzioetako sozietatea eraikitzen du Kultura Sailak. Dekretu berean eratzen da «Eusko Irratia-Radiodifusión Vasca» ere.

1983

• Urte berriarekin batera, ETBk lehen igorpena egiten du.

1.3.3. **Laugarren kanalaren erabakia eta arrazoiak**

Zalantzarik gabe, laugarren kanala aukeratzeko arrazoi nagusia ez da Madrilerekin eramandako negoziaketan edo sokatiran aurkitu behar, nahiz eta horrelakorik aditzera eman une hartan arduradunek. Egiaz eta benetan Eusko Jaurlaritzak nahi duena zera da: euskal gizarte-komunikabideen azpiegitura sortu eta indartu. Eta koordenatu horietan ETBk du muntarik handiena.

Besterik da, ordea, noiz eta zergatik erabaki zuen Eusko Jaurlaritzak laugarren kanaletik zuzen-zuzenean jotzea. Hemen bai izan zuela zerikusirik negoziaketak («Forcejeo más que negociación», zioen J.J. Azurzak). Geroko azterketan agertuko denez, Eusko Jaurlaritzaren egitamuan hasieratik dago laugarren kanalaren proposamena, baina ez derrepenterako. Bigarren aldirako zegoen programatua, aurretik bi kanal estataletatik eta sortzear zen hirugarrenetik igaro ondoren.

Arazo ekonomiko, legezko eta tekniko guztiak hor zirela, «por la calle de en medio» jo zuen Eusko Jaurlaritzak, R. Labaienen hitzetan, «hasta que la Guardia Civil venga a apagar nuestros transmisores»[35]. Erabaki ausart hori hartzera eraman zituzten arrazoiak, hauek izan ziren, beren hitzetan:

a) *Madrilek ez du bere hitza bete.* Argudio hau maiz erabili du Labaienek. Hitz hori ez du bete, ez epeei buruz, eta ez hirugarren kanalari buruzko dekretu-legeari buruz. Arias Salgadorekin 1980ko urriaren 3an sinaturiko dokumentuak ere ez zuen fitsik balio izan, Castedok, adibidez, baliogabetu egin bait zuen espreski.

> «Nosotros nos hemos lanzado por la red propia de la Comunidad Autónoma porque TVE no ha cumplido sus fechas ni el Gobierno Central ha llevado todavía al Parlamento la ley de creación de ese tercer canal»[36].

1981ean, laugarren kanalaren erabakia hartu zen momentuan, Eusko Jaurlaritzaren eta Madrileko Gobernuaren arteko harremanak, telebistari buruz, nola ziren jakiteko, interesgarri da Eusko Jaurlaritzaren barne-dokumentu honen borradorea. Honela dio gure arazoari dagokion pasarteak:

> «En las negociaciones iniciales con Madrid, y debido a la (a)normal voluntad, reiteradamente confirmada de la Administración Central en el tema de concesión de frecuencias, cuya información se ha negado sistemáticamente a dar y que desde nuestro punto de vista es difícil de conseguir, porque no podemos establecer relaciones con entidades internacionales a menos que pasen por la propia Televisión Española se contemplaba en un principio la posibilidad de hacernos cargo del Tercer Canal, Canal de las Autonomías en su dimensión de la Comunidad Autónoma y a este efecto se firmaron unos acuerdos con Arias Salgado y Suárez que no han sido llevados a efecto. Acuerdos que preveían la presentación por parte del Gobierno Español al Parlamento Español de un proyecto de Ley autorizando la concesión de este tercer canal a la Comunidad Autónoma Vasca, se sobreentendía que la financiación de esta infraestructura correría por cuenta de la Comunidad Autónoma, que la gestión estaría exclusivamente en manos de la propia Comunidad Autónoma y que los costos de operación consiguientemente serían también de la Comunidad Autónoma. Ante la ausencia de una respuesta de cumplimiento de estos acuerdos, el Gobierno ha estudiado con las casas [comerciales] y en las condiciones que se acaban de describir la posibilidad de establecer un Canal independiente. El Lehendakari le planteó el tema al Sr. Calvo Sotelo indicándole de hecho que la implantación de un canal de televisión autónoma, un cuarto canal, simplificaba los problemas, puesto que lo único que se pedía a la Administración era la concesión de las bandas de frecuencias necesarias para operar. El Sr. Calvo Sotelo, en el transcurso de la entrevista que el Lehendakari mantuvo con él, llegó a un acuerdo mediante el cual la Administración concedería y daría la información técnica necesaria de esas frecuencias en el transcurso de septiembre, sin que hasta ahora lo hayan hecho (...)
>
> En la eventualidad de una negativa a responder de la Administración Central sobre este tema estrictamente técnico, nosotros nos disponemos a asumir pura y simplemente las bandas de frecuencias que sabemos que están reservadas o que estaban reservadas al Tercer Canal de las Autonomías. Tercer Canal cuya existencia por otra parte parece problemática que subsista en los planes de Televisión Española, teniendo en cuenta los vientos que soplan a nivel de televisiones privadas»[36bis].

b) *Madrilek minikatea bat nahi du.* Telebistari buruzko ulertzapen ezberdina dago Eusko Jaurlaritzak nahi duenaren eta Madrileko Gobernuak eskaintzen duenaren artean. Eskaria, telebista «oso», arrunt eta komentzional baten eskaria da. Eskaintza, aldiz, txiroagoa da. RTVEren geroagoko Zuzendariaren, Calviñoren, hitzak erabiliz, telebista osagarri eta antropologiko bat eskain dezake gehienez ere Madrilek. Iñigo Agirreri sinestekotan, adibidez, Castedoren ustez, albisterian eta kiroletan erabil zitekeen euskara, baina pentsatzerik ere ez zegoen filmeak euskaratzean edo programa dramatikoetan euskara erabiltzean [37].

Castedo, RTVEko Zuzendari Nagusi bezala Ajuriaenean egon ondoren, R. Labaienek, Gobernuko bozeramaile gisa, Madrileko Gobernuak euskal telebistari buruz zeukan «eskualdekatze kontzeptuala» salatu zuen[38].

Negoziaketaren historia, bi filosofia hauen konfrontaketaren historia izan da etengabe:

> «Hay una discrepancia fundamental de criterios entre lo que nosotros entendemos por televisión de la Comunidad Autónoma y la concepción que tiene la Administración Central. Para ella su tercera cadena, que es lo que nos ofrecían hasta ahora, no es más que una minicadena de interés puramente regional»[39].

c) *Madrilek ez du euskara sendotu nahi.* Eusko Jaurlaritza komentziturik dago, hasieran ez bada ere gero bai, euskara duintasunez erabiltzeko modu bakarra laugarren kanala dela. Deklarazio bat baino gehiago dago zentzu honetan. Helburu hori bete ahal izateko, lehen bi kanalek ez dute biderik eskaintzen, euskara, horietan, «betegarri» edo «eranskin» hutsa zelako. Kanal autonomiko bezala ezagutzera eman zenak berak ere ez zuen, antza, eskaintza onargarririk egiten, eta are gutxiago 23-F sonatuaren ondoren. Labaienek honela azaltzen du auzia:

> «Orain arte Madridek epeak ez ditu bete, eta hori argi dago. Denak dakigu Espainiako Estatuari, PSOE edo UCD izan, AP edo CD, ez zaie ETB gustatzen, badakitelako euskara sendotzea, herri hau sendotzea dela, eta hori ez dute nahi, hori denak dakigu, jaunak, ez gaitezen engainatu»[40].

2. EUSKO JAURLARITZAREN EGITASMOA

2.1. EUSKO JAURLARITZAREN GIZARTE-KOMUNIKABIDEEI BURUZKO POLITIKA

Orain arte asmoak, aurregitasmoak eta tramiteak ikusi ditugu. Aurreprojektuetan iniziatiba pribatua, ofiziala eta paraofiziala ikusi ahal izan dugu. Tramitazioetan, negoziaketan Eusko Kontseilu Nagusia hasieran eta gero Eusko Jaurlaritza burubelarri sartu dira.

Jokamolde hori ulertzeko, adoptatu den formula interpretatzeko, euskal telebistaren oinarriak eta helburuak ezagutzeko, ezinbestekoa da legeriari eta Eusko Jaurlaritzaren programei begiratu bat ematea. Horixe da kapitulu honetan eginen duguna: zein den Eusko Jaurlaritzaren gizarte-komunikabideei buruzko politika aztertu eta asmo horiek egikaritzeko eman dituen legeak arakatu.

Kultur eta euskalduntze-politikaren barruan, Eusko Jaurlaritzak bi hedadura azpimarratu nahi izan ditu batez ere: irakaskuntza eta gizarte-komunikabideak. Hirugarrena, dudarik gabe, Administrazioa da.

– Komunikabideetan lehentasuna ikusentzungailuek izan dute, prentsa idatziaren gainetik.

– Ikusentzutezko komunikabideetan, azpiegitura egitera eta medio propioak sortzera jo du. Ez horrela prentsa idatzian, adibidez. Estatutuan oinarrituz, eskumena, titulartasuna, jabegoa bere esku hartuz egiten ditu projektuak, Estatuaren azpiegitura eta sare komunikatiboa bere horretan utziz.

– Euskal komunikabideen hizkuntz politikak elebitasuna du helburu, egiazko eta benetako elebitasuna, Eusko Jaurlaritzako hizkuntz arduradunen esanmoldean. Erdararen nagusigo soziala eta kulturala kontutan izanik, Eusko Jaurlaritzaren egitekoa batipat euskara laguntzea da, bi hizkuntzen parekidetasuna lortzearren[41].

– Ikusmolde horretan EITBren eginkizun handienetakoa –handiena ez bada– euskara promozionatzea da. Komunikabideak, hein handi batetan, hizkuntz politikaren tresna dira. Nolabait esan, euskararen egoeraren zerbitzuko, edo gutxienez funtzionalki hari loturik daude. Ez, halere, euskararen irakaskuntzaren edo erreprodukzioaren zerbitzuan, euskara erabiltzeko eta normalizatzeko baizik[42].

– Eusko Jaurlaritzaren gizarte-komunikabideekiko hizkuntz politika balioztatzeko, ETB ez da eredu ona. Projektuaren zati bat besterik ez bait da. Telebista elebiduna falta zaio aldamenean, panorama osatzeko. Euskal Irratia adibide hobea da, eredua argitzeko[43].

2.1.1. Gizarte-komunikabideekiko legeria

Atzera esan behar dugu: hastapenetik bertatik bere komunikabide propioak edukitzera jo zuen Eusko Jaurlaritzak. 1980-1984 Egitamua klarki mintzo da[44]. Bide horretatik egin zuen lehen urrats praktikoa, «Radio Vitoria» erostea izan zen (1981.12.31). Irrati hauxe izan da era honetara bereganatu duen bakarra. Gainerako azpiegitura hutsetik sortu du, ETB eta Euskadi Irratia-Radio Euskadi, konkretuki.

Azpiegitura propio eta moderno bat sortzean zekusan Eusko Jaurlaritzak bere politika propioa eratzeko modu bakarra. Eduki, bi jokaera posible zeuzkan aurrean: kontzesioarena eta kreazioarena. Kontzesioak Madrileko Gobernuarekin konbenioa suposatzen du eta, gainera, azpiegitura Administrazio Zentralaren esku gelditzea. Kreaziotik jota, aldiz, Komunitate Autonomoa bere infraestrukturaren jabe gelditzen da gerorako ere. Aukera elkar-ukatzailerik ez du egin nahi izan Gobernu autonomikoak: kreaziotik joko du, baina, noski, akordio bidezkoa ukatu gabe. *De facto*, ordea, berak sortu duen egiturari eutsi dio, eta apenas erabili duen bide estatala. Alegia, ETB sortu du, eta ez du oso bero jokatu hirugarren kanalaren bila, adibide ulerterraz bat jartzearren.

2.1.1.1. Autonomi Estatutua

Euskal Herriko gizarte-komunikabideen[45] oinarrizko legeria Estatutuaren 19. artikuluan dago. Hiru puntutan banatzen da artikulu hau, eta hirurak dira garrantzizko:

> «19.1.: Euskal Herriari dagokio giza komunikabideei dagozkienetan Estatuko oinarrizko legeria aurrera eramatea, Konstituzioaren 20. artikuluan agintzen dena beti ere errespetatuko delarik.
>
> 19.2.: Titulartasun estatala duten komunikabideei aplikatu behar zaien arautegi bereziari dagokionez, goiko parrafoan aipatu diren gaien bururapena Estatutuarenarekin koordinatuko da.
>
> 19.3.: Artikulu honetako lehen parrafoan esaten den bezala, Euskal Herriak erregula, sor eta atxiki ditzake bere telebista, irrati eta

prentsa propioa, eta, oro har, bere helburuak lortzeko behar dituen giza komunikabide guztiak»[46].

Artikulu honi buruz, eta berebat 6. agindu iragankorraz, Eusko Jaurlaritzak egiten duen interpretazioa ezagutzeko, hiruzpalau ohar egitea komeni da[47].

a) Komunikabideei dagozkienetan, Komunitate Autonomoak badu eskumenik Estatuko oinarrizko legeria desarroilatzeko. Muga bakarra, honetan, Konstituzioaren 20. artikulua da eta ez geroko EJRTVE. Autonomi Estatutua lege organikoa da eta lege arrunta EJRTVE, eta, beraz, lehena nagusi denez, ez dute parekidetasunik.

Titulartasunaren auzian, Eusko Jaurlaritzaren ulertzapenean, badira Estatuarenak diren medioak eta Komunitate Autonomoarenak direnak (edo izan daitezkeenak, eskubide aldetik).

b) Titulartasun estataleko komunikabideak kontzesio-sistemaz jasoko ditu Komunitate Autonomoak. Horien jabea Estatua da beti, eta Komunitate Autonoma kudeatzaile zuzena.

Komunikabide hauetan Komunitate Autonomoaren eginkizuna Estatuko oinarrizko arauen lege-garapena eta obratzea da, Estatukoekin koordinatuz. Horretara dator 19.2 artikulua eta aldibateko seigarren agindua. Hirugarren kanalaren kasua litzateke hau.

c) Eta, azkenik, 19.3 artikuluaren arabera, Komunitate Autonomoak bere-bere dituen komunikabide propioak sor ditzake. Komunitate Autonomoaren eskumena, horietan, osoa da eta espreski onartzen zaio erregulatzeko, sortzeko eta atxekitzeko eskubidea. EITBren kasuan gaude hemen: titulartasuna nahiz kudeakuntza nahiz programazioa, Komunitate Autonomoaren esku da hasieratik bururatzeraino. Kasu honetan ere Estatuaren mende gelditzen da frekuentzien eta potentzien banaketa, baina automatikoki eman beharreko bezala[48].

2.1.1.2. 'Euskal Irrati-Telebista' Herri-Erakundea

1982ko ekainaren 2an agertu zen Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian «Euskal Irrati-Telebista Herri-Erakundea sortzeko Maiatzaren 20ko 5/1982 Legea».

Lege honen bidez, Autonomi Estatutuan, 19. artikuluan, aitortzen zaion eskumena erabili nahi du Komunitate Autonomoak, gizarte-komunikabideak arautuz. Herri-Erakunde hau, honela,

Komunitate Autonomoaren titulartasuna duten irrati eta telebistarentzat pentsatua dago, eta erabakitzeke gelditzen da hor kontzesioz eskura daitezkeen komunikabideen integrazioa; eman dezagun, hirugarren kanalarena.

Legearen barne-muinei so, ezin esan nobedade handirik dakarrenik. Jakina denez, RTVEko legearen kopia ia hutsa da. Bietan berdinak dira, adibidez, printzipio orokorrak, hala nola, objektibotasuna, egiatasuna, alderdikeriarik eza, eritziaren eta informazioaren arteko zehazketa eta bereizketa, etab. Lehen zazpi puntuak, honelaxe, bietan berdin. Zortzigarren puntuan aurkitzen dugu etxeko ekarria, euskal kulturari eta euskarari begira egina bait da:

> «La promoción de la cultura y lengua vasca, estableciendo a efectos de la utilización del euskara, los principios básicos de programación, teniendo presente la necesidad de equilibrio a nivel de oferta global de emisiones radiotelevisivas en lengua vasca en la Comunidad Autónoma»[49].

Azpimarra dezagun euskararen promozioa eta euskararen erabilpena, biak printzipio mailan dauzkagula hemen emanik.

ETBri komunikazio-tresna den aldetik aitortzen zaizkion eginkizunetan ere gauza bera ageri da. Eginkizunok bitan banaturik, bateko, informaziorako eta herritarren eskuhartze politikorako lehen mailako tresna da EITB: eta, besteko, hezkuntz sistemarako eta euskal kulturaren sustapen eta zabalkunderako oinarrizko tresna. Hezkuntz sistemari eta kulturari lotuz, gainera, euskararen sustapena eta desarroiloa eduki behar ditu kontutan.

Hori bai, euskararen promozioa lehen puntan agertzen da, alegia, printzipio eta egiteko mailan; baina ez da inon esaten, legearen barruan, ETBk euskaraz izan behar duenik. Segun eta euskararen promozioa nola ulertzen den, agian bai; promozioa berdin erabilpena egiten bada. «Necesidad de equilibrio a nivel de oferta global» delakoak ere ez dirudi elebakartasuna nahitaez eskatzen duenik.

Esan nahi bait da, legearen hitzetan (izpirituan, auskalo!) ez dagoela ETBko erabilpen-hizkuntzaren definiziorik. Are gehiago: zeharbidez bederen, 16. artikuluko bigarren puntuan, Zuzendari nagusiaren hautapena dela eta, programak bi hizkuntzatan izango direla adierazten du legeak. Hona aipamena:

> «**Teniendo en cuenta que el desarrollo de los programas será bilingüe**, para la designación de Director General se valorarán los co-

nocimientos suficientes de los dos idiomas oficiales en la Comunidad Autónoma» (Nik azp.)[50].

Hau seinalatu beharra dago, praktikan gero besterik ikusi da eta. Baina hori da legeak jaso duena.

2.1.1.3. Euskararen erabilpenaren normalizazio-legea

Normalizazio-lege honetan, bidezko denez, euskara eta gizartekomunikabideak inon baino elkarri lotuagoak ageri dira. 1982ko azaroaren 24eko 10/1982 Oinarrizko Legea da. Hirugarren kapituluak gai hau du: «Giza komunikabideetan euskeraren erabilpena»[57].

a) *neurri konkretuak*

Euskarari eta erdarari, Euskal Herriko hizkuntza ofizialak izaki, biei berdin-balioa eta parekidetasuna aitortuz hasten da 22. artikulua: «...hizkuntza ofizialen erabilkera berdindu dedinera joz». Ezer suposatzekotan, euskara indartzea suposatzen du honek. Eta, zehazki komunikabideei dagokienean, euskararen erabilpenak du lehentasuna, parekidetasuna bermatu ahal izateko, hain zuzen (23. art.): «...bi hizkuntzen arteko kidetasuna bermatzeko... euskera lehenengotasunez erabiltzea...» Konkretuago, euskararen normalizazioa bultzatuko da RTVEn, euskararen presentzia egokia segurtatzeko. Orokorrago, euskararen erabilpena bultzatu eta babestu egingo da komunikabide idatzietan eta ikusentzutezkoetan, euskararen zabalkuntza eta erabilpen-ahalbideak indartuz (24-25 art.) «...RTVEn hizkuntza arauzkotzeari bultza (...) euskal argitalpenak sustatzeko eta babesteko neurriak...»

b) *hizkuntz politika*

Neurri konkretu horiek gorderik duten hizkuntzaren filosofia, koordenatu hauetan zehatz genezake:

– euskal herritarrek euskara ezagutzeko eta erabiltzeko duten eskubidea arautu, hizkuntza hori berezkoa eta ofiziala denez.

– promozio-ekinbidea hartzen du Eusko Jaurlaritzak euskara gaixorik, bakarrik, isolaturik eta egoera diglosikoan dagoelako. Orain arteko zapalkuntzak eta oraingo tolerantziak heriotzara eramango bait lukete, hizkuntzen arteko erlazio-indar honekin.

– elebitasunaren onarpena, instituzionalki eta sozialki. Elebitasun osoa, hots, «bi hizkuntzetan jendetza guzia, maila eta arlo

guzietan, eta pertsona arteko harreman guzietan, inolako diferentziarik gabe baliatzea», hona Hizkuntz Kontseilariak, P. Etxenikek, lege honen alde emandako hitzaldian zioena[52]. Erdaraz mintzo direlarik, «bilingüismo real y efectivo» esan ohi dute[53].

– diskriminazioa, euskaldunari egiten zaiona, noski, saihestea. Inor ez diskriminatzekotan, parekidetasuna erdietsi behar da. Eta horretarako, nahitaez, euskara bultzatu eta indartu.

Gure aldetik, azken ohar bezala erants dezagun, arestian esana azpimarratuz, atentzioa ematen duela komunikabideen ubikazioak, kokamenak, Eusko Jaurlaritzaren planteamenduetan: euskal komunikabideen testuingurua, askotan, hizkuntz politika da.

2.1.2. Gizarte-komunikabideekiko politika programetan

2.1.2.1. «1980-1984: Jaurlaritzaren egitamua»[54].

a) *deskribapena*

Gizarte-komunikabideen ataltxo honen kokalekua seinalatzetik hasi behar dugu. «Kultur politika» sail orokorra, eta gureari zuzenki dagokion azpisailaren titulua, esanguratsua: «Potenciación y creación infraestructural y estructural al servicio de la cultura vasca»[55].

91 lerrotako atala da. Sarreratxo baten ondoren, bi puntutara zabaltzen da gaia. Desarroilatu, bietatik bat bakarra desarroilatzen da, telebistari dagokiona, zeren eta bestea, irratiarena, hitz gutxitan despatxatzen bait da. Aipatu 91 lerro horietatik 65 eskaintzen zaizkio telebistari.

b) *ETBren planteamendua*

Norabide nagusiak eta etapak bereizten ditu programak. Jokaera bikoitza izango da nagusi: bateko, TVEren azpiegituraz baliatzea; eta, besteko, azpiegitura propioa sortzea. Bigarrenak, azpiegitura propioaren lorpenak, du printzipiozko lehentasuna. Denboraren araberako lehentasuna, aldiz, TVEren sarea erabiltzeak, egingarriena bera bait da.

Bi aldi eta hiru fase markatzen ditu programak. Prozesu luze baten barruan ulertzen ditu Eusko Jaurlaritzak lehen aldiko bi faseok. Bigarren aldi definitibo horretarako urratsak dira, iragankorrak bere horretan, eta gerorako lantaldeak gertutzeko baliagarri. TVEko kanaletan sakonki eta luzarora lan egiteko gogorik ez du

Eusko Jaurlaritzak sekula erakutsi. Baliabide horietaz baliatzeko pronto agertu da, baina tarteko eta aldibateko edo probisional bezala. Eusko Jaurlaritzaren gurariak izen eta izan bat zuen: ETB.

Euskal telebistaren prozesu honen lehen aldiko bi faseak honela egikarituko dira. Alde batetik, TVEren 1. eta 2. kanalak erabiliko dira, RTVErekin konbenio bat eginez. Hobeto esan, kanal horietatik eskualde-mailakoaz bakarrik dago baliatzerik. Programa horietan Komunitate Autonomoak bere lantaldeek buruturiko programa propioak izango ditu, eta, bereziki eta espreski esaten denez berri-emanaldi bat euskaraz.

Lehen aldi bereko bigarren fase batean, hirugarren kanalaren inplantazioa azkartzera jo behar da TVErekin konbenioa eginez. Komunitate Autonomoak horren finantzaketan parte hartuko luke, eskuharmen hori honela baldintzaturik: ekoizpenean, programaketan, emanaldietan eta sarearen ustiapen-kontuetan Komunitate Autonomoaren eskuhartze osoa eta kontrola, lege aldetik garantizatu beharko luke RTVEk; eta bigarren baldintza: 18 hilabeteren buruan kanal horrek martxan egon beharko luke[56].

Bide hauek erabilita, prozesu hau martxan jarrita, badago euskal telebistaren kanala planifikatzerik eta obratzerik, teknologi bilakaera kontutan izanik. Telebista hori, ETB, euskalduna izango da jabegoaren zein hizkuntzaren aldetik. Kanal honixe dagokio, batez ere honixe, «la defensa y promoción de nuestra cultura»[57].

Aldiei eta faseei jaramonik egiteke, oraintxetik bertatik oinarrizko lanetan hasi behar dela proposatzen du programak. Lan guztietan beharrezkoena eta oinarrizkoena, giza lantaldeen formazioa da[58].

Hutsetik hasita egin behar da muntaia eremu honetan. Elementu hauek izango ditu oinegiturazko plangintza honek:

- Esatari, elkarrizketari eta bikoizketarien Formazio-Zentrua.
- Bikoizketa eta ekoizpen-Zentru profesionala.
- Ekoizpen-Zentru nazionala, produkzio propiorako.

2.1.2.2. «1984-1988: Jaurlaritzaren egitamua»[59].

Konstatazio bat eginez abiatuko gara hemen: Eusko Jaurlaritzaren egitamu honek ez du proposamen aldetik batere interesik komunikabideen alorrean. Halere, hiruzpalau puntu azpimarra daitezke komunikabideekiko politikaren adierazgarri gisa.

a) Legeztatze-aldi honetan gizarte-komunikabideek ez dute atal propiorik eduki ere programaren barruan, aurrekoan gertatu zenaren kontrara. EITBri eta prentsa idatziari aipua egiten zaie, egia, baina «Política de defensa y promoción del euskara» sailaren barnean. Indikatzaile interesgarria da komunikabideen kokaleku hau.

b) Konkretuki EITBri dagozkionetan proposatzen dena, hasitako lanari segida ematea da; zehazkiago: lan-koalifikapena, eta dauden edota daudekeen emisora-sareen egituratze egoki eta funtzionalki dibertsifikatu batera iristea.

c) Komunikabide idatziekin beste modu batez jokatuko da. Hemen ez da kreaziotik jotzen. Jadanik indarrean dagoen azpiegituraz baliaturik, euskararen normalizazioak eskatzen dituen minimoez hornitzea litzateke Gobernuaren lanaren xedea.

2.1.2.3. Euskararen politikarako oinarriak [60].

Euskararen Aholku Batzordeak kriteriologia bat argitara zuen 1983an. Batzordearen asmoa eta egitekoa Eusko Jaurlaritzari laguntzea da, honek euskarari buruzko edozein ekintza erabakitzerakoan, lehentasunak erabakitzerakoan, zer egin eta zer egin gabe utzi erabakitzerakoan nola joka jakin dezan.

Kriteriologia honetan munta handia dute komunikabideek. Gizarte-bizitza euskaldundu ahal izateko elementu eta bitartekoen artean, irakaskuntzak hainbateko garrantzia dute gizarte-komunikabideek, eta «hauen artean irratia eta telebista dira eragingarrienak»[61]. Garrantzia eta lehentasuna, bada, irratiak eta, batez ere, Telebistak izango dute. (Egunkariak eta aldizkariak –konstatazio mailan esan dezakegu– maila oso apala dute hauen ondoan).

Telebistari eginkizuna ikusi, batipat gizarte mailako giroa euskalduntzean ikusten dio Aholku Batzordeak, eta «irakaskuntzak berak adinbat garrantzi edo gehiago izan dezake kultur lanak hizkuntzaren bizitzarako ezinbestekoak diren arloak eta pertsonaiak euskaraz okupatze garaian»[62].

Gizartea eta bizitza arrunteko giroa euskalduntzea eta euskalduntasunean sendotzea lortzeko tresna aparta da ETB, Hizkuntz Batzordearen gardiz. Baina ez horretarako bakarrik.

Alfabetatze- eta euskalduntze-lanetarako ere tresna egokia gerta daitekeela ETB, gogoratzen dute:

«Euskal Telebista, eguneroko bost orduko programatik kanpora, alfabetatze eta euskalduntze lanetarako erabil daiteke»[63].

Aipatu arlo eta eginkizun horiek tertzioz bete ahal izateko, proposamen-sail bat egiten du Aholku Batzordeak:

a) telebistari eta irratiari lehentasuna ematea gizartea girotzean.

b) hizkuntzaren bizitzarako garrantzizkoak diren gaiak euskalduntzea.

c) hizkuntzaren bizitzarako eragin handikoak diren pertsonak eta pertsonaiak euskalduntzea.

d) telebistan hitzegingo duten eta azalduko diren pertsonak euskalduntzeko eta berauen prestakuntzarako eskolak.

e) helduen arteko euskal girorako euskarara itzulaldaturiko filmeen garrantzia.

f) telebista eta irratiko euskararen eta egunerokoaren arteko hurbiltasuna.

g) gizarte-bizitzako programen lehentasuna.

h) haurrentzako, gaztetxoentzako eta gazteentzako programen euskaldundu behar urgentea.

i) Euskal Telebistako eta Irratiko euskararen erantzukizuna izango duen arduradun bat.

j) Bi katea egotea posible balitz, bata osoki euskalduna izatea[64].

2.2. ETB EREDU ETA DEFINIZIO BILA

Laburbilduz, honetantxe datzala ETBren berezitasuna esan dezakegu, hots: euskaraz izatean. Hizkuntzaren aldetik da alternatiboa ETB, eta ez du izan nahi horrelakorik ereduaren aldetik.

Ondorio gisako puntu horiek aldez aurretik adieraziz, aztertu behar dugu orain, zehatz-mehatz zer-nolako telebista egin nahi izan duen Eusko Jaurlaritzak. Bazter utzi dituen ereduak eta egin izan dituen aukerak, bai diseinuaren aldetik eta bai hizkuntzaren aldetik. Aukeren testuinguruaz hobeto jabetzeko, pentsatu dugu hitzak bere freskotasunean jasotzea dela hoberena.

2.2.1. **ETB, alternatiba bezala**

2.2.1.1. Hizkuntz politikaren tresna

Jadanik ikusia dugu, euskal komunikabideen arazoa eta euskararena zein loturik planteatu dituen sarri Eusko Jaurlaritzak. EITB Herri-Erakundearen printzipio orokorretan zortzigarrena, hain zuzen horixe da: kulturaren eta euskararen promozioa. Gobernuaren programetan ere lotura bera nabarmendu dugu.

Gizarte-komunikabideak/euskara bikotea beste inon baino lotuago agertzen da ETBn. Honi ematen zaion dirua euskararen promozioari ematen zaiola esateraino iritsi zen Kultur Kontseilaria, R. Labaien[65]. «Instrumento de recuperación idiomática» (L. Iriondo)[66], «factor de euskaldunización» (J. Zubiaur)[67], eta gisa honetako deklarazioak sarri agertu dira prentsan. Orokorki begiratuta esan daitekeelakoan nago, euskara aurrera atera beharraren larriak, ETBren kasuan bederen, bigarren mailara eraman duela komunikazio-tresna honen informazio-alderdia. Esan nahi bait da, borroka linguistikoak borroka informatiboari gaina hartu diola ETBn.

Ildo honetatik, zera zioen Kultur Kontseilariak:

> «Niretzat [euskararen] normalizazioa lortzeko inportanteena telebista eta irratia edukitzea da eta helduen berreuskalduntzea ere bai. Hau da, eskolatik aterako diren euskaldunberriek komunikabideekin aberastuko dute beren hizkuntza. Kontutan hartu 700.000 euskaldun dagoela eta gehienak, zoritxarrez, analfabetuak ditugu. Honek gizartean prentsa eta liburuen indarra eskasa dela adierazten digu, baina urte batzutan apogeo izango da. Optimista nago baina oraindik neurriak hartzen ari gara euskara ghettotik irten dadin, eusko giroa sortu behar dugu. Gaur bilinguismoa ez da egia. Erdarak euskara txokoratzen du. Medioak ipini behar dira. Suizan trilinguismoa eman daiteke baina hemen ez dago ezer. Gure politika panorama hau aldatzea da»[68].

Komunikabide modernoen indarra eta eragina kontutan izanik eta euskararen egoera tamalgarria gogoratu ondoren, «euskararen azken esperantza» zuela gure hizkuntzak ETB, bota zuen Kultur Kontseilariak 1981ean[69]. Urte berean, beste deklarazio batzutan, ikuspuntu bera agertu zuen beste hitz batzurekin:

> «Nosotros no sabemos si la televisión será la salvación del euskera, pero lo que sí sabemos es que sin televisión el euskera no se salva»[70].

«Euskararen etorkizuna euskal irrati eta telebistaren etorkizunari loturik dago. Eta, orduan esan nuen bezala, irrati eta telebista euskalduna ukatzen badigute, hori agresio nabarmen bat da. (...) Eta bestalde, garbi esan behar da beste hau ere: Estadua ez dela kapaza euskaraz telebista eta irratia egiteko, eta hori denok dakigu zergatik den eta ez dago esan beharrik...».

«Somos conscientes de que al margen de cualquier otro planteamiento político sin radio y televisión, todo idioma está condenado a la desaparición y, desde un prisma nacionalista vasco, está claro que la desaparición del eusquera se identifica en gran medida con la propia desaparición del pueblo vasco como tal».

Tonu bereko hitzak pilatzen ez genuke lan handirik. Deklarazioetan zehar agertzen diren euskararen «salbazioa», «berreskurapena», «normalizazioa» edo alfabetatzea, euskalduntzea, berdin dio, denek dute esangura bera: euskararen promozioa telebistaren bidez.

Irakaskuntzarekin eta Administrazioarekin batean, komunikabideetan jarri ditu euskalduntzeko esperantzarik bizienak Eusko Jaurlaritzak. Eta komunikabideetan, zertan esanik ez, ETBk du lehoiaren partea; bera da, izan ere, prestigiotsuena eta indartsuena. Eta horrexegatik hautatu du Gobernuak. Tresnaren prestigioak hizkuntzari berea erantsiko bide dio, *the medium is the message* macluhandarra aintzat harturik. Euskararen ospe sozialerako komunikabideen eginkizuna aipatzen du sarri A. Areizagak[71]. Prestigioa bateko, eta indarra besteko. Telebistaren eragin ahaltsuari esker, Euskal Herriko etxerik itxienera eta zokorik bazterrenera iristeko asmoa azaltzen da; eta, aldi berean, giroa euskalduntzekoa, euskara kaleko hizkuntza bihurtuz, eguneroko joko eta usadioetan integratuz eta hau bereziki haurrengan.

2.2.1.2. ETB, telebista arrunta eta osoa

Telebistaren arduradunen burutan garbi dago: ETBk telebista arrunta izan behar du, normala. Edozein telebistak munduan dituen funtzio berak bete behar ditu. Desbideraketa litzateke bestelako eginkizunetarako erabiltzea ETB.

ETBri, bere bizitza laburrean, aurkeztu zaizkion hautabeharrak honela sailka genitzake: bat, telebista alternatiboa izatea; bi, irakaskuntza formalari lotzea; eta hiru, euskararen irakaskuntzari lotzea.

a) *ETB, telebista alternatiboa?*

Telebistaren negoziaketa-garaian, behin batean honela ihardetsi omen zion Kultur Kontseilariak Arias Salgadori: «Objetivo de la televisión vasca? Muy sencillo: ser tan mala como la española»[72]. *Boutade* honekin esanez, telebista komentzionalaren atzetik zebilela Eusko Jaurlaritza, alegia, euskaraz eginez euskaldun guztien etxeetara sartuko zen telebista bat nahi zutela.

ETBk ez du izan nahi telebista alternatibo minoritarioa. Minoritario da izan, baina bere mugak (kalitatearenak eta) hizkuntzarenak dira eta ez gai minoritario, elitista edo kulturalistei egoztekoak. Telebista alternatibo bat egiteko ez unea ez lekua da orain eta hemen, ETBko Zuzendari berriaren ustetan:

> «Vamos a dejarnos de rizar el rizo. En cuanto a hacer una televisión distinta, bien, vamos a hacerla, con un país distinto, con una sociedad distinta, con unos profesionales distintos, con una clase política distinta y con una lengua distinta. La imaginación al poder pero con todas las consecuencias»[73].

b) *ETB berdin ikastola?*

Israelgo telebista edukazionala proposatu izan da inoiz ETBren eredu bezala[74]. Arduradunek ez dute begi onez ikusi horrelakorik. ETB ez zaio gaur artean irakaskuntza formalari lotu. Gehiago esango genuke: telebista pedagogiko-didaktikoaren tentaziotik libratu nahian, ihesi bezala, ibili delakoan nago. Horixe zela euskal telebistaren lehen funtzioa uste zuen askok; azken batean, ETB ikasgela handi bilakatzea.

ETB haurrentzako telebista bezala hartu duenik ere bada[75]. Egia da haurren programek pisu erlatibo handia dutela ETBren programaketaren barruan. Batez ere hasieran. Orain ere bai, nahi bada, baina kontutan eduki behar da produkzio propioak ez duela oraino dagokion lekurik.

Esplikazioak esplikazio, halere, ezin da esan korapilorik gabeko arazoa denik hau. L.M. Bandres Kultur Kontseilari berriak egindako deklarazioek eman dute sesio-biderik euskal kultur munduan. Agian goizegi da galdetzeko deklarazio horietan ETBren norabide-aldaketarik irakurri behar den ala ez. Baina, gaude, Bandresek proposatzen dituen aldaketa horiek ez direla «berrikutuak» –berak dioen bezala– zerbait sakonagoa baizik. Hona hemen hitzez-hitz:

«En el terreno más concreto, tenemos como objetivo potenciar el mundo del niño desde la televisión dentro de la vertiente de programas específicos de producción propia (...) pretendemos impulsar los programas en euskera dirigidos a los niños que son el futuro de cara a la supervivencia y extensión de nuestra lengua. (...) y me parece, a título personal, que no tiene sentido que programas que ya son conocidos en otras televisiones, como Dallas por ejemplo, se repitan en Euskal Telebista, aunque ya sé que ha tenido su impacto psicológico en gente mayor el hecho de que unos personajes ya conocidos hablen en euskera. De todos modos, habría que ver las encuestas»[76].

c) *ETB berdin euskaltegia?*

Euskara indartzea, bultzatzea eta promozionatzea zituelarik xede bezala, pentsa zitekeen euskarazko klaseak emanen zituela ETBk. Hots, alfabetatzerako eta euskalduntzerako tresna bezala erabiliko zela, agian gehienbat. Ez da horrela gertatu. Euskararen irakaskuntza, nolabait esan, «Berbetan» programan bakarrik egon da presente, aurrerantzean bestelako asmorik bada ere, HABErekin elkar-lanean. Euskararen Aholku-Batzordeak berak ETB alfabetatze- eta euskalduntze-lanetarako erabiltzea proposatzen duenean, «eguneroko bost orduko programatik kanpora» eskatzen du[77], eta ez telebistari bere funtzio propioa janez.

Berrikitan Amatiñok deklarazio batzu eginak ditu ikusgune hau argituz:

«No sé qué razones podría haber para que la gente pensara esto. El que así lo entendió no comprendió la función social de ETB que pretende ser una cadena de televisión convencional, en la que los objetivos didácticos-pedagógicos a la hora de estructurar una programación, en absoluto están en el campo de las previsiones.

(...) frente a la opción de televisión convencional existe la de una televisión educativa que hoy por hoy, no es conceptual ni presupuestariamente ETB»[78].

«Muchos se equivocaron, creyeron que íbamos a utilizar la televisión para enseñar el idioma. Quien crea que TV sirve para eso, no conoce el medio. Los idiomas se aprenden en aulas. La televisión es para informar, formar y entretener en el país que sea»[79].

d) *Telebista arrunta eta osoa da ETB*

Aurreko puntuan definiturik gelditu da ETBren bokazioa, oraingo Zuzendariaren hitzetan. Zentzu berean doazen deklarazio

gehiago ekarriko dugu hona, orain arte esandakoari protagonisten ahotsa jartzeko.

Lehenengo eta behin, Eusko Jaurlaritzaren barne-dokumentazioko testu bat. 1981ekoa izaki, garbi ikusten da hor ETBren programazio-ereduaren erabakia ez dela azken ordukoa. Bestalde, ETBren filosofia beste inon baino argiago daukagu ustez R. Labaienen testu honetan:

> b) *La Programación.*
>
> b) 1. Los programas base de toda televisión son: Informativo, Producciones dobladas, Producciones propias, con, eventualmente entre ellas, programas docentes. Entre las producciones propias: películas de diverso carácter y presupuesto, shows/espectáculos-/concursos (tipo Kiko Ledgard), informes de actualidad, mesas redondas y programas con fuerte contenido intelectual/cultural (y baja audiencia).
>
> b) 2. Al cabo de los años, TVE ha formado de alguna manera los gustos del público, que se inclinan por las grandes películas dobladas, grandes seriales doblados, telefilms americanos (tipo Angeles) doblados, dibujos animados idem, y los informativos reportajes (partidos de fútbol, etc.) asimismo documentales con garra (Rodríguez de la Fuente).
>
> Exito, asimismo, de las producciones fílmicas propias (tipo Cañas y Barro), limitadas en número por su costo, y de los shows /concursos.
>
> El gusto del público vasco es a todos los efectos, el del español. Si queremos que nuestra televisión se vea tendremos que ofrecer programas similares.
>
> b) 3. Programas, pues, similares, y a las MISMAS HORAS PUNTA de audiencia. Por tanto, competencia sin paliativos entre TV española y TV vasca. En Madrid son conscientes de esto y ello implica muchas reticencias por su parte.

Amatiño izan da arduradun guztietatik perspektiba hau gehien landu duena:

> «Telebista hau telebista arrunt bat da, profesionala izan nahi duena, eta ahalik eta hizkuntzaren aukera handiena egiten duena. Hemendik aurrera teknikak ematen dizkigun baliabide guztiak erabiltzera joko dugu, bide horretatik ahal dugun telebista normalduena eta interesgarriena burutzearren»[80].

Komentzionaltasun, arruntasun eta normaltasun hori bitan ikertu behar da: gaien aldetik eta hizkuntzaren aldetik.

Gaien ikusgunetik begiraturik, programazioari begira, barne-oreka egokirik ez du agian oraino ETBk. Lehen ere seinalatu dugu produkzio propioa eskas duela oraindik. Baina prozesu baten barruan ikusi behar dela iruditzen zaigu. Hori egikaritu bitartean, asmoak epaitu beharko ditugu, praxia bera baino ere gehiago.

Hizkuntzaren ikusgunetik begiraturik, esan dugu euskaraz izatean datzala ETBren berezitasuna. Hobeki esan, telebistako arlo, arazo eta gai guztiak euskarak okupatzean:

> «Lo más importante de haber introducido el euskera en televisión es el tratamiento de total normalidad que se ha dado al euskera dentro de esa misma televisión»[81].

Orain arte kapitulu honetan ikertua laburbildu nahian, ETBko Zuzendariak egin txosteneko zati batzu aldatuko ditugu hona:

> «En cuanto a la lengua de expresión utilizada y los contenidos de su programación, es obvio que, aparte de otras consideraciones más o menos marginales, nadie hubiera reivindicado un nuevo canal de televisión si no fuera por el carácter diferenciador de la lengua.
>
> Aun siendo conscientes de las limitaciones que de tal opción se derivan, es claro que ETB se creó para ser una televisión en euskera y si algún día cambian las tornas, estaríamos ante un gran engaño. No se puede olvidar la razón por la que se creó ETB. Sería un fraude el que el euskera fuera utilizado como excusa y no como objetivo.
>
> ETB es un proyecto que nació como alternativa lingüística de un modelo cultural que los nacionalistas entendemos que es el que el país quiere y necesita.
>
> ETB, como alternativa linguística y cultural a otras cadenas, es un medio de comunicación que pretende dar información del país y para el país y que es consciente de que su propia definición le exige una producción propia, motivo por el que el próximo año estará ya en marcha el Centro de Producción»[82].

2.2.2. **Euskara/erdara ETBn**

Arduradunen deklarazioetan ez dago batasunik ETBko hizkuntz politikaz. Koherentzi falta agerian dago. Emanaldiak hasi bezperan, hizkuntzaren tratamendua artean erabaki gabe zegoela salatzen zuen E. Ibarzabalek[83]. Geroago, bi linea daudela arazo

horretan aditzera ematen zuen EHEk, arras euskararen aldekoa eta erdara sartu nahi zutenena[84]. Eta artikulu berean, «gaurko kultur arduradunek Euskal Telebista elebiduna izateko bidetan jarri nahi dute», ondorioztatzen zuen talde berak.

Zer da egiaz eta benetan gertatzen dena? Hori argitzeko, arazoak sailkatu egingo ditugu eta aipu bakoitza bere testuinguruan jarri.

2.2.2.1. ETB, ehuneko ehun euskaraz

Laugarren kanal nazionala ehuneko ehun euskaraz izango dela agindu zuen 1980ko abuztuan Kultur Kontseilariak, «1980-1984 Jaurlaritzaren Egitamua» urrian argitara eman aitzin[85]. Labaienen deklarazio honek koherentzia handia du: bata bestearen ondoan datoz hizkuntz politika, komunikabide-politika eta erabaki politiko irmoa:

> «Es principio del Gobierno que no hay Euskadi sin euskara. Que el euskara tiene que llegar a ser la lengua de todos los días y que la forma más rápida de llegar es tener los medios de comunicación, televisión y radio, en euskara todos los días del año y aquí no estamos ante una cuestión de costos sino una cuestión de supervivencia. Por lo tanto la nación tiene que pagar lo que haga falta, es decir que el presupuesto, el Gobierno se niega hasta a considerarlo. No vamos a escatimar gastos porque nos jugamos la existencia de la nación. No se trata de una opción de partido sino una opción puramente nacional.
>
> En ese momento, en una primera fase, tendríamos el primero y segundo canales del Estado español en castellano. Y un tercer canal en euskara. En el futuro estarían los dos canales del Estado más el tercero bilingüe y el cuarto canal, el nacional vasco, cien por cien en euskara»[86].

Labaienek berak, bai Kultur Kontseilari gisa eta bai bozeramaile bezala, badu makina bat horrelako deklarazio. Bi sonatuenak aipatuko ditugu hemen, gainerako guztien lekuko:

> «El Gobierno desea crear una televisión que no solamente sea vasca sino euskaldun»[87].
>
> «Telebista euskara hutsez ez bada, ni ez nauzue telebista horretan ikusiko, nik hori esan dezaket»[88].

2.2.2.2. ETBren «elebitasuna»

Aurreko deklarazio «maximalista» horiek gesaltzera datoz artean eta gero agertzen den beste asko, gehienak. Erdararen nolabaiteko sarrera-modua, askotan justifikatzen edo onartzen da: «necesario complemento del castellano» (Labaien), «televisión fundamentalmente en euskera» (A. Areizaga), «casi exclusivamente en euskera» (Amatiño), «íntegramente en euskara con subtítulos en castellano» (L. Iriondo).

ETBn erdara sartzeak esplikazio asko du, zalantzarik gabe, eta mota askotarikoak eduki ere. Bistan dagoena da, Eusko Jaurlaritzak ezin izan duela praktikara eraman 1980-1984 programan agindu zuen komunikabide-politika. Lehen aldiko etapak erre egin ditu eta, horiek erabiltzeke, bigarrenera pasa da zuzenean, ETB sortzera. Baina gaur ETBk –neurri apalean, hori bai– bietatik du: hibridoa da, hirugarren eta laugarren kanalak, bi kateetan banatu behar zirenak, gurutzatu egin dira[89].

Auzi hau zertan den hurbilagotik ikusi beharko genuke ETBko hizkuntz tratamendua zer-nolakoa den zehatz-mehatz atzemateko. Erdararen presentzia hori banan-banan araka dezagun, egin diren deklarazioen eta eman diren urratsen ildotik.

a) *Erdara programa-sail guztietan*

Josu Zubiaur izan zen lehena ETBn erdara parrastadaka sartuko zela abisatu zuena[90]. Jadanik Eusko Legebiltzarrean, Kultura Sailburuorde bezala, deklarazio sonatuak eginak zituen, non esan bait zuen hizkuntz erabilpenaz ez zegoela deus erabakita Jaurlaritzaren aldetik[91]. Aditzera eman zuen, gainera, sail guztietan sartuko zela erdara. Apirilean zen hori. Handik hilabete batzutara, telebista indarrean jartzeko lau hilabete eskas falta zirela, burua lehengo lepotik du Kultura Sailburuorde eta ETBko Zuzendariak. Josu Zubiaurri sinestekotan, ETBko barruti guztietan sartuko da erdara: programa entretenigarrietan, nahiz albisterian, nahiz kulturazkoetan.

> «Para la programación en euskera no se va a tener en cuenta el porcentaje de euskaldunes. Tenemos que examinar la oferta global televisiva, no sólo la de la televisión vasca, y en la actualidad TVE ofrece 16 horas de programación en castellano. En esta situación la programación total de la televisión vasca no llegará en su primera fase al 20 por ciento de la oferta global, por lo que aunque toda la programación fuese en euskera, que no lo será, no alcanzaríamos ese porcentaje.

El objetivo básico es equilibrar la oferta de euskera en los programas de entretenimiento para recuperar y frenar el proceso de deseuskaldunización al que la propia televisión ha contribuído. En los programas informativos, que es otra de las áreas de televisión, no podemos restar a una parte mayoritaria de la población unas noticias sobre los problemas que le interesan y en consecuencia tendrán que ser bilingües o en castellano, pero al alcance de todos los vascos.

Es algo que está en estudio. En el área cultural los programas tendrán que dar cabida también al castellano»[92].

Labaienek berak, hilabete zenbait beluago, ez ditu bere Sailburuordearen deklarazioak itzalgabetzen. Alderantziz baizik. Azaroan, telebista sortzear dagoela, euskara/erdara ETBn portzentaien bidetik planteatzen du. Kultur erakunde zenbaitekin izan zuen solasaldiaren laburpena, honela eman zuen *Deia* egunkariak:

«Ordu erdi batez han-hemengo albisteak emango dira, erdia erdaraz eta beste erdia euskaraz. Entretenigarriak diren emankizunetan ehuneko 60 euskaraz egingo da. Erreportaietan, berriz, ehuneko 30. Euskal Telebista euskaraz izango zela gehienbat erantzun zien Labaienek, nahiz mila eragozpenekin bidean topo egin»[93].

Azken bi deklarazio hauek 1982koak dira, abuztukoa bata eta azarokoa Labaienena. Labaienek berak, urtearen hasieran, EHEren «Gabonetarako Irratia/Telebista Euskaraz» kanpainari nolabait erantzunez (*Deia*, 82-01-20), Eusko Jaurlaritzaren projektua definitzen du: ETB euskaraz izango da, baina «flexibilidade apur bat beharko dugu». Erdarak sarrera izango du, beraz: albisterian zalantzarik gabe, eta haurren konkurtsotan agian:

«Gure proiektoa, kanala euskaraz egitea da. Hor ez daukagu dudarik. Orain, informatiboak guztiz euskaraz egingo bagenitu, Espainiako telebistari utziko genioke gaztelaniaz informatzeko eginkizun guztia, eta hori agian ez zaigu guztiz homenigarri izango. Beste kasu batzu ere badira, gaztelaniara jo beharrez aurkituko garenak. Haurren konkurtso bat baldin bada esate baterako, eta tartean euskaraz mintzo ez den haur bat ageri bazaigu, haur horri galdera gaztelaniaz egin beharko zaio. Flexibilidade apur bat beharko dugu. Hitz batez, beste erremediorik ez denean, gaztelania erabili beharko dugu, baina guk telebista euskalduna nahi dugu, eta hortan, programa handiak, ikuslego asko dutenak, «grandes relatos»en modukoak etabar, euskaraz hutsik izango dira».

b) *Erdara albisterian*

Gertatuaren mailan, ez da programazio-barruti guztietan sartu erdara. Informatiboetan, aldiz, bai, eta auzirik bizienak ere hortxe gertatu dira, *de facto*. EHEk egin zuen kanpainaren ondoren ere, 1983ko abenduaren 19an erdal informatibo bat sartu zuten ETBn.

Telegunkari baten emankizuna erdaraz egingo zela, jakin bagenekien hasieratik. Iadanik 1982ko prentsaurrean adierazia zuen A. Areizagak[94]. Eta telebista hasi zen egun berean, Erakundearen Zuzendariak ezin argiago esan zuen: «A partir del 15 de enero, informativos en euskara y castellano»[95].

Agindu bezala ez egiteko arrazoiak, teknikoak izan dira soilki, printzipioek lehengoan bait diraute. Egiazki, «proba gisako» aldian, euskara hutsez izan dira, urrirarte. Telebista martxan jarri eta gero ere, euskara hutsez ari zirenean, Informatiboen buruak, Amatiñok, deklaratzen zuen:

> «Por el momento los informativos serán íntegramente en euskara, aunque no tenemos decidido cómo será más adelante el tanto por ciento de euskara y castellano»[96].

1983ko urrian, erdarazko «teleberri» dela eta, halako iskanbila sortzen denean, arrazoi du Amatiñok, zera gogoratzean: «erabakia, erabaki ofizial bezala berria bada ere, albistea Euskal Telebista bezain zaharra da»[97].

Auzia, ordea, ez dago hor. Aurretiaz jakin ala ez jakin, berdin dio. Axola duena besterik da, erdararen sarrera eta horretarako arrazoiak.

Arrazoi hauen argudiaketa jasoko dugu hemen, Amatiñok eman arrazoiak aztertuz, berau izan bait da zuzen-zuzenean arazo honi aurpegi eman diona, arduradunen aldetik.

Telebistaren gainerako barrutietatik aparte balioztatzen du Amatiñok albisteria: «con la información hemos topado» idazten du berak[98]. Informazioak bere egiteko propioa du, eta bere joko propioa.

Informatiboen eginkizunen artean herritar guztiak informatzea dago («el objetivo fundamental es que nadie se sienta desinformado»[99]), eta herri honen integrazioa dago («herri honen integrazioa informazio bateratuan datza»[100]).

Erdal informatiboaren okasioarekin, herritarren eskubideak ere gogoratzen ditu Amatiñok[101]. Eta arrazoi politikoetatik pragmati-

koetara jaisten da jarraian: horien artean dago antena etxadietan jartzea erraztea[102].

Informatiboetako erdararen aurkako erasoa ez dator, bestalde, eguerdiko teleberri horretatik bakarrik. Erdarak badu sartzeko atzeko ate bat: elkarrizketak. Sarritan salatu dute ETBren jokaera hau EHEkoek, eta partikularki L.M. Muxikak[103]. Gobernuko politikariekin gertatzen zen narraskeria salatzen zuen honek. Euskal Herriko informazio guztia erdaraz sortzen dela gogoratu ondoren, Amatiñok erantzun hau ematen du:

> «Beraz, ETB-ren informatiboak ez dira euskara irakasteko, euskal ikuspegi batez berri emateko baino. Eta ahal dela –honetaz zalantzarik batere gabe– euskaraz. Hori bai»[104].

c) *Erdara publizitatean*

Maiatzaren 20ko 5/1982 «Euskal Irrati-Telebista» Herri Erakundea sortzeko Legeak (9.e art.) Administrazio Batzordearen esku uzten du EITBko publizitatea araupetzeko arauak jartzea.

Eskumen horretaz baliaturik, 1983ko irailaren 13an txosten bat prestatzen du hark: «Normas reguladoras de la emisión de publicidad en los medios de difusión de EITB-RTVV»[105].

Printzipio nagusietan erabaki garrantzizko bat aurkitzen dugu: euskara hutsezko medioetan publizitatea ere euskara hutsean eginen da. Hona erabakia eta justifikazioa:

> «Teniendo presente que los medios de comunicación social de EITB-RTVV son un instrumento fundamental para el fomento y desarrollo del euskera, según se señala en el Art. 3h de la Ley 5/1982 del 20 de Mayo del Ente Público Vasco, la publicidad que se admita en los Medios que empleen únicamente el euskera será exclusivamente en esa lengua. En los Medios bilingües se admitirá la publicidad en cualquiera de las dos lenguas oficiales de la Comunidad Autónoma»[106].

ETBk, honen arabera, ez du zertan eman publizitatea euskara hutsean, erdara ere emankizunetan sartzen bait du. Komunikabide elebidunen tratamendua du, beraz, publizitate-kontutan.

Erdal publizitateari sarrera ematea, hain zuzen, askorentzat ETB erdalduntzearen seinale izan da, seinale bat gehiago, nahi bada.

Bada besterik ere publizitatearen alorrean. Noiz eta nola eman publizitatea, alegia. Hizkuntz jarraikitasuna ez hausteko agintzen du txosten honek: gure kasuan, emanaldia euskaraz denean, erdarazko anuntziorik ez tartekatzeko:

> «La publicidad se intercalará en los programas de la radio y de la televisión sin romper la continuidad idiomática de los programas e intentando mantener su continuidad temática...»[107].

Arau hau ez du bete ETBk. Barra-barra sartu du erdal publizitatea euskal programen tartean eta barruan. Euskadiko Ezkerrak salatu du jokaera hau, legearen kontrakotzat[108].

d) *Erdara azpitituluetan*

ETBko bilinguismo-motarik zaharrena dugu azpititulaketa. Jadanik 1978an, Euskal Zinegileen Elkarteak formula horixe proposatu zuen euskal telebistako filmeetarako[109]. Irtenbide jatortzat eman dute hori telebistako arduradunek. Horrela ulertu bide dute sarri «el necesario complemento del castellano».

Azpititulaketaren sistema, telesail eta telefilmeetan ematen da. Formula honek behin eta berriz izan ditu erasoak, zeinek alferrekotzat, zeinek oztopotzat eta zeinek kaltegarritzat joz. ETBren Zuzendariak, Amatiñok, honela egiten du defentsa:

> «Hori ez dago ukatzerik (azpitituluak erdarazkoak direla, alegia), baina era berean inork ez du ukatzen Israelgo telebista hebraieraz ez denik, eta filme guztiak inglesez eta frantsesez dira baina hebraiera eta araberazko azpitituluez. Eta nik pentsatu dezaket hobe dela subtituluak kentzea baina hor problema da jendeari zer posibilitate ematen zaion maniobratzeko. Hau da, gero nor errespontsabilizatuko da kaxa hori lehertzen bada, eta gizarte honek ez badu onartzen telebista hori?»[10].

Osagarritasunaz gain, beste funtzio bat ere iratxekitzen dio erdal titulaketari R. Labaien Sailburuak:

> «Asimismo se plantea la posibilidad de los subtítulos en algunos programas con lo que se daría un gran espaldarazo al aprendizaje del euskera por medio audiovisual»[111].

I. KAPITULUAREN OHARRAK

1. IRIONDO, L.: «La televisión autónoma en el País Vasco», *I Jornadas de Televisión autonómica*, Diputación General de Aragon, Zaragoza, 235. or.
2. *Deia,* 84.02.05.
3. *Jose Mari Iriondorekin elkarrizketa*, 85.08.25.
4. *Argia,* 950 zk., 82.10.31.
5. *Jose Mari Iriondorekin elkarrizketa,* 85.08.25. Herri irratian lan egiten zuen artean J.M. Iriondok. Eta TVEk ez zuen plantilan hartzen. Euskarazko eskola emateko, X. Kintana, P. Altuna, M. Zalbide eta J.J. Txabarrirekin mintzatu zen, baina ez omen ziren ausartzen. Agintari berriekin hitzegiten ere saiatu zen, baina emaitzarik gabe. J. M. Iriondok susmatzen duenez, Telenorte boikotatzeko erabakia ordurako hartua zuten agintari abertzaleek.
6. *Argia,* 950 zk., 82.10.31.
7. IDOYAGA, J. V.: *Televisiones regionales en Europa,* Lizentziatura-lana, Leioa, 1983, 228 or.
8. *Ib.*, 185 or.
9. *Ib.*, 186 or.
10. Jatorrizko titulua erdarazkoa du, oker ez bagaude: «Asociación de Cineastas Vascos»; «Euskal Zinegileen Elkartea»bezala itzuli dugu.
11. *Ib.*
12. *Ib.*
13. *Ib.*
14. *Ib.*
15. *Ib.*
16. *Ib.*
17. *Informe para la creación de la TV de Euzkadi y red de emisoras de radio OM y FM.*
18. *Ib.*
19. *Plan inmediato para una televisión vasca.*
20. *Ib.*
21. *Ib.*

22. *Ere,* 6 zk. 1979.
23. *Ib.*
24. *Ib.*
25. *DV,* 82.06.20.
26. *CO,* 80.07.03.
27. *DV,* 82.06.20.
28. (AZURZA, J.J): *Exégesis de la respuesta de RTVE entregada el 24.7.80.* 80.08.03. 20 or.
29. KULTURA SAILA: «Acuerdo sobre Televisión autonómica entre el Director General de RTVE y el Consejero de Cultura». Madrid. 80.10.03. 2. or.
30. *DV,* 82.06.20.
31. *Ib.*
32. *DV,* 82.06.20.
33. *CO,* 81.09.20.
34. *CO,* 82.01.20.
35. *DV,* 82.06.20.
36. *CO,* 82.08.24.
36 bis. KULTURA SAILA: (*Infraestructura de televisión. Negociaciones con Madrid. Medidas en los campos colaterales. Nuestra capacidad de producción*). Gasteiz, d/g., 3-4 or.
37. *Deia,* 81.12.04.
38. *R. Labaienekin elkarrizketa,* 85.06.26.
39. *EP,* 81.09.08.
40. *Argia,* 937 zk., 82.06.13.
41. *Euskararen erabilpenaren normalizazio-Legea,* 23 art.
42. *1984-1988: Eusko Jaurlaritzaren egitamua,* 74. or.
43. *1980-1984: Eusko Jaurlaritzaren egitamua,* 112. or.
44. *Ib.,* 110. or.
45. Erdal testuan agertzen den «medios de comunicación social» gizarte-komunikabide bezala itzultzen dugu. Kasu honetan Euskararen Aholku Batzordeak erabili terminologia onartzen dugu eta ez Legebiltzarrekoa, hemen «giza komunikabide» esaten bait da beti.
46. EUSKO KONTSEILU NAGUSIA: *Autonomi Estatutua,* 8-9 or.
47. Gernikako Estatutuaren interpretazioa eta, orobat, beste zenbait estatuturen berri izan nahi duenak kontsulta beza: GARITAONAINDIA, C.: «La televisión y las Comunidades Autónomas», *Herri-Arduralaritzazko Euskal Aldizkaria,* 2 zk., 1982, 143-161 or.
48. Josu Zubiaur-en hitzetan: «el trámite de asignación de frecuencias tiene que ser automático. Si Vd. se compra un coche le tienen que dar una matrícula. Eso es automático», *CO,* 82.08.24.
49. *EITB Herri-Erakundea sortzeko Maiatzaren 20ko 5/1982 Legea.* Ohar orokor bat: Lege honen, eta orobat «Euskararen erabilpena arauzkotzekoa»ren aipuak oro erdaraz eginen ditugu, euskarazko testua ulergaitza bait da.
50. *Ib.*
51. Lege honen 7 artikulu Tribunale Konstituzionalean inpugnaturik daude: 5, 6, 8-3, 9, 12, 13, 14, alegia.

52. Hezkuntzako Sailburu jaunak Legebiltzarrean «Euskararen erabilpena arauzkotzeko oinarrizko Legea»ren alde emandako hitzaldia, 13. or.
53. *Ib.*, 72-73 or.
54. EUSKO JAURLARITZA: *Programa de Gobierno 1980-1984 Jaurlaritzaren Egitamua,* Eusko Jaurlaritzaren Argitalpen-Zerbitzu Nagusia, Gasteiz, 1980.
55. Gainerako atalkideak hauek dira: 1) Protección y desarrollo del Patrimonio Histórico-Monumental. 2) Protección y desarrollo del Patrimonio Institucional. 3) Protección y desarrollo de los equipamientos deportivos. 4) Política de Centros Socio-Culturales. 5) Creación de instituciones públicas de proyeción cultural.
56. *Ib.*, 112. or.
57. *Ib.*, 113. or.
58. *Ib.*, 111-112. or.
59. EUSKO JAURLARITZA: *Programa de Gobierno 1984-1988 Jaurlaritzaren Egitamua,* Eusko Jaurlaritzaren Argitalpen-Zerbitzu Nagusia, Gasteiz, 1984.
60. EUSKARAREN AHOLKU BATZORDEA: *Euskararen Politikarako Oinarriak,* Eusko Jaurlaritzaren Argitalpen-Zerbitzu Nagusia, Gasteiz, 1983.
61. *Ib.*, 24. or.
62. *Ib.*, 28. or.
63. *Ib.*, 30. or.
64. *Ib.*, 28-29 or.
65. *DV,* 82.06.20.
66. *DV,* 83.05.29.
67. *CO,* 82.08.24.
68. *Anaitasuna,* 415 zk., 81 Azaroa.
69. *Deia,* 81.07.17.
70. *CO,* 81. d/g; *Deia*, 81.07.24; *EP*, 81.09.08.
71. *DV,* 82.12.27.
72. *R. Labaienekin izandako elkarrizketa.* 85.06.26.
73. *CO,* 85.02.17.
74. ARANBERRI, L.A.: «Israelgo Telebista», *Zutabe,* 4 zk., 1984, 48-51 or.
75. LETE, X.: «Idioma y convivencia social en el País Vasco», *Aula de Cultura «El Correo Español»,* 1983, 143 or.
76. *DV,* 85.06.16.
77. *Euskararen politikarako oinarriak,* Eusko Jaurlaritzaren Argitalpen-Zerbitzu Nagusia, Gasteiz, 1983, 30. or.
78. *Deia,* 84.10.01.
79. *GN,* 85.01.24
80. *Argia*, 1.028 zk., 84.09.23.
81. *GN,* 85.01.24.
82. *Informe ETB,* 1985 Maiatza.
83. *Deia,* 82.11.14.
84. *Egin,* 83.10.08.
85. *Egin,* 80.08.20.

86. *Ib.*
87. *Deia,* 81.04.24.
88. *Argia,* 937 zk., 82.06.13.
89. «Inicialmente está previsto que Euskal Telebista, es decir, Euskal Telebista cuarto canal (en nuestro concepto de Euskal Telebista está claro que la ETB actual corresponde a lo que sería el cuarto canal y sea una emisora que se exprese en euskera, como elemento fundamental para que este país alcance un día realmente el bilingüismo. Así es que, mirando a una política de medio o largo plazo, es evidente que tiene que ser un medio de expresión en euskera. Si se ha abierto una puerta, digamos a la expresión en castellano, ha sido porque de momento y teniendo en cuenta nuestras limitaciones al no poder contar todavía con el tercer canal, tal como estaba previsto en la declaración programática del Gobierno, en la primera legislatura, hemos querido cubrir esta laguna que existe evidentemente, de que ciudadanos de Euskadi, que no son euskaldunes pero sin embargo están integrados en la realidad y política nuestra y desean tener información de aquí y desde aquí y hecha por hombres de aquí, tengan la posibilidad de conectar con ETB y en este sentido, y de una manera eventual, se ha dado paso al informativo en castellano que se emite todos los días, llamado «Teleberri», pero que con el tiempo dejará de ser en castellano para serlo en euskera dado que cuando tengamos el tercer canal en explotación, que creemos será para 1986, este canal, que se dará completamente en euskera mientras que el tercero será bilingüe» (*Muga,* 32 zk., 1984, Maiatza, 30-31 or.)
90. EUSKO LEGEBILTZARRA: *Behin-behineko bilkura-aldizkaria,* Gasteiz, 82.04.02., 31. or.
91. *Ib.*
92. *DV,* 82.08.25.
93. *Deia,* 82.11.21.
94. *DV,* 82.12.27.
95. *Deia,* 82.12.31.
96. *Deia,* 83.02.02.
97. *Deia,* 83.10.14.
98. *Deia,* 83.10.12.
99. *Ib.*
100. *Deia,* 83.10.13.
101. *Deia,* 83.10.14.
102. *Ib.*
103. *Deia,* 83.10.04.
104. *Deia,* 83.10.13.
105. HERRI ERAKUNDEA: *Normas reguladoras de la emisión de publicidad en los medios de difusión de EITB-RTVV,* 84.09.13., 8. or.
106. *Ib.,* 1.10. art.
107. *Ib.,* 4.4. art.
108. *Deia,* 84.10.05.
109. *Anteproyecto para una televisión vasca,* 1978.
110. *Argia,* 1028 zk., 84.09.23.
111. *CO,* d/g.

II. PROJEKTUAREN EZTABAIDA: A) GIZARTEKO JARRERAK

Eusko Jaurlaritzaren egitasmoaren nondik-norakoa eta gorabeherak aztertu ondoren, projektu honek gizartean izan duen oihartzuna, harrera, eztabaida aztertzera gatoz. Bitan egingo dugu projektuarekiko jarreren azterketa hau. Lehen partean, orain, eztabaida horren protagonistak ikusiko ditugu; alegia, projektu horren aurrean erreakzionatu dutenak zeintzu izan diren. Alderdi politikoen, kultur taldeen, zenbait autoreren eta gizarte-multzoen jarrerak arakatuko ditugu hemen.

Projektuaren eztabaidaren bigarren partean, aldiz, jarrera horietan agertu diren arrazoiak izango ditugu aztergai.

1. PROTAGONISTA POLITIKO ETA INSTITUZIONALEN JARRERAK

Konstatazio batekin abiatuko gara azterketan barrena: euskal alderdi politikoek ez dute plangintzarik ETBri buruz eta ez dute, okerrago dena, komunikazio-programarik.

Han-hemenka bildurik genituen informazio solteak osatzeko asmotan, gutun bat idatzi genien Euskal Herrian lanean diharduten alderdi nagusitxoenei. EEk, PSOEk eta EPKk erantzun zuten materialik ez zutela esanez. Besteek hori ere ez.

Gauzak horrela, alderdien posizionamenduak jasotzeko, hiru lekune aukeratu ditugu, dauden garantiazko hiru bakarrak direlakoan: Eusko Legebiltzarra, Euskal Irrati-Telebistako Administrazio-Batzordea eta Udaletxeak.

Eusko Legebiltzarrean legeak eztabaidatzerakoan, proposamenak edo legegaiak proposatzerakoan, edota Segizio-Batzordetan izan diren eztabaida, eritzi-emateak, galderak eta jarrerak aztertuko ditugu, kasu bakoitzean, testuan bertan seinalatuz Osokoan ala Batzordean mamitu den eztabaida.

Euskal Irrati-Telebistako Administrazio-Batzordea ere aztergai da, zeharbidez bakarrik bada ere politikoa. Izan ere, nahiz eta Kontseilu honen egitekoa ez izan politikoa, alderdi politikoen ordezkari gisa daude hor partaideak. Ezin da esan, halere, ehuneko ehun direnik alderdien ordezkari. Kasurako, lehen Legeztatze-aldian Ortíz Alfau eta R. Guerra Garrido ez ziren PSOEkoak txartel eta guzti, eta K. Garitaonaindia ez zen EEkoa, nahiz eta honek izendatu. Oharpen hau gogoan hartuz irakurri behar, bada, horien deklarazioak. Hori bateko.

Eta besteko, ez Legebiltzarren eta ez Administrazio-Batzordean daude HB eta alderdi edo talde minoritario zenbait. Hauen jarreren aztarnarik ezin aurkitu izan dugu, hortakoz, instantzia hauetan.

Aipatu dugun hirugarren lekunea, Udaletxeena da. Udaletxeetan ere izan da sesiorik ETB dela eta, edo, hobe, ETBko hizkuntza dela eta. EHEk bultzaturiko kanpaina bat eta bi Udalen jarrerak nabarmenduko ditugu hemen.

Prentsa-deklarazioak ere bildu genituen. Baina landu gabe uzten ditugu, ikusirik, gehienetan, beste nonbait, konkretuki Eusko Legebiltzarrean edo Euskal Irrati-Telebistako Administrazio-Batzordean, esandakoen oihartzun edo islada direla, ekarpenik batere gabeak.

1.1. EUSKO LEGEBILTZARREAN

Eusko Legebiltzarrean gertaturiko eztabaidak eta eritzi-emateak gertatu bezala aurkeztuko ditugu, hau da, lege, projektu edo proposamenen harian.

Hiruzpalau alditan bana genezake han gertatua: bat, «Euskal-Irrati Telebista Herri-Erakundea sortzeko lege-egitasmoa»ren debatea, Maiatzaren 20ko 5/1982 Legeaz; bi, «Azaroaren 24ko 10/1982 oinarrizko legea, euskararen erabilpena arauzkotzezkoa» dela eta 1982ko Ekainaren 18, 22, 23 eta 29 egunetan gertatu debatea[1]; eta hiru, Grupo Popular Legebiltzar-Taldeak Euskal Telebistako euskararen erabilpena dela eta aurkeztu proposamen-saila (1984eko Urriaren 18an, Abenduaren 20an, eta Abenduaren 26an).

1.1.1. 'EUSKAL IRRATI-TELEBISTA' Herri-Erakundea sortzeko Legea

Lege hau aztertzean seinalatu bezala, ETB/euskara bikoteaz oso gutxi dago lege honetan.

Projektuan ere auzigai gutxi izan zen. Eztabaida bakarra, Euskal Irrati-Telebistako Zuzendariak euskara jakin beharrak sortu zuen. Bi puntutan:

7.2. artikulukia kendu egin zen Grupo Mixtok (AP), Euskadiko Ezkerrak eta Eusko Sozialistak Taldeak eskaturik. Honela zioen:

> «El Director deberá conocer las dos lenguas oficiales de la Comunidad Autónoma».

Artikulu hau ezabatzeko Grupo Mixtok eta Eusko Sozialistak Taldeak ematen duten arrazoia zera da: Telebistako Zuzendari Nagusiak *conditio sine qua non* bezala euskara jakitera behartzea. EE taldeak kokaleku desegokia aipatzen du; alegia, zuzendariaren merituez edo baldintzez aritzeko tokia ez dela hori. Eusko Abertzaleak Taldeak onartu egiten du azken arrazoi hau, bere lekua 18.h. artikulua dela aitortuz.

Halere, «euskara bai/euskara ez» eztabaida hementxe hasten da, eta gero 18.h. artikulukian zabaltzen. Errepikapen asko dago bietan, protagonistak berak dira, eritziak eta esaldiak ere bai; eta gauza bera gertatzen da osoko eztabaidarekin ere. Honegatik, egoki deritzogu posizionamenduak alderdiz alderdi biltze eta osokoak nahiz Batzordekoak eta 7. artikulukoak nahiz 18. artikulukoak pilatzeari.

Baina eztabaidara igaro aurretik, esan dezagun 7.2. artikuluki honek bagerik, projektuko 18.4. artikuluak ekarri zuela soka. Honela zegoen idatzita:

«Teniendo en cuenta que el desarrollo de los programas será bilingüe, [El Director General] deberá estar en posesión de los conocimientos suficientes de los dos idiomas oficiales de la Comunidad Autónoma, lo que acreditará debida y oportunamente».

Artikuluki honen ezabatzea eskatu zuten Grupo Mixtok (AP), Euskadiko Ezkerrak eta Eusko Sozialistak Taldeak. Kendu ez baino aldatu egin zuen Eusko Abertzaleak Taldeak.

Aldakuntzak egin ondoren, Legean 16.2. da eta honela dago idatzirik:

«Teniendo en cuenta que el desarrollo de los programas será bilingüe, para la designación del Director General se valorarán los conocimientos suficientes de los idiomas oficiales en la Comunidad Autónoma».

Garrantzizkoa da bi idazkuntzen arteko aldea: Projektuan Zuzendari Nagusiak euskara jakin egin behar du, *conditio sine qua non* bezala. Eta bigarrenean, ez; ezagutza hori balioztatu egingo zaio, beste zehaztapenik gabe. Gertakari mailan –erants dezagun– hutsean gelditu da «balioztapen» hori, EITBk orain artean izan dituen bi Zuzendariak euskara jakin gabe izendatu bait ziren.

Bai 7.2. delakoan, eta bai 18.h honetan hauxe izan da eztabaidaren funtsa: Euskal Irrati-Telebistaren Zuzendari Nagusiak nahitaez euskara jakin behar duen ala ez.

Baldintza hori kentzea eskatu zutela Grupo Mixtok (AP), Euskadiko Ezkerra Taldeak eta Eusko Sozialistak Taldeak, jadanik esana dago. Alde eta aurka azaldu dituzten argumentuak, honela laburbil genitzake:

Uriarte jauna, EEren izenean, Konstituzioaren hizkuntz trataeraren aurka azaltzen da, hasteko, erabilpen diglosikoa delako. Baina, marko juridiko honetan, euskara jakin beharraren baldintza Konstituzioaren aurkakoa izan daiteke. Meritu bezala onartuz kondizio hori, saihets daiteke Gobernu Zentralarekiko auzia. Kondizio hori, gainera, ez da beste inon ematen gaurko kargu politikoetan, testimoniala da, sinbolo hutsa, «para alegrar a ciertas masas» (Osoko Biltzarra). Baldintza hori baino gehiago gustatuko litzaioke EEri Zuzendari Nagusiak bere inguruan euskaran eta soziolinguistikan adituen talde bat eduki dezan edo Zuzendaria bera «soziolinguista izatea, euskaran esperto izatea» (J.L. Lizundia, Osoko Biltzarra). Eta noski, «ezin da egin hizkuntzaren

politikaren izenean fielato bat jarri» (Osokoa) dio J.L. Lizundiak, Eusko Jaurlaritzak izendapena erabakirik zuela susmatuz.

Grupo Mixtoren izenean, Griñó jaunak hasieratik adierazten du bere taldearen jarrera: «entendemos que para ser Director de Televisión no vemos razón para que sea imprescindible o inseparable el que el Director General tenga conocimiento del euskera» (Batzordea, 7.2.). Pena litzateke Irrati eta Telebistaren arazoetan ongi prestaturiko bat ezin aukeratu izatea, euskara ez dakielako. Positiboki puntuatzea euskararen ezagutza, proposatzen du Grupo Mixtok.

UCD taldearen izenean, Viana jaunak ez dio auzi honi garrantzi berezirik ematen. Euskara jakin beharreko kondizio hori ez du diskriminaziotzat jotzen, baina ezta premiazkotzat ere. Premiazkoak, honentzat, ezagutza teknikoak dira, gizarte-komunikabideak menperatzea, alegia.

Telebista dela eta, PNVri salatzen dio, Telebista eta euskara ikasteko eskola nahastea: «...la Televisión no es una escuela. A veces el Grupo Nacionalista confunde un medio de comunicación con una escuela de aprendizaje de un idioma» (Batzordea, 7.2).

Eusko Sozialistak Legebiltzar-Taldearen bozeramailea, Martínez jauna izan da. Zuzendari nagusi izateko euskara *conditio sine qua non* bezala eskatzea «nos parece tremendamente discriminatorio e innecesario» (Batzordea, 18.h.) Kondizio hori «es antiestatutario, es anticonstitucional y es irracional» (Osokoa). Martínez jaunak ez du eragozpenik euskara meritu bezala planteatzeko: «Nos parece que se podía valorar esto como mérito, como decía antes; hombre, pues si sabe euskera y además sabe inglés y sabe chino, pues fabuloso, y si sabe 25 idiomas, pues mejor» (Batzordea, 18.h.)

Eusko Abertzaleak Legebiltzar-Taldearen bozeramaile den A. Ansola jaunak hasieratik dio, EEren segidan, bere Taldeak ere ez duela Konstituzioaren 3. artikulua onartzen, gaztelaniak eta beste hizkuntzek, trataera bera ez izatea diskriminazioa delako.

Euskal Irrati-Telebistako Zuzendari Nagusiak zergatik jakin behar duen euskaraz? Euskara hizkuntza ofiziala delako, sinpleki: «en ese sentido entendemos, igual que, por ejemplo, en Inglaterra o en otro país, en cualquier país, se exige el conocimiento de la lengua oficial, y que, por lo tanto, nos parece correcto y conveniente que conozca la lengua oficial, y la lengua oficial del País Vasco, aparte del castellano, también es el euskera» (Batzordea, 18.h.) A. Ansolak euskararen aurkako bezala jotzen du gainerako

taldeen jarrera, eta ulergaitz gertatzen zaio EErena: «Hemen aurrez-aurre komeni da esatea: euskararen alde zaudete ala ez zaudete» (Osokoa).

1.1.2. Euskararen erabilpena arauzkotzeko oinarrizko Legea (10/1982)

Lege honen 22, 23, 24 eta 25 artikuluen edukina bere lekuan ikertua dugu dagoeneko. Legebiltzarkideen posizionamenduak aztertzen ari gara orain. Behin Gobernuak Parlamentura legea bidali ondoren, ezaguna da, hiru interbentzio-aldi daude: emendakinak, Batzordeko eztabaida eta Osoko debatea.

Lege honen hirugarren kapituluari dagokionez, hiruzpalau ohar egingo ditugu legebiltzarkideen hiru kasu hauetako eskuhartzeari buruz. Has gaitezen emendakinekin.

Grupo Mixtok (AP) eta Grupo Mixtok (PCE-EPK) projektu osoari emendakina egin zioten bakoitzak bere aldetik, batazbeste, projektu zehaztugabea eta lainotsua zelako, Gobernuari aginte gehiegi uzten zitzaiolako, eta beste zenbait puntu konkretuagogatik.

Gure hirugarren kapituluari dagokionean Eusko Sozialistak Taldeak egindako emendakinek Gobernuari Parlamentuaren kontrola jartzeko intentzioa daramate.

Inolako zalantzarik gabe, emendakinen mailan EErena da aportaziorik haundiena.

EEk, berak bakarrik, zortzi emendakin gehigarri egin ditu. Eusko Abertzaleak Taldearekin bateginda, emendakin horietako batzu Lege-egitasmoaren testuan integratu egin dira.

Gelditu da, halere, testutik landa zenbait proposamen, filosofiagatik zein zehaztasunagatik, biziki interesgarriak, hala nola: euskara hizkuntza nazional aitortzea; euskara gizarte-komunikazio-hizkuntza bezala espreski kontsideratzea; ikusentzutezko komunikabideei Euskal Herri osorako hedapena ematea; euskal aldizkariak eta liburuak laguntzea; *Hoja del Lunes* euskaraz ateratzea; komunikabideetako profesionalen hizkuntz eta kultur formazioa; zinemagintzan, antzertian eta zenbait kultur ekintzatan euskararen erabilpena areagotzeko neurri zehatzak.

Legebiltzarreko Osoko Biltzarrean ez da artikulu hauetaz debaterik izan. Esan behar da, Eusko Abertzaleak Taldeak eta EE Taldeak elkar-hartuta aurkeztu zutela kapitulua IV. Batzordean (Hizkuntza eta Kultura). Batzordean bertan ere eztabaida oso mo-

tela izan da guri dagozkigun arazoetan. Honen berri emango dugu segidan.

EE Legebiltzar-Taldearen izenean J.L. Lizundiak garbi adierazten du, herritar guztiei euskaraz eta erdaraz informatuak egoteko eskubidea aitortzea beharrezko dela, eta ez testimoniala, nornahik bere kanala eta, beraz, bere hizkuntza hautatzeko aukera izan dezan. Eskubide hori aurrera eramateko neurri-politika bat hartu behar da arian-arian bi hizkuntzen parekidetasuna lortzekotan. Eta euskara, defentsa gabe eta baztertua dagoenez, normalizazio-bidean, parekidetasun hori bermatzeko, ezinbestekoa da euskararen erabilpenari lehentasuna ematea.

Hori bateko. Eta besteko, normalizazio linguistiko hori ez da Komunitate Autonomoaren berenezko komunikabideetan bakarrik lortu behar: RTVEren igorpenetan ere bai, noski, era osagarrian bada ere, zeren eta, J.L. Lizundiak dioenez, «en estos momentos estamos, quizás, en una situación peor que cuando se emitía el programa 'Euskalherria'».

Zaldua jaunak, Eusko Abertzaleak Taldearen izenean, argumentu beretsuak darabiltza. Honen esanetan, komunikabideetan euskararen presentzia gehitu egin behar da, hain zuzen parekidetasun honetara iritsi ahal izateko. On da herritarren eskubidea, euskaraz ere informatuak izatekoa, espreski aitortzea, «para que esos derechos sean ciertos y no queden meramente sobre el papel». Erdararen nagusigoa ikusita, berebat, logikoa da euskararen erabilpenaren lehentasuna sustatzea. Kontutan eduki behar da, bestalde, komunikabide hain boteretsu hauen garrantzia: etxe guztietan etengabe sartzen bait dira. Euskararen presentzia behar--beharrezkoa da horietan: «si queremos de verdad, si tenemos ese deseo de que efectivamente el euskera se potencie y vaya saliendo de esa situación de letargo más o menos largo (...) los medios de comunicación juegan un papel, bajo el punto de vista mío y de nuestro partido, tremendamente importante, yo diría que casi decisorio». «Yo soy uno de los convencidos que la Televisión en el mundo de los idiomas tiene un campo extraordinario».

Grupo Mixto Legebiltzar-Taldeko Aginaga jaunak bi kontzepzio ikusten ditu aurrez-aurre hemen: batetik, euskara komunikabide bezala planteatzen duena; eta bestetik, errealitatea aintzat hartzen duena. Bigarrenaren alde dago bera.

Projektuaren idazkuntza berriarekin ez dator bat, inpositiboa delako. Soziologiarekiko errespetua eskatzen du, berezko moduen alde dago; askatasuna, barianteak, egoera geografiko eta kultura-

lak aintzat hartzeko, dio. *Laissez faire* proposatzen du: «pero creo objetivamente que eso es una realidad que no depende tanto de que haya una presencia, unos programas impuestos, planteados, etc., cuanto es decir sugeridos de una forma sencilla, tranquila, que ya irá viniendo si realmente hay voluntad de hacerlo».

Eusko Sozialistak Taldearen izenean, Maturana jaunak batez ere salatzen duena da, artikulu horietan nahi duena egiteko eskuak libre uzten zaizkiola Gobernuari. Eusko Legebiltzarraren kontrola eskatzen du. Ez du boturik ematen, «porque estando de acuerdo con la filosofía que subyace en las mismas [enmiendas], sin embargo estamos en rotundo desacuerdo en cómo se instrumentaliza esta filosofía».

1.1.3. Legebiltzar-Taldeen eskuhartzeak

Baina, *de facto*, ETBko euskararen arazoa aurrez-aurre eta espreski planteatu, CPk, planteatzen du eta berak bakarrik proposizio mailan. Hiru alditan bederen bai, eta hirurak berrikitan, bigarren legeztatze-aldian, hain zuzen 1984eko azken hiruhilekoan. Ikus ditzagun interbentzio horiek banan-banan.

1.1.3.1. Legez besteko proposamena, gaztelania eta euskalkiak ETBn gehiago erabiltzearen alde.

«Legez Bestekoen Saloak» sailean, Eusko Legebiltzarraren aldizkari ofizialaren 10. zenbakian, 1984eko urriaren 18an agertzen da Grupo Popular-ek egindako proposamen hau. Gerora, erretiratu egin zuen, «arazo honi fokatze zabalago bat emateko», J.M. Barquerok esan zuenez[2].

Bi puntu onartzea proposatzen dio Eusko Legebiltzarrari: lehena, ETB euskal gizarte osoaren zerbitzurako tresna dela, jarrera politiko, sozial, kulturazko eta hizkuntz erabilpenezko guztien gainetik:

> «1) El Parlamento Vasco acuerda manifestar que ETB debe ser, en su calidad de sociedad pública, instrumento al servicio de la totalidad de la sociedad vasca, independientemente de los posicionamientos políticos, sociales y culturales o de los usos lingüísticos existentes en tal sociedad».

Eusko Legebiltzarrari egiten dion bigarren proposamena, bikoitza da: gaztelania gehiago sartzea, bereziki edukinean edo gaurkotasunean guztientzat interesgarri gerta daitezkeen saioetan; eta,

berebat, euskalkiak gehiago erabiltzea, euskara batuak marginatu dituen hainbat sektoreren faboretan:

> «2) El Parlamento Vasco acuerda manifestar que la introducción de un más extenso uso del Castellano, especialmente en programas que por su contenido o actualidad sean de interés general, y de los diversos dialectos euskéricos en la programación de ETB, supondría un más adecuado cumplimiento de las finalidades de tal servicio público, fomentaría su enraizamiento social y permitiría el seguimiento de sus emisiones a sectores ampliamente mayoritarios del pueblo vasco, hoy marginados por el masivo uso del «euskara batua».

1.1.3.2. Legez besteko proposamena, ETBko nomina finkatzean euskararen ezagutzaren balorazioaz.

Debate honetan aurki ditzakegun argumentuak antz haundia dute arestian Zuzendari Nagusiaren euskalduntasunaz aztertu dituguneki. Grupo Popular Legebiltzar-Taldeak eskatzen du bereizkuntza egitea euskaraz jakitea nahitaezko duten lantokien eta merezimendutzat baino jo behar ez den lantokien artean[3].

1985eko Martxoaren 29ko Aldizkari Ofizialean (14.1. zenb.) Osoko Bilkuraren erabakia agertzen da, zeinak proposamenari uko egitea erabakitzen bait du.

Eskariaren eta erabakiaren artean eztabaida izan da, ordea. Eta debate honek argi egiten du talde bakoitzaren baitan posizionamenduak nola desarroilatzen diren antzemateko.

Agi denez, Grupo Popular-ek izan du Osoko bilkura honetan protagonismoa. Hitzetan luzeena ere Barquero jauna da. Bere argudioak honela laburbil genitzake:

Euskararen normalizazio-tresna dela ETB onartu ondoren, Barquero jaunak uste du printzipio hau beste eskubide, lege eta erakunde honen beste helburu batzurekin elkargarri egin behar dela. Horregatik, euskaraz jakitea ETBko lanpostuetarako nahitaezko baldintzatzat hartzeak, gure herritarren zenbait oinarrizko eskubide eta zenbait lege-disposizio zapaldu egiten ditu. Konkretuki aipatzen dituenak: Konstituzio espainiarra (10.2.; 14), Giza Eskubideen Deklarazio Orokorra (2.1; 23. 1); Autonomi Estatutua (6.3); Langileen Estatutua (4.2.6.); «Irrati-Telebista» Erakundearen 5/1982 Legea (3. c.; 3. e.) Hau dena kontutan izanik, Grupo Popular-ek euskara merezimendutzat kontsideratzea proposatzen du, eta ez nahitaezko baldintzatzat.

Grupo Popular-ek aurkezturiko proposamena kentzea eskatu zuen EEk. Euskararen erabilpenaren Normalizazio-Legearen 14.2 artikulua onartzen du EEk Grupo Popular-en kontrara; eta honen kontrara, halaber, EE ez dator bat Konstituzioaren 3. artikuluarekin[4].

Gurrutxagaren ustetan, hemen auzitan jartzen dena ez da lanpostu batzuren arazoa, ETBren izaerarena berarena baizik. Baldin ETB zerbitzu informatiboak euskaraz ematen dituen erakundea bada, euskara exigitu behar da, ikastola batean pertsonalari hizkuntz kondizioa eskatzen zaion erara. Gertakari tamalgarri bezala aipatzen du Gurrutxaga jaunak ETBko barne –eta lan– bizitza erdaraz egitea. Dokumentuak erdaraz idazten dira. Administrazio-Batzordean bertan 14etik 5ek bakarrik dakite euskaraz. Autokritika eskatzen du Gurrutxagak.

Eusko Sozialistak Legebiltzar-Taldeak Grupo Popular-en proposamena berresten du, eta honek bezala, Maturana jaunak ere kualifikazio teknikoa eta euskaraz jakitea kontrajarri bezala ematen ditu. Eusko Sozialistak Taldeak ere lanpostuak eta lanpostuak bereiztea eskatzen du: batzutarako beharrezkoa litzateke euskara; beste batzutarako, ez. Absurdua begien bistara ekarri nahian, zera galdetzen du: «un mudo podría ser carpintero de Euskal Irrati Telebista?» Eta, azkenik, ekonomiazko krisi-garai honetan inork ez luke bere burua diskriminatua sentitu behar lanpostu bila dabilenean:

> «... es una cuestión de buena voluntad de llegar a un equilibrio, sin que nadie, en definitiva, pueda sentirse discriminado, en una situación de crisis económica, para la consecución de un puesto de trabajo».

Eusko Abertzaleak Taldearen bozeramaile bezala, Aurrekoetxea jaunak ere Euskararen Erabilpenerako Legearen 14.2. artikulukian oinarritzen du bere erantzuna, eta Euskadiko Ezkerrakoek eman arrazoiak onartzen ditu, Grupo Popular-en proposamena baztertzeko. Aurrekoetxea jaunaren ustetan, egin-berri den proposamen horren mami-mamian dagoena zera da: ETBn euskara soilik edo gehiegi erabiltzea. Hil ala biziko egoeran dakus gure hizkuntza Aurrekoetxea jaunak, eta gu guztion egitekoa, euskaldun nahiz erdaldun, da hori zaintzea. ETB, hortaz, «euskeraren telebista da[la] eta izan behar dauala danon oneritziagaz, danok onartuaz, gutxienez gure herriak benetako elebitasuna lortu arte, epe baten barruan».

1.1.3.3. Eusko Jaurlaritzari erantzun-eskea ETBrekiko zenbait arazoz.

Eusko Legebiltzarreko Aldizkari Ofizialaren 208 zenbakian, D sailean, 1984eko abenduaren 26an agertzen da Grupo Popular-en interpelazio hau.

Orain artean gure herrian ETB ez dela izan elkarbizitzarako tresna eta baketze-tresna, baieztatzen du Jose Manuel Barquero jaunak. Orain artekoan, soil-soilik kulturaren aldetik begiratuta gauzatu dira saioak. Lau puntutan egiten du eskea, eta horietako bi dagozkigu guri zuzen-zuzenean:

> 1) «ETBk, bere lehen helburuak kulturaren zerbitzua eta euskararen zabaldundea izateaz gainera, Euskal Herriko elkarbizitzaren eta bakearen aldeko zerbitzua ere egin behar duela uste al du Eusko Jaurlaritzak?»
>
> 2) «Hizkuntzak helburu horietarako gaindiezinezko muga izan behar duela uste al du Eusko Jaurlaritzak? Edo, alderantziz, gauden une honetan funtsezkoak diren bi helburuak elkarri egoki al dakizkioke?».

Telebistaren kostua hain gorena izanik, hasten da esanez Barquero jauna, kostu ekonomiko hori zuritzeko arrazoi bakarra bere funtzio soziala da. Zein da funtzio sozial hori? Ez da bakarra, noski. Problema bat, eta larria, euskararen eta euskal kulturaren promozioa, defentsa eta garapena da. Baina gizarte honek baditu beste bi problema larri, biolentzia eta elkarbizitza eta tolerantzia. Bigarren egiteko sozial hauei erantzuten al die ETBk?

Beste galdera bat ere egiten du ETBren audientzian oin hartuta. Ehuneko 27k bakarrik ikusten badu ETB, «se puede decir que es un medio plural, que sirve al interés de todos los vascos?»

Azkenik, eta batez ere, hizkuntzaren arazoa. Esan bezala, ETBren xede bakarra ez da euskera eta euskal kultura sustatzea. Besterik ere bada. Barquero jaunak Gallup-en inkesta darabil berriz eskuartean. Gaztelania eta euskara batera erabiltzearen alde, euskara hutsaren alde baino jende gehiago agertu da. Elebitasun--gurari hori kontutan edukita, eta herritarren interesak zerbitzatzeko eta ez ideologia bat edo alderdi bat soilki, galdera hau formulatzen du Barquero jaunak:

> «Considera el Gobierno Vasco que la lengua debe ser un límite insuperable, para lograr los objetivos de la convivencia y la paz a

través de la información y del debate de temas y cuestiones graves que se plantean hoy en nuestra Comunidad?»

Barquero jaunak hau galdetzean kaskopean duena eta geroago adieraziko duena, zera da: «ETB es un parlamento paralelo». Eta ez, euskara erabiltzen delako, baizik eta beste arrazoi honengatik: Parlamentuko informazio gutxi, talde parlamentari zenbaitzuren ordezkatze eskasa, presentzia ideologiko murritza eta soslaizkoa (Parlamentuan ez daudenena, hain zuzen). Alegia, abertzale euskaltzaleen barrutia da ETB: «ni responde al pluralismo ideológico ni lingüístico de nuestra sociedad».

Kultur Kontseilari bezala L.M. Bandres jaunak ematen dio ihardespena. Euskara elkarbizitzaren eta bakearen oztopo bezala ematea aldrebeskeria da Bandres jaunarentzat. Alderantziz, «bi hizkuntzatan mintzatzen den herri batetan, bi hizkuntza horiek maila berdinean gara dezaketenerako ematen diren urrats guztiak guztiz bakearen aldekotzat jo behar ditugu. Eta hau da gure ETBk egiten duena edo honetan saiatzen da (...). Beraz, «ETB gure hizkuntz egoera orekatuagoaren alde egonez, gure gizartearen bakearen alde dago».

Honela amaitzen du Kultur Sailburuak bere hitzaldia: «Hizkuntza versus esandako helburuak planteamendua ez da egokia, zeren bi gauza horiek ez dira aurkakoak, osagarriak baizik». Bi hizkuntzak, euskara eta gaztelania, orain derrepente maila berean jartzea, ez zilegi, ez egoki iruditzen zaio Bandres jaunari. Hainbeste urtetako zapalkuntza gogoratzen du kontseilariak. Euskararen botika bat da ETB, ongi merezia. Eta edonork du aukera beste bi kateetan nahi adina erdara entzuteko.

1.2. «EUSKAL IRRATI-TELEBISTA»KO ADMINISTRAZIO-BATZORDEAN

Euskal Irrati-Telebista Herri-Erakundearen Legearen bigarren sailean oinarritzen da Administrazio-Batzordea. Nola egitekoak hala konposaketa, aipatu artikulu horietan erregulatzen dira.

Batzorde honetan, bidezko denez, Euskal Irrati-Telebistak bere bidean aurkitu dituen arazo eta auzi guztiak erabili dira: arazo juridikoak, politikoak, antolamenduarenak, lingüistikoak, UERekikoak, TVErekikoak, programak, publizitatea, audientzia, lan-baldintzak.

Hizpide eta sesiobide gehien eman duena, lan-auzia dela esango genuke: lan-kondizioak, examinak, kontrolak, etc.

Baina guri hemen eta orain axola zaiguna, hizkuntzarena da. Modu batera edo bestera, hizkuntza mintzagai izan dute Batzordean gutxienez 23 bileratan. Halere, inoiz proposatu den arren[5], sekula ez da hizkuntzaren gaia gai monografikoa izan. Hiruzpalau aldiz bakarrik izan du trataera luze samarra.

Esan beharra dugu, aktak erabili ditugula informazio-iturri bezala. Eta aktok, kasu honetan, oso soilak eta ia telegramikoak dira, nork zer esan duen jakiteko ozta-ozta balio dute.

Metodologiaren aldetik, euskarari buruz eman diren eretziak eta izan diren auzi-mauziak ardatz nagusi batzutan bilduko ditugu. Jarrerak eta interbentzioak izenez-izen emango ditugu, alderdi politikoa alboan seinalatuz. Zergatik honela eta ez alderdi politikoz? Arestian esana errepikatuko dugu. Badakigu jakin, Eusko Legebiltzarreko alderdi politikoen islada dela batzarraren osakuntza. Baina, hor alderdi politikoen izendapenez egonda ere, banakaren bat ez da alderditakoa. Kasu honetan daude, adibidez, Ortíz Alfau eta R. Fernández Garrido, PSOEk izendaturik eta R. Garitaonaindia, EEk izendaturik. Gainerako guztiak alderdikide dira, oker ez bagaude.

Testuinguruaren azalpen honekin eta oharrok egin ondoren, azter ditzagun puntuz-puntu, euskararen inguruan Administrazio--Batzordean aurkitu ditugun jarrerak.

1.2.1. Euskal Irrati-Telebistako Zuzendari Nagusiaren elebitasuna

Euskal Irrati-Telebista Herri-Erakundearen Lege-projektuaren eztabaidan ikusia dugu, Zuzendariak euskaraz jakitea *conditio sine qua non* izatetik nola lerratu zen «kontutan hartua» izatera.

5/1982 Legean, beraz, kontutan hartzen da Zuzendariak euskaraz jakitea (16.2 artikulua). *De facto*, lehen bi zuzendariek ez zekiten euskaraz.

1982ko uztailaren 20ko bilkuran X. Gereñok (EE) Josu Zubiaur Zuzendari Nagusi bezala onartzen du, baina kondiziopean: euskara-kontuan ez ote den hotza galdetzen du.

Bigarren Zuzendari Nagusiaren izendapenean, 1982ko abenduaren 6an, K. Garitaonaindiak (EE), ea A. Areizagak euskara ez jakitea kontutan eduki den, legearen arabera, galdetzen dio Kultur Sailburuari, R. Labaieni. Honek ez dio puntu honi zuzenki erantzuten.

1.2.2. **Publizitatea eta euskara**

Euskal Irrati-Telebistak bere buruari jarriak dizkio arau erregulatzaile batzu: «Normas reguladoras de la emisión de publicidad en los medios de difusión de Euskal Irrati Telebista-Radio Televisión Vasca».

Arau horietan badira hizkuntzari buruz bi puntu garrantzitsu. 1.10 artikuluan esaten denez, euskara hutsezko bitartekoetan publizitatea euskara hutsean izango da bakarrik. Eta 4.4. artikuluak agintzen duenez, publizitateak ez du programazioaren hizkuntz jarraikitasuna hautsiko.

Behin eta berriz salatu du R. Etxezarretak (EE) arau horiek ez bete izana. Futbol-partiduetan euskaraz eta erdaraz emateko publizitatea kontratatzean, zein erizpide erabiltzen den galdetzen dio Zuzendari Nagusiari[6]. 1985eko urtarrilaren 29ko bilkuran adierazi bezala[7], publizitate-arauen 4.4. puntua, hizkuntz jarraikitasunari dagokiona alegia, honela ulertzen du Zuzendari Nagusiak: programa baten barruan hizkuntzarik ez da eteten, baina ez dago hizkuntz etenik programa-arteetan erdara sartu arren.

Etxezarretaren ustez, arratsalde-gauetan euskara hutsez emititzen denez, ez litzateke erdarazko publizitate-hitzik ere sartu behar. Eta sartzea, hizkuntz jarraikitasuna etetea da.

1.2.3. **Lanpostuak eta euskararen ezagutza**

Lanpostuetarako eskatu behar den euskararen maila etengabe egon da auzitan. Zein hizkuntz erizpide erabil? Lanpostu guztietarako bat bera? Mailakatze-sistema sor? *De facto*, lanpostu desberdinetarako hizkuntz baldintza desberdinak eskatu izan dira. Hori erakusteko, deialdietan miatuz aurkitu ditugun formulazio batzu aldatuko ditugu hona, haundienetik txikienera doalarik exigentzia:

- dominio de las dos lenguas oficiales de la Comunidad Autónoma Vasca a nivel de redacción y locución
- dominio de las dos lenguas oficiales de la Comunidad Autónoma Vasca
- dominio del euskera hablado
- euskera a nivel hablado y escrito
- conocimiento básico del euskera hablado y escrito
- conocimientos de inglés y euskera

- se valorarán los conocimientos del euskera
- (eta batere hizkuntz kondiziorik ez, adibidez, sarearen mantenu-teknikariari).

Esan bezala, formularik exigenteena, lehena zen: «dominio de castellano y euskera a nivel de redacción y locución». Ez zuen bere gogorrean luze iraun. 1983ko otsailaren 14eko bilkuran Administrazio Batzordeak hartu zuen erabakiaren arabera, aurrerantzean ez da eskatuko bi hizkuntzak menperatzea baizik eta «se considerará como mérito preferente el contar con amplios conocimientos del euskera». Euskara menperatzearen kondizio hori jarria zegoen Informatiboen, Produkzioko eta Administrazio-Finantzetako Buruzagitzarentzat. Honexegatik da batipat garrantzizkoa «biguntze» hau, telebistaren lanpostu altuenetan aplikatu izan delako ia hastapenetik.

Euskara beti pertsegitu duen beste mamu bat ere agertu izan da bilkura horietan: euskara *vs* profesionaltasuna. Profesional ona, euskaraz ez dakiena, alde batean, eta, beste muturrean, euskaraz jakin badakiena, baina profesional txarra. Dexente aldiz suma daiteke dikotomia hau bilkura horietan zehar. Kasu arrunt bat aipatuz, 1983ko apirilaren 7ko bilkuran[8] Ortíz Alfauk (PSOE) argi egon dadila eskatzen du, aktan lan-eskariak baloratzean, profesionaltasunari eman behar zaiola lehentasuna euskararen ezagutzaren gainetik.

Eusko Irratiaren 1984eko Memoria onartzeko mementuan (85.03.26), eztabaida interesgarria mamitzen da profesionaltasun/euskalduntasun bikoteaz. Honela zioen Euskadi Irratiko txostenak:

> «Tras la celebración de diversos concursos públicos para la captación de personal, se experimenta una dificultad creciente en la búsqueda de nuevo personal con dominio del euskera y buen nivel profesional»[9].

Esaldi honen aurka mintzo da R. Etxezarreta (EE). Honentzat, profesional berriak kontratatzeko euskara ez da, ezin daiteke izan, zailtasun hazkorra. Hernández (PSOE) jaunak zailtasun gero eta haundiago hori sinesten du, examinetan aukera baloratzeko orduan berak ere problema hori aurkitu bait du, batzordearen izenean egon denetan. Gorordok (PNV) eta batzordekide gehienek uste dute, zailtasun horiek egon badaudekeela, baina ez direla inola ere gero eta haundiagoak, gero eta txikiagoak baizik.

1.2.4. **Inkestak eta telebista euskara hutsez**

ETB euskaraz izatea onargaitza gertatu da. Oposizio politikoaren parte bat behin eta berriz saiatu da hizkuntz eredu hori aldatzen. Erdara sartzeko argumentu-iturri oparoenetako bat inkestetan, herriaren eritzietan, ikusi bide dute. Gehiengoak telebista elebiduna nahi duela erakutsiko bait dute inkestek, proposamen hori egin ohi dutenen asmotan. Izpiritu honexekin eskatzen du inkesta edo ikerketa bat, Euskal Herriak ikusi nahi duen telebistaz egitekoa, Ortíz Alfauk (PSOE): «a fin de que sirva de orientación para la programación»[10]. Hizkuntzaz ari da Ortíz Alfau eta ez programen edukinaz, solasgiroak aditzera ematen duenez. Hitzetik hortzera erantzuten du X. Gereñok (EE), ETB euskara sustatzeko baliabidea dela, eta hemen zer hizkuntza erabil eztabaidatu behar bada, gauza bera egin beharko dela erdara hutsez diren telebista estataletan ere.

Inkesten erakutsien aipamenik garbiena R. Fernández Garridok (PSOE) egiten du Gallup etxearen inkestaren ondoren. Honela dio idazkariak[11]: «El Sr. Fernández Garrido indica que de dicho estudio se clarifica que la opinión de los televidentes es que desean que ETB sea una televisión bilingüe, y aunque no desea ser reiterativo considera que se debiera de meditar en las instancias adecuadas sobre el tema».

1.2.5. **Erdarazko programaketaren atzetik**

Zertan esanik ez da, azken batean, modu batera edo bestera ETBren kontra daudenak programen edukinaren aurka baino areago daudela hizkuntz tratamenduaren aurka. Euskara, batzuentzat, komunikabide da, eta, beste batzuentzat, traba, eragozpen: horra gakoa.

1984eko urtarrilaren 3ko bilkuran[12] garbi dio R. Fernández Garrido (PSOE) jaunak zein den programazioa euskaraz izatearen joerazko arriskua: jende koalifikatu askori ateak ixtea, alegia: «ya que al centrarse en la programación en euskera puede darse el caso de no tener acceso a dichos programas personalidades altamente cualificadas». Hilabete batzu geroago, burua lehengo lepotik du R. Guerra Garridok. Tesi bera esplizitoago adierazten du egunkarian, testu hau lekuko:

> «Si, después de año y medio, por nuestra pequeña pantalla no han aparecido poetas como Gabriel Celaya o Carlos Aurtenetxe,

novelistas como Ramiro Pinilla o Mendiola, historiadores como Fusi Aizpurua o Fernández de Pinedo, periodistas como Luciano Rincón o Rafael Castellano, pensadores como Fernando Savater o el propio Caro Baroja, y sí han aparecido profusa y confusamente ilustres mediocridades, eso quiere decir que hay mucho laberinto por desbrozar»[13].

1985eko lehen bilkuran ere behaztopa-harri berarekin egiten dugu topo[15].

R. Fernández Garrido ETBren «Principios básicos y líneas generales de programación» delakoaren puntu batekin ez bide dator bat. «Fomento y difusión de la cultura vasca y en especial el fomento y desarrollo del euskera» esaten duen pasarte honen erruz, sortzaile asko, euskara ez ezagutzean, ETBrako sarrerarik gabe gelditzen dela, eta, honela, euskal kulturaren sail bat bazter daitekeela. Hori ebitatzeko, erdarazko solasaldi edo mahainguruak proposatzen ditu, non euskara ez baina gaia menperatzen duten pertsonalitateek hartuko bait dute parte. Kultur programa berezi bat proposatzen du R. Fernández Garridok eta, hori ez onartzekotan, Teleberri ere kentzea eskatzen du.

Ildo beretik doa Hernández (PSOE): ETBk gaur ez du Legearen izpiritua betetzen, Legearentzat komunitate plurala bait da gurea eta telebistak, herri-zerbitzu denez, bi komunitateekiko obligazioak bait ditu.

1.2.6. **ETB, euskarazko irakasle**

1982ko abenduaren 9ko bilkuran agertzen da lehen aldikoz euskararen irakaskuntzarako eta alfabetatzerako ETB erabiltzearen posibilitatea, K. Garitaonandiak (EE) gai horri buruz Zuzendari Nagusiari egiten dion galderan. Posibilitateak ugari direla, erantzuten du Josu Zubiaur jaunak.

1984eko urriaren 30eko bilkuran[15] berriz agertzen da gaia, ETBko Zuzendariaren proposamenez oraingoan: ETBren, Kultur Kontseilaritzaren, Hezkuntza Kontseilaritzaren eta HABEren elkarlana izango litzateke.

1985eko otsailaren 26ko bilkuran, zehatzago ematen du asmo horren berri Zuzendari Nagusiak: irailean edo urrian hasita, egunero bost minutuko eta asteburuan orduerdiko eskolaldiak izango dira.

Euskarazko klaseen arazoaz gain, ETBn erabiltzen den euskara-mota bera ere batzordekideen ahotan ibili da.

1984eko irailaren 21eko bilkuran[16] ETBko hizkuntz arazoak salatzen ditu Etxezarretak (EE). Arazo dira ETBn hiztegia, ahoskera, joskera, eta batez ere hizkuntz erizpideetan batasunik eza kazetari, esatari zein bestelako langileen erabilpenetan. Euskararen Aholku Batzordeak gomendaturik[17], hizkuntz aholkulari bat hartzea erabakitzen du ETBk. Euskal Irrati-Telebistako Zuzendari Nagusiak 1983ko irailaren 20ko bilkuran[18] planteatzen du telebistako eta Irratiko euskararen erabilpenaren koordinazioa eta homogenizazioa egingo duen arduradun baten premia.

1985eko martxoaren 26ko bilkuran[19], R. Etxezarretak (EE) salatzen du, arduradun hori zuzentzaile bezala erabiltzen dela, hizkuntz kontseilari bezala erabili ordez.

Gabino Murua zen arduraduna, baina ez luzaroan. Hilabete gutxi batzu, denetara: 1984eko urrian hasi eta 1985eko martxoaren hasieran utzi zuen arte. Urriaren batean hasita, Lourdes Otaegi da arduradun berria.

1.2.7. **Euskararen erabilpena ETBren etxe-barruan**

Edozein aztertzaileri atentzioa ematen dion lehen gauza zera da: ETB barrutik erdalduna bide da. Eskasegia da euskararen erabilpena barne-bizitzan. Administrazio-arazoak, barne-komunikazioak, dokumentazioa eta, diotenez, giza harremanak, neurri on batean erdaraz egiten dira. Erdal giroa omen da nagusi Administrazio eta Teknika sailetan.

Zeharbidez eta puntualki bada ere, ETBko erdal ingurugiroa agertu da zenbait aldiz Administrazio-Batzordeko bileratan.

1983ko apirilaren 12an[20] X. Gereñok (EE) espreski adierazten du ETBko inprimakiak, eta kontabilitatea berdin, euskaraz egin beharko liratekeela. Bere burua eskaintzen du laguntzeko, gainera.

1985eko apirilaren 23an[21] ospaturiko bilkuran, aurreko bileran eskatu bezala, ETBko plantilako euskararen berri eman zuen Zuzendari Nagusiak: 190 langileetatik 120k euskaraz badaki (% 63), 44ek badu ezagutzarik (% 23) eta 26k ez daki (% 14). Azken garai honetan euskararen ezaguerarik gabeko hautagairik ez da onartzen, baina ez da beti kontratazio-politika bera egin.

Azken-aurreko bilkuran Gorordo jaunak (PNV)[22] eta oraingoan beronek eta J. Legarretak (PNV) proposatzen dute «telebista

bera euskararen zabalkunderako tresna denez gero, bere baitan ari diren langileen artean euskararen ikasketa bultzatu eta sustatuko luketen erabaki eta gomendioak eragin beharko liratekeela...».

Hernández Gonzalez (PSOE) jaunak, aldiz, euskararen irakaskuntza oso funtzionala, eta jendaurrekoa bakarrik onartzen du, esan nahi bait da, adibidez, esatarien ahoskera. Kasu honetan, helburua ez da giroa euskalduntzea eta barnebizitza normaltzea.

Dena den, ez dugu uste oraino neurri zehatz definitu eta definitiborik dagoenik.

1.3. UDALETXEETAN

Kanpaina bat eta bi gertakari aipa genitzake sailtxo honetan. Nahikoa interesgarriak dira alderdi politikoen sentsibilitatea, jokamoldea eta jarrera ezagutzeko. Banan-banan aztertuko ditugu, nahiz eta, arestian esan bezala, testuinguru eta ingurugiro bakarrean gertatu dena.

1.3.1. «ETBn erdararik ez» kanpaina

EHEk antolatu zuen kanpaina hau, 1983ko udazkenean; abenduaren 19an sartu behar zuten «Teleberri» erdal telegunkariaren aurka: «Uztailan Irunean egiten den UEUn ETBren aldeko kanpaina bat egitea pentsatu genuen»[23].

Kanpaina honen zati ziren prentsako artikuluketa, ETBren etxaurreko manifestazioa eta Udaletako mozioak.

Kanpaina honen barruan, bada, urrian hasi ziren mozioak herriz-herri aurkezten, ETBk orain arte erakutsitako euskarari buruzko jarreragatik zorionak eman eta Telenorten ere euskara sartzeko eskatuz. Abenduaren 19a artean udal guztietan aurkezteko asmoa zuen EHEk, talde honetako arduradun batek dioenez:

> «Bertara herrietako EHE taldeak aurkeztu dituzte EHEren izenean, eta toki askotan PNVko zinegotziak, beste alderdi askotako zinegotziak bezalaxe gure txostenaren alde bozkatu dute»[24].

Kasu horietako bat Munitibarko Udala izan zen, non lau zinegotzi PNVkoak bait dira eta hiru independenteak (HBren ingurukoak).

Baina azaroaren 10eko Ope/Epi agentziak dakarrenez, eta hurrengo eguneko prentsan agertuko denez, BBBk (Bizkai Buru Batzarrak) HBren kanpainatzat salatzen du hori. EBBk bere egiten du jarrera, eta Udal-batzorde guztietara bidaltzen du horren albistea eta esku ez hartzeko kontsigna alderdikideei. Hiru salakuntz mota daude PNVren kontsiderazioetan, HBk hilabete horietarako erabaki duen estrategian:

1) «utilizar símbolos especialmente sentidos en el pueblo vasco» (ikurrinaren defentsa, konkretuki).

2) «servirse de la utilización del euskera en medios de difusión vascos dependientes de altos órganos públicos de Euskadi, concretamente de ETB».

3) «pretende la coalición sorprender a los corporativos y mantener la presentación de mociones extramunicipales en los plenos»[25].

EHEren interpretazioan, PNVren joko maltzur bat dago erabaki honen azpian:

«Hasteko, PNVri interesatzen zaio, bere politikarekin bat egiten ez duten guztiak zaku baten barruan sartzea. Era honetara, kanpaina hau guk antolatuta dela jakinez HBk antolatzen duela esanaz bi gauza lortu nahi ditu: EHE HBren submarino bat dela adierazi, eta gu HBrekin alderatzean, euskararen alde borrokatzeaz baino Instituzioen kontra borrokatzen ari garela bere partaideei sinistu arazi.

Ondoren, beraiek, bere alderdiaren interesak hauteskundeei begira aurrea ateratzeko, ETBn erdara derrigorrez erabili behar dute, eta beraz goi mailako instituzioetan erdara erabiltzea onartzen dute, baina alderdikide askok, ETB euskara hutsez dela pentsatzen dute, eta beraz, gure txostenaren alde definitzen dira. Ondorioz, beraiek hartutako erabakiaren aurka posizionatzen dira alderdiko zinegotziak, kontradizio haundia beraien artean sortuaz. Hau ez zaie inondik ere komeni eta inolako argumento balidorik ez dutelako, gure txostenaren kontra posizionatzeko, HBren maniobra bat dela jakin arazten dute, eta goitik erabakia inposaten saiatzen dira»[26].

1.3.2. **Munitibarko Udala**

EHEren ildoko mozioa aurkeztu zuen Munitibarren «Herritarrak» Udal-kandidaturak, Tolosan hasita beste herri askotan egin bezala. Baina, beste inon ez bezala, ETBren antena, Oiz mendikoa, Munitibarko lurretan dago. Gertakari honetaz baliatuz, ante-

naren baimena eta ETB euskara hutsez izatea lotu egin zituen Udal-Batzarrak Munitibarren. Eta hortik istiluak.

«Herritarrak» udal-kandidaturak aurkeztu zuen mozioa eztabaidatu eta botutara jo zenean, ez zen onartu, PNVren botuak kontra izan zituelako. Hirugarren puntuan ez zetozen bat. Hori aldatu eta gero, guztien akordioz onartu zen 1983ko urriaren 14ean.

Testua, aldaketa eta guzti, bere osoan emanen dugu, interesgarriak bait dira motibazioak, argumentazioa, tonua, aldaketa:

«Munitibarko HERRITARRAK udalkandidaturak Udal Gorporazioari MOZIOA:

TELEBISTAN EUSKARA

Ba dakigu hizkuntza baten sostengurako telebista batek daukan inportantzia. Gure Euskal Herrian oraintsu arte telebistak espainolez eta frantsesez funtzionatu izan dute. Horretara, euskaldunak espainolduz eta frantsestuz.

ETB berria dugu eta Herriak poz handiz hartu izan du berau. Gainera euskalgintzarako guztiz mesedegarria dugu; jasan daroagun zapalketa historiko genozida honetatik irtetzeko.

Aurrekoa kontutan hartuz, Munitibarko udalak ondorengo erabakiak hartzen ditu:

1) ETBri orain arteko euskara eta euskalgintzaren lanagaitik eskerrak agertu. Baita esijitu ETB izan daitela euskara hutsez (euskaldunon hizkuntza nazional bakarrean). Ez dezatela sartu ez frantses ez espainol hizkuntzarik.

2) Hego Euskal Herrian funtzionatzen duen Espainol Estatuko TELENORTE horretan esijitzen dugu euskara sartua izan daitela. Urteberrirako epea ezartzen dugula.

3) [Testu zaharra.] Akordu bakoitzarekiko esijentziak betetzen ez badituzte ukatu egingo dio Udal honek Oiz mendian duen antenak jartzeko baimena; desmontatu eraginez. Oiz mendia Munitibarko barrutian dago.

[Testu berri eta onartua] Oiz mendian antenak jartzeko baimena eman zenean ETB euskara hutsez izatekoa zen. Orain, ostera, puntu hori betetzen ez bada baimenak bere zentzu osoa galtzen du. Horretara, baimen hori efektorik gabe eta anulatua geratzen da. Oiz mendia Munitibarko barrutian dago.

4) Akordu honen berri bidali daitela:

ETB, TELENORTE, Euskal Gobernu, Euskal Parlamentu, Nafa-

rroako Parlamentu Forala, Pirinio Atlantiketako Kontseilu Generala, Europako Parlamentu eta ONU-ra.

Munitibar, 1983 urriaren 14ean».

Udal-Batzar Osoaren erabaki honen ondorioz, idazki-trukaketa luze samarra dator. Andoni Areizagak, Euskal Irrati-Telebista Herri-Erakundearen izenean, «Birrabiatze-eske» edo «Recurso de reposición» delakoa aurkezten du dagozkion epe eta moduetan. Hiru arrazoi-mota ematen ditu: bata, Oiz mendian antena jartzeko lizentzia ematean ez zen honelako kondiziorik tartean; bigarrena, lizentziaren baldintzak ez dira aldatu eta euskararen promozio-politikarako erizpideak eskuharmen munizipalaren gainetik daude; eta hirugarrena, gaztelania sartzeko erabili dituzten kriterio linguistiko, politiko, kultural eta informatiboak.

Munitibarko Udalak, abenduaren 16an ospaturiko udal-batzar apartekoan Euskal Irrati-Telebistaren arrazoiak ezagutu zituen, eta aintzat hartu.

1.3.3. Sestaoko Udala

Sasoi berean, PSOEk gehiengoa duen Udal batek ere arazo linguistikoaren polemikan parte hartzen du, EHEk bultzaturiko kanpainaren beste muturretik parte hartu ere. Erdal programa sartzeko eskatzen dio PSOEren mozioak, eta gero Sestaoko Udalak, ETBri. Hona prentsan agerturiko testua:

> «Baracaldo. (De nuestra redacción). El Ayuntamiento de Sestao aprobó en un Pleno de carácter ordinario celebrado en la tarde de ayer una moción del PSOE en la que se pedía que la Corporación se dirigiera a ETB para que emitiera su programa en bilingüe, como así lo señala el Estatuto de Guernica. La propuesta, con los votos favorables del PSOE, PCE, la abstención de EE y AP. Los representantes del PNV señalaron que 'no estaban presentes en la sala, ya que lo consideraban extramunicipal'»[27].

2. KULTUR TALDEEN JARRERAK

2.1. EHE (Euskal Herrian Euskaraz) TALDEA

1979ko azaroan egin zuen bere jendaurreko agerpena EHE taldeak, Durangoko Liburu eta Disko Azokan egin ere.

Herri-mugimendu gisa eratzen da EHE, eta alderdietatik kanpo dago. Euskara, haatik, ez dute arazo politikotik eta borroka politikotik kanpo ikusten.

EHE taldearen pentsaera honela ager genezake, beren hitzetan:

> «Gure helburua, Euskal Herrian euskarak eskubide territorialak izatea da, hau da, euskara izango da Euskal Herriko hizkuntza ofizial bakarra (...). Elebitasuna, erdaldun guztiak euskara derrigorrez ikasi arazteko balio badu onartzen dugu, baina helburua normalkuntza juridikoa, instituzionala, soziala, kulturala eta linguistikoa da»[28].

Talde errebindikatzailea da EHE, eta sorrerako testuinguruaren marka darama. Testuingurua, beren hitzetan, hauxe da:

> «Goi mailako instituzioek, ordurarte euskararen inguruan garaturiko taldeak bultzatu beharrean, baztertu egin zituzten.
>
> Alderdiek, bestalde, ez zuten beren eguneroko praktikan euskarari hain beharrezko zaion hainako presiorik»[29].

EHE taldearen ihardunbidean bi parte bereizi behar dira: ekintzak, errebindikazioak, mobilizazioak, alde batetik, eta, bestetik, proposamenak, teorizazioa, hizkuntz filosofia. ETBri buruzko kasuan, gauza bera: batetik, euskara hutsezko telebistaren ekintzak (manifestazioak zein salakuntzak), eta, besterik, ETBri buruzko bere pentsaera.

2.1.1. ETB euskaldunaren aldeko ekintzak

Berriz diogu: talde ekintzailea da EHE, presio-taldea Euskararen erabilpenaren bigilantzia ernea eraman du hastapenetik. Futboleko hizkera erabiliz, markaketa estua egiten diela erakundeei, politikoei, eta bereziki ETBko arduradunei, esan genezake. Behin

eta berriz argitan jarri dituzte, esaterako, ETBko arduradunen kontraesanak, nahiz euskararen erabilpenaz, nahiz telebistaren ereduaz, arduradunen esaldiok oro batean bilduz[30].

Bi ekintza nagusi nabarmentzen dira denen gainetik. Bata, 1981eko udazkenean egina eta, bestea, justu bi urte beranduago.

– 1981eko kanpaina «Gabonetarako Irratia/Telebista Euskaraz» zen. Euskarazko Irratia eta Telebista lehenbailehen lortzeko eskariarekin 50.000 izen bildu zituen; hitzaldiak, manifestaldiak eta itxialdiak antolatu zituen. Emandako hitza betetzea exigitzen zitzaion Eusko Jaurlaritzari, kalean eta prentsan.

– Aipatu nahi dugun bigarren ekintza handia, 1983ko udazkenekoa da. 1983ko abuztuaren lauean Deian agertu zen ohartxo batek asaldatu zuen EHE. Urtearen azken hiruhilekoan hasita, ETBko telegunkari bat erdaraz egingo zela, zioen albisteak. Oporrak igaro ondoren, makineria osoa martxan jarri zuen EHEk «ETBn erdararik ez» kanpaina eratuz: prentsa-kanpaina inportantea eta, batez ere, urriaren 9an Durangotik ETBren Iurretako etxera manifestaldia. Abenduaren 11n, «korrika»rekin batera Bilbon manifestaldi berri bat. Eta azaroaren 26an beste manifestaldi bat, Donostian oraingoa. Eztabaida eta errebindikapen-giroa udaletara zabaldu zen: ETBri txaloak jotzeko eta Telenorten ere euskara exigitzeko mozioak eginez.

Ekintza hauek denak, bere lekuan aztertuko ditugu. Horien berri emateaz aski dugu orain.

2.1.2. **Telebista euskaldunari buruzko filosofia**

«Telebistaren arazoa seriotan garai batean hartu zuen talde bakarra EHE izan zen» esanez hasten da talde honen txosten bat[31]. Eta halaxe da. Bera da, gainera, eta alde handiz izan ere, gai honetaz idazki-produkzio handiena duena. Txosten luzetan barik, prentsa-artikuluetan zabaldu dute beren pentsaera EHEkoek. Han eta hemen barreiaturik aurki ditzakegun pentsaera-hariekin osatuko dugu EHEren telebistari buruzko filosofiaren mataza.

a) *Euskararen normalizazioaren funtzioan ulertzen du EHEk telebista.*

Diglosia gainditzeko eta, beraz, euskararen normalizaziorako telebistak lehen mailako garrantzia du: «telebista euskaraz edo euskara galdu»[23]. Hil ala biziko arazoa da, beraz, euskarazko komunikabideen hau:

«Komunikabideek, batez ere irrati eta telebistak, gaurko gizartearen bizitzan duten garrantzia ikusirik, komunikabideetan erabiltzen ez den hizkuntza hiltzera kondenatua dago. (...) Hizkuntzaren erabilpena garantizatu egin behar da komunikabideetan, zeren hori baita, ezer baldin bada garrantzizkoa, euskararen iraupenerako eta normalizazioa iristeko»[33].

Zergatik du EHEren pentsaeran telebistak (edo, zabalago, komunikabideek) horren garrantzi handia?

Telebistaren izaeran bertan datza gakoa. Telebista berez da eragilea, eragin handikoa, telebistak indar hipnotizatzailea du[34]. Indar hau, eragin hau, euskararen alde erabili behar da orain, lehen Euskal Herria erdalduntzeko erabili zen bezala. Erdalduntzearen «arrazoi nagusia» telebistan datzala, dio EHEk[35]. Euskarak, telebista bat ez edukitzeagatik, galdu dituen kultur alor eta gizarte-eremuak berreskuratu behar ditu orain. «Mundu» horietatik kanpo dago gaur euskara. Horien artean aipatzen dituzte masa-kirolak (futbola batez ere), informazio politiko. sozial eta ekonomikoa, fantasiaren mundua (pelikulak, marrazki bizidunak), eta gazte eta haurren mundu osoa (jokoa, musika, amodioa, afektibitatea)[36].

Euskarak erdara ordezkatu behar du alor horietan denetan. Eta hori, neurri on batean, telebistaren egitekoa da. Baina ez telebistarena bakarrik, arazoa globala bait da:

«Diglosia urruntzeko irtenbide bakarra, hizkuntzaren normalizazioa da. Eta normalizazioa ezinezkoa da euskara gizarte-arlo guztietan eta erabilgai guztietan erabiltzen ez bada. Hau da, euskara irakaskuntzan, administralgoan, komunikabideetan eta zerbitzu publikoetan, gaztelerak eta frantsesak betetzen dituzten funtzio guztiak betetzera iristen ez bada»[37].

Euskararen hedapen-egiteko honetaz gain, hizkuntzarekiko beste bi eragin-mota egozten dizkio telebistari EHEk: bata intralinguistikoa (batasuna, estandardizazioa eta modernizazioa) eta bestea soziolinguistikoa (pertsonengan sortzen duen goimailako hizkuntzaren kontzientzia)[38].

ETB euskara hutsez izatea, analisi honen ondoren, euskararentzat behar-beharrezkoa da. Honegatik errepikatzen du hainbat aldiz EHEk: «ETB euskara hutsez nahi dugu, eta euskarak behar du»[39].

b) *Projektu abertzalearen funtzioan ulertzen du EHEk telebista.*

Telebistaren mezu ideologikoaz ari da EHE, baina ez ezker eskuin borrokaz, baizik eta «herri izatearen ideologiaz», «eduki etno-kulturalaz»[40].

> «Telebista espainolak eta frantsesak, edukiaren aldetik, eta hizkuntzaren aldetik, edukin etno-kultural aldetik, Frantzia eta Españako kultura eta herri izateko, eta herri horien partaide izateko kontzientzia izkutua sortzen dute»[41].

Kolonialismotzat jotzen dute egoera eta jokaera hau.

2.1.3. **Gogozko telebista**

Aipatu dugu arestian, etengabeko markaketa egin ziola EHEk Eusko Jaurlaritzaren projektuari. Zein erizpidez jokatu zuen horrela ikusiko dugu orain.

a) *Euskara hutsez*

EHEk ETBri jartzen zion lehen baldintza, euskara hutsezkoa izatea zen. 1981 urrutiko hartan, honela zioen L.M. Mujikak talde honen izenean:

> «Gure eskabide nagusia euskara hutsezko katea izatea da, erdara barik, nahiz eta hasieran ordu bat edo bi ordu eman egunero. Gure ustez, 'baskoek' badaukate erreferentziarik beste bi kateetan, espainolez baitaude»[42].

Telebista hori lehenbailehen eta euskara hutsez izan zedin kanpaina egin ondoren, eta 1983ko lehen mementuan martxan hasi ostean, EHEk ontzat jo zuen, kritikoki bada ere[43]. Eta ez hori bakarrik: zorionik eta apoiorik benetakoena eskaintzen dizkie hori egiaztatzeko lan egin duten guztiei, «gure hizkuntza nazionalaren presentzia askok espero zuen baino nagusiagoa» delako, telebista hasi eta handik sei hilabetetara[44]. ETBri zorionak emanez eta euskara hutsez jarrai zezala eskatuz, mozioak antolatu zituen udaletxeetan, «ETBn erdararik ez» kanpainaren barruan[45]. Ia bi urteren bueltan, ETB ez dela euskalduna deklaratzen du minez, elebiduna baizik: «euskara hutsezko informatiborik ez dago, bi elebi-

dunak, eta bat erdara hutsez. Publizitatea bi hizkuntzetan»[46]; ez da normala, azpititulaketa hor dago eta.

b) *Euskararen erabilpen osoa*

EHE asko kezkatu du, euskal telebista sortu aurretik ere, euskararen erabilerak. 1982ko abenduan, ETB hasi bezperan, Labaien Kultur Sailburuari prentsaren bidez galdetzen zion «zein alor jorratuko dituen» telebistak, berdenboran eransten duelarik, «gizarte alor guztietara zuzendurik» behar duela[47].

ETB martxan jarri eta sei hilabetetara ere beldur da telebista ez ote den haurren mundura eta hizkuntzara mugatuko:

> «Gaurko programazioak euskaldun helduen interesak ere, telegunkariaz aparte, kontutan gehiago eduki beharko lituzke. Euskara ezin daiteke izan haurren hizkuntza soilik. Honetarako begi onez ikusiko genituzke, adibidez, kulturazko elkarrizketak, mahai inguruak, etab.»[48].

c) *Euskal Herri osorakoa*

Hasiera-hasieratik azpimarratu du EHEk hedadura geografikoa, territorialitatearen baldintza, «hau da Euskal Herri osoan ikusteko ahalmena izatea»[49].

> «Guk, talde bezala, ez daukagu dudarik territorialitateaz. Politikari dagokionez ez badugu Euskal Herria osorik lortu, hizkuntza beste puntu bat da. Euskal Herri kulturala zazpi probintzietakoa da eta euskal telebistak zazpietara jo beharko luke»[50].

Ia bi urteren bueltan, «ETBk Euskal Herriko zati haundi bat kubritzen badu ere, oraindik toki guztietara iristeko ahalmenik ez du»[51].

d) *Euskara beste katea eta programetan*

Ekintza aldetik, EHE ez da gainerako telebistez gehiegi arduratu, mozio bat salbu[52]. Adibidez, ez du manifestazio espresurik egin Telenorten euskara duintasunez sartzeko. Halere, ETBz kanpoko katea eta programa hauek ez ditu ahaztu. Analisietan beti presente daude.

ETB, nahiz eta euskara hutsez izan, ez da aski, EHErentzat. Lotsagarria da FR3an, Telenorten eta Telenavarran agertzen den euskararen urria eta erabilpen eskasa[53].

Euskarak, irrati eta telebistan tratamendu egoki eta serioa behar du, eta ez folklorikoa, gaur bezala, tarteka bi hitz esanik. Euskara gai guztiak erabiltzera iristen ez bada, ez gaitezen engaina... alferrik ari gara»[54].

2.1.4. **Proposamenak: «Telebistan lortu behar duguna»**

Titulu honexekin zehazten ditu EHEk, aipatu txostenean, bere proposamenak, eta horiek bideratzeko ekintzak agintzen. Telebista-kateak desberdinduz aztertzen ditu proposamenak. Laburbilduri emango ditugu hemen nagusitxoenak:

a) *Laugarren Kanala*

- ETBk Euskal Herri osoko hedadura geografikoa behar du.
- Telebista normal bihurtu behar da: erdara arras ezabatuz bertatik. Eta azpitituluak, jartzekotan, euskaraz jarriz.
- Produzkio propioa osoki euskaraz.

b) *Hirugarren kanala:*

- Berehala martxan jar.
- Elebiduna, hau da, euskara erdara bezala gai guztietan.
- ETBko material euskalduna ere erabil, azpitituluekin.
- Bertako produkziorik erdaraz ez.

c) *Telenorte eta Telenavarra*

- Biak batu eta katea bakarra egin
- Informazio-eremua, oraingoa barik Hego Euskal Herria.
- Euskarari trataera egokia: gaur baino proportzio haundiagoan eta gizarte-alor guztietan.
- ETBko material azpititulatua ere erabil.

d) *Frantziako FR3ren eskualde-programa*

- Ahal dela, Euskal Herriko informazio-eremua lortu.
- Euskarari trataera egokia, kantitatez zein kalitatez.
- ETBko material azpititulatua ere erabil.

2.2. EKB (Euskarazko Kulturaren Batzarrea)

1983ko martxoaren 12an aurkeztu zuen bere burua jendaurrean EKBk, Bergarako Unibertsitatean egin batzarre ireki batean. EKB, euskarazko kulturaren batzarrea da, hots, ez da erakunde arras berri bat, jadanik lanean ari diren talde eta erakundeen koordinazioa baino. EKBren azken helburua, euskararen eta euskal kulturaren normalizazioa da.

Batzarre honen lehen ekintzetako bat izan da kultur sail ezberdinen artean euskararen normalizaziorako oinarriak ezartzea, bideak markatzea eta helburuak argitzea. Dossier bat landu ondoren, argitara eman da, laburturik, *Jakin* aldizkarian[55].

Txosten honen barruan, komunikabide sozialek bere tokia dute euskararen egoeraren eta etorkizunaren azterketan, euskararen irakaskuntzaren, euskarazko irakaskuntzaren, administrazio publikoaren, gizarte-zerbitzuen eta lan-munduaren ondoan.

2.2.1. Egoera eta ETB

Egoerari iraganaren aldetik begiratuta, orain artekoan eskasia nabarmentzen du EKBk:

> «Euskal Telebista (ETB) martxan jarri arte, euskarak ez du telebistan duintasunezko presentziarik izan»[56].

Egoerari sinkronikoki begiraturik ere, ETB bakarrik salbatzen da, gainerakoek deus gutxi egiten bait dute euskaraz, eta, okerrago dena, norabide hori aldatzeko eskumenik eta botererik ez dugu. Ez euskaratzeko, ez geureganatzeko egin dezakegu gauza handirik.

> «Areago: telebista guzti horiek estatalak direnez eta botere zentralaren menpe daudenez, ezin espero daiteke horietan euskararen kopurua gehitzerik. Errebindikatzea, hala ere, eginkizun geratzen da.
>
> Euskal Telebistari begiratu beharko diogu, bada, euskarak telebistan izan duen aurrerakada ikusteko. Ez dezagun ahantz, ordea, bost katea daudela Madrile eta Pariseren eskuetan eta esparru horietan Autonomi Estatutuak ez duela inolako transferentziarik eskaintzen TVEri atxekiriko bi katea espainoletan eta bi programa erregionaletan eskua sartzeko. Ez dezagun ahantz, ezta ere, gaur egungo marko juridikoan, Komunitate Autonomoaren marko juri-

dikoan alegia, ezin dela ezer asko egin hori euskaratzeko (ezta gureganatzeko ere)»[57].

2.2.2. Laugarren eta hirugarren kateak

ETBri berari buruz, katea bat oso-osorik euskalduna eskatzen du, aldamenean beste katea elebidun bat izango duena.

Laugarren kanalaren jatorrizko projektua erabat ez errespetatzea salatzen du, hots, erdara sartzea, arrazoi politiko eta ekonomikoak direla tarteko. Hirugarren kanala martxan ez jartzean dago gakoa, bi kateatan bana zitezkeenak laugarren kanalean gurutzatu bait dira horregatik. Eta honen errua Eusko Jaurlaritzari egozten dio oso-osorik. Eusko Jaurlaritzak egin beharko lukeen minimoa, hau litzateke EKBren ustetan:

> «Politikoki, ikuspegi abertzale batetik begiratuta, bi kateak martxan edukitzea izango litzateke errentagarriena: katea bat gehienbat gaztelaniaz, kanpokoentzat eta bertako euskaragabeentzat, eta beste katea bat euskara hutsean euskaradunentzat.
>
> Katea elebidun edo diglosiko horren egitekoa TVEri konkurrentzia egitea eta bezeria kentzea izango litzateke, euskara piskanaka sartuz eta herritarrengan euskararekiko joera positiboa sortuz, gero euskara hutsezko telebistara pasatzeko moduan izan daitezen»[58].

2.2.3. ETB normala eta alfabetatze-euskalduntzeak

ETBn hizkuntza nazionalari, euskarari, eman zaion trataerak, euskara hizkuntza arrunt gisa erabiltzeak alegia, arras komentzitzen du EKB. Euskarak erabilpen arrunta duenez eta ETB telebista normala denez, Komunikazio-hizkuntza modernotzat hartzen da ETBn euskara.

Honetan bat dator EKB ETBko Zuzendaritzarekin, erdara errotik kenduz gero. Baina euskara funtzionala, modernoa, baliagarria eta bizia dela frogatzeaz gain, ETBk euskararekiko beste egiteko bat ere bete beharko luke, hots, euskalduntzea eta alfabetatzea:

> Eta telebista 'normal' bat izatea bezain garrantzitsua da euskararen egoera 'anormal' honetan telebista Euskalduntze- eta Alfabetatze-lanetarako ere erabiltzea. Konplexurik gabe gainera»[59].

2.2.4. **Proposamenak**

EKBk egiten dituen proposamen hauen funtsa, euskararen gizarte-presentzia handiagotzea da; presentzia, baliabide gehiagotan eta lur-eremu zabalagoan. Baliabide gehiagotan, hots: ez bakarrik ETBn, baizik eta kanal estatal (bi espainolak eta Frantziako hiru) eta programa erregional guztietan (Telenorte, Telenavarra eta FR3koan) eman behar zaio euskarari duintasunezko trataera eta kopurua. Eta lur-eremu zabalago hori, Euskal Herri osoa da: «Euskal Herri osora hedatuko den Euskal Telebista Nazionala izatea»[60].

Derrepentekoa eta minimoa, dena den, hirugarren eta laugarren kateak martxan izatea da[61].

EKBren ustetan, bide luzea du oraino euskarak, euskara telebistan normalizatzekotan.

3. ZENBAIT AUTOREREN JARRERAK

Ezina gertatzen da ETBz idatzi duten guztien artikuluak laburbiltzea. Hautapena egin beharrean aurkitu gara. Aukera honetan erabili dugun erizpide nagusia asmatzea ez da zaila: ETBren hizkuntz ereduaz ihardutea, luze nahi motz, baina zuzenki eta espreski honetaz. Kanpainaren batean arazo honetaz aritu izan direnak aparte, zein bere lekuan, bere testuinguruan, ikertzen ditugu. Erizpide honetaz baliaturik, sei autore aurkezten ditugu, ikuspegi ezberdinen lekuko.

Azaldu diren eritziak globalki harturik, zer esan? Banan-banako azalpenean sartu aurretik, hiruzpalau ohar egin dezagun.

Telebistaren projektuak politikoen artean izan du kontrakarrik haundiena. Zorionez ala zoritxarrez, gainerako sail guztietan eta bereziki herri mailan, zenbait igarlek profetizatu baino kontrajarpen askoz gutxiago izan du. Komunikabideetan agertu diren jarreretan antzeman daiteke hori erraz. Gizartearen erantzuna, alde honetatik, askok espero baino hobea izan da.

Erdal sektoreengandik espero zen erresistentzia eta kontrakarra. Eta gertatu, ez da horrelakorik gertatu. Egunkari jakin batzutako artikuluak eta zenbait gutun salbu, erdaldungoan ez da ETB-ren aurkako girorik sortu.

Kike Amunarrizek dioen bezala, inongo traumarik gabe onartu eta asumitu da ETB[62]. ETBrekiko mesfidantzan eta kritikan gehien nabarmendu dena, R. Zorrilla izan da. Bestela ere ez da falta izan kritikarik, baina, egia esan, kritikek ez dute izan pisu edo desarroilo handirik, Vicente Copak *La Gaceta*-n, Julio de Benitok *Tribuna Vasca*-n, Julio Caro Baroja *El Diario Vasco*-n egin dituztenak lekuko.

Erdal sektoreen erantzunik ezaren arrazoia zein ote? Bi esplikazio-modu eman daitezke. Bata, Kike Amunarrizek ematen duena, hots: sektore hauetan ere espero zela ETB euskaraz aritzea[63]; eta bestea, R. Zorrillak ematen duena: urtebete pasata ere gehiengoak ez duela ETBren berririk[64].

Onarpena ala ezjakintasuna arrazoi, kuestioa da ezen uste baino oposizio sozial gutxiago izan duela ETBk bere hasieran. Ez hori bakarrik. Euskaldungoaren ia salbuespenik gabeko onarpen masiboa izan du. Kike Amunarrizek dioenez, «euskaldunengandik jaso duen erantzunez, zerbait esatekotan, jaiotze honek bizi izan behar izan dituen baldintzetan ezin zitekeela hobea izan uste dut»[65].

Kritika gutxiegi izan duela baieztatuko genuke guk. Itsuturik bezala gelditu da euskalduna ETBren aurrean. Euskaldungoaren izpiritu kritikoa erdararen presentziarekin hasi da mugitzen, astintzen, asaldatzen eta haserretzen. Baina ez gara hemen kritika-mota honetaz ari.

Alderdi linguistikoaz besteko kritika, urria izanik ere, inportantea izan da. Hona kritikatu diren puntuak: produkzio propioaren eskasa[66], telebistaren berezko kalteak ahantziz, euskara aitzakia nagusi bilakatzea[67], TVEren kalko hutsa izatea[67bis]. PNVren ideologiaren menpe egotea[68].

3.1. RESTITUTO ZORRILLA

ETB gai bezala gehien erabili dutenetako bat R. Zorrilla dugu, zalantzarik gabe. Arazo honetan, bere burua ikertzaile independente bezala aurkezten du[69], eta, bere asmoa azaltzean, honela dio: «organizar un seguimiento con métodos científicos e independientes de pertenencias políticas tanto de los contenidos como de las formas».

Kazetal artikulu-saila idatzi du Leioako Informazio-Zientzietako soziologo honek. Lanik sakonena, zertan esanik ez, «La

televisión autónoma vasca y el discurso legitimador» da, 50 foliotako txostena, Madrilen ospaturiko «Simposio internacional sobre políticas informativas y de comunicación» delakoan irakurria 1984eko urtarrilean.

Sortu aurretik nahiz sortu ondoren, R. Zorrillak ez du eritzi positiborik ETBri buruz. Haren ikuseraren lekuko izan daitezke honako pasarte hauek: «Con siglas de extraterrestre»[70], ez da beharrezkoa[71], ez da desiratua[72], harrapataka jaioa[73], kazetal enpresentzat konpetentzia desleiala[74], agintearen manipulazio-tresna[75], baliogabekoaren sublimazioa[76], kontenplazio egozentrikoaren tresna[77], berritzaile eta progresista izan ezina[78].

Aipaturiko akats, muga edo arrisku hauetariko batzu modu honetako edozein projekturi legozkioke; beste batzu, aldiz, espreski eta zuzen-zuzenean ETBri, baina hauek eta haiek ETBri aplika dakizkioke, eta R. Zorrillak egotzi egiten dizkio, noski.

Ikus ditzagun autore honen pentsamenduaren puntu batzu.

3.1.1. Euskara eta telebista publikoa, ezkontezinak

Aginte-finkapenaren, komunitate-banaketaren eta telebistaren manipulazioaren erdi-erdian dago ETBn euskara. Lau puntutan zabalduko dugu ikuspegi hau, argumentazioaren garapen logikoa jarraituz:

Lehenengo eta behin, abertzaletasunak gizartea bitan banatzen du, jatorriari eta hizkuntzari begira zatitu ere: alde batean euskaldunak, eta bestean erdaldunak, etorkinak. Manikeismo hau berezkoa du abertzaletasunak. Antagoniko izaki, bateratzerik eta integratzerik ez dago.

Bestalde, gizartearen erdibiketa hori behar-beharrezkoa du burgesia berri abertzale euskaldunak, bere agintea garantizatzeko eta gotortzeko. Bitasun honetantxe datza bere agintearen iraupena. Bi komunitate horietatik, erdalduna eta euskalduna, aukeratu egiten du bata eta marginatu bestea. Aukeratua, zertan esanik ez, euskaldungoa da.

Nola jokatzen du, ordea, bitasun hori finkatzeko? Bi euskarri ditu abertzaletasunak honetarako: euskarri geografikoa, bata; eta euskal telebista, bestea.

Euskarri geografikoa *rocaforte* bat litzateke, non pilatzen bait ditu zerbitzurik gehienak. Gipuzkoaren kasuaz ari da bereziki.

Euskal telebista da, esan bezala, bigarren euskarria. ETB, izan

ere, euskaldungoaren funtzioan dago; areago: beronen erreprodukziorako.

Birprodukzio hori lortzearren, hizkuntz politikaren tresna bihurtzen du ETB aginte politikoak. Instrumentalizazio politikoa da hori[79] eta honetantxe dago geroko gaitz guztien iturburua, R. Zorrillaren eritzian. ETB alfabetatzearen eta berreuskalduntzearen erreminta deklaratzea, estratagema bat da agintearen eskutan[80]. Honela, bitasun horren sinbolo eta une berean tresna gotortzailea da ETB. ETBn hizkuntz normalizazioa ez da helburua; hizkuntza, helburu ez, baizik tresna da. ETB, beraz, ez da hizkuntz politikaren tresna, aginte-aparailuaren tresna baizik.

3.1.2. ETBren funtzioak

ETBren erabilera aipaturiko hau delarik, hona telebista euskaldunak betetzen dituen egitekoak R. Zorrillaren ustez:

a) *Diskriminatzailea eta marginatzailea da ETB.*

> «La voluntad del pueblo vasco sobre el carácter no discriminatorio de la institución televisiva autónoma es aplastante. No obstante esta mayoría casi unánime, el grupo detentor del poder, el PNV, va a distorsionar la voluntad popular para imponer el criterio de la minoría, ese 10% que opina que la ETB debe ser *sólo para los que saben euskera* '...' tras su incorporación al plan general de enseñanza del euskera como un instrumento de alfabetización, la ETB se constituye como *una televisión de minorías definitivamente*»[81].
>
> «Una mayoría de la población vasca puede considerar un fraude el que 'su' televisión le ofrezca una película que para comprenderla tenga que leer los subtítulos. También esa misma mayoría podría sentirse marginada –y por tanto ofendida– cuando Labayen dice '*nosotros entendemos que la televisión, como instrumento cultural y político, en su faceta de lengua castellana, tiene ya una cobertura por parte estatal*', se podría entender que el Gobierno vasco actual considera como 'disminuidos lingüísticos' a los que sólo saben ver la televisión '*en su faceta de lengua castellana*' [82].

b) *Txikikerien handitzailea*

> «La televisión, según su uso, puede ser una ventana abierta al mundo o un instrumento de contemplación egocentrista, de admi-

ración del 'yo' local. El riesgo de caer en la última alternativa es mayor en una comunidad que tiene como elemento diferenciador una lengua de uso minoritario. La voluntad de informar en euskera preferentemente obliga a los entrevistadores a buscar entrevistados capaces de responder en euskera. Por ello deben acudir más o menos y según los acontecimientos a las mismas personas. Los mismos individuos entrevistados repetidamente terminan por ser personajes locales, pero el grupo de donde se extraen es tan reducido que necesariamente refuerzan la presencia del grupo de extracción»[83]

c) *Bi komunitateen sendartzailea*

«En este sentido hubiera sido útil aportar nuevos datos, aún a costa de desbordar el cuadro del discurso legitimador, para cimentar sólidamente la sospecha de que la televisión autónoma en este momento histórico responde a un proyecto sumergido del Partido Nacionalista Vasco, actual gerente del poder en Euskadi, pretende instaurar de hecho, porque no es posible de derecho, la existencia de dos comunidades. En este marco habría que situar la reivindicación del 3.er canal de televisión para emitir en castellano. Se trataría, en efecto, de asegurar para el futuro la continuidad de una red de comunicación completamente en lengua autóctona para el caso, al parecer todavía lejano, de que otro partido no nacionalista se hiciera con el poder en Euskadi, como el socialista. Es legítimo pensar que este partido, que lógicamente no comparte el punto de vista nacionalista, no osaría tocar el actual régimen de la televisión autónoma, el cuarto canal, sin provocar grandes conflictos»[84].

d) *Zilborraren mireslea*

«Desde nuestro punto de vista, sin embargo, pensamos que va mucho más allá. La televisión autónoma incide en la misma naturaleza de la noticia y de sus protagonistas. En efecto, su información se centra sobre las instituciones autonómicas, sobre las fuerzas sociales vascas y sobre todo aquello que se puede encuadrar en la categoría sociológica de lo 'local' y correspondería aproximadamente en sus contenidos a las páginas regionales de los periódicos. De los treinta minutos se dedica a la información de España, igual tiempo que el empleado para la información internacional. De esta especialización en lo local se sigue un hecho notable; aquello que es escasamente 'noticiable' a nivel del Estado adquiere un valor a

nivel local por el sólo hecho de ser noticia en televisión, que se transforma de esta manera en la 'plaza del pueblo'. Quiero decir con ello que, desde un punto de vista de la sociología de lo local, este tipo de televisión cumple la función social de la plaza del pueblo en una sociedad tradicional: centro de intercambio de la vida cotidiana, aunque sea en este caso unidireccional. Es una sublimación de lo insignificante. Hechos como la 'hazaña' de un individuo que ha escrito en una tarjeta de visita mil quinientos nombres de pueblos y barrios de Euskadi o un concurso gastronómico adquiere el rango de noticia»[85].

e) *ETB, aginte abertzalearen finkatzailea.*

«No pensamos que tras lo dicho pueda cuestionarse la función de la televisión vasca en este momento histórico como mecanismo de consolidación de lo que hemos llamado el grupo dominante en Euskadi»[86].

«El proyecto de televisión vasca, tal como es concebida, piensa en el medio como un instrumento de una política lingüística, a su vez pensada en función de la perpetuación de un grupo social en el poder. Es evidente que la política lingüística actual ha introducido en la sociedad vasca un nuevo modelo de estratificación social. La desastrosa política lingüística del Gobierno Vasco ha transformado el euskera en un código mágico que permite a los iniciados constituir una casta, grupo de selectos, que se sitúan sólidamente en los escalones donde radica el verdadero poder: la administración pública»[87].

3.2. LUIS MARI MUJIKA

Luis Mari Mujikak, zuzenean eta zeharbidez, sarri heldu dio euskal telebistari. Nahiz EHE taldearen partaide gisa nahiz bakarka, euskararen normalizazioaren alde borrokatu da, egoera diglosikoa etengabe salatuz eta gogor baino gogor kritikatuz, bereziki euskal komunikabideekiko politika (likidazionista). Soziolinguistikaren testuinguru honetan kokatzen da telebistari buruz idatzi duen parte on bat ere.

Gai honi buruzko bere artikulurik eragileena, «Desautorización sistemática del euskara en Euskal Telebista»[88], ETBz baino areago ari da telebistan ispilatzen den errealitateaz, hau da, hiz-

kuntza nazionalaz abertzaleek (eta bereziki politikoek) duten jokaeraz. ETBk egiten duena da, gizarteko kontraesan horiek agerian jarri. Berak dioenez:

> «La pequeña pantalla nos da el termómetro de la anemia 'abertzale' en multitud de gente que ocupa puestos hoy en nuestra Administración. En efecto, es una tremenda burla y un desprecio grande (porque resulta, por lo que sea, 'sistemático' que de los 25 minutos aproximados de TELEGUNKARIA, unos nueve aproximadamente están carcomidos por intervenciones en erdara»[89].

3.2.1. ETBren alde

Oro har, oso begi onez ikusten du L.M. Mujikak ETBren bidea: «En concreto, la televisión euskaldun merece, por ahora, nuestra más sincera enhorabuena por su cuantía y su dignidad»[90]. ETBri egiten dizkion kritikak oro zentzu berean doaz, euskara hutsezkoaren alde eta erdara sartzearen aurka.

3.2.2. Prestigio soziala euskarari

ETBk prestigio soziala demaie euskarari eta euskaldunari, biei, batipat haurren begietan. Arlote-izaera erantzi eta modernotasuna eransten dio euskarari. Baserritarren hizkuntza ez baino kultur hizkuntza da aurrerantzean euskara:

> «Todo esto es lo que un escritor vasco (que habitualmente no usa de la 'eficacia omnipotente' del gran castellano) quería decir hoy, a modo de reflexión, frente a la pequeña pantalla, en que por fin oímos en la 'lengua agraria y arlote' (...) cosas lindas desde los labios de mises del Canadá o Inglaterra, o de los sonrosados de cualquier negro del Caribe. Inmenso milagro que tenemos que mantener»[91].

3.2.3. Eragin handia

Euskaldunaren gain eragin handia du telebistan euskara arruntki erabiltzeak, bitarteko prestigiotsua izaki, A hizkuntza bilakatzen bait da euskara. Imitazio-eragin handia du haurrengan batipat eta orain arte debekaturik zuen esparrua irabazi egiten du euskarak ETBri esker:

«En todo ese panorama desolador Euskal Telebista emerge como un estupendo logro. Pero Euskal Telebista, o bien, las ikastolas no pueden aislarse del contexto total de omnipotencia del 'gran castellano' en todos los ambientes y estructuras. Además, la población joven tiene derecho a pedir otras posturas más honestas de quienes están en la Administración. En efecto, el niño de la ikastola que no ve presente su idioma en 'situaciones de prestigio' como son la radio, la pantalla, la prensa, el Parlamento Vasco, inmediatamente se deshace de ese idioma 'artificial' que le quieren hacer vivir en la ikastola...»[92].

3.3. J.J. AZURZA

J.J. Azurza, Telekomunikazioetan ingineru, «Plan inmediato para una televisión vasca» egitasmoaren egilea da. MCS edo gizarte-komunikabideen zuzendari izan zen R. Labaien Kultur Sailburuaren lehen aldian, harik eta 1982an kargu horretatik apartatu zen arte.

J.J. Azurzaren egitasmoa bere lekuan aztertu dugu. Kazetari bezala egindako lanean, gure aztergaiari loturiko arazoan dioenaz arduratzen gara orain.

Sarri heldu dio *El Diario Vasco*-n euskal telebistarekiko arazoren bati, dela alderdi teknikoari, dela alderdi linguistikoari, dela programaketari, dela antolamenduari.

J.J. Azurza aski kritiko da ETBren sorrerako eta ihardunbideko zenbait puntutan. Puntu hauetako bat euskara da. Ez dator bat euskara batuarekin, ezta euskara hutsez egitearekin ere.

3.3.1. Euskara batuaren erabakia

ETBrako euskara batuaren erabakia hartutzat ematen zuen Gobernuak 1982ko ekainaren 24ean, bestelako itxurak egin arren. Euskara batua inposatzeko arma paregabea omen zuten hori batuzaleek, azken soluzioa. Hona J.J. Azurzaren salakuntza:

«La presidencia del Gobierno efectúa en estos días una encuesta acerca de la actitud hacia el euskara. Incluye la pregunta 'en qué euskera cree usted que debe emitir la Televisión Vasca: vizcaino, guipuzcoano, batua...?' –pero ya la cuestión está decidida.

Además de ser en euskera, la Televisión Vasca será el 'gran cañón Bertha' con el que se impondrá el 'batua' no sólo en lo escrito

sino **hasta el lenguaje hablado.** Los exámenes y selección de traductores y locutores para radio y televisión, han sido pasados por el cedazo del 'batua' oficial. Hay que acabar los modismos regionales vascos. La televisión vasca será al parecer, la **'solución final'** (¿les recuerda algo?) a la cuestión lingüística en Euskadi...»[93].

3.3.2. Erdara sartu beharra

Artikulu berean, J.J. Azurzak ez zuen uste euskal telebista osoki euskaraz egingo zenik, Labaienek kontrakorik esan arren. «Existe incredulidad dentro de la televisión vasca sobre una programación netamente euskérica», konstatatzen du, deklarazioak alde batetik eta preparazioa bestetik doazela seinalatuz.

Baina, telebista martxan jarri-berritan, besterik ikusten du J.J. Azurzak, eta lehenago «el objetivo de la televisión vasca es impulsar el euskera» aitortu badu ere, euskara hutsezko telebista ez du begi onez ikusten. Nola eta zein neurritan ez daki, baina erdarari leku bat egin behar zaiola, bai.

> «Como Txillardegi y Amuriza recalcaron en las entrevistas de Año Nuevo, la utilización del euskera en sus emisiones será una piedra de toque fundamental. Nace la televisión vasca como un esfuerzo supremo para apuntalar la credibilidad del euskera en las mentes infantiles y juveniles, que hasta ahora sólo venían viendo personajes que hablaban castellano en la pequeña pantalla. Es indiscutible que en derecho y en justicia, los euskaldunes necesitamos una mayor utilización de nuestro idioma (...).
>
> Espero que la televisión vasca no caiga en la paranoia de ignorar que muchos vascos, por razones ajenas a ellos, no heredaron el uso de la lengua de sus mayores, y si desea ser un canal de expresión vasco auténtico, dé entrada –habrá que ver cómo y en qué cantidad– al castellano»[94].

3.4. TXILLARDEGI

Txillardegi, idazlea da, EHEko partaidea eta soziolinguistikako irakaslea.

1982ko abenduaren 25ean *El Diario Vasco*-n J. Zubiaurrek, Euskal Irrati-Telebistaren buruak, egin deklarazioek ordurarte isilik zegoen Txillardegi asaldatu egin zuten. Zubiaurrek, bere le-

kuan agertu dugunez, programazioaren esparru guztietan leku egiten zion erdarari. Txillardegik, hori dela eta, «Euskal Telebistatik Televisión Vascara» jarri zion izen bere artikuluari[95].

> «Eta orain, EUSKAL TELEBISTA-ren bezperan egon uste genuenean, TELEVISION VASCA heldu»[96].

Eta honen ondoren «PNV-aren erdaltzalekeria amorratua eta guztizkoa» erasotzeari ekiten dio, ondorio honetara iristeko: «PNV-ak erdal-herria dakarkigu, una cantabria oriental de silbote norteño y chapela ancha»[97].

Txillardegik ETBz agertu duen jarrera puntu hauetara laburbil genezake:

3.4.1. PNVren eskaintza eskasa

PNVk eskaintzen duena ez da behar duguna, Txillardegiren ustetan:

> «Egoera orekatuan egoteko, HAMAZAZPI IRRATI, ETA BI TELEBISTA KATE, *euskara hutsez*, beharko genituzke.
>
> Honen ordez, telebista *diglosiko eta 'harki'* bat eskaintzen zaigu»[98].

3.4.2. ETB, arrakasta

Bi urte eta gehiago igaro ondoren, ETB martxan ikusi eta gero, honela hasten du artikulu bat Txillardegik:

> «Alferrik da ukatzea edo ahaztea: urte hauetako arrakasten artean jarri beharra dago Euskal Telebista katea»[99].

3.4.3. ETBren bi funtzio

ETBri bi funtzio garrantzizko ematen dizkio Txillardegik: euskaldunen artean euskara zabaltzea, bat; eta erdaldunen artean zabaltzea, bestea:

«Ia-ia hori bezain inportantea: euskara *sekula entzuteko aukerarik ez dutenek* (...) topo egiten dute; eta gu, euskaldunok, hor nonbait, bagaudena somatzen dute»[100].

3.4.4. Euskara hutsezko telebista

Euskara hutsezko telebista baten aldekoa da Txillardegi. Eta ez ETB bakarrik, euskara hutsezko ekintzak, eskolak, prentsa eta fakultateak ugaltzea proposatzen du, hizkuntzen erabilpena nola mamitzen den jakinda. Guztiz beharrezko ikusten du Txillardegik giza multzo eta hedabide euskaldun elebakarrak zabaltzea. Honegatik eta honetarako aldarrikatzen du Txillardegik:

«GUTXIENEZ EUSKAL KATE BAT behar dugu. GUTXIENEZ, berriz ere. EUSKARA HUTSEZ, jakina»[101].

3.5. JULIO CARO BAROJA

1984eko ekainaren 4ean, Eusko Legebiltzarreko alderdi politikoek aho batez hautatzen dute J.C. Baroja Euskal Irrati-Telebistako kontseilari bezala, Batzorde honetan PNVk gainerako alderdiekin zuen hainbanapena desegiteko. Euskal Irrati-Telebistako Batzordeko independentea bezala aurkezten dute kontseiluko partaide guztiek[102]. J.C. Barojak baietza eman eta hamabost egunetara bilkura batean bakarrik egonik, bere dimisioa aurkezten du, zer eginik ez zuela eta[103]. Ikus ditzagun eman zituen arrazoiak, okasio horretaz baliatuz.

3.5.1. ETBren urte t'erdiko praxiaren aurka

Tarte honetan ETBri buruz zenbait deklarazio egiteko astia izan du J.C. Barojak. Orain arte ETBk jarraitu duen hizkuntz ereduarekin ez dator bat J.C. Baroja. Barojaren ustetan, ETBk elebiduna izan behar du. Elebiduna eta euskalkitan emana. Baterako eta besterako aurkezten dituen arrazoiek, biek dute oinarri bera: herriaren egiazko premiei egokitzea. ETBk informatiboa izan behar du eta zinezko beharrizanei erantzun, J.C. Barojaren ustetan, eta, beraz, erdarari leku egin, batez ere. Beronen pentsamoldea azaltzeko, deklarazioak banan-banan ematea dateke hoberena:

«Sobre los criterios lingüísticos aplicados en la radio y la televisión vascas albergo las mismas serias dudas que sobre la política lingüística en general que se está haciendo hoy en el País Vasco, y que se caracteriza por tanto por un exceso de carga ideológica como por una evidente falta de visión socio-lingüística.

Lo que impera son los criterios de los lingüistas puros, que no tienen en cuenta la situación real, especialmente en Vizcaya y Alava, donde el número de vascohablantes es muy reducido, por lo que no es necesario ser un profeta para prever que enfrentamientos como los producidos estos días en Mondragón y otros lugares serán la norma y no la excepción»[104].

3.5.2. ETBren oraingo hizkuntz ereduaren aurka

«Si se quiere utilizar la televisión como elemento de euskaldunización debe ser en euskera, pero la televisión aporta además información y entonces necesariamente debe ser bilingüe»[105].

«La utilización exclusiva del euskara en la televisión vasca durante su primera andadura no responde a las necesidades reales del país, donde Alava apenas habla euskera, en Vizcaya algo más y amplios sectores del país no utilizan esta lengua. Yo creo que una televisión tiene que ser informativa y responder a la situación real del ámbito que cubre»[106].

3.5.3. Erdara/euskalkiak ETBn sartzearen alde

Honela du elkarrizketak titulua, alegia: «Caro Baroja: 'En ETB se debía hablar euskera, dialectos y castellano»'. Euskara/erdararen erabilpenaz hau dio bertan:

«Creo que hay que repartirlas, porque hay una porción del país que está deseando oír el idioma, pero no sé si todos los programas son en el idioma expresado de manera adecuada, porque se elimina el dialecto, y por otra parte hay una gran parte del país que habla castellano. Si se va a pensar que el idioma es la raíz de todo lo que es cultura hay que tener muchas precauciones en su manejo».

3.6. JOAN MARI TORREALDAI

ETB eta euskararen inguruko arazo hauetara geu ere behin eta berriz itzuli izan gara azken lau urteotan. Eztabaida horiexetan

agertu zitzaigun, hain zuzen, arazoa sakonkiago aztertzeko premia, ikerketa sistematiko bati ekiteko asmoa hartuz, distantziarekin eta denboraz. Orain beraz, beste edozein autorerenak bezala ikusiko ditugu orduko geure eritzi haiek, eztabaidaren parte bezala, alegia. Artikulu gehienak **Jakin** aldizkariaren «Orain eta Hemen» sailean idatzi genituen, unean uneko arazoari helduz, baina, beti ere, euskararen auziari lotuz[108].

Artikuluska hauetaz gain, hiru azterketa burutu genituen: «ETB y la función social del euskera»[109], «Telebista eta euskararen normaltzea»[110] eta «Euskal Telebistaren lege arazoak»[111].

Honela sailka daitezke orduan arakatzen genituen puntu nagusiak:

3.6.1. ETB euskaldunaren alde

ETBren hizkuntz politika, hau da, ETB euskalduna, arriskutan dago etengabe. ETB erdarara lerratzeko arriskua beti gordean dago, euskararen eta gaztelaniaren indar-erlazio linguistiko, kultural, sozial eta politikoa aintzat harturik. Beste askok bezala, ETB euskaldun hutsaren alde posizionatu ondoren, bigilantzia-moduren baten eginbeharra geure gain hartzen genuen.

a) *Arriskuak ikusten dira inkesten erabilera manipulatzailean:*

> «Horregatik, inkesta gora-behera, euskal telebistak zein hizkuntzatan izan behar duen galderak zutik dirau. Inkesta batek egoeraren (berdin egoera alienatuaren) berri ematen du, hori bai, baina ez du politikarik markatzen. Gehiengoaren eritziaren alde edo kontra erabakiak hartzea, hori aginteari dagokio, Gobernuari, horixe da gobernatzea. 'Gouverner, c'est choisir' esan eta idatzi ohi zuen hilberri den P. Mendès France frantses politiko miretsiak. Hautapenok, esango nuke, inkestetan baino areago Gobernuaren beraren filosofian oinarritu beharko dutela. ETBko hizkuntza hautapen batek erabakiko du, edozein modutara estali nahi bada ere»[112].

b) *Arriskua ikusten da J.C. Baroja Administrazio-Batzorderako aho batez hautatzean.*

Barojak ETB euskaldunaren aurka eta euskalduntze prozesuaren-aurka esan eta idatzi dituenak aztertu ondoren, susmoa agertzen da euskarazko telebista hori 'berrikusi' egingo ote duen aginte politiko berriak:

«Hemendik ote doa ETBren oraingo hizkuntz filosofia? Aho batez hautatua izan denez, zer besterik pentsa liteke? Bigarren aldiari ematen ote diogu hasiera benetan? Lehen aldia, bihozbero, militante eta linguistena. Bigarrena, aldiz, heldutasunezkoa, errealista, soziologikoa, orekatzailea. Tresnari berari ere zor zaion begirunea kontutan hartzen duena, hots, telebista batez ere informaziorako bait dago, informazio-gudua irabazteko, eta ez euskara jasotzeko, goratzeko, prestigiatzeko, aupatzeko, promozionatzeko edo salbatzeko.

Hizkuntz politikaren tresna bailitzan telebista ulertzeak egin ote du? Tokitan leudeke Labaien baten jatorrizko asmoak eta ETBren urte t'erdiko praxia»[113].

c) *ETBko azken grebetan ere ez da arriskurik falta.*

Barruko istiluek giroa gaiztotu eta projektua ahuldu egiten dute, euskal kulturaren eta euskararen alde borrokatzeko militantismoa eskas bide dago, politikoki erasoak ugalduz doaz, Eusko Jaurlaritza berriaren euskararekiko epeltasuna...

«Istilu eta operazio guztien ondoren, ETBren jatorrizko asmoa bere jatortasunean mantentzeko indarrak egunetik egunera ahulduz doazkigu. Trabak oro bidetik kendu ondoren, telebista erdalduna berez datorkigu, inongo traumarik gabe. Eta eskandalurik gabe»[114].

3.6.2. **Euskararen arragoa da telebista**

Euskarak ETB behar du, bai hedapenerako eta bai normalizaziorako. Ghettotik irteteko eta baldintza azpisoziolinguistikoetatik bere burua jasotzeko, nahitaezkoak ditu komunikabideak, eta batez ere telebista, indartsuena bera denez.

«Telebistak –telebistak bakarrik– ez du euskara salbatuko, baina telebistarik gabe ez da euskararik salbatuko. Soziolinguistikaren oinarri-oinarriko ekarpentzat har dezakegu hau. Euskararen egituratze-prozesuan behar beharrezkoa da telebista. Euskararen erabilpenaren eta gizarte-presentziaren testuinguru zabalago batetan sartzen da telebista. Mass-mediarik gabe, eta bereziki telebistarik gabe, euskara ez da hizkuntza osoa, heldua, ez da modernoa. Euskararen arragoa da euskal telebista»[115].

3.6.3. Aukera antidiglosikoa da ETBrena

Euskara nola mami zitekeen euskal telebistan, inork gutxik zekien hasieran. Auzia ez bait zen soil-soilik euskara/erdara portzentaiena, edota euskara/euskalkiak hautabeharrarena, baizik eta euskarari berari emango zitzaion funtzio soziolinguistikoa. Telebista normal batek dituen eginkizun guztietarako erabiliko al zen euskara? Hizkuntza nazionalaren, osoaren, eta helduaren erabilera izango al zuen? Honela planteatzen zen orduan hautabeharkizuna eta autua, aipatu artikuluetan:

> «Nere ustetan ETBren 'handitasuna' honetantxe dago, hots, telebista konbentzional, arrunt bat izatean. Euskaraz, hori bai.
>
> Aipa ditzagun euskararen erabilpen posible batzu:
>
> 1) Euskal telebista euskararen erreprodukziorako erreminta bezala erabiltzea, hau da, euskara irakasteko/ikasteko: «ETB-euskaltegi».
>
> 2) Euskal telebista hezkuntz sistemaren tresna gisa ulertzea, eskolarako, edukaziorako: «ETB-ikastola».
>
> 3) Euskal telebistan zenbait eginkizun bazterreko, marginal, ezmodernotarako erreserbatzea euskara; eman dezagun, euskal kulturarako, folklorerako, euskal gaietarako, herri-kiroletarako.
>
> 4) Euskal telebistan euskara hizkuntza arrunt bezala erabiltzea, bai informazioan, bai kulturan eta bai gainerako eginkizunetan. Komunikazio-hizkuntza modernotzat hartzea euskara, Frantziako telebistetan frantsesa eta espainoletan espainola bezala, eta kitto.
>
> Laugarren bidetik jo du ETBk. Bide honen egokitasuna azpimarratzeko, erants dezagun beste hau: biziki inportantea dela ETB euskaraz izatea, noski; baina ez dela garrantzi gutxiagokoa ETBn eginkizun funtzional moderno hau aitortzea euskarari.
>
> Euskararen gaurko desafioa hauxe da: bere funtzio pragmatikoa. Funtzionatuz erakusten/frogatzen du euskarak funtzionala dela, baliagarria eta bizia dela»[116].

3.6.4. Euskararen pragmatismoaren eta modernotasunaren sinbolo da ETB

ETB, telebista txiki bat da. Euskarak bere baitan eta gizartean dituen hainbat katramila, arazo eta muga ezin ditu konpondu eta gainditu honelako telebista txiki batek. ETBri sektore euskaltzaleek honen garrantzi handia eman badiote, arrazoia bere esanahian eta ordezkatzen duen honetan aurkitu behar da. ETBren in-

darra ez dago hainbeste bere eragin fisikoan, horren bidez euskarari aitortzen zaion hizkuntz statusean baino.

> «Todo el esfuerzo lingüístico-cultural de la generación 56/64 (ikastolas, alfabetatze/euskalduntze, nueva canción vasca, unificación del euskera, normalización lingüística) ha pretendido dotar al euskera de todos los registros, afectivos y efectivos, subjetivos y objetivos y evitar que su función fuera exclusivamente la del lenguaje materno, la del lenguaje místico, poético, sentimental, «nacional», folklórico, étnico. Ha querido convertir el euskera en lengua práctica, útil, funcional, lengua de comunicación; funciones todas ellas que se realizan al menos simbólicamente en la ETB»[117].
>
> «La presencia digna (digno vs marginado) del euskera en el medio tecnológico moderno por excelencia que es la televisión significa ni más ni menos la consagración de la modernidad de la lengua. Así se convierte en realidad el dicho de McLuhan: «the medium is the message». El euskera en la televisión encarna la imagen de un lengua actual, culta, moderna, capaz de subvenir a las necesidades del mundo moderno. ETB es el prestigio y el realce del euskera»[118].

4. INKESTAK: AUDIENTZIA ETA ERITZIAK

ETB galdegaitzat harturik, zazpi inkesta egin dira, bi urte pasatxoan[119]. Horietatik hiru, jendeteriaren ETBzko eritziak ezagutzeko izan dira. Eta beste laurak ETBren audientzia neurtzeko.

Nolabait esan, era batera edo bestera, ETBren sinesgarritasuna, arrakasta soziala dago auzitan. Azken batean koantitatiboki neurtu nahi da ETB gizartean. Audientzia on batek ETB justifikatu egiten du. Eta neurketa horren ondorio eskasak ETB kontestazio-bidean uzten du. Hauteskunde gisa ulertzen dituzte askok inkesta horiek. Arma jaurtikai gisa erabiltzen dira inkestak, eta ez, inola ere, emaitza estatistiko huts bezala; esanguratsu, hori bai, baina ez erabakior etorkizunari begira, hots, ereduari edo tratamendu linguistikoari begira.

Hau da, beraz, gerora erakusbidetzen saiatuko garenez, lehen egia nagusia: inkestak berez zientziaren araberakoak izaki, hauei esan erazten zaiena, batipat oposizioaren aldetik, ez da batere zientifikoa, politikoa baizik.

Guk hemen inkestak bere osoan aztertzerik ez dugu. Beste lan

bat da hori. Puntu aztergarri eta esanguratsu batzu ikertzera mugatuko gara. Baina zergatik lan honetan eta testuinguru honetan inkesten aipamen hau? Aipamenaren eta kokalekuaren zergatiak ez dira ulergaitzak: gizarte mailako jarrerak aztertzen ari garenez, inkestak, eritzietan zein audientzi kopurutan, erantzun sozial bat dira. Oker handirik gabe esan daiteke agian, ahots-gabekoen ahotsa direla, izenari eta koalifikazioari jaramon egin gabe biltzen den eritzia. Politikoen, kultur taldeen, zenbait pertsonaren eritziak ezagutu ondoren giza-multzoen eritzia ezagutzera gatoz orain.

Hiru dira guk hemen aztertuko ditugun puntuak. Lehena, telebistaren ikusentzuleen kopurua, hots, audientzia orokorra. Bigarrena, programazioa eta euskara, hau da, zein programa euskaraz eta zein erdaraz. Eta hirugarrena, telebista euskaraz ala erdaraz, alegia, zein hizkuntzatan nahi duten ETB.

4.1. AUDIENTZIAREN ZIFRA OROKORRAK

ETBren audientzia zertan den aztertu nahi izan da une eta kasu bakoitzean. Inkesta guztiek ez dute juxtu-juxtu helburu hori izan, eta orobat, erizpide diferenteekin eginak izaki, ez dira denak era honetan erabilgarri. Hona hemen batean biltzerik izan ditugun audientzi kopuruak. Kasurik gehienetan gainerako kateekin ere konpara daitezke.

Inkesta \ Katea	ETB	TVE-1	TVE-2
Gallup	27	79'6	23'7
Tecnimedia	21	46'5	19
CIES	14'7	64	22
EGM	14'1	—	—

Zifra hauen esanguraz sortu den eztabaida eta egin daitekeen balorazioa beste nonbait aztertuko dugu, eztabaida-gaietan hain zuzen. Esan dezagun, aurrera baino lehen, ETBren intzidentzia hau batzurentzat eskasa dela oso eta ez duela justifikatzen diru

publikoaren inbertsio hain haundia; intzidentzia hori berori beste batzurentzat aurrera-pauso handi eta prometagarria da, eta galzoriko euskarari zor zaion minimoa.

Ezin utzi daiteke azpimarratu gabe, ETBren kasuan, audientziaren neurriak arras ezberdinak direla haurren eta nagusien artean. Kopuru orokorra barik haur eta gazteena ikusiz, adibidez, Gallup-eko inkestan, hona zifrak. ETB: % 51'2; TVE-1: % 89; TVE-2: % 24'3.

Kontutan izan behar da ETBk, izatez, programa gehiago eta egokiagoak dituela haur eta gaztetxoentzat pertsona larrientzat baino. Hau berau hobeki erakusten du audientzia osoa erizpide honekintxe banatuz:

— ETBren audientzia osoa: % 27
— Larrien audientzia: % 20'8
— Haur/gazteen audientzia: % 51'2

4.2. PROGRAMAZIOAREN HIZKUNTZ HOBESPENAK

Zein programa-motatan zein hizkuntza erabiltzea nahi duen jendeak jakiteak munta handia du, zalantzarik gabe. Besterik da gero zer ondorio atera behar den datu horietatik. Esan nahi dugu, populazio osoaren gain eginiko galde-zerrendak izanik, eta, noski, euskararen ezagutza-neurria gogoan izanda eta jendearen mentalitate diglosikoa ahantzi gabe, ez da batere harritzekoa telebista antidiglosiko euskaldun baterako datu positibo gutxi izatea. Hitz batean esanda, eritzi-bilketa honi jaramon eginez gero, ETB (edo euskaraz egingo litzatekeen beste edozein telebista) telebista diglosiko, folkloriko eta osagarri bat izango litzateke eta sekula ez telebista arrunt, oso eta komentzional bat.

Aitzin-ohar hau eginik, goazen inkestetara. Bi inkestek aztertu dute arazo hau: GALek (Gizarte Azterketarako Lantaldeak) aurretik, eta RTVEeko «Gabinete de Planificación» delakoak 1984-ean, ia bi urteko esperientziaren ondotik. (119 oharrean aurki dezake irakurleak inkesta hauen eta gainerako guztien fitxa).

4.2.1. GALen azterketa

Hona hemen taulak lurralde historikoz, eta aztertzaileek egiten duten irakurketa.

ARABA

¿Qué lengua le gustaría a Vd. que usara la futura ETB?

En	Siempre en euskera	Más en euskera	Más en castellano	Siempre en castellano
Noticiarios y Telediarios ..	7	31.2	45	16.7
Obras de teatro	9.5	36.2	40.5	13.5
Películas y seriales	6.5	28.7	46.5	18.2
Reportajes	10	36.7	40.5	12.7
Entrevistas	12	32.5	42.7	12.5
Concursos	10	37.7	12	
Programas infantiles	21.7	36	32.7	9.5
Dibujos animados	21.7	36	31.5	9.7
Deportes vascos	31.2	38.7	23.2	6.7
Otros deportes	9.7	37	39.5	13.7
Folklore vasco	35.5	35.2	22.7	6.5
Anuncios	20	30.7	37.2	11.5

BIZKAIA

¿Qué lengua le gustaría a Vd. que usara la futura ETB?

En	Siempre en euskera	Más en euskera	Más en castellano	Siempre en castellano
Noticiarios y Telediarios ..	23.5	28.5	30.2	17.7
Obras de teatro	30	28.5	27.2	14
Películas y seriales	25.2	28.2	29.2	17
Reportajes	30.7	31.7	24.7	12.5
Entrevistas	28	25.7	23.7	12.2
Concursos	29.5	31.2	25.5	13
Programas infantiles	50.5	25.7	15.2	8.5
Dibujos animados	52.5	24.5	15.2	8.5
Deportes vascos	50.7	26	14.7	8.5
Otros deportes	30.5	29.7	27.7	11.7
Folklore vasco	57.7	21.2	14	6.7
Anuncios	41.2	27.2	20.5	10.2

GUIPUZKOA

¿Qué lengua le gustaría a Vd. que usara la futura ETB?

En	Siempre en euskera	Más en euskera	Más en castellano	Siempre en castellano
Noticiarios y Telediarios ..	25.5	49.7	16.7	8
Obras de teatro	29.7	49.2	15.2	5.7
Películas y seriales	29.2	47.5	16	7.2
Reportajes	28.7	51.5	13.7	5
Entrevistas	28.7	51.5	14.7	5
Concursos	30	48.57	16.2	5
Programas infantiles	44	40.5	11.2	3.5
Dibujos animados	43.7	41.2	11.2	3,5
Deportes vascos	48,7	37.5	9.7	3.7
Otros deportes	35.2	45.5	14	4.7
Folklore vasco	51.5	35.5	10.2	2.7
Anuncios	37	42	15	5

Euskararen onarpena eta preferentzia, aztertzaileen ustetan, bitan bil daitezkeen lau kapitulutan ageri da: euskal folklorea euskal kirolekin batean, eta haurren programak marrazki bizidunekin batean.

Gaztelaniaren hobespena, aldiz, beste hauetan ikusten da: albisteak eta telegunkaria; filmeak eta telesaioak, eta teatro-lanak.

Aztertzaileen beren interpretazioan, honek adierazten duena, zera da: populazioaren parte handi batek berak ikusteko programak nahi ditu gaztelaniaz, ikusiko ez dituen programetarako eta haurrenzako utziz euskara.

4.2.2. RTVEko «Gabinete de Planificación» delakoaren azterketa

Hona, hasteko, taula:

Referencia idiomática para diferentes tipos de programas.

Es también interesante diferenciar el dato de la preferencia idiomática por géneros o categorías de programas. *De quienes definen su preferencia por cada tipo de programa*, los porcentajes que se inclinan por «castellano», «euskera» o «indiferente» son:

GENERO	castellano	euskera	indiferente
Telefilms y series	74,2	9,1	16.6
Teatro	82.2	6,2	11,5
Partidos de futbol	46,3	15,4	38,2
Otras retrans. deportivas	52,0	14,1	33,8
Telediarios, informativos	72,3	12,8	14,6
Información regional y local	64,1	20.9	15,0
Información deportiva	63,0	13,0	24,0
Reportajes sobre temas de actualidad	73,0	10,5	16,5
Culturales y divulgativos	69,9	12,6	17,4
Programas de debate, opinión o coloquios	77,9	8,8	13,3
Programas de variedades con entrevistas, música, etc.	68,2	10,1	21,7
Concursos	78,8	7,6	13,6
Musicales	55,5	15,8	28,6
Programas religiosos	73,1	9,5	17,3
Películas	70,5	8,3	21,2

Aztertzaileen irakurketan, lekuko informazioan du preferentzia euskarak. Eta hitza garrantzizkoa den leku guztietan (hala nola, teatroa, gaurkotasunezko erreportaiak, lehiaketak, filmeak, telefilmeak, elkarrizketak eta eztabaidak) horiexetan du euskarak aldeko gutxien. Multzo askoz handiagoa (% 42) dago, aurreko inkestan bezala, haurren programaketa euskara hutsez izatearen alde, ETBren ulertzapen edukazionalaren adierazgarri.

4.3. ETBko HIZKUNTZA

Auzi latza eta minbera, hizkuntzaren hau: zein hizkuntzatan egin behar da ETB? euskaraz?, gaztelaniaz?, bietan?

Eskuarteko hiru inkestetan agertzen da arazo hau, modu batera edo bestera trataturik.

GALen inkestako zifrak hauek dira:

	Araba	Bikaia	Gipuzkoa
Siempre euskera	9.5	16.7	27.2
Más euskera que castellano	36	38.8	51.6
Más castellano que euskera	40.3	34.1	16.7
Siempre castellano	14.2	10.4	4.5
	100	100	100
	(684)	(1.498)	(1.049)

Lurralde historikoen araberako aldeak begien bistan daude eta aldez aurretik pentsatzekoak dira. Inkesta honen arabera, euskarak eduki behar duela lehentasuna, erdararen gain, pentsatzen du batezbesteko gehiengoak.

RTVEko «Gabinete de Planificación»ek bestelako teknika erabili du. Esaldien akordio/desakordioen indize-sistema erabili du (akordio gorena + 2 eta desakordio gorena – 2).

Euskarazko kanalaren beharrak adostasun-gradu handia du, ikus daitekeenez; baina badirudi erdal programazioaren nahiak ere konformitate dexente lortzen duela.

OPINION	Indice de acuerdo
Es necesario que exista un canal que emita sólo en euskera	+ 0,82
La televisión española tiene que emitir también en euskera	+ 0,24
Está bien que varios canales emitan simultáneamente en euskera en algún momento del día	+ 0,34
La televisión en euskera sirve sobre todo para aprender este idioma	+ 0,92
La televisión en euskera podría servir para que todos hablásemos igual el euskera	+ 0,70
El euskera que se habla en televisión no es el que se habla en la calle	+ 0,63
Da igual la lengua en que se hable en televisión; lo importante es que los programas sean interesantes	+ 0,53

OPINION	Indice de acuerdo
ETB tendría que hacer programas en castellano	+ 0,27
No hace falta que ETB aumente sus horas de programación	– 0,38
Los programas de ETB son parecidos a los de TVE	– 0.01
La programación de ETB siempre están influenciada por el partido en el Gobierno Vasco	+ 0,79
En general, los programas de ETB tienen más calidad que los de TVE	+ 0,06
ETB no es un canal para todos los que viven en Euskadi	+ 0,06

Eta, azkenik, Gallup-en inkesta daukagu. Inkesta honetako zifren erabilpen periodistiko eta politikoek atera dute zaratarik handiena. Hona zifrak:

— Euskaraz bakarrik: % 38'0

— Gaztelaniaz/Euskaraz: % 49'7

— Gaztelaniaz bakarrik: % 6'6

Hona zifra soilak eta aztertzaileen ondorio laburra: «La preferencia sobre la utilización del euskera en la programación se inclina mayoritariamente en favor de la *utilización conjunta con el castellano*».

Arestian esaten genuena errepikatuz isten dugu ataltxo hau: mentalitate diglosiko baten ondorio dira neurri on batean erantzun hauek. ETBk juxtu pentsaera honi kasu egin behar al dio? Ala pentsamolde hori aldatzen lan egin behar du hain zuzen ere?

II. KAPITULUAREN OHARRAK

1. Batzordeko debatea hautatu dugu hemen arrazoi ulerterraz bategatik: Biltzarre osoan ez zen egiazko eztabaidarik izan, Eusko Sozialistak Legebiltzar-Taldeak erretiratu egin bait zituen bere emendakinak eta PNV-EE alderdiek paktatuak aurkeztu bait ziren artikulu horiek.
2. *CO*, 84.11.06.
3. EUSKO LEGEBILTZARRA: *Aldizkari Ofiziala*, 14 zk., 84.12.20.
4. 14,2 artikuluak honela dio: «Los poderes públicos determinarán las plazas para las que es preceptivo el conocimiento de ambas lenguas». ETBk horixe erabaki zuen, hain zuzen.
5. Akta, 7/83.
6. Akta, 6/84.
7. Akta, 1/85.
8. Akta, 5/83.
9. *Memoria del Ejercicio 1984. Eusko Irratia y Radio Vitoria*, Bilbo, 85.02.15.
10. Akta, 7/83.
11. Akta, 2/85.
12. Akta, 1/84.
13. *EP*, 84.09.09.
14. Akta, 1/85.
15. Akta, 9/84.
16. Akta, 6/84.
17. EUSKARAREN AHOLKU BATZORDEA: *Euskararen Politikarako Oinarriak*, Eusko Jaurlaritzaren Argitalpen-Zerbitzu Nagusia, Gasteiz, 1983, 29. or.
18. Akta, 12/83.
19. Akta, 3/85.
20. Akta, 6/83.
21. Akta, 4/85.
22. Akta, 3/85.
23. *Argia*, 994 zk., 83.11.27.
24. *Ib.*

25. *CO*, 83.11.11.
26. *Argia*, 994 zk., 83.11.27.
27. ZORRILA, R.: *La televisión autónoma vasca y el discurso legitimador*, 1984, Urtarrila, 35. or.
28. ARGIA: *1984: Euskal Kulturaren Urtekaria*, Z. Argia, Donostia, 1984, 185. or.
29. *Ib.*
30. *Egin*, 82.10.03.
31. EHE: *EKBrako telebistari buruzko txostena*, 84.06.29an burutua; 10 or. ditu. Aurrerantzean ETBT bezala aipatuko dugu txosten hau.
32. *Ib.*, 7. or.
33. *Egin*, 82.10.03.
34. *ETBT*, 5. or.
35. *Ib.*, 3. or.
36. *Ib.*, 4-5 or.
37. *Egin*, 82.10.03.
38. *ETBT*, 3. or.
39. *Egin*, 83.10.10.
40. *ETBT*, 6. or.
41. *Ib.*, 6. or.
42. *Anaitasuna*, 415 zk., 1981, Azaroa.
43. *Egin*, 83.10.10.
44. *VE*, 83.06.21.
45. *Egin*, 83.10.08.
46. *ETBT*, 8. or.
47. *Egin*, 82.12.10.
48. *VE*, 83.06.21.
49. *ETBT*, 7. or.
50. *Anaitasuna*, 415 zk., 1981, Azaroa, 13. or.
51. *ETBT*, 8. or.
52. *Egin*, 83.10.08.
53. *ETBT*, 7. or.
54. *Egin*, 83.10.03.
55. EKB: «Euskararen plangintzarako oinarriak», *Jakin*, 34 zk., 1985, 176. or.
56. *Ib.*, 99. or.
57. *Ib.*, 100. or.
58. *Ib.*, 101. or.
59. *Ib.*, 102. or.
60. *Ib.*, 153. or.
61. *Ib.*
62. *Egin*, 83.10.07.
63. *Ib.*
64. ZORRILLA, R.: *La televisión autónoma vasca y el discurso legitimador*, 1984, Urtarrila, 36-37 or.
65. *Egin*, 83.10.07.
66. *Aizu*, 12 zk., 1983, Maiatza.
67. *Argia*, 902 zk., 81.02.08.

67 bis. *Aizu*, 12 zk., 1983, Maiatza.
68. *Egin*. 83.10.12.
69. *CO*, 82.12.17.
70. «La información alternativa», *CO*, 83.02.12.
71. «La pregunta espontánea que le viene al lector es la de interrogarse por qué una comunidad autónoma (Euskadi, Rioja, Cantabria, Galicia, etc.) debe tener un canal de televisión propio. Tiene algún sentido multiplicar los «entes» de televisión según las autonomías?» (La televisión vasca *CO*, 81.11.05).

«La primera pregunta que se le ocurre al ciudadano, decíamos en el artículo anterior, es a ver por qué una comunidad autónoma tiene necesidad (y además urgente) de tener su propio centro emisor de televisión. *Lo lógico* –se suele decir en estas ocasiones– *es que cada nacionalidad tenga su televisión*. Y esto no tiene nada de lógico» («El Sr. Labayen y la televisión vasca», *CO*, 81.11.06).
72. «Podría hablarse también sobre lo que va a costar a las sufridas «unidades de consumo» (las familias) acomodar su aparato de televisión para captar las imágenes de la Televisión vasca. Va a suponer un gasto adicional a los ya numerosos de la familia. Pero dejemos también de lado este problema y pensemos en celebrar su alumbramiento, deseando que sea feliz y que nosotros lo veamos. Ojalá que no necesite de encubadora! Y mientras esperamos la llegada del bebé, no podría la Administración adelantarnos los resultados de la citada encuesta para que todos conociéramos la acogida que va a tener la Televisión vasca, que deseamos que sea buena. Después de todo, no hay nada más doloroso que el nacimiento de un niño no deseado» (*CO*, 82.12.17).
73. «Parece que en este punto, como en casi todo el proceso de creación de la Televisión vasca, se ha obrado con precipitación» (*CO*, 83.02.12).
74. «En el presupuesto de la Televisión vasca, se anuncia para este año una partida de trescientos millones provenientes de la publicidad. Considero que esto es una *competencia desleal*, porque siendo una sociedad pública tiene más posibilidades de encauzar hacia ese medio recursos provenientes del mercado publicitario que las empresas privadas periódicas» (*Ib.*).
75. «Dado un complejo de inferioridad que se refleja en infantiles quejas (que si le pusieron al lehendakari detrás de una columna, que si la TVE le discrimina, etc.), es evidente que se encuentran mucho más a gusto en casa. Y como la casa sea la Televisión vasca, es muy posible que la Administración de Vitoria se desquite sirviéndose de este medio para dar rienda suelta a su incomunicación reprimida. Y de ello va a resultar que va a adquirir valor de noticia lo puramente banal e intrascendente, con las consecuencias que ello conlleva. Que el lehendakari visite una escuela, por ejemplo, no es noticia a nivel de Estado y la TVE no informará de ello, pero puede hacerlo una televisión regional y, sin embargo, no dejará de ser una noticia banal» (*CO*, 82.12.17).
76. ZORRILLA, R.: *La televisión autónoma vasca y el discurso legitimador*, 1984, Urtarrila, 44-45 or.

77. *Ib.* 45. or.
78. «La administración vasca nunca parece que ha pensado hacer otra televisión, aprovechar esta oportunidad para realizar un proyecto innovador y progresista. Hasta el Estatuto ha sido copiado casi al pie de la letra. Y es que, señores, nadie da lo que no tiene» (*CO*, 82.12.17).
79. ZORRILLA, R.: *La television autónoma vasca y el discurso legitimador*, 1984, Urtarrila, 35. or.
80. *CO*, 81.11.06.
81. ZORRILLA, R.: *La televisión autónoma vasca y el discurso legitimador*, 1984, Urtarrila, 24. or.
82. *CO*, 81.11.06.
83. ZORRILLA, R.: *La televisión autónoma vasca y el discurso legitimador*, 1984, Urtarrila, 45. or.
84. *Ib.*, 49. or.
85. *Ib.*, 44. or.
86. *Ib.*, 49. or.
87. *CO*, 81.11.06.
88. *Deia*, 83.10.04.
89. *Ib.*
90. *Deia*, 83.11.15.
91. *Deia*, 83.10.04.
92. *Deia*, 83.11.15.
93. *DV*, 82.06.24.
94. *DV*, 83.01.03.
95. Artikulu hau Egin-eko «Egunon» sailean eman zen argitara, baina guk eskutan originala bera dugu eta ez egunkariko erreferentzia. 1982ko irailean idatzia.
96. *Ib.*
97. *Ib.*
98. *Ib.*
99. ARGIA: *1984: Euskal Kulturaren Urtekaria*, Z. Argia, Donostia, 1984, 122. or.
100. *Ib.*, 122. or.
101. «Euskal Telebistatik Televisión Vascara». Eskuizkribua.
102. *DV*, 84.06.06.
103. *DV*, 84.09.20.
104. *EP*, 84.10.17.
105. *DV*, 84.06.06.
106. *El Correo Español*-i egin deklarazioak. Urteguna galdua dugu, baina bere lehen deklarazioak dira (Ikus *Egin*, 84.08.24).
107 *DV*, 84.09.20.
108. Bere deiturarekin edo J. Altzibar gaitzizenez agertu dituenak: «ETB euskaraz!» (*Jakin*, 25 zk., 1982, 128. or.); ETBren etorkizuna J. Caro Barojaren eskutik?» (*Jakin*, 31 zk., 1984, 87-89 or.); «ETB Nafarroan: Troiako zaldia» (*Jakin*, 31 zk., 1984, 93-94 or.); «ETB: ez dago girorik» (*Jakin*, 35 zk., 1985, 101-104 or.).
109. «Semiótica de la comunicación de masas», laugarren ikasturteko

ikasgairako burutua (84.05.29), 45 folio. EFS bezala aipatuko dugu aurrerantzean.

110. Fadurako Soziolinguistika Kongresurako txostena. 21 foliotakoa. 1984, urria. Honen laburpena (7 folio) argitaratzear dago.

111. «Euskal Telebistaren lege-arazoak», laugarren ikasturteko «Derecho de la Información» ikasgairako burutua (84.06.01), 30 folio.

112. *Jakin*, 25 zk., 1982, 128. or.

113. *Jakin*, 31 zk., 1984, 87-89 or.

114. *Jakin*, 35 zk., 1985, 101-104 or.

115. *Telebista eta Euskararen normaltzea*, 1. or.

116. *Ib.*, 4. or.

117. *EFS*, 37. or.

118. *Ib.*, 38. or.

119. Esan gabe doa inkesta bakoitza metodologia desberdinez, garai desberdinean eta helburu desberdinekin burutua dela. Hona inkeston fitxa laburra, gero etengabe errepikatzen ez ibiltzeko.

1) «Opiniones y actitudes en torno a la ETB y el Euskara». Eusko Jaurlaritzako Gizarte Azterketarako lantaldeak (GAL) edo Gabinete de Prospeccion Sociológica delakoak egina, 1982ko abuztuan. Euskarari buruzko inkesta orokorrago batetik ateratako monografia da. («Euskararen borroka», *Jakin*, 26/27, zk. 1983, 48. or.).

2) «Opiniones y actitudes de la Audiencia de ETB». Aurreko talde berak 1983ko irailean burutua. ETB ikusten den etxeetan egindako galdeketa. 64 or.

3) «Audiencia de Medios de la Comunidad Autónoma Vasca». CIES soziologi taldeak 1984eko ekainean egina. Lantalde honetako Karlos Zufiak urte bereko urrian Hizkuntza Minorizatuen Soziologi Ihardunaldietan aurkezturiko «Euskera y audiencia de medios de comunicación» erabiliko dugu guk. 24 or.

4) «Control de Audiencia ETB». Tecnimedia da egilea, aurrekoaren urte eta hilabete berean (1984, ekaina).

5) «Estudio General de Medios»ek egindakoa, 1984eko maiatzean, 15 urtetik gorakoen artean.

6) «Actitudes y expectativas en el País Vasco ante la televisión en lengua vernácula». RTVEko «Gabinete de planificación» delakoak egin zuen 1984eko azaroan. 72 or. Ez da ezagutzera eman.

7) «Informe Resumen del estudio de audiencia de televisión y radio en Euskadi». Gallup Institutuak 1985eko otsailean egina. 23 or.

III. PROJEKTUAREN EZTABAIDA: B) ARRAZOIAK ETA KONTRARRAZOIAK

Projektuaren gizarteko eztabaidarekin jarraitzen dugu orain ere. Aurreko atalean, protagonisten ikuspuntutik arakatu dugu ETBren arazo soziala. Arazoa lehengoa bera izanik ere, beste ardatz baten itzulian ariko gara orain: plazara diren arrazoiak, pentsaerak, planteamenduak, ekintzak, eztabaidak aztertuko ditugu sail honetan, gaien sistematikaren arabera.

Aurreko kapituluetako zenbait pasarte errepikatu egingo dugu hemen erremediorik gabe, ulerpena errazteko eta osotasuna adierazteko.

1. EREDUEN EZTABAIDA

ETBren inguruan azaldu diren arrazoiak eta kontrarrazoiak bi ardatzen inguruan mamitu eta indartu direla esan genezake: euskal telebistak hartu duen programazio-eredua eztabaidatzen dute batzuk; baina gehienek nahiz auzitan jartzen nahiz defendatzen dutena, euskara hutsezko telebista da. Alde ala kontra, arazorik gehienek hizkuntz hautapena dute iturburu. Ez da kasualitatea, seguru, gauza bera gertatzea Katalunian, ia puntuz-puntu.

Deklarazioetan, artikuluetan, inkestetan nahiz eztabaidetan agertu diren eritzi funtsezkoenak bildu nahi ditugu hemen, sistematikoki bildu ere.

Eritzi-gurutzaketa honen lehen ardatz bikoitza, ETBren eredua litzakete: programazio-eredua eta hizkuntz eredua.

1.1. ETBren PROGRAMAZIO-EREDUA

ETBko arduradunen burutan eta hitzetan eredu hori zer-nola ulertu behar den jadanik ikusia dugu idazlan honetan bertan, «ETB eredu eta definizio bila» sailean.

Azpisail honetan arakatu nahi dugunak telebistaren edukinari, programazioari egiten dio kasu batez ere. Baina ez horri bakarrik, alderdi programatikoez gain alderdi formalak ere aintzat hartzen bait dira debate honetan, nahiz eta guk azken hauei hemen jaramon gutxi egin.

1.1.1. Telebista arrunta *vs* telebista alternatiboa

ETBren gidariek ez dute telebista alternatiborik egin nahi izan. Zer da, baina, telebista alternatiboa? Bestelako eredua segitzen duena. Normalean, telebista bat alternatibotzat jotzen da, inguruko telebista arruntek eskaini ohi dutena ez bezalako produktua egiten duenean. Besterik da telebista diferentea. Diferentzia hori era askotakoa izan bait daiteke: estrukturala, koalitatiboa, formala, hizkuntzazkoa, etab. Inguruan ezagutzen ditugun ereduetatik bereizgarri bi bakarrik lituzke ETBk: bata, erlatiboki, antolamendu-disenua, Studio Hamburg delakoak proposatua (ik. Amatiño: «Antolaketarako plan berriaren mamua», in: *Deia*, 1985.01.14); eta beste bereizgarria, erabatekoa, telebistako komunikazio-hizkuntza, euskara.

Gainerako guztian, telebista komentzional eta publiko guztien pautak segitzen ditu ETBk. ETB, alternatiba den neurrian, hizkuntz alternatiba da. Programazioaren eredu aldetik ez du alternatiba izan nahi, besteak bezalakoa baizik: perspektiba, edukina, muina aldatuko du, hori bai; baina ez programaketa bera.

Puntu honi buruz jadanik ikusia dugu zein den ETBren sortzaileen pentsaera. Llabur-llabur errepikatuko dugu orain, gogora ekartzeko. R. Labaienek kontatu zigun (84.09.11) RTVEko

buru zen Arias Salgadori zera erantzun ziola berak: «Objetivo de la televisión vasca? Muy sencillo: ser tan mala como la española». Alegia, telebista arrunta, normala, besteen parean ibili nahi duena. Amatiñok, ildo beretik, telebista normaldu honen bilaketa azpimarratzen du:

> «Telebista hau telebista arrunt bat da, profesionala izan nahi duena, eta ahalik eta hizkuntzaren aukera handiena egiten duena. Hemendik aurrera teknikak ematen dizkigun baliabide guztiak erabiltzera joko dugu, bide honetatik ahal dugun telebista normalduena eta interesgarriena burutzearren»[1].

Telebista diferenterik, alternatiborik ez dute ETBko buruek egin nahi, «Dallas» eta guzti baizik.

> «Vamos a dejarnos de rizar el rizo. En cuanto a hacer una televisión distinta, bien, vamos a hacerla, con un país distinto, con una sociedad distinta, con unos profesionales distintos, con una clase política distinta y una lengua distinta»[2].

Beste era batera ere ezin argiago, eta orain artekoa osotuz, honela adierazten du filosofia hori Amatiñok:

> «... nadie hubiera reivindicado un nuevo canal de televisión si no fuera por el carácter diferenciador de la lengua»[3].

Euskal Telebistaren programazio-eredu, filosofia honek kontestazio gutxi izan du Euskal Herrian. Oro har, esan liteke, sektore abertzale-euskaltzaleek onartu egin dutela (gutxi eztabaidatu dutela, behintzat), hizkuntzaren onerako delakoan. Adierazgarritzat eman dezakegu L.M. Mujikak, EHEren izenean mintzatuz, esana:

> «Nik, pertsonalki, eta kokoa jan arren, edozein amerikanada euskaraz nahiago dut erdaraz egongo den azken banguardismoa baino»[4].

Bide beretsutik doa Xabier Gartzia:

> «Oraindik denbora asko ez dela, batek baino gehiagok, 'Itsasoan oporrak' delako programa euskaraz grabatzen ari zela entzun eta barre maltzur bat egingo zukeen. Orain, berriz, halakoa, guzti hori

ere beharrezkoa dugula konturatuko zen, euskara salbatuko bada behintzat. Honekin ez dut esan nahi dauden programa guztiez erabat konforme nagoenik. Soil-soilik, kalidade eskaseko telefilmak ere, oraingoz, gauden gaudenean, beharrezkoak ditugula berresaten dut»[5].

Problema hau, bestalde, literaturan eta liburu-produkzioan jadanik planteatua zegoen, eztabaida eta guzti.

Modu indibidualean, aski galdurik eta zeharka bada ere, euskal kulturan agertu izan da perspektiba kritiko hau. Telebista sortu aurretik, 1981ean, Mikel Antzak edozein telebistaren alde txarrak eta, beraz, ETBrenak gogoratzen zituen, eta modu ironiko honetan amaitzen zuen bere artikulua:

«Telebistak ekarri ditzakeen kalteak kontuan hartu gabe, berreuskalduntze prozesuaren barnean eduki dezakeen garrantzia azpimarratzen da. Arduradun nagusiek telebistaren betebeharra jendeak denbora pasa dezan dela ez ote duten pentsatuko beldur bait naiz, honelako planteiamenduekin betikora goaz eta, telebista aurrean nazkatzera eta kakaztera (nahiz eta zenbait ez den usainaz konturatuko), lehen frantsesez eta gazteleraz bezala, laister euskaraz ere (...) Bainan ez arduratu... Gora ETB, euskara salbatu da... ez arduratu, ez... Gora ETB!!! Telebistan Eusko Nozilla anuntziaturik ikusten dugun arte. Ze kakapilla!!!»[6].

Telebista martxan hasi eta hilabete batzutara, talde batek ETBk emandako pausoak ez zaizkiola fitsik ere gustatzen esanez idazten du. Saio propioak egiteko ahalmenik ez izatea, batipat bikoizketa eta itzulpena eginez muntatzea, komunikazio-alorreko joera progresistak ahaztea, salatzen zaio ETBri. Hitz batean, mimetismoa egozten diote Eusko Jaurlaritzari:

«Eusko Jaurlaritzak egin duen gauza bakarra imitatzea izan da; estatu, ejerzito, telebista eta administrazio propioak dituzten gobernuei imitatu. Eta honela ez da telebistarik, ez gobernurik, ezta estaturik ere»[7].

Artikulu luzeago batean, ETBko langile den Josu Sergio Cepedak ETBren planifikazioa gogorki kritikatzen du, bere osoan eta bereziki bi puntutan. Telebista autonomoa ez dela egiazki autonomoa, dio, Studio Hamburg delakoaren eskutan utzi delako, Euskal Herrian bertan autogestio-esperientzia bezala antolatu behar

zena. Hori bateko; eta besteko, programazioan kantitatea bilatu dute kudeatzaileek kalitatearen pentzura:

> «Es mucho mejor, más seguro, más vertebrador y –por adoptar la jerga tecnocrática– de efectos multiplicadores muy superiores una sola hora de emisión bien reflexionada y realizada que ese mosaico de pequeñas chapucillas que logran ocupar cinco horas en la pequeña pantalla»[8].

Administrazio-Batzordean R. Fernández Garridok ETBk «Dallas» erosteagatik protesta egiten du[9], eta zentzu kritiko honetantxe doakeela pentsa daiteke.

Euskal Herritik kanpora, bai ETBk eta bai TV3ek hartu duten bide honi mesfidantza handiagoz begiratu izan zaio. Oso agerian gelditu zen hori Aragoiko Diputazioak antolatu zituen «I Jornadas sobre Televisión Autonómica» (Zaragoza, 1984.05.2/3/4) haietan. Alderdi teorikoak aipatu zituzten batzuk, eta askoz ere politikoagoak beste batzuk.

Jose Manuel Pérez Tornero, Bartzelonako Unibertsitate Autonomoko Informazio-Zientzietako irakaslearentzat, autonomietako telebista hauen eredua (euskalduna eta katalana) hizkuntz normalizazioaren ikuspegitik justifikatu da, eta arazo hau ez da korapilorik gabea. Pérez Tornerok telebista hauei ikusten dizkien joerazko arriskuak (edo akatsak) hauek dira: nazioarteko zenbait ereduren mimetismoa, nazioarteko burgesia batek nahi bezala bere produktu zenbait kulturalismoaren eta lokalismoaren izenean saltzea, nazionaltzearen gurarian egiazki desnazionaltzea itzulpenen bidez. Telebista diferente bat, jaio orduko hiltzen ari gara. Telebista imaginatiboa eskatzen du Pérez Tornerok.

> «No estaremos bajo pretexto de hacer una política de nacionalización desnacionalizando algunos territorios autónomos? Y lo digo porque la pretendida política de normalización linguística se centra en una estrategia de actuación lingüística que consiste en doblar productos multinacionales. (...) Y finalmente, en lo que se refiere a un modelo de Televisión, ¿no estaremos abortando con la política exclusiva del lenguaje la posibilidad de una Televisión diferente? ¿No estaremos con ello lubricando el camino de las multinacionales? ¿No estaremos cayendo en una mixtificación que apoya una cierta burguesía internacional de lubricar la circulación de sus productos a base de un culturalismo y de un localismo que es populista y no popular?»[10].

Calviñok ere gauza bera kritikatzen du, Galiziako telebista autonomikoaren sorrera dela eta:

> «Galicia tiene otras prioridades, como la educación, la salud y las comunicaciones. (...) Me parece que gastar 6.000 millones de pesetas en el canal de televisión no es imprescindible. Ni siquiera pienso que pueda serles rentable desde el punto de vista electoral. (...) La televisión es un juguete muy caro que, en lugar de dar emancipación y normalización lingüística, corre el riesgo de convertirse en un instrumento de colonización, porque no sé si los campesinos de 'a terra cha' tienen mucho que ver con Dallas»[10bis].

Pérez Oriol Costa Badia jaunak, TV katalanaren Administrazio-Batzordekoak, ez du onartzen eskuindarrek egin ohi duten kulturaren eta hizkuntzaren batasuna eta honen bidez edozein produkturi bide irekia uztea:

> «En este sentido yo creo que conviene aportar a este debate el hecho de que las dos comunidades autónomas, que son ya realmente en las que el tercer canal es una realidad, están gobernadas por partidos de derecha. A mí esto me parece muy importante, porque en sus programas políticos la idea de cultura viene absolutamente confundida con la idea de normalizar la lengua. Yo personalmente entiendo que para Euskadi y para Cataluña la normalización de la lengua es un hecho absolutamente prioritario. Ahora bien, un cosa no puede llevarnos a que se confunda lengua con cultura, y digo que no hay que olvidar que hay partidos de la derecha detrás de los proyectos porque con tal de que sea en euskera o en catalán, no hay ningún problema en que se estén vendiendo modelos de comportamiento como los del capitalismo salvaje de J.R. o de los muchachos de 'Dallas'»[11].

RTVEko Administrazio-Batzordeko Eugenio Giral jaunak RTVEren eredu eta jokamolde bera erabiltzea salatzen die ETB eta TV3ri:

> «Aquí se dice qué modelo tienen estas televisiones autonómicas. Yo creo que el modelo es idéntico al de RTVE, no sólo por imperativos legales, que también lo son, porque las leyes de los terceros canales obligan a que la estructura sea la misma que el ente público RTVE y de aquí que todos y en cada una de las regiones se reproducirá la corporación con dos sociedades secundarias, una dedicada a la radio y otra, a la televisión, esto en cuanto a modelo es idéntico. Pero no sólo es idéntico en términos formales, es que es

mucho más preocupante que en términos de programación, el comportamiento es idéntico y diría más, de un seguidismo absolutamente preocupante»[12].

1.1.2. Telebista komentzionala *vs* telebista edukazionala

Esan-berri dugun honetatik ondoriozta daitekeenez, telebista alternatibo edo abangoardista baten eskariaren aldeko posizioak ez du halako indar handirik izan Euskal Herrian. Ereduak oinarrizko onarpen sozial bat izan duela baiezta daiteke alde honetatik nahasmenduaren arrisku handirik gabe.

Bihurriagoa da «telebista arrunta *vs* telebista edukazionala» arazoa. Esplika gaitezen. Egia da ETBren praxiak eta praxi honen geroko adierazpen teorikoak (Amatiñok eginak, bereziki) telebista komentzionalaren bidea hartu eta indartu duela. Egia da, haatik, ETB irakaskuntzari edo euskalduntzeari lotuta ikusteko moduko testuak, esaldiak eta deklarazioak ere badirela. Irudiak ereduaren aurka jokatu du, agian.

Telebista edukazionalaren aldeko ulertzapenaren iturburua, gurekiko, Euskal Irrati-Telebista Herri-Erakundea sortzeko Legearen Atarikoan bertan dago:

> «En el ejercicio de dicha competencia y respetando el concepto de servicio público esencial, se configuran en la presente Ley los medios de comunicación social a los que la misma se refiere como instrumento capital para la información y participación política de los ciudadanos vascos, *así como medio fundamental de cooperación con nuestro propio sistema educativo* y de fomento y difusión de la cultura vasca, teniendo muy presente el fomento y desarrollo del euskera»[13] (*Guk azp.*).

Batere argia iruditzen ez zaigun testu hau sarritan aipatzen eta errepikatzen zuten telebista hasi aurretik ETBko arduradunek, A. Areizagak batipat. Makina bat deklarazioren adibide bezala eman dezakegu honako hau:

> «Debe ser el instrumento capital de información y participación de los ciudadanos vascos. En este sentido, entiendo que tanto la radio como la televisión vascas son medios fundamentales de cooperación para nuestro sistema educativo, así como para el fomento y desarrollo del euskera, desarrollándolo a través de los principios básicos de programación que tienen que considerarse anteriormente en el Consejo de Administración»[14].

Zentzu beretsuan doazkeen beste esaldi batzuk ere ETBren «irudi» bera sortzen dute, maiz euskararen errekuperazio-tresnatzat hartzen bait da ETB:

> – «haré especialísimo hincapié en el desarrollo, en la promoción y en todo el didactismo sobre el euskera»[15].
>
> – «se ha entendido que Televisión Vasca es un instrumento de recuperación idiomática del euskera»[16].
>
> – «Ya he dicho que la Televisión Vasca es un instrumento fundamental para el sistema educativo y para el fomento del euskera, lo que está contemplado dentro de los principios programáticos»[17].

ETB «edukazional» bezala kontsideratzeko faktore laguntzaile bat zera da: telebistaren programazioan haurrentzako programek duten leku handia. Xabier Letek, adibidez, honelaxe ikusten zuen ETB, hain zuzen: euskara berreskuratzeko eta haurrentzako, eta biak naturalki lotuak:

> «Otro medio fundamental para la recuperación del euskera dentro del campo de los medios de comunicación es el audiovisual. La televisión en euskera para niños es algo muy importante»[18].

Eta badago besterik. Euskal telebista bat, edozein dela ere, euskararen erreprodukzioaren funtzioan ulertzeko joera handia dago bazter guztietan, edo egon da behintzat, harik eta ETB ezagutu arte. GALek egin inkestan, adibidez, «ETBk Euskal Herriari egin diezaiokeen zerbitzurik hoberena denek euskara ikas dezaten laguntzea da» proposamenak onarpen izugarria zuen 1982an: euskaldunzaharren artean % 80rena, euskaldunberriengan % 63rena eta erdaldunengan % 53rena[19]. Hori telebista martxan jarri aurretik. ETB indarrean dagoela ere, inkesta mailan bederen, badirudi jendeak lehengo lepotik duela burua. 1984eko maiatzean bildu zuen informazioa RTVEko «Gabinete de Planificación» delakoak. Jendearen eritziak eta usteak interpretatuz honelako esaldiak aurki genitzake azterlan honetan:

> «El esfuerzo de cualquier medio de comunicación para potenciar o facilitar las tareas de recuperación y unificación del idioma autóctono es bien visto e incluso deseado por la gran mayoría de la población. Incluso el grupo que podría sentirse de alguna forma discriminado por su desconocimiento de la lengua (el de castellanoparlantes), no manifiesta ningún rechazo al respecto»[20].

«En este grupo la mayoría de los integrantes tendieron a enfatizar su rol social de padres, de suerte que sus criterios al hablar del canal autonómico frente a los estatales estuvieron siempre mediatizados por la instrumentalización del medio para ese fin concreto de aprendizaje del idioma»[21].

«Como se comprueba en el apartado anterior, la perspectiva de un canal autonómico es apoyada en el País Vasco por todos los grupos. ETB surge, por lo tanto, con los mejores auspicios, concebida como un medio privilegiado para la enseñanza del idioma»[22].

«La limitación de este canal a la enseñanza del vasco reduce sus perspectivas de futuro»[23].

Honela, bada, euskararen irakaskuntza ez da bakarrik telebista autonomo baten egitekoa, baizik eta beste kanaletatik bereizten duen faktorea ere eta, zalantzarik gabe, telebista honen onarpen sozialaren hondo-doan dagoen elementua.

Kazetarien galderei erantzunez nahiz ETBren egitekoa adieraziz, behin baino gehiagotan definitu behar izan du Amatiñok ETBren eredua, «irudi» honen aurka.

«Muchos se equivocaron, creyeron que íbamos a utilizar la televisión para enseñar el idioma. Quien crea que Televisión sirve para eso, no conoce el medio. Los idiomas se aprenden en las aulas. La televisión es para informar, formar y entretener en el país que sea»[24].

«No sé qué razones podría haber para que la gente pensara esto [*kazetariaren galdera:* 'los telespectadores de ETB esperaban que los cursos de euskera fueran una de las primeras producciones propias del medio']. El que así lo entendió no comprendió la función social de ETB que pretende ser una cadena de televisión convencional, en la que los objetivos didácticos-pedagógicos a la hora de estructurar una programación, en absoluto están en el campo de las previsiones.

(...) Es decir, frente a la opción de televisión convencional existe la de una televisión educativa que hoy por hoy, no es conceptual ni presupuestariamente ETB»[25].

1.1.3. **Telebista osoa *vs* telebista folklorikoa, erregionala**

ETBk, sortzaile eta arduradunen burutan, telebista osoa eta konpetitiboa izan nahi du. Eta, kontrara, ez du izan nahi eskualde-telebista, bigarren dibisiokoa, probintzianoa, ezta folklorikoa, antropologikoa ere.

Besteen parean ibili nahi hori, eta konkretuki TVEren parean bere burua ikustea, ez zaio honen erraz onartzen –barkatzen, esan behar genuen– ETBri. Telebista osagarri gisa ulertzen dute batzuk, bai ETB eta bai TV3.

Bi ulermodu hauen konfrontaketa gurean baino biziago gertatu da Katalunian. Baina hangoak guretzat balio izateaz gain, hemen ere bada eritzi kontrajarririk. Esan behar da, orobat, herri mailan barik maila administratiboetara mugatu dela konfrontaketa. Azken batean, bi filosofia dira bai telebista autonomikoa eta bai ETB ulertzeko.

ETB negoziatzeko garaian izan diren tirabiratan aipaturiko kontzeptu horiek agertu izan dira noizbehinka. Esan genezake, gainera, laugarren kanaletik jotzeko arrazoietako bat hain zuzen horixe zela: Madrilek, gehienez ere, eskualde-telebista edo telebista folklorikoa eskaintzen zuela. Labaien Kultur Kontseilariak honela adierazten zuen bi filosofien konfrontaketa hori:

> «Hay una discrepancia fundamental de criterios entre lo que nosotros entendemos por televisión de la Comunidad Autónoma y la concepción que tiene la Administración Central. Para ella su tercera cadena, que es lo que nos ofrecían hasta ahora, no es más que una minicadena de interés puramente regional»[26].

Iñigo Agirre, PNVren parlamentari gisa RTVEko Kontrol--Batzordean zegoen garaian, zehazkiago mintzatu zen:.

> «En ocasiones, él [Castedo] nos llegó a afirmar que el único tratamiento que iban a tener las lenguas regionales sería en programas informativos y deportivos exclusivamente, pero que de ahí a tratar de hacer programas dramáticos o doblajes de películas a las lenguas nacionales, ni pensarlo, ni siquiera en el tercer canal.
>
> Ahora empiezan a asustarse diciendo que nosotros hemos empezado a levantar la torre y los edificios del cuarto canal cuando todavía no se ha hecho nada por el tercero, pero tenemos una base constitucional y del Estatuto que nos permite hacerlo, y ante la negativa del Gobierno y de la Administración Central a sentarse en la mesa para tratar el tema del canal regional, nos hemos tenido que lanzar a crear nuestra propia televisión»[27].

Calviñok TV3ri buruz egindako deklarazioek oihartzun izugarria izan zuten Katalunian[27bis]. Telebista antropologiko eta folklorikoa egiteko aukera besterik ez zuen eskaintzen RTVEko Zuzendari Calviñok.

Aurrez-aurre ukatzen dute ikuspuntu hori TV3ren kudeatzaileek. Zuzendari Nagusiak, Enric Canals jaunak, honela definitzen zuen beren projetktua:

> «Nuestro proyecto era el de crear una televisión competitiva, con un contenido informativo ágil, lejos de cualquier folklorismo, no antropológica, no complementaria»[28].

Hemen azaltzen diren kontzeptu hauek, denak daude hertsiki elkarri lotuak: alde batetik, folklorismoa, antropologikoa, etnologikoa, barnera begirakoa, erregionala, bigarren mailakoa; beste alde batetik, informatiboa, mundura irekia, konpetitiboa. Bide bat ala bestea hautatu, arras desberdinak dira nola programaketa hala edukina, erabat diferentea telebistaren eredua. Lehen bidetik jota, telebista autonomikoa telebista osagarria da, TVErekin elkarlanean (edo dependentzian) ariko dena, programazio zein ordutegi mailan ere. Bigarren bideak, aldiz, telebista osoa eta komentzionala eskatzen du.

«ETB, besteen parean ibili nahi lukeen telebista» du titulutzat Josu Landak *Argia*-n egin erreportaia batek[29]. Titulu horrek ongi adierazten du, gure ustetan, ETBren planteamendua. Txikia da, txikia presupostu mailan, txikia plantilan, txikia audientzian. Txikia da, bai, baina osoa.

ETBren muga eta tamainaren kontzientzia hastapenetik dago deklarazioetan:

> «Sería ridículo con nuestros presupuestos, con 60 personas y cero años de experiencia competir con TVE con 12.000 personas y 25 años de experiencia»[30].

A. Areizagak ez ditu aintzat hartu ere nahi konparazio-mota horiek. Eta entrebistatzaileak galdetzen dionean «¿va a competir a la larga con las televisiones francesa y española?», hau erantzuten du:

> «Resultaría muy peligroso empezar a hacer comparaciones. La televisión vasca va a ser una televisión nueva con una serie de objetivos a cumplir, entre ellos, y como muy relevantes, el de realzar nuestra identidad nacional»[31].

Konpetitibitatearena ez da tamaina-problema, ordea. Arazo kontzeptuala da, telebista ulertzeko moduarena.

Informatiboen buruaren, Amatiñoren, deklarazioak bilduz, honela idazten zuen *Deia*-ko kazetariak, «Los informativos de ETB serán competitivos» tituluaren pean:

> «Añade que está muy claro que ellos no van a ser un Centro Regional como los que existen en el Estado. Por supuesto, no compara la calidad, pero afirma que en la ETB se realizará información global sobre Euskadi; no informativos regionales»[32]

1.2. ETBren HIZKUNTZ EREDUA

1.2.1. Audientzia eta euskara

Sarrera gisa, pare bat kontsiderazio orokor egin dezagun.

Audientziaren zifrak ikusi-berriak ditugu. Audientzi neurketa hauek izugarrizko garrantzia hartzen dute, bai bait dirudi audientzia eskas batek zentzurik gabe uzten duela ETB. Azken batean, jokoan dagoena ETBren legitimazioa bera dateke, ez zifra batzuren gorabeheraren arazoa. Inkestek, honela, munta erabakiorra dute, alderdi politikoentzat hauteskundeek bezalatsu. Entzuleriaren kopurua ez da inola ere informazio koantitatibo hutsa, testuinguru honetan. Ez, hori eta eragin soziala txanpon baten bi aldeak bezalatsu daude elkarri josiak. Audientzia eskasa berdin eragin eskasa. Beraz, zerbitzu publiko den aldetik, legitimazio sozialik ez. Erremedioa? Erdara, zeren eta, baldin entzulego txikia badu, euskaragatik bait da.

Pentsaera-katea honen puntu bat edo beste azpimarratzea, azken batean, berdin samar da; bere osoan ulerturik, logika-haria aipatu-berri dugun hori bait da, eta, batez ere, ondorioa gaztelaniaren sarrera bait da, hots, telebista elebiduna. Erdara sartuz, izan ere, Patxo Unzuetak ETBri egozten dizkion gaitzak oro sendaturik leudeke[33]: presupostuko 3.800 milioiak justifikaturik, eragin soziala oraingo minimotik maila duin batera igoa, eta audientziaren gorakada nabarmenaren bidean.

Bestalde, esan behar da, audientzia gehienaren bila doan telebistaren eredua dela ETBrena. Ahalik eta audientziarik handiena bilatzen du ETBk. ETBk ez du izan nahi telebista minoritario, abangoardista, erregional, osatzailea. Masa-telebistaren eredua du. «Dallas» erosten du eta futbol-partiduak ematen ditu.

Teleikuslego masiboaren bila joateko pentsaturik dagoen tele-

bista bat ikusentzulegoaren % 27rekin edo % 14'1ekin gelditzea ez al da porrotaren seinale? Portzentaia horiekin justifika al daiteke telebista bat? ETB ez ote du berak sortutako modeloak itoko? Eta itxurazko kontraesan honen esplikazioa hizkuntz hautapenean balego?

ETBri buruz egin diren zazpi inkestetatik bi izan dira zarata gehien atera dutenak. Bata, Estudio General de Medios-ek (EGM) RTVErentzat egina, 1984eko maiatzean eta geroago argitara emana. Eta bestea, Gallup etxeak 1984eko azaroan burutua eta 1985 otsailean publikatua.

Bi inkesta eta bi problematika. Lehen inkestak audientzia jaistearen arazoa plazara zuen. Bigarrenak, Gallup-enak, telebista elebidunarena.

Jadanik 1984eko uztailaren 31n *Egin*-ek honela zioen: «La ETB pierde audiencia»[34]. Orduantxe eman zen ezagutzera EGMk TVErentzat egindako inkestaren zenbait informazio. ETBren audientzia % 14'1ekoa zela zioen honek. ETBk, gerora, bai zifra hauek eta bai TVEk honen inguruan egindako balorazioak errefusatu egin zituen[35].

Datu hauek aditzera ematen duten ETBren marginaltasunaren irudiaz baliaturik, ETBn gaztelania eta euskalkiak sartzeko ahaleginak egingo ditu CPk Eusko Legebiltzarrean, udazkenean.

1984eko irailaren 15ean Euskal Irrati-Telebistako Zuzendari Nagusiak, A. Areizagak, Efe agentziari deklaratuko zion:

> «La razón de ser de ETB es la lengua y la cultura vasca y no tanto conseguir una mayor audiencia.
>
> Hay que asumir que ETB es un canal cuya razón fundamental, como está definido en la propia ley, es que sea un soporte de la lengua y cultura vasca. En consecuencia, creo que están perfectamente encajados los fines y la aplicación de los medios».

ETBko Zuzendaritza hartzearekin batera (1984.07.17), arazo honixe heltzen dio Amatiñok. Honela dio aukeratu eta egun batzutara egindako elkarrizketan:

> «Dagoenekoz, lortu dugu audientzia pittin bat, badirudi badugula eragin bat herriarengan, eta zenbaitek nahiago lukete hori ez gertatzea»[36].

Eraso guztien gainetik, lortutako intzidentziarekin eta au-

dientziaren kopuruarekin pozik eta optimista agertzen da Amatiño:

> «Beno, inzidentzia neurtzeko hainbat modu daude. Bat izan daiteke publikoarena, audientzia, eta nik audientziari bi alderdi ikusiko nizkioke, bata Euskal Herriko gizartean eta bestea euskaldungoan. Beste eragin klase bat eragin politikoa izan daiteke. Bestalde, prentsan ere zer eragin izan duen neurtu daiteke. Eta gero badago ere, eragin sinbolikoa deituko nukeena, hau da, ETB sortzearekin batera gertatu diren zenbait gauza.
>
> Publikoarena, hasteko, azken batetan numero batzutan neurtzen da eta badirudi gure audientzia –bataz beste– 250.000-300.000 bitarte dabilela eta hortik ez dela jaisten ez goratzen, halako gauza fuerterik ez badago behintzat. Honek esan nahi du entzule aldetik gizarte mailan entzule gutxi direla, gutxi beste zenbait zifrarekin konparatuz gero, baina mahai-inguru bat ematen dugunean 300.000 pertsonaren aurrean planteatu beharko dugu Euskal Herrian sekula santan ez dela egin mahai-inguru bat hainbat jenderen aurrean. Eta honek badu bere inzidentzia.
>
> Gero, kontuan izan behar dugu beste bi kate daudela, eta hainbat arrazoiren arauera erakargarriagoak, programa aberatsagoz edo behintzat garestiagoz. Eta pentsatzen badugu audientzia aldetik Espainiakoaren bigarren katearen pareko gabiltzala, uste dut badaudela arrazoiak baikor izateko»[37].

Gallup-ek egin inkestak bazuen galdera bat, zein hizkuntzatan nahi zuen jendeak ETB ezagutzeko egina. 1984eko azaroan egin zen inkesta hau eta hurrengo urteko otsailean argitara eman. Ikustekoak dira egun horietako egunkarietako tituluak. Adibidez: «Los ciudadanos vascos quieren una ETB en castellano y en euskera»[38]; «La población vasca quiere una televisión bilingüe»[39]; *Egin*-ek, aldiz, honela titulatzen du: «Los menores de 35 años quieren una ETB sólo en euskara»[40]; «la mitad de la población de Euskadi es partidaria del bilingüismo, según un estudio de Gallup»[41].

Tituluen aipamen honekin, gertakari bat azpimarratu nahi dugu: audientziaren analisiak adina garrantzi hartzen du inkestako puntutxo batek, hizkuntzari buruzkoak. Eta, noski, diferente lotzen dira hor audientzia eta euskara. Audientzia dela medio ETBk bere buruari aitortzen dizkion helburua eta izateko arrazoia diskutitzen zaizkio.

Euskara audientziaren aurka bide dago: «El 'euskera', principal impedimento de la televisión vasca para captar nuevos espectadores», dio *El País*-ek titulu handitan, balantzea egiterakoan[42].

Administrazio-Batzordean aipatu inkesta komentatzerakoan (Akta, 2/85), R. Fernández Garrido jaunak seinalatzen du, ikerketa honek bi gauza argitzen dituela: teleikusleek ETB elebidun bat nahi dutela eta, zoritxarrez, programarik ikusienak «Dallas» bezalakoak eta kirolezkoak direla.

Inkesta hau dela eta, *El Correo*-ko kazetari batek ETBko Zuzendariari galdetzen dio, ea nola balioztatzen duen ETBko audientzia eta ez ote duen oraingo hizkuntz egitura aldatu behar, erdal programak euskarazkoaren bi halako entzule dituela eta.

Hona Amatiñoren erantzuna:

> «Hay que partir de la premisa de que estamos considerando el índice de audiencia de un medio de comunicación en euskera. Sabemos que los mass media en euskera nunca han sido favorecidos, pues nos encontramos por razones históricas, ante un pueblo analfabeto en su propia lengua. Sin embargo, la televisión altera los presupuestos que los mass media pudieran tener en materia de comunicación respecto de la lengua. En la televisión prima la imagen y la comunicación oral, dos canales más acertados para un colectivo analfabeto. Ello posibilita que a la televisión en euskera acceda un público que no ha pasado por otros medios. Hay que presumir que los subtítulos posibilitan la incorporación a la audiencia de un público no euskaldun, y, sino habría que quitarlos. Eso explica que la audiencia de ETB se sitúe ligeramente por encima del porcentaje de vascoparlantes.
>
> Una programación debe entenderse globalmente y los objetivos para los que se creó ETB están claros. Condicionar la programación a una mayor audiencia no se defiende ni se mantiene en pie en ningún medio de comunicación. Hay otros valores que deben tenerse en cuenta. ETB se creó para ser una televisión en euskera y si algún día cambian las tornas estaríamos ante un gran engaño. No se puede olvidar la razón por la que se creó ETB»[43].

Elebitasuna da ETBko audientziaren soluzioa, nonbait.

Audientzia nola josten zaion hizkuntzari ikusteko, adibide ona dugu *El Correo*-ko Emilio Alfaro kazetariaren galdera. Erantzunean, Kultur Kontseilariak, L.M. Bandresek, Gobernuaren jarrera argitan jartzen du. Hona galde-erantzunak:

> «–A raíz de la encuesta de audiencia de ETB, que reveló una penetración del medio muy inferior a la que se esperaba, incluso entre la propia población euskaldun, en algunos sectores del PNV se ha llegado a proponer la introducción del bilingüismo en Euskal Telebista. ¿Qué designios tiene el nuevo Gobierno para Euskal Telebista?

–Tengo clarísimo que ETB va a seguir siendo un instrumento de euskaldunización. Mire, nosotros, como contribuyentes, tenemos dos canales exclusivamente en castellano, y los preocupados por la cultura vasca creemos que el euskoparlante tiene, al menos, el derecho a disponer de la mitad. Cuando se cuestiona que ETB emita íntegramente en euskera, no veo que se critique el que TVE y, de forma especial, su centro regional, no utilice para nada el euskera. TVE también está pagada con nuestro dinero. No obstante, sí tenemos la voluntad de obtener la concesión del tercer canal, en el cual tendría una cabida importante el castellano»[44].

Euskaldungoa ezin daiteke muga izan ETBrentzat. Audientzia eta intzidentzia soziala gehitzeko bidea erdara da Javier Bilbao PNVko taldearentzat ere. Ia urtebete lehenago CPk erabiltzen zituen argumentuak bere egiten ditu orain kolektibo honek, ETBren grebaren analisia egiterakoan. Javier Bilbaorentzat ere auzitan dagoena ETBren hizkuntz eredua bera da:

«Al margen de lo que pueda deberse a la rapidez de la puesta en marcha y rodaje de ETB y de eventuales parcialidades sospechosas en la selección o supresión de imágenes, hay dos elementos que parecen fundamentales en la crisis.

Uno es la escasa y, al parecer, descendente audiencia de ETB, sobre todo en mayores de 13 años. Es obvio que la televisión debe aspirar a atraer la mayor audiencia posible; también que lo reducido del país y la minoría de población euskaldun son un reto en este sentido; pero un reto que se asumió y que debe actuar como elemento motivador y nunca como limitación. Relacionado con esto parece estar la poca incidencia que ETB tiene en la vida del país, fuera de la innegable y meritoria promoción del euskera (que a los comienzos tampoco resulta fácil ni para los euskaldunes de nacimiento pero de cierta edad). Está bastante generalizada la impresión de que lo más grave —relacionado sin duda con lo anterior— es la falta o carencia de una definición clara de los objetivos de ETB y medios para lograrlos. La promoción del euskera es primordial y está ahí.

Pero ¿es suficiente? Porque, fuera de eso, no parece existir una política clara de reconstrucción del país social y culturalmente»[44bis].

Arrazoiak et kontrarrazoiak etengabe ari dira hemendik eta handik azaltzen. Ikusia dago: horietako gehienen muinean, edo inguruan gutxienez, beti dago hizkuntza, euskara. ETBren eredua diskutitzeko edo kontestatzeko ere, hizkuntzak du pisurik handie-

na. Horregatik azpimarratu behar da hemen, audientzia dela eta ez dela sortu den eztabaida ez dela hor agertzen lehen aldiz, ez hor agortzen.

1.2.2. ETB eta hizkuntz politika

Makina bat aldiz errepikatu dugu zein loturik agertzen diren sarri gizarte-komunikabideak eta hizkuntz politika Eusko Jaurlaritzako programetan eta arduradunen hitzetan. Komunikabideak euskararen egoeraren zerbitzuko, edo, gutxienez, funtzionalki loturik daude, «Eusko Jaurlaritzaren gizarte-komunikabideei buruzko politika»n ikusi dugunez. Ikusmolde honetan Euskal Irrati-Telebistaren egitekorik handienetakoa –lehena ez bada– euskara promozionatzea da.

Kultur Sailburuak, R. Labaienek, telebistarekin lotzen du euskararen salbazioa[45].

ETBko Zuzendariak, L. Iriondok (Telebista Autonomikoei buruzko I. Ihardunaldietan) ikusmolde berdintsua du:

> «Esto es un proyecto absolutamente cultural, es decir, alcanzar el último tren que nos queda de este idioma que se nos va y si se nos va el idioma se nos va toda nuestra caracteriología y nuestras peculiaridades»[46].

ETBko Zuzendari Amatiñoren formulazioan, alternatiba linguistiko bat da ETB eta kitto.

> «ETB es un proyecto cultural que nació como alternativa lingüística de un modelo cultural que los nacionalistas entendemos que es el que el país quiere y necesita»[47].

ETB honela ulertzeak, telebista bat honela legitimatzeak ez du gizarte-indar guztien onarpena, pentsatzekoa denez. Ulertzapen desberdinen gurutzaketa horixe da hemen azalduko duguna.

1.2.2.1. Hizkuntza eta ideologia

Hizkuntz normalizazioari funtzionalki lotzea ETB, tranpa bat da batzurentzat, aitzakia, estalkia. Bai ETBri buruz eta bai TV3ri buruz aipatu Ihardunaldi horietan agertu zen objekzio nagusia, lehentasuna hizkuntz normalizazioari ematetik zetorren.

José Manuel Pérez Tornero irakasleari justifikazio modu honek sortzen dion galderarik larriena hauxe da:

> «No estaremos bajo pretexto de hacer una política de nacionalización desnacionalizando algunos territorios autónomos? y lo digo porque la pretendida política de normalización lingüística se centra en una estrategia de actuación lingüística que consiste en doblar productos multinacionales. Doblar productos nacionales significa traducir la componente verbal de los productos multinacionales y mantener el lenguaje icónico de estos productos. Por tanto, es un doblaje parcial que respeta, a mi modo de ver, lo esencial, por tanto, ¿no estaremos con el pretexto de nacionalizar una región, desnacionalizándola?»[48].

Salakuntza beretsua egiten die telebista katalanari eta euskaldunari Costa Badia Jaunak, Kataluniako RTVEko Administrazio-Batzordekoak. Herri horietako aginte eskuindarrek kultura eta hizkuntza nahasi egiten dutenez, kapitalismo basatiaren ereduak saltzen omen dituzte, baldin euskaraz edo katalanez badira, problemarik gabe.

> «Ahora bien una cosa no puede llevarnos a que se confunda lengua con cultura, y digo que no hay que olvidar que hay partidos de la derecha detrás de los proyectos porque con tal de que sea en euskera o en catalán, no hay ningún problema en que se estén vendiendo modelos de comportamiento como los del capitalismo salvaje de J.R. o de los muchados de Dallas»[49].

Tonu beretsuan gurean ere mintzatu dira gutxi batzu, hala nola, Mikel Antza[50] eta Josu Sergio Cepeda[51].

Gurean errazago salatzen zaio ETBri nazionalismoaren ideologiaren hedatzaile izatea produktu estandard multinazionalen transmisore izatea baino.

Behin eta berriz aipatu dugu R. Zorrillak dioena: ETB hizkuntz politikaren tresna bezala definitzearen asmoa ez da linguistikoa, politikoa eta ideologikoa baizik; alegia, ETBz baliatuz, gizartea bitan zatikatzen da eta PNV burgesak, euskaldungoa landuz, bere agintea garantizatzen du.

> «El proyecto de televisión vasca, tal como es concebida, piensa en el medio como un instrumento más de una política lingüística, a su vez pensada en función de la perpetuación de un grupo social en el poder. Es evidente que la política lingüística actual ha intro-

ducido en la sociedad vasca un nuevo modelo de estratificación social. La desastrosa política lingüística del Gobierno Vasco ha transformado el euskera en un código mágico que permite a los iniciados constituir una casta, grupo de selectos, que se sitúan sólidamente en los escalones donde radica el verdadero poder: la Administración Pública»[52].

La Gaceta zaharrarentzat ere, hizkuntzaren bidez kontzientzia abertzalea sustatu nahi du Eusko Jaurlaritzak, eta ETB honetarako tresna aproposa da.

«Una de las conclusiones que se deducen de estos datos es, sin duda, la extraordinaria importancia que el Gobierno Vasco dispensa a la disposición de una Televisión, pese a que, y esto es importante, el País Vasco tiene ampliamente cubierto este servicio con las dos cadenas nacionales con espacios regionales. ¿Por qué? Porque el proyecto nacional vasco inspirado por el PNV y que guía, lógicamente, la actuación del Gobierno autónomo, exige la promoción a ultranza de la lengua vasca. Hasta el momento se han intentado todas las vías: partidas presupuestarias, centros oficiales, subvención a las ikastolas, festejos populares de difusión... falta ahora contar con el poderoso instrumento de una Televisión, permanente y atractiva. Este es uno de los designios de la Televisión Vasca: el aprendizaje del euskera como catalizador del proyecto nacional vasco, o lo que es lo mismo, fomentar y potenciar la conciencia nacionalista subrayando la característica definitoria en la lengua. Para llegar a ese objetivo, la jerarquización de prioridades públicas, si no ha llegado a invertirse, sí ha sido modificada por el PNV. A tal punto que lo que en término de la más pura lógica pudiera considerarse un lujo –la creación de una Televisión propia– se ha convertido en un objetivo necesario y perentorio. De ahí la velocidad –que pudiera creerse desproporcionada– por implantar de inmediato la Televisión Vasca»[53].

1.2.2.2. Elebitasuna eta pluralismoa

ETB ez omen zaio errealitate sozialari egokitzen. Hizkuntz alternatiba gisa ulertuz, ETBk ez omen dio errealitate sozialari behar bezala erantzuten. Errealitate sozialari egiten zaion aipu honetan, beti agertzen da aniztasun linguistikoa, eta batzutan, honekin batera, pluralismo politikoa. Helburua beti bat bera da: pluralismoaren nahiz demokraziaren izenean, ETBn gaztelania sartzea.

PSOEk programazioaren gainbegiratua eskatzen du; proposamen berriak izpiritu honekin egiten ditu, «respetando el pluralismo de la sociedad y de las lenguas oficiales de la comunidad autónoma»[54].

ETBko hizkuntz politika aldatzeko borrokan, alderdi eragileena CP da. ETB elebidun baten alde jokatzeko argumentuen atzetik, euskara beti ageri da traba bezala, muga bezala, oztopo bezala.

Kultur ikuspegia bakarrik duela egungo programaketak eta horregatik infraerabilia dela gaur egun ETB, salatzen du. Euskaldunen arteko bake-zerbitzurako, elkarbizitzarako eta tolerantziarako tresna izan behar du eta, «hizkuntzak helburu horientzako gainditu ezineko hesi» ez du izan behar[55].

Euskal gizarte osoarentzako tresna izan behar duela gogoratzen du Jaime Mayor Oreja «Grupo Popular»-eko Lehendakari-Talde-buruak. Eta hain zuzen gizarte osoaren zerbitzurako denez, gaztelania eta euskalkiak sartu behar dira «herri zerbitzu horren helburuak hobeki betetzeko»[56].

Telebista «plural» bat eskatzen du Euskal Herriko CPko Idazkari Nagusiak, José Manuel Barquero jaunak. Pluralismo hori, kurioski, euskara eta erdara ETBn erabiltzera mugatzen da, pluralismoaren ohizko kontzeptu ideologiko eta politikoak ahaztuta.

> «Alguien no quiere que ETB, independientemente del euskera como instrumento, sea una televisión plural.
>
> La televisión vasca tiene que cumplir tres objetivos fundamentales: en primer lugar, ser un vehículo de desarrollo del euskera y de la cultura vasca; segundo, tiene que cumplir con el objetivo de ser un medio de información propio, y, finalmente tiene que ser un medio de entretenimiento. Todo esto hay que conjugarlo dentro de la situación real de este país, en la que el bilingüismo no se ha alcanzado –solamente el 24% o 27% habla euskera–, y un medio público tiene que respetar esa situación.
>
> El País Vasco, bilingüe o no, es plural y en él la cultura castellana ha tenido una tradición importante y va a seguir teniéndola porque la vida real de cada día del País Vasco está inmersa en la cultura y tradición españolas. Esto es así hoy y cualquier medio público de comunicación tiene que atenerse a la realidad.
>
> Cualquier otra composición que se haga de Euskal Telebista tiene que fracasar porque no se adecúa a la situación actual. Entiendo que fracaso es que disminuya el número de televidentes y que ante una situación anómala como la actual no haya protestas de ningún tipo, ni una carta en los periódicos, lo que significa que a la gente le da lo mismo que funcione ETB o no»[57].

Errealitatearen zerbitzuan egon behar du ETBk, Administrazio-Batzordeko CPko ordezkariaren, Pedro Moralesen, ustetan. Beraz, pluraltasuna berdin elebitasuna.

«La Televisión Vasca debe estar al servicio de la realidad y, a la vez de servir a la euskaldunización, atender a una sociedad plural porque no es lo mismo Vitoria que Aramayona, o Bilbao que Bérriz»[58].

Erdarazko kultur magazine bat eskatu zuen PSOEk Administrazio-Batzordean, arrazoiketa honekin:

«Porque es insostenible que una gran parte de la realidad de este país esté ausente de ETB»[59].

Errealitatearekiko desegokitasunaren argumentu bera darabil Julio Caro Barojak, erdara eta euskalkien sarrera eskatzeko.

«La utilización exclusiva del euskara en la televisión vasca durante su primera andadura no responde a las necesidades reales del país donde Alava apenas habla euskara, en Vizcaya algo más y amplios sectores del país no utilizan esta lengua. Yo creo que una televisión tiene que ser informativa y responder a la situación real del ámbito que cubre»[60].

«Sobre los criterios lingüísticos aplicados en la radio y televisión vascas albergo las mismas serias dudas que sobre la política lingüística en general que se está haciendo hoy en el País Vasco, y que se caracteriza por tanto por un exceso de carga ideológica como por una evidente falta de visión socio-lingüística.

Lo que impera son los criterios de los lingüistas puros, que no tienen en cuenta la situación real, especialmente en Vizcaya y Alava, donde el número de vascoparlantes es muy reducido, por lo que no es necesario ser un profeta para prever que enfrentamientos como los producidos estos días en Mondragón y otros lugares serán la norma y no la excepción»[61].

«Txoko» delakoak ere errealitatea aipatzen du, baina oso beste zentzu batean: errealitatea isladatzekoa barik, aldatzeko eginkizuna ematen dio ETBri.

«Gainera, hortxe ditugu bi erdal kateak, soilki eta lotsagabeki gaztelania parra-parra barreiatuz. (Eta Euskal Telebista elebiduna nahi dutenei zera berresango zaie: Euskal Telebista ez dela errealitate elebidunaren islada izan behar, errealitate hori aldatzeko bidea baizik)»[62].

1.2.2.3. ETB eta soziolinguistika

Euskarak beharrezkoa du telebista. Ikuspegi soziolinguistikorik

eza salatzen du J.C. Barojak gaurko ETBren politika linguistikoan. Eta, kurioski, ETB euskara hutsez errebindikatzean, kontzeptu eta arrazoi soziolinguistikoak aipatzen dira etengabe. Euskara hutsezko telebistaren aldeko argumenturik gehienek soziolinguistikan dutela oinarri, esan daiteke. Erabili ohi diren kontzeptu zenbait aipatzea aski dugu: euskararen normalizazioa, modernizazioa, funtzionaltasuna, estandardizazioa, batasuna, telebistaren eragin linguistikoa, sortzen duen goimailako hizkuntzaren kontzientzia, jendearen gain duen eragina, prestigioa.

Euskararen normalizaziorako ezinbestekoa da telebistaren erabilpena. Euskara hutsezko telebistaren aldekoek, ia aho batez, argumentu berak defenditzen dituzte. Ekar ditzagun hona aipu eta aipamen batzu:

Telebistak «A hizkuntza», goimailako, bihurtzen du euskara, L.M. Mujikaren ustez[63].

Euskararen egituratze linguistiko eta sozialaren prozesuan behar-beharrezkoa da aukera antidiglosikoa egiten duen telebista, J.M. Torrealdairen ustez[64].

Telebista, hizkuntza guztien hedapenerako erabili den tresnarik efektiboena izan dena, euskara suspertzeko eta normalizatzeko bide bezala behar dugula orain, dio Kike Amunarrizek[65].

Zein nabarmena den komunikabideen eragina herri baten egoera soziolinguistikoan gogoratzen du Kike Ugartek[66].

Argumentazio soziolinguistikoan intsistentzia gehien egin duena EHE da. Nahiz luzea izan, EHEren testu honek merezi du, taldearen pentsaera ongi laburbiltzen bait du:

> «Une honetan fenomeno baten aurrean aurkitzen gara Euskal Herrian: Bi hizkuntzetatik bat (gaztelera edo frantsesa, bakoitza bere hesparruan), menperatzailea, kultoa, ofiziala. Bestea berriz, euskara, menperatua, baztertua, marjinatua. Gaztelera, guztiz ahaltsu, nonahiko eta noranahiko, ordeztu ezina. Euskara, behartsu, inongo eta inorako, ordez daitekeena. Gazteleraren erabilpena planteiatu ere ez da egiten. Erabili eta kitto! Nola ez ba? Euskararena aldiz, errukigarri.
>
> Fenomeno honi diglosia deritza eta desoreka hau dela bide, hizkuntza menperatua galdu egiten da.
>
> Egoera minoritario honetara ez gara kasualitatez iritsi, Euskal Herriari inposatu eta inposatzen zaion politika linguistikoaren ondorioz baizik. Politika hau, jasaten dugun nazional zapalketa orokorragoaren eitea izanik. Diglosia urruntzeko irtenbide bakarra, hizkuntzaren normalizazioa da. Eta normalizazio ezinezkoa da eus-

kara gizarte-arlo guztietan eta erabilgai guztietan erabiltzen ez bada. Hau da, euskarak irakaskuntzan, administralgoan, komunikabideetan eta zerbitzu publikoetan, gaztelerak eta frantsesak betetzen dituzten funtzio guztiak betetzera iristen ez bada. Bestela, hizkuntza horiek euskara ordezkatu egingo dute.

Komunikabideek, batez ere irrati eta telebistak, gaurko gizartearen bizitzan duten garrantzia ikusirik, komunikabideetan erabiltzen ez den hizkuntza hiltzera kondenatua dago.

Euskarak, irrati eta telebistan tratamendu egoki eta serioa behar du, eta ez folklorikoa, gaur bezala, tarteka bi hitz esanik. Euskara gai guztiak erabiltzera iristen ez bada, ez gaitezen engaina... alferrik ari gara. Hizkuntzaren erabilpena garantizatu egin behar da komunikabideetan, zeren hori baita, ezer baldin bada garrantzizkoa, euskararen iraupenerako eta normalizaziora iristeko. Bestela, hutsalak izango dira haurrak eta helduak euskalduntzen eta alfabetatzen, eta beste arloetan egiten ari garen lanak»[67].

Perspektiba berean ikertzen eta balioztatzen du EKBk ere ETBren egitekoa eta lana[68].

Komunikabideen garrantziaz jabeturik dago «Nafarroako Ikastolen Elkartea» ere, soziolinguistikaren perspektiban.

«Nos encontramos en el siglo de las comunicaciones. La importancia de los medios de comunicación en la sociedad actual es tal que en nuestro caso toda labor realizada y la que actualmente se lleva a cabo puede estrellarse contra el acoso continuo de los medios de comunicación. La sociedad vasca se encuentra en una situación de gran vulnerabilidad en el terreno cultural. No podemos abstraernos de la influencia masiva ejercida por prensa, radio y televisión.

Radio y televisión en euskara: La radio-televisión al servicio de la comunidad euskaldun como instrumento que complemente la labor de reuskaldunización e influya positivamente en la actitud cultural. La televisión en euskara ha de ser uno de los soportes que ayuden a sacar el Euskara de la grave situación en que se encuentra, ante la que ningún ciudadano demócrata puede permanecer indiferente. El poder político debe ser consciente de ello y poner los medios que en su mano posee (escuela, televisión, administración...) para la normalización lingüística de nuestro pueblo»[69].

Helduen alfabetatze-euskalduntzearen ikuspegitik eta ikuspegi soziolinguistikotik, guztiz garrantzitsutzat jotzen du ETB HABEk:

«Ezin uka, helduen euskalduntze-alfabetatzearen ikuspegitik ere, ETB guztiz garrantzitsua dela (...)

Gaurko Euskal Herrian, ETBk euskararen erabilera zabaltzera eta bultzatzera etorri behar du. Helburu honi lehentasun osoa eman behar zaio. Bestela Euskal Telebista kolpe hutsa izango da. Gizarte-sail askok euskararen egarria du gaurregun eta egarri hori berdindu beharra dago.

Euskal Telebistak euskarari garrantzi eta leku nabaria ematen ez badio, frustrazio ikaragarria sortuko du euskaldun eta euskaltzaleen artean. Eta frustrazio hori sendatzea ez da erraza izango. Nolabait esateko, Euskal Telebista azkeneko kartutxoa da euskararen aldeko borrokan»[71].

Soziologiarenganako errespetua eskatzen du Grupo Mixtoko Aginaga jaunak euskara komunikabideetan planteatzerakoan, baina honek ikuspegi arras kontrakotik, aurreko sailtxoan ikusi ditugunen haritik[70].

1.2.2.4. ETB eta diskriminazioa

Diskriminazioa, ETBren gaiaren inguruan, bi eratara ulertzen da, bi era osoki kontrajarritan: erdaldunei egiten zaiena eta euskaldunei egiten zaiena. Hitz bitan esanik, batzuentzat, ETB euskaraz izatea erdaldunei egiten zaien diskriminazioa da; eta beste batzuentzat, euskarari zor zaiona eta euskarak behar duena bakarrik da hori. Gainerako guztia da diskriminazioa euskaldunentzat.

Galdera nagusiago batera bidaltzen du argudiaketa honek: nork jasaten du hizkuntz diskriminazioa Euskal Herrian? Euskaldungoak? Erdaldungoak? Auzia, azken batean, ez bait dago, ez bakarrik eta ez batez ere, ETBn, baizik eta Administrazioan, bizitza politikoan, sozialean, publikoan, irakaskuntzan, komunikabideetan, orokorki. Euskarari gizarte-hedadura eman nahi zaionerako planteatzen (plazaratzen) da hain zuzen diskriminazioaren gaia. Diskriminazioaren gaia gai zabala da. ETB dela eta bizi-bizi planteatzea, ez da harritzekoa.

Telebista martxan hasi aurretik plazaratu zen gaia. Euskaraz izango zela adierazi zenerako. Kazetariak giroan sumatu zuen kezkari aurre eginez, honela erantzun zion R. Labaienek:

> «Que existe preocupación, que no se utilice el euskera para discriminar como se ha utilizado el castellano, esa preocupación existe y la tenemos todos. Aquí el castellano desde el tiempo de Nebrija, se ha utilizado para imponer y para discriminar. Volver a la política de la vuelta a la tortilla, eso no se le ocurre a nadie»[72].

Kezka bezain pronto hasi ziren salakuntzak eta epaiketak.

Era askotan ulertzekoa da diskriminazioa, eta nagusiki hartzailearen eta igorlearen aldetik. Batzuk aipatzen duten diskriminazioa, audientziarena da: alegia, euskara ez ezagutzean, ETB ulertu gabe gelditzen den entzuleriarena. Beste batzuek gehiago salatzen dute zenbait kultur gizon eta politikariren pantailan agertzerik eza, euskara ez jakitean. Ildo beretik salatzen da, baita ere, ETBn lan egiteko euskara exigitzearen baldintza. Goazen puntuz-puntu.

a) *Audientzia*

R. Zorrillak behin eta berriz, nekatu gabe, salatzen du diskriminazioa eta marginazioa, gehiengoari, erdaldungoari, entzule den aldetik egiten zaiona:

> «La voluntad del pueblo sobre el carácter no discriminatorio de la institución televisiva autónoma es aplastante. No obstante esta mayoría casi unánime, el grupo detentor del poder, el PNV, va a distorsionar la voluntad popular para imponer el criterio de la minoría, ese 10% que opina que la ETB debe ser *sólo para los que saben euskera*»[73].
>
> «(...) tras su incorporación al plan general de enseñanza del euskera como instrumento de alfabetización, la ETB se constituye como una *televisión de minorías definitivamente.*
>
> Una mayoría de la población vasca puede considerar un fraude el que «su» televisión le ofrezca una película que para comprenderla tenga que leer los subtítulos. También esa misma mayoría podría sentirse marginada –y por tanto ofendida– cuando Labayen dice 'nosotros entendemos que la televisión como instrumento cultural y político, en su faceta de lengua castellana, tiene ya una cobertura por parte estatal'; se podría entender que el Gobierno vasco actual considera como 'disminuídos lingüísticos' a los que sólo saben ver la televisión 'en su faceta de lengua castellana'»[74].

Interes handiko programetan, erdara eta euskalkiak sartu beharko lirateke, hedapena zabaltzeko. Ez bakarrik euskara da diskriminatzaile, baizik eta euskara batua bera ere bai. Honela aurkeztu zion legez besteko baten proposamena Legebiltzarrari «Grupo Popular»eko Lehendakari-Taldeburu Jaime Mayor Oreja jaunak:

> «Acuerda manifestar que la introducción de un más extenso uso del castellano, especialmente en programas que por su contenido o actualidad sean de interés general, y de los diversos dialectos euskéricos en la programación de ETB, supondría un más adecuado

cumplimiento de las finalidades de tal servicio público, fomentaría su enraizamiento social y permitiría el seguimiento de sus emisiones a sectores ampliamente mayoritarios del pueblo vasco, hoy marginados por el masivo uso del 'euskara batua'»[75].

b) *Kultur pertsonaiak eta politikoak*

Behin baino gehiagotan kexatu da R. Fernández Garrido zenbait kultur gizon ETBko pantailatan agertu ezinda gelditzen delako, euskara ez jakitearen arrazoia dela medio. Diskriminazio itzela da hori «pertsonalitate guztiz koalifikatuentzat» (Akta 1/84) eta aukera aparta bigarren mailakoentzat.

«Si después de año y medio, por nuestra pequeña pantalla no han aparecido poetas como Gabriel Celaya o Carlos Aurtenetxe, novelistas como Ramiro Pinilla o Mendiola, historiadores como Fusi Aizpurua o Fernández de Pinedo, periodistas como Luciano Rincón o Rafael Castellano, pensadores como Fernando Savater o el propio Caro Baroja, y sí han aparecido profusa y confusamente, ilustres mediocridades, eso quiere decir que hay mucho laberinto que desbrozar»[76].

Euskararen traba bera aurkitzen du zenbait politikarik ere. Euskaraz ez jakitean, ezin ETBn esku hartu. CPko Barquero jaunak ez du jokabide hau onartzen:

«ETB es, a veces, un Parlamento paralelo con una enorme discriminación de espacios respecto a los resultados electorales»[77].

«Que los pagamos entre todos, son públicos, y lógicamente tienen la obligación de reflejar el espectro político. Lo que no acepto es que, por ejemplo, en debates públicos sobre cuestiones esenciales, se nos haya marginado porque nuestro portavoz no sabe euskera»[78].

Barquero jauna mahainguruez ari da bereziki, eta aipatzen duen diskriminazioaren erroa hizkuntzan dago, noski. Horregatik, derrepente erantzuten dio Amatiñok, konponbidea, telebistan barik, alderdi politikoetan bilatu behar dela esanez:

«El hecho de que los coloquios se produzcan en euskara limita la participación de algunos representantes de fuerzas políticas, pero son los propios partidos los que tendrían que replantearse su oferta de personas a la hora de requerírseles su presencia»[79].

c) *Langileak*

Euskal Irrati-Telebista Erakundearen Lege-projektua Eusko Legebiltzarrean eztabaidatzean, Euskal Irrati-Telebistako Zuzendari Nagusiari euskaraz jakitea *conditio sine qua non* bezala eskatu behar zitzaiola eta, agertu zen lehen aldiz «diskriminazio» hitza: «nos parece tremendamente discriminatorio e innecesario», esan zuen Martínez jaunak, Eusko Sozialistak Legebiltzar-Taldearen bozeramaileak[80].

CPk legez besteko proposamen bat egiten du ETBko plantila finkatzean euskara ezagutzearen balorazioaz. Barquero jaunarentzat ETBko lanpostuetarako euskara nahitaezko baldintzatzat jartzea diskriminazioa da. CPkoaren argumentua areagotu egiten du Maturana Sozialistak, debaterakoan, «ekonomi krisi garaian lanpostu bat erdiesteko ez dadila [sic] nehork bere burua diskriminatua ikusi», eskatzen duenean[81].

d) *Euskara*

Haiek zein hauek, ETB elebiduna (erdalduna) ala euskalduna nahi dutenek, alegia, hitzetik hortzera darabilte «diskriminazio» hitza. Baina bai zentzu desberdinetan! Arras kontrakoa adierazteko. Diskriminazioaren planteamendua ezezik, abiapuntua bera ere arras ezberdina da.

ETBn euskara beheratzearen aldekoek bi argumentu darabilte nagusiki: legezko elebitasuna eta ETBren funtzio publikoa, guztion diruz ordaindua denez.

Euskara hutsezko telebistaren defendatzaileak, aldiz, euskararen egoera eta premiekiko sentibera dira, eta elebitasuna ez dute ETB mailan planteatzen, gizarte-komunikabide publiko guztien artean baizik.

Gehiegi ez luzatzearren, telebistari buruzko eritzien dialektikan euskaltzaleen perspektibatik eman diren arrazoietatik hiruzpalau bakarrik aldatuko ditugu hona.

Benetan aberatsa da euskararen zapalketaz eta diskriminazioaz, legalaz zein sozialaz, dagoen literatura. Euskal Telebistaren kasuan ere agertu da, indar gutxiagoz bada ere. Kike Ugarteren hitzek ongi adieraz dezakete beste askoren eritzia:

> «Kalean ibiliz, ikastoletako haurrak erdaraz mintzatzen entzunez, komunikabideak ikusiz, argi ta garbi dago gaurregun eta Euskal Herrian diskriminatu eta zapalduta dagoen bakarra euskara

dela, eta hori konpontzeko neurri gogorrak hartu beharko direla. Neurri horietako bat, telebista kate bat euskara hutsez litzateke. Orain dagoen katea hain zuzen»[83].

Diskriminazioaren aurka dagoelakoxe eskatzen du Imanol Oruemazagak euskara hutsezko ETB. Diskriminazioa, honen ustetan, euskararena eta euskaldunona da bakarrik, isildu nahi bada ere:

«Euskararen borroka luze eta latz honetan ere, erdaldunak baztartzeko edo marginatzeko bildurra edo kezka somatzen da hor eta hemen. Gure artean bizi diran erdaldunen diskriminatzaile ez du inork nahi agertu. Euskara ez omen da inposatu behar... Ezta inor diskriminatu ere.

Hori ba! Inor ere ez, euskaldunok ere ez. Euskara ere ez!

Beraz, euskara zapaldurik eta hilzorian dagoen une larri honetan, diskriminazioa eta marginazioa aipatzen ere ez dugu utzi behar euskaldunok. Beste txakur batentzat hezur hori!

Euskara bizi dadin, bide guztiak irekiak euskararentzat. ETB euskara hutsez ere bai. Diskriminazioaren aurka, eta demokrazia eta berdintasunaren alde gaudelako, hain zuzen ere»[84].

ETBko eta Eusko Jaurlaritzako arduradunak diskriminazioaren salakuntzari erantzun beharrean aurkitu izan dira.

R. Labaien Kultur Kontseilariak modu nahikoa bizian erantzuten dio kazetariari:

«Oiga, existe televisión en castellano y qué discriminación es para el vascoparlante que no tiene una televisión en su idioma. Me parece un poco fuerte hablar de eso en un país en el que se ha perseguido (...) el euskera. Que el establecer una tele en euskera suponga discriminación, lo será para la inmensa minoría del pueblo vasco. Si el tomar una medida en favor del euskera se va a tipificar en este sentido, pues que venga Dios y lo vea»[85].

L.M. Bandres Kultur Kontseilariak ere aurrez-aurre izan du gaia. Ekologia informatiboan oinarriturik erantzuten du:

«Tengo clarísimo que ETB va a seguir siendo un instrumento de euskaldunización. Mire, nosotros, como contribuyentes, tenemos dos canales exclusivamente en castellano, y los preocupados por la cultura vasca creemos que el euskoparlante tiene, al menos, el derecho a disponer de la mitad. Cuando se cuestiona que ETB emita

íntegramente en euskera, no veo que se critique el que TVE y, de forma especial, su centro regional, no utilice para nada el euskera. TVE también está pagada con nuestro dinero»[86].

CPk Eusko Parlamentuan gaztelania eta euskalkiak sartzeko legez besteko proposamena egin zuenean (1984.10.18), amorru bizian idatzi zuen *Egin* egunkarian L.M. Mujikak:

> «Señores y electores de Coalición Popular (...) están ustedes cometiendo un tremendo atropello con nuestro pueblo. En efecto, hay que ser egoísta para querer llevar adelante tal propuesta cuando el 'castellano' en este pueblo está omnímodamente impuesto (aceptado a menudo, por la 'inercia' de los mismos euskaldunes considerados abertzales!); mientras el euskara apenas tiene un canal (de dos horas y medios relativos), la población castellanófona tiene aquí a su disposición dos canales enteros, y otros cinco más en perspectiva por satélite (y en su lengua). Pero por si eso fuera poco, 'el pobre castellano' (que sufre 'discriminación' en nuestra comunidad) posee en nuestro territorio más de 15 emisoras de radio (...) Pero, además, para redondear ese corsé de auténtica asfixia a la lengua 'nacional' vasca, el castellano posee unos 12 diarios en el País Vasco»[87].

Estradizioei buruzko ETBko mahaingurua euskaraz emateagatik gehiengo bat ulertu gabe gelditu zelako kexu zen «Un admirador de ETB» delakoari, honela erantzun zion garrazki, baina ironiaz, Dionisio Amundarainek:

> «Para terminar, tengo que confesarte que los no-euskaldunes de Euskadi tenéis mil y un millón de razones para sentiros discriminados y aplastados por el racismo de los euskaldunes. Pues:
> - Todas las radios del País Vasco emiten en euskera.
> - Toda la prensa se publica en euskera.
> - Toda la televisión se da en euskera.
> - La Administración no permite hablar en la ventanilla nada más que en euskera.
> - Todo el sector de servicios lo tenéis que aguantar en euskera»[88].

1.2.2.5. Euskara batua/euskalkiak

ETBn erabili ohi den euskarari buruzko ikuspuntu eta jarrera ezberdinik plazara izan da, harritzekoa ez denez. Egia esan, puntu honetako tirabirak ez dira iritsi beste zenbait eztabaidaren parera,

eta agian ezta uste zitekeen tamainara ere. Arrazoietan eta kontrarrazoietan eskuhartzaile, hizkuntzalariak, euskaraz arduratuak, izan dira, eta, neurri txikiagoan, politikoak.

Arazoketa diferenteak, batzutan nahasirik, planteatu dira gai honen inguruan. Batzuk, ETBn erabili ohi den hizkuntzaren kalitateari begiratu izan diote; beste batzuk, mintzaira-motari, eta beste batzuk euskararen ereduari berari.

Gaingiroki bada ere, egin dezagun ikuspuntu hauen aipamena.

ETBren lehenbiziko urteurrenean oin-harturik abiatu zen ETBko mintzairari buruzko eritzi-trukaketarik eta polemikarik emankorrena. Parte hartu duten idazle ia denek, artikulu bat baino gehiagotan agertu dute beren pentsaera.

Xabier Kintanak piztu zuen sua, bost artikulutan adieraziz bere pentsamoldea[89]. Kintanak ez du deus zutik uzten ETBren praxi linguistikoan. Gogor salatzen ditu morfologi eta ortografi okerrak, neologismoak, kontrol– eta koordinakuntz falta.

Pello Salaburuk, bere aldetik, X. Kintanaren ildo bera segituz, garbizalekeria, euskara batuaren arauei begirunerik eza, itzulpen kaxkarrak etab. salatzen ditu. Proposamen mailan, Euskaltzaindiak emandako arauen onestea eskatzen du, euskara mintzatuaren mailan ere, eta azpimarratzen komunikabideen funtzio didaktikoa eta hizkuntzaren normalizazioari egiten dioten mesedea[90].

L.M. Mujikak ere ETBk euskararen gain duen eginkizun mesedegarria nabarmentzen du, eta, nahiz eta aitortu badirela morfologi eta joskera-akats batzu, batezbeste oso positibotzat jotzen du ETBko euskara, askok espero baino jatorragoa, aberatsagoa eta hobea bait da[91].

Joxe Lizarraldek euskara idatzia eta mintzatua bereizi beharrean intsistitzen du, euskalkien eta euskara batuaren auziaren gainetik. Euskara mintzatuari ezin zaio aplikatu euskara batu idatziaren eredua, dio berak[92].

Rosa Miren Pagola, dialektalismo batzu onartzearen aldekoa da, lexikoan eta fonetikan bereziki. Hobe da, honen ustez, herriaren mintza-erregistroari hurbiltzea, euskara batu aseptikotik urrunduz[93].

M. Atxagak ere behin eta berriz aipatzen du aho-hizkeratik gehiegi urrundu barik[94] ihardun behar duela kazetariak eta idazleak[95].

Baina guzti hauek aho batez onartzen dute euskara batua eredu bezala, dosifikazioan eta praxian arazoak aipatu arren.

Euskara batua erabiltzearen aurkako erasoa ez da hizkuntzalariena izan. Bizkai aldeko sektore jakin batzuk ez dute onartu ETBn euskara batua «ofizialki» erabili izana. Aipagarria da, 1984eko urriaren bian hizkuntza minorizatuei buruz egin zen mahainguruan, zein gogor eraso zuten telefono-deien bidez, bizkaieraren egoera minorizatua salatzen zutelarik. Han entzundakoari erantzun gogorra ematen dio Andoni Sarriegik, haserre[96].

Sektore hauen erasoaz gain, beste bat ere izan du ETBk, hizkuntz eredua ukatu eta euskalkien sarrera eskatzen duena. Errealitateari men egiteko, erdara ezezik euskalkiak ere ETBra sartzea proposatzen du J.C. Barojak[97]. Proposamen hau baino estonagarriagoa da CPrena, bide beretik. Koalizio honen ustetan, euskalkiak ETBn sartzeko arrazoi nagusia honetan datza: komunikabidea bera gizartean sustraitzea, euskara batuaren oraingo erabilera hain handiak euskal gizartearen zatirik handienak marginatu egiten bait ditu[98].

Projektuaren mamitze-garaian, euskara-motaren arazoak ez du hizpide handirik sortzen. 1981eko azaroan Kultur Kontseilariak, R. Labaienek, deklaratu zuen:

> «Guk hizkera kolokiala egin nahi dugu. Euskaldun guztiak ulertuko duten euskara bat, bai Gipuzkoan, Bizkaia edo Iparraldean. EUSKALKIAK SARTUKO DITUGU, JAKINA»[99].

EHEren izenean, une berean, L.M. Mujikak ez du auzibiderik ikusten euskara-motan:

> «Euskara motaz zera esango dizut: batuera potentziatu egin behar dugu baina euskalkiak ere potentziatuz.
>
> Ez dugu euskara kolokiala baztertu behar»[100].

Euskara batua begi onez ikusten ez duen J.J. Azurzak, aldiz, euskara batuaren «gran cañón Bertha»tzat jotzen du ETB:

> «Además de ser en euskera, la televisión vasca será el *'gran cañón Bertha'* con el que se impondrá el 'batua', no sólo en lo escrito, sino *hasta en el lenguaje hablado.*
>
> Los exámenes y selección de traductores y locutores para radio y televisión, han sido pasados por el cedazo del 'batua' oficial. Hay que acabar los modismos regionales vascos. La televisión vasca será, al parecer, la *'solución final'* (¿les recuerda algo?) a la cuestión lingüística en Euskadi...»[101].

Euskara-motaren kontuan ETBk hartu duen bidea, Eusko Jaurlaritzak ofizialki harturikoa bera da. Aukera honetaz xehetasunak eskatu izan zaizkion bakoitzean, Iparragirre kazetal enpresa ingurutik konkretuki, erabaki instituzionalari jarraitu besterik ez dutela egiten erantzuten du, hotz eta motz, zuzendariak[102].

2. POLEMIKAK ETA EKINTZAK

ETBren oihartzun soziala ikusten ari gara. Gizarteko zenbait sektorek eta pertsonaiak ETBri eman dion garrantziaren handia antzemateko, ez da termometro txarra beronen inguruan sortu diren iskanbilak, eztabaidak, tirabirak, eritzi-trukaketak eta ekinaldiak hurbildik begiratzea.

Hiru une bero ikusten dugu guk denetan nabarmen:

Bat, 1981eko azken aldikoa: «Gabonetarako Irratia/Telebista euskaraz», EHEk bultzaturik. Bi, urte-parea geroago, EHEk antolaturik hau ere, «ETBn erdararik ez». Eta hirugarrena, 1984ean Nafarroa osoan egin kanpaina, ETB jasotzearen alde.

Ikus ditzagun banan-banan.

2.1. «GABONETARAKO IRRATIA/TELEBISTA EUSKARAZ!»

1981eko azken bizpahiru hilabeteetan, ikusentzutezko baliabideen garrantziaz jabeturik eta Eusko Jaurlaritzak egindako promesa batzu ez direla betetzen frogatua, artega eta urduri dago EHE.

Begien aurrean ditu EHEk Kultur Kontseilari R. Labaienen deklarazio esperantzagarriak. Deklarazio horiek sinestu egin zituen EHEk eta uste zuen, Labaienek agindu bezala, 1982rako hirugarren kanala euskaraz izango zela[103], lau irrati euskaraz 24 orduz, hirugarren kanal elebiduna, bigarren kanal espainolean 20 ordu astero eta, azkenik, euskal telebista-katea bat[104].

Deklarazioek ez zuten praxiaren segidarik izan. Atzerapen eta luzapen honen aurrean, esan bezala, kanpaina bat bultzatzen du EHEk, bi helbururekin: batetik, emandako hitza bete zezala Eusko Jaurlaritzari eskatzea, prentsaren bidez eta kalean: artikuluak,

kartelak, paperak, manifestazioak. «50 mila izen bildu genituen, manifestaldiak egin genituen, hitzaldiak egin genituen eta dena Eusko Jaurlaritzak markatutako epea behin berriz gelditu ondoren bere hitza bete zezan»[105]. Eta bestetik, EHEk ETBri buruz duen eredua zabaltzeko eta herria kontzientziatzeko helburuarekin.

Bigarren parte hau, EHEk euskal telebista nola ulertzen duen alegia, interesatzen zaigu orain.

Kanpaina honetan, Euskal Herri osorako euskara hutsez izango den telebista arrunta eskatzen du EHEk. Talde honen izenean, L.M. Mujika mintzo da *Anaitasuna*-n[106]:

– ETBk Euskal Herri osoa hartu behar du:

> «Guk, talde bezala, ez daukagu dudarik territorialitateaz. Politikari dagokionez ez ba dugu Euskal Herri osorik lortu hizkuntza beste puntu bat da. Euskal Herri kulturala zazpi probintzietakoa da eta euskal telebistak zazpietara jo beharko luke[107].

– Euskara hutsezko telebista:

> «Gure eskabide nagusia euskara hutsezko katea izatea da, erdara barik, nahiz eta hasieran ordu bat edo bi ordu eman egunero»[108].

– Telebista komentzionala:

> «Gure nortasuna zaintzeko bat. Garai honetan euskarak zituen babes biologikoek bakarrik ez dute gaur balio. Euskarak komunikabideetan egon behar du. Nik, pertsonalki, eta kokoa jan arren, edozein amerikanada euskaraz nahiago dut erdaraz egongo den azken banguardismoa baino. Ezin daiteke egin gizartearen konponbide sozialik euskara zapaldua egonez»[109].

Euskara hutsezko telebistak lehen mailako garrantzia du EHE-rentzat, euskararen normalizazioaren testuinguru orokorrean. Euskararen normalizazioa, bestalde, nazio-projektu osoari atxekitzen zaio. Informazio-ekologia, testuinguru soziolinguistikoa, nazio-projektua eta beste aipatzen ditu kanpaina honetako deialdi nagusian EHEk:

> Euskara egunero asesinatzen ari gara: Euskal Herrian irratiek astero emititzen dituzten 2.108 orduetatik, 167 besterik ez dira eus-

karaz. Telebistak euskarari uzten dion denbora hutsaren hurrengoa da: 0,003% euskaraz – 99,997% gazteleraz. (...)

Bainan haurrak euskaraz hezten eta helduak alfabetatzen eta euskalduntzen ari diren bi erakunde horien lana, ezabatua gertatzen da neurri handi batetan pairarazten diguten erdal inguramen horren indarkeriaz. Euskararen normalizatze prozesua, ezin daiteke inolaz ere erakunde hauen lanetara mugatu, lan hori baldintzatzen duen inguramena kontutan hartu gabe. Erdal inguramen honetan, erdalduntze prozesuaren eragilerik garrantzitsuenak, eta euskal eskolen eta ikastolen lanaren oztoporik larrienak, Telebista eta Irratia direnez, beste atal guztiak ahaztu gabe, orain dela hiruzpalau hilabete, bi komunikabide hauetako euskararen bazterketa gainditu nahiean, Euskal Herrian Euskaraz Elkarteak, «Gabonetarako Irratia Telebista Euskaraz» kanpainari ekin dio.

Euskararen normalizapenerako ezinbestekoa da: –Telebista katea eta Irratia euskaraz solik: euskaldun bizi nahi duen euskaldunarentzat, edo eta, euskaldun izan nahi duen baskoarentzat; euskara ikusi entzun nahi duen bakoitzean erreferentzia izan dezaten. Honela herri honek euskaraz bizitzeko duen ukaezinezko eskubidea betetzen has dadin.

–Euskal Herrian emititzen duten beste Irrati eta Telebistatan benetazko elebitasuna: baskoen «ulermen pasiboa» lortzeko eta euskara Euskal Herrian heda dadin, egungo euskaldunen ghetoa hautsiz, (sinplekeria baldin bada esatea ere, kontutan har elebitasuna, gaztelerak 1.000 ordu eta euskarak 1.000 ordu dela; bestela euskararen derrigorrezko asimilazioa dator).

–Euskal Herriko eremu osoan: Gure nazio proiektoa euskalduna izanik, horretarako eskubidea dugunez, eta gure nahia hala delako, ezin daiteke euskararen arazoa zonalde euskaldunetara mugatu, erreserba batzuk izango bailiran tratatuaz, erdara faktikoki Euskal Herriko eremu osoan zabalduta dagoenean. Zeren euskaldun bizitzeko edo euskara ikasteko Lizartzan bizi denaren adina eskubide baitu Ablitas, Trebiño eta Atarratzeko biztanleak.

–Bada garaia euskaldungoaren justizia egiteko: Atzerapen egun bakoitzak euskararen heriotzerako urratsak bidertu egiten ditu, eta gu ez gaude prest genozidio honen aurrean eskuak gurutzaturik geratzeko. Bestalde, jadanik lotsagarri gertatzen dira Eusko Jaurlaritzaren deklarazioak; dirudienez, euskararekiko teorian egiten diren epeek, praktikan ez dute ezertarako balio; eta epeak ez ditugu guk asmatu. (...) (*Egin*, 81.10.04)

Telebistaren premia aldarrikatzera dator J.M. Elexpuru EHEkoaren artikulu hau ere, manifestazio bezperan. Euskara oraingo mailan mantentzeko eta are errekuperatzeko behar-beharrezkoa dugu euskara hutsezko telebista.

Telebistaren behar izugarria dugu. «Beltza»k esaten zuen erdi broma erdi serio, telebista eskatu beharrean ez ote zen hobe izango dauzkagunak errekara botatzea. Ez da idea txarra, baina...

Telebistarik gabe euskara errekuperatzea (eta oraingo mailan mantentzea ere) errekan gora igeri egitea da. Ibili zaitez, obseso baten gisan, haurra txiki txikitatik euskaraz hezitzen. Ikastolan irakaskuntza guztia haurra txiki txikitatik euskaraz hezitzen. Ikastolan irakaskuntza guztia euskaraz, kanpainak euskaraz egin dezaten, zigorrak erdaraz ari direnean, dituzun astiune, imajinazio eta idealismo apurrak «kausa»ri eskainiz eta gero ikus zure lanaren fruitua: hamalau urtetara irixtean, jota sua erdaraz eta euskaraz ari direnean, euskara kaxkar triste batean.

Erre ez, kiskali egiten zara.

Nagusiekin berdin. Gau eskoletan zenbat ahalegin irakasle eta ikasleen aldetik. Baina zein zaila den edozein hizkuntza klasean ikasitakoarekin bakarrik ikastea. (...)

Eta euskara hutsezko kate bat behar dugu. Bilinguerik ez, eskerrikasko. Hor ditugu erdaraz 1. eta 2. kateak. Egunean 14 bat ordu denera. Laster datoz beste hiru edo lau kate pribatu. Beraz, erdararik ongi gaude. Asko al da 4 edo 5 ordu, euskara hutsez eskatzea? Euskaraz entzun nahi duen ikusleak garbi jakin behar du botoi hura zapaltzen duenean, euskaraz adituko duela. Gure egoeran kate elebidun bat jartzea, txapuza bat da.

Hasieran ordu beteko euskal emankizuna bete daitekeela bakarrik? Ba ordubete. Poliki poliki orduak ugarituz joateko noski. Baina kate elebidun bat jartzen bada, euskal emisioak hasieratik mugatuak eta hipotekatuak jaiotzen dira. Egoera probisionala izango dela esatea ere, ez da sinisgarria, horrelakoak «probisionalak betiko» izaten bait dira. (...) (*Egin*, 81.12.29)

2.2. «ETBn ERDARARIK EZ»

Kanpaina luzea eta bizi bizia izan zen 1983ko hau. Uztailaren 4eko *Deia*-ko albiste batek altxatu zuen erbia. Honela zioen:

«Informativo en castellano en la ETB. Según ha podido saber Deia de fuentes generalmente bien informadas se prevee que para el último trimestre del año esté en el aire un informativo diario en castellano en la Euskal Telebista. Dichas fuentes señalaron, igualmente, que dicho proyecto había sido estudiado hace tiempo y que la entrada del castellano en la televisión vasca obedece a un intento de captar una mayor audiencia entre los telespectadores vascos».

Euskaldun eta euskaltzale asko eragin zuen albiste honek. Uztailean UEUren barruan EHEk egin zuen batzarre nagusian, asmo honen kontrako kanpaina antolatzea erabaki zuen, kartelak, paperak, mahaiak, telebistak kaleratuz.

Erabaki honek izan zuen erantzun sozialaren pisurik handiena EHEk eraman bazuen ere, beste eta bestelako erantzunik ere suertatu zen prentsan: euskaltzale askok parte hartu zuen bertan.

Eztabaidaren harian sartu aurretik, aipamen berezia zor zaio L.M. Mujikak testuinguru honetantxe sortu zuen polemikari. Urriaren 4ean «Desautorización sistemática del euskara en Euskal Telebista» argitara zuen autore honek. L.M. Mujikaren salakuntza ez doa zuzen-zuzenean ETBren aurka, Eusko Jaurlaritzako politiko batzuk ETBko informatiboetan erdaraz mintzatuz erakusten duten narrazkeriaren aurka baizik. Hizkuntza nazionalarekiko mespretxua eta axolagabekeria adierazten du honek, L.M. Mujikaren eritzian, eta exenpluz predikatu behar dela azpimarratzen du. Eztabaida luzea sortzen da gai honen inguruan, 11 bat artikulu publikatzen ditu *Deia* egunkariak[110], baina telebistaz ari den bat ez beste guztiek hizkuntza nazionalaren garrantziaz eta erabilpenaz dihardute.

Polemika nagusiaren benetako ardatza, arestian esan bezala, beste bat zen: ETBn erdarari bai ala ez?

Gai honen inguruko artikulu-sail handiena urrian agertu zen, prezeski Durangoko manifestazioaren inguruan. Durangon bertan, abenduan, Liburu Azokaren aretoan, izan zen mahainguruak ere izan zuen oihartzunik.

Egun horietan prentsan, ia osoki *Egin* egunkarian, agertu diren artikuluak ditugu orain aztergai:

Nahiz eta «ETBn erdararik ez» kanpainari prentsako hasiera ofiziala, nolabait esatearren, urriaren 8an eman dion EHEk, juxtu bezperan, EHEko bezala izenpetuz eta Durangon biltzeko dei eginez, Kike Amunarrizek artikulu bat publikatzen du *Egin*-en[111].

Euskal Telebista lortzea euskararen normalizazio-prozesuan mugarri gisa kontsideratu ondoren, orain erdara sartzea atzerako pauso larria da Kike Amunarrizen ustetan. Eman diren arrazoiak ez ditu baliozkotzat jotzen: entzulegoa zabaldu nahi izatea, planteamendu faltsua da, euskararentzako entzulegoa inguratu behar bait du, ez erdalduna; ETB TVErekin konpetentzian jartzea arriskutsua da, honek erdararen nagusitasuna berriro inposatzea esan nahi du eta. Erdara sartuz, ETB «desnaturalizatu» egiten da. Aitzaki-maitzakiak dira horiek denak. Gakoa, beste honetan

datza: gaurko gobernariek ez dute seriotan hartu, euskara, ez dago euskara normalizatzeko borondate politikorik.

Urriaren 8an, Durangon hurrengo egunean ospatuko zen manifestazioaren deialdiarekin batera, idazki bat atera zuen EHEk[112]. Ia egunez-egun, urtebete lehenago egin zuen bezalaxe[113], ETBko sortzaile eta arduradunen deklarazioak orpoz-orpo jartzen ditu, kontraesanak azpimarratuz. Epeei buruzko kontraesanak eta batipat ETBko hizkuntzari buruzkoak nabarmentzen ditu EHEk. ETBko hizkuntzari buruz, bi linea kontrajarri ikusten ditu: batean, euskara hutsaren aldeko, R. Labaien eta L. Iriondo; eta bestean, erdara sartzearen aldeko, J. Zubiaur, A. Areizaga eta Amatiño. Erdara sartzearen linea nagusitu da orain, eta erdara informatiboetan sartzea, erdalduntzearen lehen pausoa besterik ez da. Honegatik dio EHEk «gaurko kultur arduradunek Euskal Telebista elebiduna izateko bidetan jarri nahi dute».

Ideia berak errepikatzen ditu EHEk Durangoko manifestazioko agirian ere[114]: «Gaur garbi esan dezakegu ETBn eta PNVn, erderazaleok nagusitu direla eta ETBn erdalduntze prozesoari hasiera eman zaiola»[115].

Urriaren 12an[116] Imanol Oruemazaga ere gai berarekin dator. «Kabi batean bildotsa eta otsoa sartu nahi dituzte», dio honek. Jokabide hori zuritzeko eskaintzen ari diren arrazonamendua, iraingarria da honentzat: demokrazia, pluralismoa eta herriaren zerbitzua. Erdara ETBn sartzeak zera uzten du ondo agerian: «ETBren helburu nagusia ez da euskara, PNVren ideologiaren zabalkunde eta hedakuntza baizik»[117].

Egun berean hasita, ETBren aldetik Amatiñok erantzuten du, *Deia*-n publikaturiko lau artikuluren bidez[118].

«Euskara/informazioa» binomioaz astiro azaltzen ditu Amatiñok bere gogoeta eta ikuspuntuak. L.M. Mujikari erantzunez hasi eta segidan EHEren susmo eta arrazoiei erantzutera pasaz, Amatiñok bere arrazoiak ematen ditu.

«Con la información hemos topado», dio Amatiñok bere lehen artikuluan. Bigarren artikuluan, L.M. Mujikaren aurka, politikoen ezjakintasuna gaitz-erdi da Amatiñorentzat, paseko txoriak bait dira politikoak. «Legeriaz, barne-egiturez zein administrazioaz, gure erakundeen aparatoa da euskaldunok behar duguna». Klase politikoaren ezjakintasunaren ondoan, informazioaren eskubideak daude. Politiko horrek ez al du bere eritzia ematerik eta entzuleak ez al du politiko horren eritzia bere ahotsez jasotzeko eskubiderik?, galdetzen du Amatiñok eta definitzen: «Telebistaren

informatiboak ez dira hizkuntzak ikasteko, berri emateko baizik. ETBren informatiboak ez dira euskara irakasteko, euskal ikuspegi batez berri emateko baino».

Definizio hau oso garrantzizkoa da.

Badirudi azken esaldi hori aurrekoaren konkrezioa dela: «berri emate»tik «*euskal ikuspegi batez* berri emate»ra lerratzen da Amatiñoren pentsaera. Euskaratik «euskal ikuspegi»ra pasa da, denbora berean. Perspektiba honetan kokatzen eta justifikatzen da erdal telegunkaria. Erdal telegunkariak, euskarari barik, «euskal ikuspegi»ari egiten dio jaramon. Erabaki honetarako egon diren arrazoiak, honela zerrenda genitzake:

- Euskal Telebista Euskadin bizi garen guztiona da.
- Euskaraz ez dakiten herri honetako biztanleek ere beren burua «beren» Euskal Telebistaren bitartez informatu nahi dute.
- Herri honen integrazioa informazio bateratuan datza.
- Arrazoi pragmatikoa: antenak etxe guztietan jar daitezen, zenbait eskaintza behar da.

Erdararen sarrera hau informatiboetara mugatzen du Amatiñok. Ez da, honen ustetan, EHEk salatzen duen erdalduntze-prozesuaren lehen urratsa.

> «Euskaraz ez dakiten gure herritarrak gertu daudeke entretenimenduko programak (lehiaketak, filmeak, dokumentalak, antzerkiak, kantu-jaialdiak, kirolak, etabar) euskaraz soilik ikusteko. Baina beren burua Euskal Telebistaren bitartez informatu nahi dute»[119].

EHEko partaideek ez zuten ikuspuntu bera:

> «Orain arte dena euskaraz egin bada, Labaienen euskaltzaletasunari eta kaleko presioari esker izan da, baina Labaien zokoratua izan da eta heldu da «realistak» izateko ordua. Alderdiaren mezua biztanlego osoari bidali behar zaio eta honetarako euskal-erdal telebista da tresnarik egokiena»[120].

Jon Urrujulegirentzat ere, isilean gordetako egiazko arrazoia, politikoa da: «hauteskunde autonomikoak datozela eta komunikabide hori nahi politiko erdaldunek»[121]. «Ez dezatela honelako krimenik kometitu» oihu egiten du, «crimen de lesa patria» bezala

hori kalifikatuz. Bost katea erdal hizkuntzak indartzen, euskara baztertzen eta herria desnazionalizatzen ari direneko itolarri honetan, argitxo berde bat piztu zen: ETB. Eta orain «promesaz beteriko landaretxoari matxetazoa ematera doaz».

Etxetik bertatik, erantzun gisa, ETBko langile batzuk eskutitz irekia bidaltzen diote Amatiñori[122]. Erdara sartzeko Amatiñok bota dituen arrazoiak ez dituzte onartzen, eta gutxien-gutxiena «euskal nortasun, sena eta ikuspegia» emateko erdara erabiltzea: «euskararik gabe ez dago, ez euskal senik, nortasun edo ikuspegirik». Langileon eritzian, lehen urratsa besterik ez da hau, eta erabaki honen egiazko arrazoia: hauteskundeak. ETB, azken batean, PNVren telebista da, «batzutan eta projektu nazional baten atzetik ibiltzeagatik ahantzi izan dugun arren».

Kike Ugarte (EHE) ikuspegi soziolinguistikoaren eta politikaren artean mugituko da[123]. Nazioaren izatea kontrol politikoaren pean gelditzen ari dela ikusten du Kikek, eta, orobat, euskarari ez zaiola dagokion tratamendurik ematen. Egoera soziolinguistikoan komunikabideek duten eragina kontutan izanik, orain ETBn erdara sartzea «urrats bat aurrera eta bi atzera» egitea da, eta euskara jasaten ari den diskriminazioa eta zapalkuntza areagotzea.

EHEk, azaroan *Argia* astekarian Arlantzek egin elkarrizketan[124], kanpainaren motibazioak, zioak eta gertakariak agertu ondoren, borroka soziolinguistiko globalaren esparruan kokatzen du ETB euskaldunaren aldeko borroka hau.

Abenduaren 11n Bilbon ospatzekoa zen «Euskara Hutsezko Telebista»ren aldeko manifestaziora euskaltzaleei dei eginez idazten du abenduaren 4ean Joan Alemanek (EHE) Nafarroatik.

Euskal Irrati-Telebista, «eman izan den jauzi kualitatibo bakarra» izan den hori, tamalez ez da horrela Euskal Herri osorako, ez bait da Nafarroara iritsi ere egiten. Alderdi politikoak kritikatu ondoren, EHEren gain uzten du J. Alemanek euskal telebistaren defentsa. Nafarroarako proposatzen dituen bi borrokagai nagusiak hauek dira: ETB Nafarroan sartzekoa eta euskara hutsez izatekoa.

Eztabaida honen puntu gorenetako bat abenduaren 11n Durangoko Azokan ospatu zen mahaingurua suertatu zen[125]. Joseba Intxausti zuzendari zela, mahaian bildu ziren Amatiño, ETBko Informatiboen burua; X. Gereño, EITBko Administrazio-Batzordekoa, eta I. Agirre, EHEkoa. Zertan esanik ez dago, nork bere jarrerak agertu eta defenditu zituela. Amatiñok esplikatu zituen arazo honen historikoa, programaketaren gehiketa, erdal telegunkariaren erlatibotasuna, hizkuntzak bloketan bereiztearen filosofia.

Xabier Gereñok hiru arrazoi eman zituen erdal telegunkaria sartzearen alde: teleikusleak ETBra erakartzea, arrazoi politiko-hauteskundezkoak eta, hirugarrena, erdal hiztunei ere zerbait eskaintzea, antenak jar ditzaten. Inazio Agirrek Garaikoetxea eta Labaien jaunen deklarazioak sorturiko espektatiben faltsukeria seinalatu zuen, euskararen emergentziazko egoeraren larria azpimarratu eta elektoralismoa salatu.

Mahainguru honek izan du prentsan oihartzunik. Aipatu dugun berriemateaz gainera, erreflexio mailako jarraipenik ere aurki genezake.

Abenduaren 17an, *Deia*-n Mikel Atxaga plazaratzen da «Herriko Plaza» sailean. ETBko ordu-laurdeneko erdararen beldurra erlatibizatu egiten du: «Euskal telebistak erdaraz informatibo bat emateak ez du ezeren garrantzirik, nere ustez, garai honetan euskarazko emanaldirik besteetan ez emateak baizik». Hori bateko. Eta besteko, «erdarazko kateen akats bakarra ez da gaztelaniaz edo frantsesez aritzea, abertzale eta euskaltzaleok nahiko genukeen Euskal Herriaren kontra erasotzea ez bait da oker txikiagoa gure egoeran». Eta, beraz, erdara ere behar dugu honi kontra egiteko, bestela «arrotzen esku uzten ditugu euskararik ez dakiten guztiak».

Abenduaren 18ko *Egin*-en, Tomas Agirrek bere pentsaera luze-zabal agertzen du. ETB euskaldun huts-hutsaren alde dago (erdal azpititulurik ere gabekoa), bi arrazoirengatik nagusiki: euskara ikasten ari den ikaslegoari erraztasunak emateko eta herritarrengan euskararen kontzientzia eta exenplua lantzeko tresna bezala. Nafarroara eta Iparraldera hedatu behar da. Eta erdara eta euskal deskontzientziazioa Euskal Herriko azken baserriko sukalde-txokoraino sartzen duen telebista-katea horietan ere euskara txertatu behar da.

2.3. «EUSKAL TELEBISTA NAFARROA OSOAN»

Ia 1984 urte osoan, martxoan hasi eta abendua bitartean, iraun zuen kanpaina honek. Hamar hilabete hauetan era askotara jokatu zen helburu horren alde: udaletxeen posizionamenduak, jendeen izen-emateak kanpaina, kale-kanpaina, manifestazioak etab.

Ekinaldi hau bere honetan aztertu aurretik, komeni da aurrehistoria aipatzea.

Aurretik, gutxienez bi ekintza mamitu dira Nafarroan ETBren alde. 1981eko udazkenean Hego Euskal Herri mailan EHEk «Irratia/Telebista euskaraz» antolatu zuenean, kanpainaren barruan «Nafarroa Euskararen alde» izeneko kanpaina eratu zuen: 15.000 lagun eta 10.000 sinadura bildu zituen. Kanpaina hartan, bai talde honek eta bai beste zenbait erakundek, garbi agertu zuten euskara hutsezko irrati eta telebistaren premia.

Bigarren ekinaldia, 1984eko otsailekoa da. Otsailaren 11n, «Telenavarra»ren egoitzaren aurrean manifestazioa egiteko deia egin zuen EHEk. Bi helburu zituen manifestazio honek: ETB Nafarroan ikusteko eskubidea ukatzearen salaketa eta «Telenavarra»n eta irratietan euskara gehiago sartzearen exigentzia.

Telebista espainolak Nafarroan duen zentruak, «Telenavarra»k, euskarari ematen dion tratamendua minutu bat ingurukoa dela gogoratu ondoren (programazioaren ehuneko 0,5), emanaldi hori kentzea eskatzen dute:

> «Gure ustetan burla bat egiten zaio euskarari berri laburpena euskaraz delakoarekin, eta nahiago genuke emanaldi motz hori suprimitzea»[126].

Beste helburuak, hots, ETB Nafarroan ikusteko eskubideak, munta handiagoa zuen deialdi honetan, eta manifestazioa probokatu ere honetxek probokatu zuen. Hona gertakaria: otsailaren hasieran, Nafarroako Diputazioek eta Altsasuko Udalak hartutako erabaki baten ondorioz, Urdiainen zegoen antena kendu egiten da, eta horrela Sakana osoan eta inguruko herrialdeetan ezingo da ETB ikusi. EHEk salatzen duenez, Diputazioarentzat «euskaldunon telebista ez da euskalduna, beren Telenavarra baizik»[127], eta erabaki honen mamia honela dakus elkarte honek:

> «Garbi azaltzen zaigu erabaki honen mamia, Nafarroako euskaldunok erabili ahal genuen aukera kentzea, Euskal Telebista ikusi beharrean, Telenavarra ikus dezaten, euskararen erabilpena murriztu egin dadin»[128].

Gauzak honela, martxoan kanpaina bati ematen zaio hasiera, ETB Nafarroan ikusteko ahalmenaren alde sinadurak bilduz eta udaletan mozioak aurkeztuz. Baztango bailaran hasten da kanpaina, zera eskatuz: ETB, TVEren bigarren katea eta telebista frantsesa ikustea bideratuko duen antena bat jartzea. Hortik aurrera, udalez-udal, kontzejuz-kontzeju bideratzen da ekinaldia.

Udal eta kontzejuetan hasitako mugimendu honetara bildu ziren geroago Ikastolen Federazioa, AEK, EHE. Abenduaren 16an ospatu zen manifestaziorako baziren 85 udal (300.000 lagun ordezkatuz) ETBren alde, 120 erakunde eta talde, eta manifestazioan 8.000 bat lagunek hartu zuen parte[129].

Ekinaldi hauek denak bideratzeko Euskal Telebistaren aldeko Batzorde koordinatzaile bat eratu zen.

Esan bezala, kanpaina honen goiburua, «Euskal Telebista Nafarroa osoan» izan zen. Lema honen inguruan eta kanpainaren barruan agertu ziren dei, artikulu eta manifestuetan bi eratako arrazoiak agertu dira argi garbi: alde batetik, Nafarroa euskaldun/erdaldun eskualdeka banatzearen aurkakoak; horregatik, Nafarroa osorako eskatzen da ETB. Eta, beste alde batetik, ETB eskatzeko arrazoiak, linguistikoak dira: euskararen presentzia, normalizazioa, zabalkundea.

Modu batera eta bestera, argumentu hauek errepikatzen dira etengabe. Erakuskari gisa, ikus ditzagun pasarte batzu.

a) *Nafarroa osorako telebista*

ETBren aldeko Batzorde Koordinatzaileak, Nafarroako aurrekontuen aurreprojektuaren aldaketa eskatzen du azaroan; aurreprojektu honen arabera, ETB jasotzeko ematen diren 170 milioiak euskal telebista probintziaren Iparraldean bakarrik jasotzeko bait dira. Nafarroa osora hedatu behar da ETB hartzeko eskubidea, Batzorde honen ustetan[130]. Ildo beretik doa «Zaldiko Maldiko» Elkartea ere, «telebista euskaraz, nafar guztien eskubidea» aldarrikatuz, zeren eta «Nafarroako aurrekontuetan agertzen den planteamenduak euskaldunen 'kantonamendu edo ghettoa' suposatzen du garbiki. Zeren eta bertan agertzen da ETB hartzeko errepikagailuen sarea Irurtzuneraino besterik ez baita hedatzen, Nafarroako beste zonaldetan bizi garen euskaldunok diskriminatuz»[131].

Gauza bera azpimarratzen du Manex delakoak ere:

> «Así después de la promesa de Urralburu de que la captación de ETB sería una realidad en toda Navarra, en los presupuestos de Navarra su captación se limita a una sola zona; esta medida, de confirmarse, supondría la negación del derecho de cualquier navarro a tener medios de comunicación en euskera y supondría un precedente de 'ghetto' cara al desarrollo de la Ley del Euskara, prevista en el mal llamado 'amejoramiento'»[132].

Bide beretik doa Ubarmin enpresako Batzordea ere:

> «Hoy es el día que dentro de los presupuestos de Navarra se destinan 180 millones para la posible captación de ETB en Navarra pero esta captación sólo se dará en la zona norte, con lo que no sólo se quiere dividir a Navarra en dos: zonas vascófonas y no vascófonas. ¿Qué pasa que los de las zonas de Tudela, Tafalla, Estella, Aoiz, Pamplona, etc., no somos vascos? Señor Urralburu entérese de una vez que los navarros somos vascos, otra cosa es que por razones de represión, prohibición, etc., no sepamos nuestra lengua (euskara), pero somos muchos los que queremos recuperarla. Exigimos que se pongan los medios para la captación de ETB en Nafarroa OSOAN»[133].

Aurrekontu hauek salatzen ditu, arrazoi berengatik, Gillermo Arbeloak ere:

> «Tampoco podemos conformarnos con que en el anteproyecto de presupuesto para el año 85 hayan previsto una serie de equipos reemisores para la captación de ETB, pues hay que tener presente que el citado anteproyecto tan sólo contempla la instalación de tales reemisores en Iruñarri, Lesaca, Gorramendi, Santesteban, Zubieta, Goizueta, Saldias, Huici, Leiza, San Miguel, Arruazu y Urdiain. Volvemos con esto a las ya conocidas tesis de las «reservas», de zonas vascoparlantes. Esto es algo que no podemos consentir, pues tan navarro es el ciudadano de Leiza como el de Cortes y por el hecho de serlo les asisten los mismos derechos y obligaciones»[134].

b) *Telebista euskaraz*

ETB Nafarroan eskatzeko motibazioetan lehena, eta agerian bakarra, euskara da: ETB euskaraz izanik, euskararen onerako behar da Nafarroan ere, komunikabideek, gaurregun, puntako garrantzia bait dute hizkuntzaren bizitzan.

Argudiaketa-modu hau etengabe errepikatzen da deialdi eta idatzietan.

Urriaren 28an ETBren aldeko Batzorde koordinatzaileak argi eta garbi ematen ditu arrazoiak:

> «La importancia que para la supervivencia y normalización del euskara tienen los medios de comunicación y en especial la televisión, entendiendo la captación de ETB como uno de los pasos importantes para el desarrollo del euskara en Navarra, mucho más si se tiene en cuenta el nulo desarrollo que de él hace Telenavarra»[135].

Bi hilabete beranduago ere hertsiki lotzen ditu Batzordeak ETB eta euskara:

> «Una de las mayores razones que nos llevan a luchar por conseguir la captación de ETB es la difícil situación en la que se encuentra nuestro idioma en Nafarroa. Para salir de ésta y conseguir la normalización del euskara, vemos la necesidad de una planificación general y dentro de esa planificación hoy en día ETB juega un papel importante»[136].

Kanpaina honetaz baliaturik, Nafarroan komunikabideek euskarari ematen dioten tratamendu ezin eskasagoa eta egiten dioten marginazioa aztertzen eta salatzen ditu Manexek [136bis].

Nafar Bertsolarien Elkartea ere ETB Nafarroan ikusteko eskubidearen alde agertzen da, arrazoi honekin:

> «Gure hizkuntzaren normalkuntzara iristeko une honetan behar beharrezkotzat jotzen dugu. Honegatik, garaia orain da, eta ahalegindu gaitezen guztiok, batez ere euskaldunok, ETB Nafarroa osorako lortzen»[137].

Euskararen iraupenerako gutxieneko baldintzatzat jotzen ditu Eugenio Arratek euskal komunikabideak:

> «Nafarroan euskara bizirik nahi duten talde, elkarte, erakunde, euskaltzaleek ezin dute geldirik egon. Euskara, sarturik dagoen zulotik atera eta bizitzaren erdian jarri nahi dute. Alde guztietan, eta baita ere komunikabideetan.
>
> Euskaraz ari diren telebista eta irratiak behar ditugu, jakinik medio hauek aski ez direla euskararen zabalpenerako, baina bai iraun ahal izateko gutxieneko baldintza»[138].

Abenduaren 16ko manifestazioko hitzaldietan ere euskararen marginazioa eta diskriminazioa salatzen ziren gogorki, eta ETB hartzea euskararen normalizaziorako urrats garrantzizkotzat jo zen, «ya que la televisión en euskera ayudaría a unos a consolidarlo, a otros a respaldar su esfuerzo por aprenderlo y a muchos animaría y crearía la necesidad de hablarlo»[139].

III. KAPITULUAREN OHARRAK

1. *Argia*, 1028 zk., 84.09.23.
2. *Co*, 85.02.17.
3. HERRI ERAKUNDEA: *Informe ETB*, 1985, Maiatza.
4. *Anaitasuna*, 415 zk., 1981, Azaroa.
5. *Argia*, 982 zk., 83.07.17.
6. *Argia*, 902 zk., 81.02.08.
7. *Aizu*, 12 zk., 1983, Maiatza.
8. *Hitz. Irakaskuntza*. 15 zk., 1984, Apirila.
9. Akta, 8/83.
10. «Debate sobre la Televisión Autonómica», *I Jornadas sobre Televisión Autonómica*, Diputación General de Aragón, Zaragoza, 1984, 255-256 or.

10 bis. *DV*, 85.08.12.

11. *Ib.*, 271. or.
12. *Ib.*, 273. or.
13. *EITB Herri Erakundea sortzeko maiatzaren 20ko 5/1982 Legea.*
14. *DV*, 82.12.27.
15. *Deia*, 82.12.05.
16. *DV*, 83.05.29.
17. *DV*, 82.12.27.
18. «Idioma y convivencia social en el País Vasco», *Aula de Cultura «El Correo Español»*, 1983, 143-144 or.
19. GAL: *Opiniones y actitudes en torno a la ETB y el euskera,* 1982, Abuztua.
20. *Ib.*, 8. or.
21. *Ib.*, 9. or.
22. *Ib.*, 11. or.
23. *Ib.*, 15. or.
24. *GN*, 85.01.24.
25. *Deia*, 84.12.01.
26. *EP*, 81.09.08.

27. *Deia*, 81.12.04.
27 bis. *AVUI*, 83.11.17.
28. «Debate sobre la Televisión Autonómica», *I Jornadas sobre Televisión Autonómica*, Diputación General de Aragón, Zaragoza, 1984, 253. or.
29. *Argia*, 1028 zk., 84.09.23.
30. *Deia*, 82.12.05.
31. *DV*, 82.12.27.
32. *Deia*, 82.12.06.
33. *EP*, 85.06.15.
34. *Egin*, 84.07.31.
35. *GN*, 85.05.05.
36. *Egin*, 84.07.22.
37. *Argia*, 1028 zk., 84.09.23.
38. *CO*, 85.02.17.
39. *Deia*, 85.02.16.
40. *Egin*, 85.02.16.
41. *EP*, 85.02.12.
42. *EP*, 85.05.29.
43. *CO*, 85.02.17.
44. *CO*, 85.05.01.
44 bis. *Deia*, 85.08.13.
45. *CO*, 1981, d/g.
46. IRIONDO, L.: «La Televisión Autonómica en el País Vasco», *I Jornadas sobre Televisión Autonómica*, Diputación General de Aragón, Zaragoza, 1984, 236. or.
47. HERRI ERAKUNDEA: *Informe ETB*, 1985, Maiatza.
48. «Debate sobre la Televisión Autonómica», *I Jornadas sobre Televisión Autonómica*, Diputación General de Aragón, Zaragoza, 1984, 256. or.
49. *Ib.*, 271. or.
50. *Argia*, 902 zk., 81.02.08.
51. *Hitz. Irakaskuntza*, 15 zk., 1984, Apirila.
52. *CO*, 81.11.06.
53. *GN*, 82.06.15.
54. *CO*, 84.10.30.
55. EUSKO LEGEBILTZARRA: *Aldizkari Ofiziala*, 208 zk., Itauna, 84.12.26.
56. *Ib.*, 10 zk., 84.10.18.
57. *DV*, 85.07.04.
58. *DV*, 84.06.06.
59. *CO*, 85.02.17.
60. *Egin*, 84.08.24.
61. *EP*, 84.10.17.
62. *Egin*, 83.09.04.
63. *Deia*, 83.11.15.
64. *Telebista eta Euskararen Normaltzea*, 1. or.

65. *Egin*, 83.10.07.
66. *Egin*, 83.10.30.
67. *Egin*, 83.10.03.
68. EKB: «Euskararen plangintzarako oinarriak», *Jakin*, 34 zk., 1985, 99-103 or.
69. *Egin*, 83.02.15.
70. *Euskeraren erabilpena arauzkotzeko oinarrizko Legea (10/1982). Debatea.*
71. «Euskararen egarria eta Telebista», *Habe*, 1982, Iraila.
72. *CO*, d/g.
73. ZORRILLA, R.: *La Televisión autónoma vasca y el discurso legitimador*, 1984, Urtarrila.
74. *CO*, 81.11.06.
75. EUSKO LEGEBILTZARRA. *Aldizkari Ofiziala*, 10 zk., 84.10.18.
76. *EP*, 84.09.09.
77. *CO*, 85.02.17.
78. *Deia*, 85.06.29.
79. *CO*, 85.02.17.
80. *EITB Legearen eztabaida*, Batzordea, 18,4.
81. EUSKO LEGEBILTZARRA: *Aldizkari Ofiziala*, 14, 1 zk., 85.03.29.
82. *Ib.*
83. *Egin*, 83.10.30.
84. *Egin*, 83.10.12.
85. *CO*, d/g.
86. *CO*, 85.05.01.
87. *Egin*, 84.11.08.
88. *Deia*, 84.09.18.
89. ARGIA: *1984: Euskal Kulturaren Urtekaria*, Z. Argia, Donostia, 1984, 173. or.
90. *Ib.*
91. *Ib.*
92. *Ib.*
93. *Ib.*
94. *Ib.*
95. *Deia*, 84.10.23.
96. *Egin*, 84.10.06.
97. *DV*, 84.09.20.
98. EUSKO LEGEBILTZARRA: *Aldizkari Ofiziala*, 10 zk., 84.10.18.
99. *Anaitasuna*, 415 zk., 1981, Azaroa.
100. *Ib.*
101. *DV*, 82.06.24.
102. «Entrevista a Antxon Areizaga», *Muga*, 32 zk., 1984, Maiatza. *Tele-Deia*, 84.12.01.
103. *Egin*, 83.10.10.
104. *Deia*, 81.01.30.
105. *Egin*, 83.10.10.
106. *Anaitasuna*, 415 zk., 1981, Azaroa.
107. *Ib.*

108. *Ib.*
109. *Ib.*
110. *Deia*, 83.10.10; 83.10.13; 83.10.29; 83.10.15.
111. *Egin*, 83.10.07.
112. *Egin*, 83.10.08.
113. *Egin*, 83.10.03.
114. *Egin*, 83.10.10.
115. *Ib.*
116. *Egin*, 83.10.12.
117. *Ib.*
118. *Deia*, 83.10.12/13/14/17.
119. *Deia*, 83.10.14.
120. *Egin*, 83.10.13.
121. *Egin*, 83.10.14.
122. *Egin*, 83.10.19.
123. *Egin*, 83.10.30.
124. *Argia*, 994 zk., 1983, Azaroa.
125. *Deia*, 83.12.12.
126. *Deia*, 84.02.05.
127. *Ib.*
128. *Ib.*
129. *Deia*, 84.12.17.
130. *DV*, 84.11.11.
131. *Egin*, 84.11.29.
132. *Egin*, 84.12.12.
133. *Deia*, 84.12.14.
134. *Egin*, 84.12.14.
135. *Egin*, 84.10.28.
136. *Egin*, 84.12.01.
136 bis. *Egin*, 84.12.12.
137. *Egin*, 84.12.13.
138. *Egin*, 84.12.16.
139. *Navarra hoy*, 84.12.17.

IV. GOGOETAK: ETBren ULERPEN HELDUAGO BATERAKO

Azken parte honetan egin nahi duguna hirutan banatzen dugu. Lehenengo eta behin, arazoari gainbegiratu orokor bat emango diogu, laburpen gisa. Luzean, barreiaturik agertu diren hitzak laburbiltzeak badu lanaren ulerpenerako abantailarik.

Gainbegiratu orokorrak, orrialdeetan zehar azaldu diren eritzi eta jarreren interpretazio-saio baterako bidea irekiko digu. Izan ere, ETBren arazoa ez da ETBn hasten eta ez agortzen. Testuinguru zabalago batean koka daitezke (eta egokitasunez ulertzeko, kokatu behar dira) eritzi horiek. Gure ustetan, ETBren aldeko zein aurkako jarrerak interpretatzeko orduan, gure gizartearen euskalduntzeaz eta euskararen funtzio publiko modernoaz egin ohi diren planteamenduek eskaintzen dute ulerpen-gakorik erabilgarriena.

Eta hirugarren partean, batzutan proposamen gisa, beste batzutan oharkizun bezala, gure ustetan soluzionatzeke daudekeen arazo batzu, joerazko arrisku batzu, osakizun batzu, norabide batzu seinalatuko ditugu.

1. GAINBEGIRATU HISTORIKO OROKORRA

Pasartez-pasarte eta orain arteko lanaren ildotik, ordena berean, joango garenez gainbegiratu honetan, ez da beharrezko kasu bakoitzean aipuak jarriz eta aipamenen-erreferentziak eginez ibiltzea. Testu korrituaren erara ihardungo dugu, beraz.

1.1. HASTAPENAK ETA OINARRIAK: ETBren PROJEKTUA

1.1.1. ETBren historiaurrea

Euskal Telebistaren historia hasi, 1983ko lehen minutuan hasten da, ETBren jaiotzarekin.

Bai Iparraldean eta bai Hegoaldean, oso historia motza izan du euskarak telebistan. Apenas izan duen, eta gaur egun ere apenas duen presentziarik komunikabide moderno honetan, ETBren salbuespena eginez gero.

Estatu Espainolari gagozkiolarik, konstatazio mailan esan genezake, katean funtzionatzean, ez duela sekula erabili euskararik TVEk. Euskararen telebistako presentzia bakarra, eskualde-programetan izan da, Bilbon kokatzen den «Centro Regional del Norte» delakoan. Maila honetan bi programa marginal bakarrik egin dira euskaraz: «Euskalerria», osoki euskaraz, eta «Al fondo el hombre», erdararekin txandatuz. Ezer gutxi da hori, eta, okerrena, hori da egon den guztia.

Franco hil ondoren eta Euskal Herriak bere agintea, ongi ala gaizki, finkatu aurretik, asmoak eta aurreprojektuak gorputz hartzen hasi ziren. Horien artean kontsideratzen ditugu Euskal Zinegileen Elkarteak asmaturiko «Anteproyecto para una televisión vasca», 1978an burutua. Hiru alternatiba ikertzen dituzte hauek: TVEren 1. eta 2. kanaletan espazio batzu; bigarren, hirugarren kanala egin; eta hirugarren fasean, katea bat osoki autonomoa sortzea. Telebista elebiduna proposatzen dute, eta programazioak izango duen bi hizkuntzen proportzioa hizkuntzaren soziologiak aginduko du. Bi hizkuntzak era nahasian eta osatzailean erabiliko dira, txandatuz.

1977an hasi eta 1979ko maiatzean burutu zuen bere txostena

Gipuzkoako Diputazioak antolaturiko lantalde batek: «Informe para la creación de la televisión de Euzkadi y red de emisoras de radio OM y FM». Denetan aurreprojekturik zehatzena berau da. Har daitezkeen bide ezberdinak seinalatzen ditu: hirugarren kanala sortzea, bigarren kanala esklusibitatez telebista autonomiko bezala erabiltzea, bigarren kanalean ordu batzu hartzea. Txosten honek telebista elebiduna proposatzen du, aldibereko elebitasuna eta osatzailea, gainera.

J.J. Azurza jaunak, 1979an, txosten bat egiten du, izenburu honekin: «Plan inmediato para una televisión vasca». Probisionalki, telebista elebiduna proposatzen du J.J. Azurzak, baina euskara/erdarazko ordutegiak txandatuz eta ez hizkuntzak programa berean nahasiz. Gerora, egiazko soluzioa bi euskal kanaletan legoke: bata euskaraz eta bigarrena erdaraz.

Aurreprojektu hauetan, are politiko berrien artean, eta areago herri-eritzian, euskal telebista baten eredua ez zegoen arras diseinatua 1979an. Telebistaren errebindikazioa eta nahia denen burutan daude, baina ez eredua. Indefinizio hori Madrilen eta Euskal Herrian, bietan, dago. Eskaintza-eskariek ez bide dute definizio argirik.

Eusko Jaurlaritzaren eta Estatuko Gobernuaren arteko harremanak urratsez-urrats ikustean konturatzen da bat, J.J. Azurzak esan bezala, negoziaketa barik, indarketa edo sokatira izan dela bien artekoa. UCDren fluktuazio politikoek eta giza aldakuntzek zerikusi handia dute honetan, noski.

Bi urte eta gehiago negoziaketan ihardun ondoren, laugarren kanala eraikitzeko erabaki irmoa hartzen du Eusko Jaurlaritzak, Madrileko harremanak (ia) utzita. Eusko Jaurlaritzaren bozeramaile eta Kultur Kontseilariaren hitzetan, hauek izan dira erabaki hori hartzeko Eusko Jaurlaritzak izan dituen arrazoiak:

1) Madrilek ez du bere hitza bete: Arias Salgadok egin promesak, TVEko 1. eta 2. kateetan euskara sartzekoak, Castedok ez ditu aintzat hartzen, adibidez. Epeak ere ez ditu bete.

2) Madrilek minikatea bat eskaintzen du, ez benetako telebista bat. Castedo jauna RTVEko Zuzendari Nagusi bezala Ajuriaenean egon ondoren, honen telebistarekiko filosofia salatu zuen R. Labaienek Eusko Jaurlaritzako bozeramaile gisa: telebista erregional bezala ulertzen omen du Castedok Euskal Telebista.

3) Madrilek ez du euskara sendotu nahi, euskararen atzetik herri bat ikusten duelako. Eusko Jaurlaritzak, aldiz, telebista bera

ere neurri on batean euskararen sendarpen-tresna bezala ulertzen du.

Hitz batez esateko, ETB laugarren kanal bezala eraikitzeko erabakiaren atzetik badira arrazoi puntualak, hala nola, Madrilekiko negoziaketa zaila; badira arrazoi politikoak, hala nola, euskal gizarteak bere komunikabide-azpiegitura sortzea, eta badira arrazoi soziolinguistikoak, hala nola, telebistaren garrantzia euskararen promozioan.

1.1.2. **Eusko Jaurlaritzaren egitasmoa**

1.1.2.1. Legeak eta programak

Kultur eta euskalduntze-politikaren bidean, hiru esparru markatu ditu bereziki Eusko Jaurlaritzak: irakaskuntza, gizarte-komunikabideak eta Administrazioa.

Hasieratik bertatik, bere komunikabide propioak sortzera eta edukitzera jo du Eusko Jaurlaritzak, hori delakoan bere politika propioa eratzeko modurik egokiena. Azpiegitura komunikazional propioa sortzeak izan du lehentasuna ikusentzutezko bitartekoetan. Madrilen kontzesio bidez lortzekoa (lehen bi kanaletan programak eta hirugarren kanala bera) ukatu gabe, erabili eta indartu, kreaziozko bidea egin du. Irrati-telebista kontutan, bere esku eduki nahi izan du Eusko Jaurlaritzak baliabide horien titulartasuna.

Titulartasun honen jabe izateko eskubidea Autonomi Estatutuko 19. artikuluan eta berebat 6. agindu iragankorrean oinarritzen du Eusko Jaurlaritzak.

Eta eskumen horretaz baliatuz, bere legeria sortzen du Eusko Jaurlaritzak, komunikabideak erregulatzeko, sortzeko eta atxekitzeko eskubidea aitortzen zaionez. Lege organikoaren maila duen Autonomi Estatutuko 19. artikuluan oin harturik, beraz, «Euskal Irrati-Telebista» Herri-Erakundea sortzen du Maiatzaren 20ko 5/1982 Legearen bidez. Lege honek beronek irrati-telebistazko herri-erakundeak kudeatzeko herri-elkarteak agintzen ditu 37. artikuluan. Eta artikulu horretxen arabera sortzen ditu Eusko Jaurlaritzak hiru elkarte hauek: Gasteiz Irratia-Radio Vitoria, Eusko Irratia-Radiodifusión Vasca eta Euskal Telebista-Televisión Vasca.

«Euskal Irrati-Telebista» Herri-Erakundearen Legean, euskararen promozioa eta euskararen erabilpena, biak printzipio mailan

agertzen zaizkigu. Baina ez da inon, esplizituki, esaten komunikabideok euskaraz izango direnik; kontrara baizik, elebidunak izango direla agertzen da zeharbidez.

Komunikabideetako euskara erregulatzeko hirugarren kapitulu osoa du Euskararen erabilpenaren normalizaziorako 1982ko azaroaren 24eko 10/1982 Oinarrizko Legeak. Euskara babesteko hartzen diren neurriak euskara/erdara parekidetasuna bilatzen dute helburutzat.

Eusko Jaurlaritzak 1980an markatua zuen programari erantzun nahi diote lege horiek. Programa hori, ia bere osoan, «1980-1984: Jaurlaritzaren Egitamua» delakoan agertzen da. ETBri dagokionez, jokabide bikoitza proposatzen du Eusko Jaurlaritzak: bateko, TVEren sareaz baliatzea, eta, besteko, azpiegitura propioa sortzea. Azpiegitura propioaren lorpenak du printzipiozko lehentasuna. Lehentasun kronologikoa, aldiz, TVEren 1. eta 2. kanalak erabiltzeak du (RTVErekin konbenioa eginez), eta, orobat, hirugarren kanalaz baliatzeak. Bi fasetako lehen aldi definitibo honetarako urratsak dira, gerorako lantaldeak gertutzeko baliagarri, zeren eta benetako asmoa, gogoa eta helburua, ETB sortzea bait da, hots, jabegoaren zein hizkuntzaren aldetik euskalduna izango den telebista.

De facto gertatu denari begira, printzipiozko eta kronologiazko lehentasunak bat etorri dira, lehen aldiko bi faseak errez. Madrilerekin izandako negoziaketen zailtasunari zor zaiola hori, esan genezake. Izan ere, TVEren sarean Eusko Jaurlaritza ez da sartu (ez bide du sartzerik izan) eta bere sare propioa sortu du hastapenetik.

Programa honetan agertzen den erabakietako bat, edozein situaziotan ere beharrezkoena eta oinarrizkoena izango den zerbait da: giza lantaldeen formazioa.

1.1.2.2. Eredu eta definizio bila

Hasieratik atentzioa ematen duena da, euskal komunikabideen arazoa eta euskararena zein loturik planteatzen dituen Eusko Jaurlaritzak. Hizkuntzari loturiko kultur projektu bezala landu du gehienbat euskal telebista, esate baterako. Euskararen eta euskal kulturaren promozioa du lehen helburuetako bat ETBk. Neurri on batean, eta Kultur Sailburu R. Labaienen deklarazioak lekuko, hizkuntz politikaren tresna gisa ulertzen du Euskal Irrati-Telebista Eusko Jaurlaritzak. Borroka linguistikoak borroka infor-

matiboari gaina hartu diola esan genezake; hau da, euskara aurrera atera beharraren larritasunak bigarren mailan utzi du komunikazio-tresna honen informazio-alderdia. Telebistaren prestigioa eta indarra euskara indartzeko, zabaltzeko, promozionatzeko erabili nahi izan ditu Eusko Jaurlaritzak.

Helburu hauek eskuratzeko, telebista arrunt eta osoa izan behar du ETBk. Eusko Jaurlaritzak ez du eredu berri eta berezirik landu nahi, beste herrietan dagoena erabili baino. Ez lekua, ez unea da telebista alternatibo batentzat, Amatiñoren hitzetan. Telebista arruntaren egitekoetatik (formazioa, informazioa, entretenimendua) ez zaio ezeini ukorik egiten. Gai-eremuak, beraz, beste edozein telebistaren berdinak (berdintsuak) dira idealki. Diferentzia, hizkuntzan dago. ETBk berarentzat nahi duen berezitasuna horixe da: euskaraz izatea, ez besterik. Baina, esan bezala, euskaraz gai-arlo guztietan, telebistaren funtzio guztietan. Desbideraketa litzateke ETB bestelako eginkizunetarako erabiltzea. Telebistaren arduradunen burutan, desbideraketa da, honela, ETB irakaskuntza formalari lotzea, edota euskalduntze-alfabetatzerako soilki erabiltzea. ETB haurrentzako, irakaskuntzarako, ikasgela handi bezala edo euskara irakasteko euskaltegi handi bezala ulertzen zuen askok. Baina ez honela fundatzaileek.

Filosofikoki zein aurrekontuen arabera, ETB telebista arrunta, komentzionala da. Euskaraz izatean datza beronen berezitasuna; hobe, telebistaren funtzioak oro euskaraz betetzean, telebistako arlo, arazo eta gai guztiak euskarak okupatzean.

ETBren arduradunen deklarazioak entzunez, ez du ematen ereduaren zalantza handi-handirik egon denik. Zalantzak –eta handiak– hizkuntzarenak izan dira. Arduradunen deklarazioetan ez dago ETBko hizkuntz politikaz batasunik, eta bai koherentzi falta nabarmena. Koherentzi falta, definizio-falta eta erabaki irme falta, diogu, eta ez nahitaez bi linea (bata ETB euskaldunaren aldekoa eta bestea elebidunaren aldekoa), EHEk salatu bezala.

1981eko abuztuan laugarren kanal nazionala ehuneko ehun euskaraz izango zela agintzen zuen Kultur Kontseilariak, R. Labaienek. Telebista elebakarraren aldeko deklarazio gutxi egon da geroztik arduradunen aldetik. Eta bai kontrakorik. ETB martxan jartzeko hilabete gutxi falta zela, deklarazio sonatuak egin zituen Eusko Legebiltzarrean Kultur Sailburuordeak, Josu Zubiaurrek, non esan bait zuen ez zegoela hizkuntz tratamendua deliberaturik eta erdara parrastaka sartuko zela.

Erdararen presentziaren proposamena zein defentsa askoz

puntualagoa eta bahetuagoa egin dute geroko arduradunek. Bai presentzi modua eta bai justifikazioak bereiztu egin behar dira kasu bakoitzean. Ez da berdin erdara programa-sail guztietan sartzea, erdara albisterian sartzea, erdara publizitatean sartzea, erdara azpitituluetan sartzea.

Orokorki harturik, esangura desberdinak eman izan zaizkio erdararen presentzia honi. Badirudi komentzigarriena zera dela: ETBn gurutzatu egin dira laugarren eta hirugarren kanalak, bi kateetan banaturik behar zutenak. Eusko Jaurlaritzaren jatorrizko asmoak bete-betean epaitzeko, hirugarren eta laugarren kateak behar lirateke: bata elebiduna; eta elebakarra, euskalduna, bestea.

1.2. PROJEKTUAREN EZTABAIDA: A) GIZARTEKO JARRERAK

Eusko Jaurlaritzak proposatu eta aurrera atera duen euskal telebistari ez diote harrera bera egin alderdi, elkarte, talde, autore edo herritar guztiek. ETB dela eta sortu den eztabaida eta hartu diren jarrerak aztertu nahi genituzke hemen, egileen edo protagonisten aldetik begiraturik.

Instantzia politiko eta instituzionaletatik hasiko gara, gero kultur taldeak, zenbait autore eta inkesten bidez agerian jarri diren eritziak aztertuz.

1.2.1. Protagonista politiko eta instituzionalen jarrerak

Azpimarra dezagun, hasteko, ezein euskal alderdi politikok ez duela komunikazio-programa zehatzik, ez ETBri buruzko plangintza idatzirik. Alderdien jarrerak ezagutzeko, hiru leku aukeratu ditugu: Eusko Legebiltzarra, Eusko Irrati-Telebistako Administrazio-Batzordea eta Udaletxeak.

1.2.1.1. Eusko Legebiltzarrean

Eusko Legebiltzarrean, eta beronen batzordeetan, behin eta berriz agertu da ETB.

Egia esan, ETBko arazo linguistikoak –guri hemen arduratzen zaigunak, noski– ez du halako iskanbila ikaragarririk sortu legeen eztabaidan. ETBko hizkuntzaren arazoa gero aurkeztu izan da, aurrez-aurre, CP. Legebiltzar-Taldeak egindako interbentzioetan.

– «Euskal Irrati-Telebista» Herri-Erakundea sortzeko Lege-egitasmoan Zuzendari Nagusiak euskara jakin behar duela eta, sortzen da eztabaida. Projektuaren arabera Zuzendari Nagusiak euskara jakin egin behar du, *«conditio sine qua non»* da. Baldintza hau kentzea eskatzen dute Grupo Mixtok (AP), Euskadiko Ezkerra taldeak eta Eusko Sozialistak taldeak. Alferrikako (EE, UCD), fielato (EE) eta diskriminatzaile (PSOE-AP) bezala jotzen dute kondizio hori. PNVk euskararen aurkako jarreratzat ematen du gainerakoena. Legean, euskararen ezagutzapen hori, beharrezko barik balioztapen da, eta praxian hori ere ez, lehen bi Zuzendariek ez bait zekiten euskara.

– Euskararen erabilpena arauzkotzeko oinarrizko legearen hirugarren atala eztabaidatzerakoan, bi filosofia konfrontatu dira.

Eusko Abertzaleak eta EE Taldeak, bat hartuta, zera defendatzen dute: bi hizkuntzen parekidetasuna egiazki lortu ahal izateko, euskararen erabilpenari lehentasuna eman behar zaio komunikabideetan, bereziki Komunitate Autonomoaren komunikabide propioetan.

Grupo Mixto Legebiltzar-Taldearentzat, projektuaren idazkuntza berria inpositiboa da. *Laissez faire* proposatzen du Aginaga jaunak, hain zuzen soziologiari, errealitateari jaramon gehiago egiteko eskatuz.

Eusko Sozialistak Taldea testuaren filosofiarekin bat dator, baina inola ere ez filosofia hori aurrera eramateko moduarekin, Gobernuari eskuak erabat libre uzten omen zaizkio eta.

– Baina, arestian esan bezala, ETBko euskararen arazoa aurrez-aurre planteatu, CPk planteatzen du, bigarren legeztatze-aldian, hiru alditan, 1984eko azken hilabeteetan.

1984eko urriaren 18an legez besteko proposamena egiten du, gaztelania eta euskalkiak ETBn gehiago erabiltzearen alde. Edukinean zein gaurkotasunean guztientzat interesgarri diren saioetan sartu behar da gaztelania. Eta euskalkiak sartzeko arrazoia, euskara batuak hainbat sektore marginatzea ebitatzekoa da. Arazo hauetaz ez da eztabaidarik izan, proposamena erretiratu egin zuelako.

Bigarren legez besteko proposamenean bai izan dela eztabaidarik (1984eko abenduak 20). Proposamen hau, ETBko nomina finkatzean euskararen ezagutzapenaren balorazioaz ari da. ETBko lanpostuetarako euskararen ezagutza nahitaezko baldintza bezala eskatzeak herritarren zenbait oinarrizko eskubide eta zenbait lege-disposizio zapaltzen ditu, Barquero jaunaren ustetan. Eusko So-

zialista Taldea bat dator CPrekin, eta haiek bezala lanpostuak eta lanpostuak bereizteko eskatzen du, bestelakoa diskriminazioa da eta. Grupo Popular-en proposamena ez onartzea eskatzen du EEk, hor jokoan dagoena ez bait da lanpostu batzuren arazoa, ETBren izaerarena berarena baizik. Arrazoiketa bera azpimarratzen du Eusko Abertzaleak Taldeak, euskararen telebista bezala definituz ETB.

1984eko abenduaren 26an Legebiltzar-Talde berak ETBrekiko zenbait arazoz erantzun-eskea zuzentzen dio Eusko Jaurlaritzari. ETBz euskara eta euskal kultura sustatzeko bakarrik baliatzea salatzen dio Eusko Jaurlaritzari. Zeren eta, arazo honez gain, bai bait dira beste bi arazo larri, biolentzia eta elkarbizitza, eta horiei ez bait die erantzuten, euskaraz izateagatik. Honela, euskaraz hesi eta muga gertatzen da, herritarren interesak zerbitzatzeko orduan. Kultur Kontseilariak, L.M. Bandresek, arras bestelako eritzia du, noski. Honen erantzunean, aldrebeskeria da euskara elkarbizitzaren eta bakearen oztopotzat ematea, eta ETB gure hizkuntz egoera orekatuagoaren alde egonez, gure gizartearen bakearen alde dago.

1.2.1.2. Euskal Irrati-Telebistako Administrazio-Batzordean

Euskal Irrati-Telebistako Administrazio-Batzordean esan eta eztabaidatu zena, bileretako akten bidez bakarrik jakin daiteke, modu fidagarri batez. Akta hauek, aldiz, modu telegramikoan idatzirik daude, esplizitaziorik batere gabe. Hori bateko.

Eta besteko, eritzi-emaileen eta protagonisten azterketan gaudenez, esan behar da, Adminstrazio-Batzorde honetan, nahasi egiten dela eritziaren jatorburua. Hemen, Legebiltzarrean ez bezala, Batzordekidea ez da nahitaez alderdikoa, nahiz eta alderdi batek izendatua izan. Lehen Legeztatze-aldian, esaterako, kasu honetan zeuden K. Garitaonaindia, EEk izendatua, eta J.M. Ortiz-Alfau eta R. Guerra Garrido, PSOEk izendatuak. Halere, laburpen honetan joera nagusiak soilki seinalatzen ari garenez, alderdika egingo ditugu aipamenak, eta ez izen eta guzti.

Oharkizun hauen ondoren, esan dezagun ETBren prozesuan agertu diren gai, arazo eta auziak oro izan direla Batzordean erabilgai: juridikoak, politikoak, antolamenduarenak, linguistikoak, programaketarenak, publizitatearenak, audientziarenak, eta batez ere lan-baldintzak.

Hizkuntzaren arazoaren tratamenduak ez du sakontasun handiegirik izan. Ez da sekula gai monografiko gisa tratatu, puntualki

eta gaingiroki baizik. Hizkuntzari buruz alderdietan aktiboenak PSOEk izendatuak izan dira, zalantzarik gabe. Euskararen ezagutzapenaren gainetik profesionaltasunari aitortu behar zaiola lehentasuna examinetan, gogoratzen du Ortiz-Alfau jaunak, adibidez. Inkesta egitea ere eskatzen du, «programaketaren norabidea» jakiteko, alegia, zein hizkuntzatan egin. Baina denetan gogorrena Raúl Guerra Garrido da: inkestetatik, telebista elebiduna ondorioztatzen du argi eta garbi, kultur magazine bat erdaraz proposatzen du. Gaurko hizkuntz eredua, erdal intelektualentzat marginatzaile bezala salatzen du: bera bezalako kultur gizon asko ETBtik kanpora gelditzen dira euskararen erruz.

CPk ere telebista elebiduna eskatu du, ETB herri-zerbitzu denez, bi komunitateentzat izan behar duela eta.

PNVk apenas izan duen protagonismo autonomorik. Esan nahi bait da, bere egitekoa Zuzendari Nagusiaren eritziak onartzera eta ETBren jatorrizko bokazioa salbatzera mugatu dela, batipat lehen legeztatze-aldian. Azken aldi honetan proposatu izan du, gainera, euskara ez dakiten barruko langileek euskara ikasi beharra, honetarako bitartekoak jarriz.

EEk ETBren jatorrizko legea eta izpiritua bete eraztera jotzen du. EEren ekarria, ETBren hizkuntz koordenatuen barruan koka genezake. X. Gereño eta K. Garitaonaindia lehen bi zuzendariek euskara ez jakiteaz kezkatzen dira. Barne-inprimakiak, dokumentazioa eta euskaraz egitea eskatzen du X. Gereñok. K. Garitaonaindiak, ETB alfabetatzerako erabiltzea proposatzen du. Legea errespetatzea eskatzen du behin eta berriz R. Etxezarretak; adibidez, legeak agintzen duenaren kontrara, publizitateak hizkuntz jarraikitasuna hautsi egiten duela salatuz.

1.2.1.3. Udaletxeetan

EHEk, 1983ko azken hiruhilekoan, antolaturiko «ETB erdararik ez» kanpainaren barruan, Udaletako mozioena zen puntuetako bat. Urrian hasi ziren mozioak aurkezten, Tolosan egin zelarik lehenbizikoa. Mozio honen edukina zera zen: ETBk orain artean izan duen hizkuntz jarrera zoriontzea eta Telenorten euskara eskatzea. Baina, Azaroaren 10ean zabaldu zen notiziak zioenez, HBren maniobra zela hori salatzen zuen BBBk. ETBren sustapen-kanpaina honetan parte ez hartzeko kontsigna bidaltzen die EBBk bere zinegotziei.

Kanpaina honen barruan kokatzen da Munitibarko Udalarena ere. «Herritarrak» Udal-kandidaturak aurkeztu zuen mozioa he-

men, baina, beste herrietan ez bezala, aldaki batekin: euskarazko telebista elebakarrari kondiziopeturik ematen zuen udalak Oiz mendiko ETBren antenaren baimena. Maila juridikoan eta politikoan, burrunba dexente izan zuen auziak.

Bizkaian bertan, baina ideologikoki Munitibarkoaren beste muturrean, ETB elebiduna izan dadila eskatzen du Sestaoko Udaletxean PSOEk, Gernikako Estatutuak agindu bezala, eta PCEren laguntzarekin onartu egiten da mozioa.

1.2.2. **Kultur taldeen jarrerak**

EHEk eta EKBk egin dituzten errebindikapenak, azterketak, gogoetak eta proposamenak hartzen ditugu kontutan hemen.

– EHE taldearen ihardunbidean eta jokamoldean, bi parte bereizi behar dira, kontzeptualki elkarri itsatsirik badaude ere. Alde batetik, ekintzak, errebindikapenak, mobilizazioak, kontzientziatzea; eta bestetik, hizkuntz filosofia, pentsaera, teorizazioa. ETBri buruz ere berdin.

ETB euskaldunaren alde makina bat ekintza muntatu du EHEk, Komunitate Autonomoan bezala Nafarroan. Bi dira sonatuenak: euskal telebista lehenbailehen lortzekoa, 1981eko udazkenean, eta, bi urte geroago, euskara hutsezko telebistaren aldekoa.

ETB elebakarraren alde borrokatu da EHE, planteamendu soziolinguistikoengatik batipat. Telebistaren garrantzia, eragina, aintzat hartuz, diglosia gainditzeko, euskararen normalizaziorako, punta-puntako garrantzia du tresna honek.

Euskararen normalizazioaren funtzioan eta projektu abertzalearen funtzioan ulertzen du EHEk euskal telebista. Bi koordenatu hauen barruan, honako hauek dira euskal telebista baten baldintzak: euskara hutsez izatea, euskararen erabilpen osoa, Euskal Herri osoko hedadura, produkzio propioa.

EHE taldea, bestalde, ez luke ETBk aseko, euskaldun hutsa izanik ere. Hirugarren kanal elebiduna lehenbailehen, eskatzen du, eta TVEren eskualde-programetan (Telenorte, Telenavarra) zein FR3renetan, Euskal Herria informazio-eremu bezala hartu eta euskarari tratamendu egokia ematea proposatzen du.

– ETB eta guzti ere, panorama beltza pintatzen du EKBk, ikusentzutezkoen egoera aztertzean. Madrile eta Pariseren eskuetan bost katea daudela gogoratzen du, eta esparru honetan, Ko-

munitate Autonomoaren marko juridikoan ere deus gutxi egin daitekeela hauek euskaratzeko.

ETBri buruz, laugarren kanalaren jatorrizko projektua osoki ez errespetatu izana salatzen du; alegia, arrazoi politiko eta ekonomikoengatik erdara sartu izana. Erdarak lehenbailehen sortu behar den hirugarren kateara pasa behar du osoki.

Begi onez ikusten du EKBk ETBn euskarari aitortu zaion funtzioa: hizkuntza osoa, funtzionala, modernoa, komunikazio-hizkuntza bezala erabiltzen bait du ETBk euskara. Halere, euskararekiko beste egiteko bat ere bete behar du ETBk, euskalduntzea eta alfabetatzea.

Proposamenen artean derrepentekoa eta minimoa, 3. eta 4. kateak osoki martxan izatea da. Honez gain, euskararen gizarte-presentzia komunikabideetan gehitzera jo behar da: Euskal Herri osoan eta telebistako programa erregionaletan, euskarak duintasunezko trataera eta kopurua izan behar ditu.

1.2.3. **Zenbait autoreren jarrerak**

ETBz zertxobait esan dutenak oro aztertzea, ezinezkoa eta ia zentzugabea da. Batzu hautatu behar. Aukera honetan erabili dugun erizpide nagusia, bistan da zein den: ETBren hizkuntz ereduaz aritzea, batzuk luze, besteak motzago, baina gai honetaz zuzenki eta globalki. Kanpainaren batetan arazo honetaz ihardun dutenak bere testuinguruan aztertzen ditugu beranduago.

Aitzin-ohar honek esplikatzen du zergatik hautatu ditugun sei autore, eta ez hogei. Sei horietan denetik dago: programazio eta hizkuntz eredua txalotzen eta kritikatzen dutenak, euskara gehitzea eta gutxitzea eskatzen dutenak, erdara sartzea eta dagoena ere kentzea eskatzen dutenak...

Zertan esanik ez da, hemen aipatzen ditugun autore hauek badutela beren ingurunea eta, nolabait esan, herri-eritziaren parte bat ordezkatzen dutela. Aitortu beharra dago, bestalde, ETBren projektuak askok uste baino kontrakar gutxiago izan duela gizartean. Harrituenak, ETBren asmatzaile eta bultzatzaileak berak izan dira, agian. Informazio ezkutatuz eta gertakari burutuen logikaz jokatu dutela ematen bait du, hain zuzen kontrakar honen beldurrez. Kontrakar hori, noski, erdal sektoreen aldetik espero zen. Eta ez da gertatu antolaturik eta masiboki bederen. Ikusiberria dugu alderdi politikoen jarrera. Honez gain, deus gutxi ger-

tatu da, egia esan. Autoreen aldetik, arazoari gehienetan eta luzeen heldu diona, R. Zorrilla da. Beste salakuntza guztiak, egunkari mailakoak dira, arinak eta txikiak. ETBren hizkuntz ereduaren kritika batipat *El Correo* (R. Zorrilla), *La Gaceta del Norte* (Vicente Copa), *Tribuna Vasca* (Julio de Benito), *El Diario Vasco* (J.C. Baroja) egunkarietan agertu izan dira.

Euskal sektoreek batez ere *Egin* eta *Deia* egunkarietan idatzi dute egunkari mailan, eta *Argia*-n eta *Jakin*-en maila sakonago batean. Euskaldungoaren baitan ia erabateko onarpen soziala izan du ETBren jatorrizko hizkuntz ereduak. Kritikarik izan da, nola ez, baina gutxi; gutxiegi, agian. Gerora, sortu diren kritikak jatorrizko ereduaren aldekoak gertatu dira, laugarren katea nazionala bere garbitasunean gordetzearen aldekoak; esan nahi bait da, erdararik eta erdal programaziorik gabeko ETBren aldekoak.

Labur bada ere, araka ditzagun autoreok, bakoitzaren punturik nabarmenenak seinalatuz.

R. Zorrillaren ustetan, aginte politikoak (prezeskiago, abertzalegoak) instrumentalizatu egiten du ETB, hizkuntz politikaren tresna bilakaraziz. Hizkuntza ez du helburu, aginte-aparatoa finkatzeko tresna baizik. Honegatik eta honela, ETB diskriminatzaile eta marginatzaile gertatzen da herriko gehiengoarentzat.

L.M. Mujikak, aldiz, oso begi onez ikusten du ETBren ideia (bidea kritikatu arren). Soziolinguistikaren barrutian kokatzen da honen pentsaera telebistari buruz. Telebistaren eragina azpimarratzen du: ETBk prestigio soziala ematen dio euskarari eta euskaldunari, «A hizkuntza» bilakatzen bait da euskara telebistari esker.

J.J. Azurza aski kritiko da sorrerako zenbait puntuz. Horietako bat, hizkuntza. Hizkuntza eta hizkera. Erdarari leku bat egin behar zaiola ETBn, defendatzen du. Euskalkiek ere bere tokia beharko lukete, baina, komentziturik dago, ETB «gran cañón Bertha» izango da, zoritxarrez, euskara batuaren alde.

Txillardegirentzat, euskara hutsezko katea bat minimoetan minimoena da. Egoera orekatuan egoteko, 17 irrati eta bi telebistakatea euskara hutsez beharko liratekeela idazten du. ETBri bi funtzio aitortzen dizkio, beste guztien gainetik bi: euskaldunen artean euskara zabaltzea da bat, eta, bigarrena, euskara sekula entzun ez duten erdaldunen artean zabaltzea.

J.C. Baroja ez dator bat ETBk daraman hizkuntz jokabidearekin. Telebista elebiduna eta euskalkitan emana proposatzen du

berak. Eta bietarako arrazoi bat berak balio du: gizartearen egiazko premiei egokitu beharra, errealitateari jaramon egitea.

J.M. Torrealdairen ustetan, euskararen arragoa da telebista. Telebistarik gabe ez da salbatuko euskara. Telebistan erakutsi behar du euskarak hizkuntza osoa, funtzionala, heldua, modernoa dela. ETBn euskarari eman zaizkion funtzio soziolinguistikoekin bat dator autorea. Telebistaren funtzio guztietarako gai dela erakutsi du euskarak ETBn, modu aski sinbolikoan bada ere.

1.2.4. **Inkestak: audientzia eta eritziak**

Zazpi inkestatan bederen izan da galdegai ETB. Horietako lau audientzia neurtzeko egin ziren eta hiru jendeteriaren eritziak ezagutzeko.

Gure lanean inkesta horietako puntu batzuez bakarrik interesatu gara: audientzia orokorra, programazioaren hizkuntz preferentziak, eta ETBko hizkuntza.

Audientzia orokorraren zifrak eskutan, zer esan? Inzidentzia hori handia al da? Txikia al da? Aski al da? Erreferentzi puntua biztanlego osoan ala euskaldungoan jar, hor dago eritzi kontrajarrien mugarria.

Zein programa-motatan zein hizkuntza erabil, euskara ala gaztelania, jakiteak badu interesik. Bi inkestek egin dute galderamota hori. Haurrentzako programazioa euskaraz izatearen aldeko gehiago dago telegunkaria edo filmeak euskaraz izatearen aldeko baino. Esplikazioak esplikazio, badirudi, azken batean, mentalitate diglosikoaren isladak izan dezakeen garrantzia dutela erantzun horiek, eta, inola ere ez, ETBren programazioa aldatzerainokoa.

ETBko hizkuntza zeinek behar duen, euskarak ala erdarak, hona galdera korapilatsua. Inkestak globalki harturik, euskarazko kanalak adostasun-gradu handia du, baina erdal programazioak ere eskari haundia du. Zaratarik gehien, Gallup-en inkestako galde-erantzun batek atera du.

Euskara hutsez % 38k nahi du ETB, euskaraz eta gaztelaniaz % 49'7k eta erdaraz bakarrik % 6'6k.

Zifrak hor daude, bai audientziarenak eta bai gurariarenak. Besterik da, ordea, ETBk zein neurritan eutsi behar dion sorkuntzazko bokazioari eta bere izateko arrazoiari.

1.3. PROJEKTUAREN EZTABAIDA: B) ARRAZOIAK ETA KONTRARRAZOIAK

Protagonisten luma edo hitzetan jaso dugun gauza bera, gaien arabera, sistematikoki, arakatuko dugu orain. Arrazoiketak zein auziren inguruan mamitu diren ikusiko genuke hemen. Arrazoien eta kontrarrazoien ardatza ETBk aukeraturiko ereduan dagoela iruditzen zaigu; eredu programatikoan eta eredu linguistikoan.

1.3.1. Programazio-ereduaren eztabaida

Programazio-ereduari dagokionez, ETBren eredua hiru telebista-motari kontrajarririk ikus genezake: telebista alternatiboa, telebista edukazionala eta telebista folklorikoa.

ETBk, arduradunen burutan, ez du telebista alternatiboa izan nahi. Beste telebisten parean ibili nahi izan du, marka bereizgarri bakar batekin: euskaraz izatea. ETBren alternatiba bakarra, alternatiba linguistikoa da.

Hizkuntzaren arrazoi hau, ETBko arduradunei ezezik, euskaldungoaren zati haundi bati ere nahikoa arrazoi iruditu zitzaion. Ez denei, noski. Euskara aitzakia hutsa izatea, joera progresistak baztertu izana, kantitatea kalitatearen kaltetan hobestea kritikatu izan zaio zenbait sektoretan. Baina barneko kritika hauek aski barreiatuak eta ez-sistematikoak izan dira.

Euskal Herritik kanpora ETBri –eta berdintsu TV3ri– egin zaizkion salakuntzen muina honetantxe datza, hain zuzen: telebista arrunta dela eta ez alternatiboa, hizkuntz normalizazioaren funtzioan justifikatua. Holamoduzko ideiak barra-barra agertu ziren Aragoiko Diputazioak antolaturik Zaragozan ospaturiko *I Jornadas sobre Televisión Autonómica* haietan.

Nazioarteko zenbait eredurekiko mimetismoa, kulturalismoaren eta lokalismoaren aitzakian nazioarteko burgesiaren joko desnazionatzailea etab. ikusten dizkio telebista-mota honi joerazko arrisku bezala J.M. Pérez Tornerok.

Kapitalismoaren edozein produkturi bidea libre uztea salatzen du Oriol Costa Badiak.

RTVEren eredu eta jokamolde bera erabiltzea azpimarratzen du ETB eta TV3ren kasuan Eugenio Giral jaunak.

ETBren aukera honek, bada, euskaldungoaren onarpen soziala

jaso zuela baiezta genezake eta Euskal Herritik kanpoko zenbait aditu eta RTVEren ingurukoen mesfidantza.

ETB, gaur egun, ez da telebista edukazionala, ez aurrekontuz eta ez filosofiaz. Eta, halere, aitortu behar dugu, euskararen irakaskuntzari loturiko telebistaren irudia duela askoren baitan. Irudia ereduaren aurka, agian. Egia esan, bai Euskal Irrati-Telebista Herri-Erakundearen Legearen Atarikoan, eta batez ere arduradunen zenbait pasartetan, ulertzapen honetarako bide eman dezakeen esaldi asko dago.

Bestalde, haurren programazioaren nagusigoak ere interpretazio hori lagundu egiten du. Eta gero, betikoa: euskal komunikabide bat euskararen erreprodukziorako dela uste da sektore askotan, zenbait inkesta lekuko.

Hezkuntz telebistaren «irudiaren» aurka ETBren praxia dago, eta praxi honen teorizazioa: ETB telebista komentzionala da.

Programazio-ereduaren eztabaida honen hirugarren puntua ere munta handikoa da: ETBk telebista osoa eta konpetitiboa izan nahi du, eta ez eskualde-telebista, probintzianoa, antropologikoa, folklorikoa.

Telebista autonomikoari buruzko bi filosofia hauek etengabe konfrontatu ohi dira. Eusko Jaurlaritzak Administrazio Zentralarekin telebista kontuan izan dituen tirabiren hondo-hondoan, bi filosofia hauen konfrontaketa dago: telebista osoa nahi du Eusko Jaurlaritzak eta eskualde-telebista eskaintzen du Madrilek. Calviño jaunak, telebista folkloriko eta antropologikoaz mintzatzen denean, eredu bera du buruan: telebista osoa eta konpetitiboa barik, osagarria eta menpekoa. ETBk nahiago du, txikia bada ere, osoa izan.

1.3.2. **Hizkuntz ereduaren eztabaida**

Euskal Herriaren mugen barruan, ardatz honen inguruan mamitu da eztabaidarik luzeena. Eztabaida luze-zabal honen berri emateko argumentu gisa erabili diren puntuak aukeratu ditugu, hemen.

Telebista publikoa eta arrunta izaki, audientziarik gehiena bilatzen duen ereduko telebista da ETB. Hori batetik. Eta bestetik, bokazioz bederen euskara hutsean aritzeko telebista da. Ildo honetatik, bada, beronen intzidentzia soziala neurtzeko eta beronen izateko arrazoia legitimatzeko erreferentzia, audientzia da, baina

ez gizarte osoarena, euskaldungoarena baizik. Audientziaren neurketa bakoitzak, haatik, telebista elebidunaren arazoa plazara du, intzidentzia sozialaren marko bezala gizarte osoa harturik. Intzidentzia gehiago izan dezan, audientzia handiagoa lor dezan, erdara sartu behar dela ETBn, errepikatzen dute sektore erdalzaleek. Audientzia «eskasa»ren soluzioa elebitasuna da beti ere.

Esan dugu, ETBren arduradunen pentsaeran hizkuntz alternatiba dela ETB. Euskal komunikabideek eta euskara elkarri oso loturik agertzen zaizkigu sarri. Are gehiago ETBren kasuan. Hizkuntz politikaren tresna gisa ere ulertzen duela Eusko Jaurlaritzak ETB, esan genezake oker handirik gabe. Telebista hizkuntz normalizazioaren funtzioan legitimatzeak ez du gizarte-indar guztien onarpenik. Tranpa, estalki ideologikoa, aitzakia, desbideraketa izatea salatzen zaio ulertzapen honi.

Hizkuntz alternatiba gisa planteatuz, ETBk ez diola errealitate sozialari erantzuten salatzen diote batzuk. Pluralismoaren eta demokraziaren izenean –Euskal Herriko errealitate plurala aintzat hartuz, beraz–, telebista elebiduna eskatzen dute hauek.

Ikuspegi soziolinguistikotik abiatzen dira beste batzu ere, arras kontrako ondorioetara iristeko. Euskara hutsezko ETBren aldeko argumenturik gehienek, esango genuke, soziolinguistikan dute oinarri. Euskarak beharrezkoa du telebista, normalizaziorako, hedapenerako, gizarte osoaren hizkuntza arrunt bilaka dadin.

Euskara hutsezko telebistaren onarpenaren aurka sarri agertu ohi den hitza, diskriminazioa da. Diskriminazioa audientziarentzat, erdaldunentzat: interes handiko programetan gaztelania sartzea proposatu du CPk. Kultur pertsonaientzat eta politikarientzat diskriminazioa: kultur magazine bat erdaraz proposatu du R. Guerra Garridok. ETBn lanpostu bat bila dezaketen langileentzat diskriminazioa da euskara exigitzea CP eta PSOEkoentzat.

Diskriminazio hitza aipatzen denero, ez da ETBn gaztelaniari leku egiteko aipatzen. Alderantzikorako ere bai. Euskara hutsezko telebista lortzeko ere, diskriminazioaren kontzeptua erabili ohi da. Euskararen tratamendu legala eta presentzia soziala ikusita, euskararena eta euskaldunarena bakarrik da diskriminazioa, Imanol Oruemazagaren ustetan. Ekologia informatiboa bere osoan kontutan edukita, ETB euskara hutsez izatea, inorentzako diskriminazioa gabe, euskarari eta euskaldunari zor zaion minimoa da. Zentzu honetan argudiatu izan dute R. Labaien Kontseilariak, L.M. Bandres Kontseilariak, Txillardegik, Luis Mari Mujikak eta beste askok.

Eta, azkenik, hizkuntz ereduaren eztabaidan ezin falta zitekeen euskara batua/euskalkiak auzia. Hasieratik esan behar da, ez duela *a priori* pentsa zitekeen adinako protagonismorik izan borroka honek. Ofizialki, Eusko Jaurlaritzak hartu bideari jarraitzen zaio ETB euskararen erabilera kontutan. Bada bide hau onartzen ez duenik, batipat Bizkaian. Eta bada, hizkuntzalarien artean bereziki, nahiz eta hizkuntz eredua onartu, praxiak erakutsitako kalitatea kritikatzen duenik edota euskalkien presentzia handiagoa eskatzen duenik hizkuntza mintzatuan.

Baina auzi honetan atentzioa ematen dutenak, bi proposamen dira. Atentzioa ematen du proposatzaileak zeintzu diren eta beren arrazoiketa ikusteak.

Julio Caro Barojak, errealitateari egokitzeko eskatzen du euskalkien sarrera.

CPk euskalkiak sartzea proposatzen du, ETB hobeki sustraitzeko gizartean eta euskara batuak suposatzen duen gehiengoaren marginazioari itzuri egiteko.

1.3.3. **Euskara hutsezko telebistaren aldeko ekinaldiak**

ETB lehenbailehen indarrean jar zedin, euskara hutsez izan dadin, eta Nafarroa osora heda dadin egin diren ahaleginak, bakoitza bere testuinguruan aztertzea komeni da. Agertu diren arrazoiak eta kontrarrazoiak, izan ere, kanpainaren baten barruan agertu dira, hitza eta ekintza dinamika berean. Hiru gertakari aipatuko ditugu hemen: 1981ean EHEk antolaturiko «Gabonetarako Irratia/Telebista euskaraz!» kanpaina, 1983an EHEk berak bultzaturikoa: «ETBn erdararik ez», eta 1984ean Nafarroan taldeandana batek eratu zuen «Euskal Telebista Nafarroa osoan» kanpaina.

«Gabonetarako Irratia/Telebista euskaraz!» kanpainak bi jomuga zituen: Eusko Jaurlaritzari, emandako hitza bete eraztea eta ETB euskaldun baten aldeko kontzientzia piztea.

Eusko Jaurlaritzari, eta bereziki R. Labaien Kultur Kontseilariari, ETB sortzeko epeak eta hizkuntza (euskara hutsa) errespetatzeko eskatzen zien EHEk.

ETBren kontzientziatze-kanpaina gisa EHEk proposatzen duena, zera da: telebista komentzionala, euskara hutsezkoa eta Euskal Herri osora hedatuko dena.

Kanpaina askoz inportanteagoa, bigarrena izan zen, 1983ko

udazkenekoa: «ETBn erdararik ez». Herri-mobilizazioez gain, prentsa-kanpaina azkarra eragin zuen EHEk. ETBn erdara sartzearen aurkako, edo hobe, ETB euskara hutsez izatearen aldeko argumentuetan arrazoi soziolinguistikoak nagusitzen eta nabarmentzen dira: euskararen normalizazio-prozesuan, ETB euskaldunaren garrantzia eta eragina azpimarratzen da. ETB euskaldunaren aldeko borroka hau, borroka soziolinguistiko globalaren barrutian kokatzen da. ETBn, Teleberri erdaraz egitearen kasuan, suposatzen eta kritikatzen diren argumento politikoei aipaturiko argumento soziolinguistiko hauek kontrajartzen dizkiete EHEkoek. Teleberri erdaldunaren alde arrazoi politikoak, pragmatikoak eta informatiboak ateratzen ditu Amatiñok. EHE inola ere komentzitzen ez dutenak. Bestalde, Amatiñorentzat neurri isolatua den bitartean eta informatiboetara mugatzen den erabakia, EHErentzat ETBren erdalduntze-prozesuaren lehen urrats zindoa da.

Hirugarren kanpaina Nafarroako lurraldera mugatu da. Luze iraun zuen kanpaina honek, 1984eko martxotik abendua bitartean. Era askotara ihardun zuten: udaletxeetako posizionamenduak ETBren alde, izen-bilketak, prentsa-kanpaina, manifestazioak, herri-mobilizazioak, etab.

Udal eta kontzejuetan abiatu zen mugimendua, eta segituan kultur taldeetara lerratu zen: Ikastolen Federazioa, AEK, EHE. ETBren aldeko Batzorde bat eratu zuten espreski. Batzorde koordinatzaile honek gidatu du mugimendu osoa. Argitara diren deklarazio, manifestu, idazlan eta kontsigna guztietan, bi modutako argumentuak agertu ohi ziren. ETB Nafarroara hedatzeko arrazoi nagusia eta ia bakarra, linguistikoa da: komunikabideek eta bereziki telebistak hizkuntzaren superbizipenean duten garrantzia azpimarratzen da, telebistaren eragina euskararen normalizazioan, euskararen zabalkundean.

Kanpainaren bigarren puntu garrantzizkoa, ETB Nafarroa osora hedatzea da. Nafarroako aurrekontuetan Nafarroaren Iparraldera mugatzen da ETB ikusteko ahalbidea. Kantonamendu, erreserba eta ghetto bihurtze bezala salatzen dute hori kanpaina honetako partaideek. Nafar guztien eskubidetzat jotzen dute ETB jaso ahal izatea eta horrexegatik ETB Nafarroa osoan ikustea eskatzen dute, erreserbarik gabe.

2. JARREREN INTERPRETAZIO-SAIO BAT

Bitan, oso bitan, banatzen dira ETBri buruzko eritziak. Batzuk, euskaltzaleek, telebista euskaldunaren ideia eta indarrean jartzea euforiaz hartu dute, esperantzaz beterik. Lehen euskal liburuaren argitaraketaren egilearen pareko pozarekin. Izan ere, normalizazio-bidean euskarak egin duen bide gogor eta luzearen emaririk hoberenak ordezkatzen ditu ETBren jatorrizko ideiak.

Beste batzuk, erdaltzaleek, eragozpenak dituzte, telebista arrunt bat euskaraz ulertzeko. Are, onartzeko. ETB euskararen erreprodukzio-tresna bezala ulertuz onartzen dute, ez besterik. Nekez, askoz ere nekezago, telebistaren funtzio guztiak normaltasunez beteko dituen telebista bat. Gertakari honek eskubide konstituzionalak, estatutuarenak eta giza eskubideak zapaltzen omen ditu, diskriminazioa inposatuz.

Jarrera hauen atzetik zer dagoen aztertu nahi dugu: hizkuntzaren zein ulertzapen, zein pentsaera soziolinguistiko eta, azken finean, zein joko politiko. ETB dela eta, plazara diren eritzien, ideien eta jarreren background (soziolinguistikoa, ideologikoa) seinalatu nahi genuke, seinalatu bakarrik. Hemen auzitan dagoena, gure ustetan, euskararen funtzioen arazoa da; bereziki, euskararen funtzio pragmatikoa.

2.1. HIZKUNTZAREN GIZARTE-FUNTZIOAK

Jakina da edozein hizkuntzak bere gizartean funtzio-sail bat betetzen duela. Egiteko hauetako batzu beste batzu baino koiunturalagoak dira, iragankorrak, nahiz giro jakin bati nahiz garai ezagun bati lotuak. Beste batzu, aldiz, iraunkoragoak dira eta hizkuntzari berari dagozkiola esan ohi da; hala nola, mezukomunikazioarena eta harremanena.

Euskarari iratxeki zaizkion funtzioetan ere bietarik da. Iragankor horietan agian ezagunena aipatu nahi genuke hemen, maiz euskara bera kalifikatzeraino iritsi den funtzioa: euskara, batipat XIX. mendean, ideia liberal eta iraultzaileen aurrez-aurreko ezkutua izan bide da. Frantsesez mintzo da iraultza, edota gaztelaniaz. Erreakzioak, tradizioak, kulturgabetasunak euskaraz, katalanez, bretoieraz hitzegiten dute. Bide luzea egin du, datu soziologiko baino areago, indar agintarien eskema den honek.

Bestelako funtzioez ere mintza gaitezke; adibidez, frankismogaraian eta klandestinitatean euskarak bete behar izan dituenez.

Baina, zalantzarik gabe, edozein hizkuntzaren –eta beraz, euskararen– gizarte-egitekorik oinarrizkoenak bi dira: komunikazioaren funtzioa eta identifikatzearen funtzioa.

Bietan lehena, garrantzizkoena, mezuak komunikatzearen funtzioa da. Komunikazio-sisteman, hizkuntzak lortzen du hobekien elkarbizitza, berak eraikitzen eta iraun erazten du hobekien gizartea. Hori eginez, bere funtzio pragmatikoa betetzen ari da hizkuntza.

Bigarren funtzioa, lehentasunen mailan ere bigarrena, identifikatzearen funtzioa da. Egiteko hau, pragmatikoa baino areago, sinbolikoa da. Hizkuntza, funtzio honen arabera, tresna integratzailea, bateratzailea, identifikatzailea da. Beste sinbolo batzurekin batera (bandera, arraza, erlijioa, etc.) betetzen du eginkizun hau.

Zertan esanik ez da, euskarak bi funtzio hauek bete eta betetzen dituela, ongi ala gaizki. Arazo eztabaidatsua beste honetan datza: hizkuntzaren berenezko bi funtzio hauek, ba al dute, euskararen kasuan, onarpen sozialik? Alegia, onartzen al da euskara dela Euskal Herriaren hizkuntza, bateko, eta, besteko, Euskal Herriko gizarte modernorako gai dela? Elebitasunaren, euskararen irakaskuntzaren, euskalduntzearen atzetik edo aurretik, galdera hau dago. Telebista euskalduna onartze/ez onartzearen oinarrian galdera bera dago.

2.2. EUSKARAREN FUNTZIOAK AUZITAN

1978ko Konstituzio espainolean gaztelania ez beste hizkuntza espanolei ematen zaien trataera diskriminatzailean, batetik, eta, bestetik, 1979ko Autonomi Estatutuan euskara hizkuntza nazional barik «berenezko» bilakatu zenean, bai funtzio sinbolikoak eta bai funtzio pragmatikoak, azken aldiko kolperik latzena jasan zuten biek[1]. Euskararen status juridiko berri honek hamaika ondorio izango ditu geroko urteetan, nola lege aldetik hala euskara ulertzeko eta praktikatzeko moduaren aldetik.

Guk, hemen, lege-arazoak alde batera utzita, gizarte eztabaida ikusiko dugu, gaingiroki bada ere.

«Ideologia erdaltzalearen erasopean» gaudela frogatzera zetorren Mikel Dorronsororen artikulua, 1984aren lehen partean.

«Azken denboraldian erdaltzaletasuna indar berriz dabil, eta hori frogatzeko ez dago komunikabideetan agertzen dena ikusi besterik edo klase politikoaren manifestaldiak entzun edo irakur»[2].

M. Dorronsorok aipatzen duen ofentsiba honen aurretik, 1982-1983 urteetan, eraso intelektual gogorra gertatu zen, euskalduntze-bidean harturiko (edo hartzeko zeuden) neurri konkretuei justifikazio intelektuala kendu nahian bezala. Egunkarietan mamitu zen lanik ageriena, batipat Bilboko *El Correo Español, La Gaceta del Norte, Tribuna Vasca*-n. Baina, baita ere, Bilbon eta Madrilen ospaturiko Ihardunaldietan, Fundes Elkarteak eta *El Correo Español* egunkariak antolatuetan eta Estatu mailako zenbait intelektual sonatu bildu zituztenetan; hala nola, Fernando García de Cortázar, Jose Luis Pinillos, Fernando Lázaro Carreter, Julián Marías, Manuel Seco, Juan Pablo Fusi, Ignacio Olabarri, Miguel Siguán Soler, Enrique Etxeburua, Fabricio Caivano, Mariano Pérez Galán , Pedro Laín Entralgo.

Euskararen aurkako kanpaina honen berri José Ramon Scheifler-ek ere ematen du[3].

Eraso horren baitan, linea diferenteak bereiz genitzake. Gogorrenek funtzio identifikatzailea bera ere kendu egin nahi diote euskarari. Hots, euskara euskaldunen hizkuntza da, bai, baina gaztelania ere bai. Biak dira Euskal Herriko «berenezko» hizkuntza. Honela, euskararekiko erreferentzia absolutua ezabatu egiten da behin betiko. Euskal Herriaren hizkuntz dualismoaren jarreran daude, adibidez, Restituto Zorrilla[4], Jose María Basaldua[5], Juan Pablo Fusi[6] eta Fernando García de Cortázar[7]. Azken honen hitz batzuk ongi adierazten dute pentsaera hau:

> «Nadie discute que el vascuence sea efectivamente la lengua propia del País Vasco, tal como lo reconoce el artículo sexto del Estatuto de Autonomía de dicha Comunidad. (...) Pero esta afirmación de la singularidad lingüística de los vascos no debería hacer olvidar que el castellano es también privativo de los vascos, aunque compartido con otras comunidades. El castellano es tan propio de los vascos que no es exagerado decir que fueron éstos sus creadores al alimón con los hombres de Castilla, Navarra y Aragón»[8].

Bidenabar esan dezagun, ikuspuntu beretik egina dela euskararen normalizaziorako oinarrizko legearen (10/1982) inpugnazioa, Felipe Gonzálezen sinaduraz Madrileko gobernuak egina (1983-03-14).

«En definitiva la calificación del euskera como lengua propia del Pueblo Vasco (art.6.1.EAPV) ha de entenderse en el sentido de tratarse del idioma peculiar y característico de esta nacionalidad, pero no impide que con un sentido diferente pueda calificarse también al castellano como lengua propia del Pueblo Vasco, bien que no peculiar del mismo sino común a él y al resto de los que integran la Nación española»[9].

Askoz hedatuagoa eta inportanteagoa da erdaltzaletasunaren beste linea, euskararen funtzio pragmatikoa ukatzen duena, alegia. Euskarari ez zaio ahalik aitortzen gaurko Euskal Herriaren komunikazio-tresna izateko, nahiz hizkuntza zaharkitua delako, nahiz kultura gabea delako, etc. Kuestioa da, ezen bere funtzio pragmatikoa ukatu egiten zaiola beti.

Unamunoren eta Pío Barojaren tesiek (euskararen desagerketa hizkuntz ahuldadez, bereziki) lehen mailako garaitasuna hartzen dute Bilbon. Angel M.ª Ortíz Alfau[10], Emiliano Serna[11], etc. ideia horien hedatzaile sutsu dira. Ideia hauen lekuko adierazgarri izan daitezkeen pasarte batzu aldatuko ditugu hona:

«Llevados por la mística de la raza o de la diferenciación, se sacrifican a una lengua medio muerta, grandes cantidades de dinero de un erario escuálido y se vuelcan las mayores inquietudes culturales y afanes de la Administración Pública con ese único fin: revitalizar el vascuence. Poner un freno a la historia.

Sin embargo, la estolidez nacionalista pugna por la imposición de un idioma carente de capacidad expansiva, en contra de una ley general que tiende a la eliminación de las lenguas más pobres por 'vehículos de expresión' más ricos y poderosos».

(...)

«Defendemos que la adopción de un idioma común en un territorio dado, es un paso gigantesco para regionalizar las naciones, para obstruir que se nacionalicen las regiones, para impedir que se camine hacia atrás»[12].

Angel M.ª Ortíz Alfau jaunak Unamunoren adiskide zen Amado Nervoren pasarte esanguratsuen sail batez osatzen du bere artikulua:

«La índole de nuestra vieja lengua, pobre de conceptos transcedentales, embarazosa y de pesado manejo, una lengua inepta para expresar debidamente la complejidad espiritual del alma moderna».

(...)

«Si el vaso es pequeño y no se puede ensanchar, es fuerza beber en otro vaso; y aquí el otro vaso es la nobilísima y poderosa lengua castellana. En ella caben, ciertamente, todas las modalidades del alma eúskara, y ella tiene todos los acentos para prestárselos. Pero el vasco pretendió encerrarse en su lengua (que como dice Unamuno, ya no es más que una curiosidad filológica) como en una torre»[13].

Jose María de Basalduak ere, filologiaren mailan onartzen du euskara, baina ez hizkuntza bizi eta gaurko bezala:

«Pero el interés apasionante que para la fundamentación de una lingüística pre-indoeuropea presenta el vascuence o euskera, no tiene nada que ver, por supuesto, con el empeño político del nacionalismo vasco que pretenden hacer del vascuence la lengua actual y viva de todos los vascos»[14].

Euskara ez da gauza gaurko gizarte aurreratuan bere funtzio pragmatikoa betetzeko, Jose Luis Pinillos bilbotar psikologo famatuaren ustetan. Aspaldi galdu zuen egiteko funtzional pragmatiko hori: XVIII. eta XIX. mendean, hain zuzen. Gerora bete duen eta bete dezakeen funtzioa funtzio identifikatzailea da, sinbolikoa. Hizkuntza subjektiboa, bihotzekoa da euskara; eta objektiboa, teknikoa, gaztelania da.

«Se entiende que un idioma propio es el fundamento de la identidad que se reivindica, y hay algo de ello, aunque quizás no tanto como se supone. En todo caso aquí se trata de fomentar el desarrollo de un lenguaje prerromano, que en cuanto a sus registros objetivos tropieza con serios obstáculos para cumplir su función en la actualidad. A decir verdad, el mundo de las relaciones objetivas en que por razones que no hacen ahora al caso se quedó el euskara es bastante rudimentario. El vascuence subvenía perfectamente a las necesidades de pequeñas comunidades agrícolas y de pescadores, a la vida religiosa y política de un mundo bastante aislado y de dimensiones pequeñas, donde la vida cultural, la ciencia, las profesiones y la tecnología encontraron, en general, escaso acomodo hasta finales del siglo XVIII y, sobre todo, hasta la industrialización del siglo XIX. La situación con que ha de enfrentarse hoy es algo distinta.

(...)

«En otras palabras, el refuerzo de la identidad nacional pasa por el euskera, mientras el cultivo de las relaciones objetivas lo hace por el castellano»[15].

Euskarak funtzio pragmatikoa errekupera dezakeenik ere ez du uste Jose Luis L. Aranguren irakasleak. Hizkuntza liturgiko eta sinboliko bezala funtzionatzen du euskarak gaurko Euskal Herrian. Hizkuntza afektiboa da, ez efektiboa.

> «El euskera –salvo para quienes lo hablan como habla rural o doméstica, de endogrupo, y para quienes, arrastrados por cuasireligioso entusiasmo, lo estudian y aprenden– no es, hoy por hoy, una lengua efectiva, sino sólo potencialmente; pero es un «símbolo» catalizador, un ritual, un conjunto de fórmulas de comunión y, asímismo, un arma de combate para la 'liberación', (...). Qué otra cosa significa el hecho, tan habitual entre vascos que realmente no saben euskara, pero que al encontrarse y despedirse se saludan, sino su uso estrictamente litúrgico?»[16].

Euskara ikasgai, euskara museogai, euskara linguistikoki ezgauza, euskara kultura gabea, euskara iraganeko hizkuntza, erdihila, euskara nekazal hizkuntza, euskara etxe-hizkuntza, euskara hizkuntza subjektiboa... Formula hauek denek errealitate bera adierazten dute: euskara ez da hizkuntza pragmatiko eta modernoa.

2.3. EUSKARAREN FUNTZIO PRAGMATIKOA ETA MODERNOA SINBOLIZATZEN DU ETBk

Euskal Telebistak, euskaldungoaren barruan, onarpen sozial handia –ia-ia osoa– izan duela konstatatu behar da lehen unetik. «Estado de gracia» esan ohi denak, ohi ez bezala, luzaro iraun du.

Bigarren konstatazio bat egin nahi dugu, arestian esandakoa errepikatuz: euskaldungoak euskal telebistaz duen perspektiba nagusia soziolinguistikoa da. Eta ikuspegi soziolinguistiko honek euskal kulturaren testuinguru diakroniko eta sinkronikoaren argitan hartzen du bere esangura betea.

Azter dezagun, bada, orain euskaldungoak ETBz izan duen jarreraren atzealdea, interpretazio sakonago baten bila.

2.3.1. Medioa bera da mezua

McLuhan-en «The medium is the message» sonatuak komunikabide eta herrialde guztietarako balio du, ezpairik gabe. Baina

esango genuke, bereziki telebistarako eta Euskal Herrirako balio duela. Telebistarako, lehenengo. Telebista da, izan ere, baliabide guztietan eragin handiena duena, mezua bera bigarren mailan uzterainokoa, aparailuaren lilura dela medio. Euskal kulturarako, gero. Euskal kulturaren kasuan ez da dudarik, indar bereziz mamitzen dela fenomeno hori, euskara eta telebista lehen aldiz bait doaz elkarrekin.

Honela ba, «euskal telebista», unitate eta batasun bezala — areago: batasuna den neurrian— da garrantzizkoa, ez bikote bezala kontsideraturik; alegia, euskara alde batetik eta telebista bestetik. Adierazlea, ez da euskara, ez da telebista, baizik eta «euskal telebista» edo euskarazko telebista; eta adierazia, euskararen projekzio modernoa, pragmatikoa, gizartekoa.

Hainbat gauza esplika dezake ulertzapen honek.

Alde batetik, mezuak eta ideologiak berak baino munta handiagoa izatea tresnak, bitartekoak (euskarak zein aparailuak). Telebistaren izaeratik sortzen den eragina da inportantea. Eragin ahaltsu hori euskara ezaguterazteko, zabaltzeko, etxe guztietan sartzeko, erabili nahi da orain. Telebistaren kalteak eta manipulazio ideologikoak apenas aintzat hartzen diren. Amerikanadak onartzeko ez du eragozpenik L.M. Mujikak, euskaraz badira behintzat[17]. Edukinaren azterketak eta kritikak lerro gutxi osatu ditu.

Esandakoa: Medioetan indartsuena da telebista, eta baliabide indartsu hori euskararen onerako erabiltzea da gakoa. Telebistaren berenezko eragina, indar hipnotizatzailea, lehen euskararen aurka erabiliak, euskararen alde erabili behar dira orain[18].

Beste alde batetik, ezin sinetsizko euforia eta lilura sortzen du ETBren jaiotzak. Luze joko luke aipamenak oro biltzeak. Aski da, gure eginkizunerako, hiruzpalau hona ekartzea. Donostiako Prim kaleko eskolako lehen probak ikustean, zera atera zitzaion EITBko arduradun nagusi izendatu-berria zen Josu Zubiaurri: «es como ir al desierto y encontrarse con un rascacielos»[19].

«Inmenso milagro que tenemos que mantener», idatzi zuen L.M. Mujikak[20].

Telebistaren hasiera honela agurtzen zuen, bigarren egunean, Imanol Beristainek:

> «Hace dos días he vivido un suceso extraordinario que me ha producido una sensación indescriptible, algo verdaderamente maravilloso. Ni un milagro me hubiera producido una mayor sacudida

interior. (...) Me pareció que había sido traspasado a otra galaxia»[21].

Tonu apalagoan, hori bai, baina antzeko pasarte ugari dago egunkarietan zehar.

Nondik eta zergatik euforia eta liluramendu hori, telebistak berak sinbolizatzen duen «mundu berri» horregatik ez bada? Modernitatea, efikazia, sinbolizatzen du telebistak. Eta euskal telebistak euskararen modernotasuna!

Bildu ditugun eta bil ditzakegun testu hauek denek beste une historiko bat dakarkigute gogora: lehen euskal liburua inprimatu zenekoa. 1545ean, B. Etxeparek pozaren pozez agurtu zuen bere liburuaren inprimaketa, euskararen bizialdi berri baten sinbolo gisa. Orduko modernitatean txertatzen zen euskara: Gutenberg Galaxian. Eta gertakari horrek «thornuya», «ohoria», eman zion euskarari. Engoitik, plazara, mundura, dantzara ateratzeko gai eta duin da euskara.

Telebistari esker, Marconi Galaxian, oraingo modernitatean, eskubide osoz eta ate handitik sartzen da euskara. «Orain dute phorogatu / enganatu zirela» euskara mundu modernorako ez zela gai uste zutenek. Zeren eta «orai ezta edireiten / heuskararen pererik».

Inprimategiak 1545ean eta Telebistak 1983an, bitarteko teniko hutsak izanik ere, lehen mailako garrantzia hartzen dute hizkuntza minorizatu eta «atzeratu» baten bizitan. Bai, telebistak «heuskarari eman dio / behar duen thornuya».

2.3.2. **Pragmatismoaren atzetik**

Euskaldungoak besoak zabalik hartu du euskal telebistaren jaiotza, urte luzetan egindako borroka eta lanen emaitzarik hoberenetako bailitza. Euskara marginaziotik, mespretxutik, diglosiatik ateratzen urtetan saiatu ondoren, ETBk hautapen antidiglosiko erabakiorra adierazten du euskaldungo ohartuaren begitan.

30 urteko borroka eta lan eskergen ondoren dator ETB, eta urte horietako urrats nagusien ildo berean kokatzen da. Izan ere, 1956/1964 belaunaldiaren bultzadaz hasita euskal kulturgintzan egin diren urrats guztiak —hala nola, ikastola, alfabetatzea, euskalduntzea, kanta berria, euskara batua, hizkuntz normalizazioa—, denak, azken baten, zentzu berean doaz: euskara funtzional prak-

tiko, baliozko, komunikazio-hizkuntza, hau da, pragmatiko eta normala egitera. Ahaleginaren alde on bat, euskara erregistro berriz eta modernoz hornitzea izan da, ama-hizkuntzaren ideologia gainditzea.

Testuinguru honetan, eta kulturgintzaren tradizio honen harian, hiruzpalau une edo ekintza erabakior aipatuko dugu, ETB euskaldunaren esanguraz hobeto jabetzeko.

1956ko belaunaldiaren kultur xedea euskara eta kultura elkarrekin ezkontzea da. *Jakin* aldizkariak 1956ko udazkenean, bere lehen ateraldian, honela idazten du editorialean:

> «Zaarra dugu izkuntza, ta basatia. Egun, artzain eta ikazkiñen mintzaira soilik. Egun-egungo jokabide-mailetatik at dugu euskera. Kultur-mentua, onatx zuk eta nik txerta diogun bizigarri berezia. Nik bezin ondo dakizu: gure euskera kultur-yoera ta kultur-ats guzi-guzietan murgil ez bitartean, aizea orrazten ari gera»[22].

Harez gero bide luzea egin du euskal kulturgintzak, beti kezka berarekin: euskara eta kultura adiskidetzea, bata besteari lotzea, elkarrekin ezkontzea. *Jakin*-ek, bere esperientzia lekuko, honela zioen 1968an:

> «Ibili dabillenak bakarrik daki bidearen berri. Ta zerbait ba dakigunez, ez Unamunok eta ez bestek, ez dutela arrazoirik, frogatu nahi dugu, konbentziturik baigaude euskera eta kultura ez direla etsai»[23].

Komentzimendu hori nola hezurmamitu eta gauzatu, ordea? Euskararen usadio-barrutiak gehitzea eta aberastea da bidea, eta, honetarako, euskara edozein gaitarako trebatzea.

Xede hauexekin biltzen da taldetan gazteria eta asmo horiexek aurrera ateratzeko asmatzen eta indartzen dira projektuak, editorialak. Urte horietan «Kulturaren dibulgaziozko oinarrizko liburuak» zuen lehentasuna, Rikardo Arregiren hitzetan, eta halaxe zen praxian baino areago asmotan, gogotan. Euskal liburugintzaren politikaz gerraostean egin den lehen proposamenak, hain zuzen R. Arregik burutuak, honela justifikatzen zuen liburu-mota horren lehentasuna:

> «Zientziaren eta kulturaren gai guztiei buruzko liburu-sorta informe-ekarle bat behar litzake. Euskerazko kulturaren egoera kontuan hartuta, kulturazko gai gehienetan gabezia izugarrian bait dago, premi-premiazkoak dira liburuok»[24].

Asmo hauekin, eta denak berdintsuekin, sortzen dira urte horietan editorialak: Lur, Jakin, Irakur-Sail, Gero, Etor, etab. Joera espantsionista nagusitu zen liburugintzan; hau da euskara, gai jakin batzutara erreserbatu beharrean, ahalik eta gai gehienetara eraman euskararen presentzia. Ez dago gai debekaturik eta ezinezkorik euskararentzat. Horrela erakutsi nahi zion bere buruari belaunaldi gazteak euskararenak ez duela egin, hizkuntza bizia, gaurkoa, baliozkoa, erabilgarria, osoa, hogeigarren mendeko kulturaren usadio guztietarako gai dela euskara.

Berdenboran, gerra egiten zaio euskara sinboloari, euskara garbiari, agurketa-euskarari, erritual-euskarari, testigantzazko euskarari, euskara pragmatiko eta modernoaren izenean. Euskararen erabilera sinbolikoaren portaera-eredu batzu «Euskararen borroka» lanean aurki daitezke[25].

Tradizio beretsuan koka daitekeen esperientzia da 1976-1977 urteetako euskal kazetaritzaren berrikuntzarena ere. Kontutan izan behar da urte horietan, Franco hil-berritan, alegia, Estatu mailan eta Euskal Herrian *boom* handia izan zuela kazetaritzak. Gure artean, *Anaitasuna* eta *Zeruko Argiak* taxua aldatzen dute 1976an, newsmagazine formulara pasaz. Urte berean, *Punto y Hora de Euskal Herria, Garaia* eta *Berriak* aldizkari elebidunak jaioko dira. Hurrengo urtean, *Egin* eta *Deia* egunkari elebidunak.

Bitan bana genezake urte haietako eta geroagoko euskal kazetaritzaren esperientzia.

Bateko, euskarazko prentsa. Hain modan zegoen newsmagazine-itxura hartzeko, bai *Zeruko Argia*-k eta bai *Anaitasuna*-k eduki zuten arrazoi nagusia, ezpairik gabe, normaltasun eta modernotasun-eitea zen. Euskararen eta euskal kulturaren duintasunezko presentzia soziala bilatzen zuten etengabe orduko euskal aldizkarien arduradunek.

Eta besteko, kazetaritza elebiduna estreinatzen da gerraostean. Formula honek esperantza handiak sortu zituen, eta porrotean amaitu da, euskal kazetaritzaren aldetik begiraturik. Otsoa eta bildotsa habia berean sartzea bezala izan da. Erdarak jan egin du euskara, baztertu, zokoratu, marginatu. Joera hau, 1976ko astekari elebidunetan baino ere garbiago ikusi ahal izan da 1977an sorturiko egunkari elebidunek proposatu zuten ereduan.

Euskarak erdararen parean joan behar zuen, kantitatez ez baino kalitatez: egunkariko edozein sailetan eta sail guztietan agertuko zen euskara, duintasunezko presentziaz agertu ere. Halaxe hasi ziren, batez ere *Egin*. Baina zer gertatuko, eta euskara desagertuz

joan zen, kantitatez eta kalitatez. Esan nahi bait da, hastapenean aginduriko % 25eko euskararen kopurua gutxitu egiten dela, eta, okerrago —askoz okerrago eta esanguratsuagoa dena—, egunkariaren sail jakin batzutatik euskara erretiratu egiten da eta «euskal kulturaren txoko»ra itzultzen. Abiaturiko puntura itzuli da euskara: euskal kulturaz, herri-kirolaz aritzeko balio du euskarak. Zer da gertatu dena? Prentsa elebidunean, euskarak erdararen parean jarri nahi izan duenean, ez du erdararen konpetentzia jasan ahal izan. Maila diglosikora bidali du erdara ahaltsuak.

Elebitasunaren kazetal esperientzia negatibo honen ondoren, ele-nahasketarik gabeko kazetaritza idatzia proposatu da. Hizkuntza bakoitzarentzat bitarteko bana, edota bloke-sistema, hots, «egunkaria egunkariaren barruan». Kazetaritza idatziaren bide bera hartu dute, gerora, bai Euskadi Irratiak eta bai ETBk[26].

Euskaldungoaren oroimen historikoan, amets, saio, ahalegin, porrot, proposamen, lorpen, zailtasun, arazo hauek denak daude barruan, ETB epaitzeko eta balioztatzeko orduan. Beldurra beti bera da: euskararen diglosia, marginazioa, folklorizazioa. Helburua ere beti bera da: euskararen bizitza, praktikotasuna, baliozkotasuna, gaurkotasuna. Kezka eta jomuga hauen artean koka daitezke euskaltzaleek ETBz eginiko errebindikazioak oro, hala hizkuntzari buruzkoak nola programazioari buruzkoak: euskara hutsezko telebista, euskara batuan, haurrentzako telebista soila barik denentzakoa, gaietan berezitua eta mugatua ez baino osoa, irekia, etab.

2.3.3. **Modernotasunaren atzetik**

Azterketa honen zenbait pasartetan agertu izan denez euskal kultur mugimenduaren gailurtzat jo izan da euskarazko telebista. Berau izan omen da azken urteotan egin den urratsik erabakiorrena. Azken 30 urteotako kultur borrokaren eta ekinaren frogalekutzat, saialekutzat har genezake euskarazko telebista.

Zergatik?

Mediorik teknologikoki modernoenean duintasunez egonik, badirudi euskararen modernotasuna sagaratuta gelditzen dela euskaltzalearen begietan. Hizkuntza gaurkoa, kultoa, modernoa, gaurko gizarte modernoaren premiei erantzuteko gauza dela frogatzen du euskarak telebistan.

Euskaldungoaren ulertzapen hau behar bezala interpretatu

ahal izateko, atzera historiara jo behar dugu, eta hor ikusi nola bideratu diren euskalgintzaren lanak. Hiru aldi bereiziko ditugu, oso eskematikoki:

a) 1950eko hamarkadaren erdialdera hasten da lehen aldia. *Euskara kaletartu.* Baserritik eta sukaldetik, euskararen ohizko «erreserba» horietatik, atera egin behar da euskara. Hiritartu egin behar da gure hizkuntza.

b) Bigarren aldia edo ekinaldia, 1960ko hamarkadan kokatzen dena, hizkuntza estandard baten atzetik dabil: *Euskara batu.* Herri bat, hizkuntza bat, esan ohi da. Hizkuntza bakar eta baliagarri bat nahi da, eta horretarako ortografi normatibitateari oratzen zaio buru-belarri.

c) Hirugarren aldian gaude aspaldion: *Euskara normalizatu-/modernotu/gaurkotu.* Gramatikazko normatibizatzearen ondotik, normalizazio linguistikoa eta soziolinguistikoa lortu behar dira. Hizkuntz normalizazioa, hau da, euskararen gertakuntza teknikoa, kulturazkoa, maila eta barruti desberdinetan: administratiboa, unibertsitaria, kazetaria, etab. Normalizazio soziolinguistikoa, hots, egoera diglosikoa eta kultur bazterketa gainditzea eta gizarteko barruti eta usadio guztietan (komunikabideak, politika, ekonomia, kultura,...) presente egotea hizkuntza oso eta arrunt bezala.

Euskalgintzaren eta kulturgintzaren ulertzapen-koordenatu hauetan ikusita bakarrik hartzen du bere zentzu jatorra euskaldungoak ETBz izan duen jarrerak. Urtetako borroka eta bilaketa, Aitorren hizkuntza zaharraren modernotasuna, baserritarren hizkuntza marginatuaren presentzia soziala, arloteen hizkuntza ezgauzaren erabilpen kulturaduna, hizkuntza pribatua publiko bihurtzea, etab., sinbolizatzen du ETBk.

Azken 30 urteotako kulturgintzaren bururapena dateke euskarazko telebista. Eta ETB, euskarazko telebista den neurrian.

3. OHARGARRI BATZU PROPOSAMEN GISA

Idazlanaren azken atal honetan, ohar luze batzu egiteari lotuko gatzaizkio, gogoeta gisa, noiz azterketan zehar aurkitu dugun

arazo zenbait argitzeko eta bideratzeko, noiz etorkizunari begira puntu batzu birplanteatzeko.

Azterlan honetan aurkitu ditugun planteamenduak, eztabaidak, salakuntzak, jarrerak, denak batean hartuta, gure ustez hor denean agertu izan diren hutsuneak, joerazko arriskuak, planteamendu eskasak edo faltsuak, aipatu nahi ditugu atzera orain. Oraingoan, geure eritzia emateko, baina ez maisuki, baizik eta azterlaneko protagonisten eta argudiaketaren dinamikaren harian.

Ez gabiltza aurreko orrialdeetan arakatu ditugun auziak oro errepasatzeko asmotan. Are gutxiago ETBren alderdi guztiak, horiek, bestela ere, gure azterlanetik landa gelditu bait dira edo gure azterreremua albotikago ukitu bait dute, hala nola, ETBren lege-arazoak, lan-arazoak, plangintz auziak edo antolamendu-eztabaidak, azken aldi honetan hain modan dauden arazoak denak, noski.

Ukituko eta ikusiko duguna, lau ardatz hauetan sailkatzen dugu: ETB eta euskararen normalizazioa, ETBren legitimazio soziala eta audientzia, ETB eta komunikazio-testuingurua eta, azkenik, ETBren programakuntza eta berenezko ekoizpena.

Eta azken atal honen sarreratxo hau amaitu aurretik, aurrera dezagun geure konbikzio/konklusio pare bat, geroko guztia hobeki ulertu ahal izateko.

- Euskarak ez du ETBrekin konformatzerik, medioen artean. ETBk egiteko handia du euskararen funtzioan, hori bai. Baina euskarak ETBz kanpoko presentzia behar du beste kateetan ere. Komunikabideak behar ditu euskarak. Hizkuntza hila da gizarte-komunikabiderik ez duen hizkuntza.

- ETB, Euskal Telebista Nazional bezala ulertzen dugu. Gaurgaurkoz ez da, osoki ez behinik behin. Euskara hutsez izatea eta Euskal Herri osora hedatzea du eskas.

- Halere, Euskal Telebista Nazionala eraikitzeko saioa denez ETB, jite honetako telebistari dagozkiokeen egitekoak aitortzen dizkiogu. Adibidez, programazio homogeno eta homogenotzailea behar du, herri bat egituratzeko balio behar du. Besterik proposatuko genuke eskualde-telebista edo telebista lokala bailitza kontsideratuko bagenu.

- Finkatu gabe eta arriskutan ikusten dugu ETBren jatorrizko projektua, eta batipat bere euskalduntasuna. Aipatu eta gogoratu besterik ez dugu egingo, «legez kanpokotzat» duela ETB TVEk, hizkuntz ereduaren aurkako erasoaren handia (CP, PSOE, eta, be-

rrikitan, PNVko zenbait talde), barne-istiluen amaitu ezina (grebak eta tirabirak). ETBren oraingo ereduak buztinezko zangoak dituela iruditzen zaigu.

- Eta ezin da ahantzi, bukatzeko, hoberenak erakusteko dagoela ETB bera. Berenezko ekoizpena da edozein telebistaren arragoa. Projektu osoari beha, lehen aldian gaude oraingoz. Ikusi egin behar zein baldintzatan nolako produktua burutuko duen.

3.1. ETB ETA EUSKARAREN NORMALIZAZIOA

ETBren egiteko handienetako bat euskararen normalizazioa da. Neurri handi batean, euskararen normalizazioaren izenean legitimatu/kritikatu da ETB, lanean zehar ikusi dugunez.

ETBk orain artean praktikatu duen hizkuntz eredua ez da ehuneko ehun euskalduna izan. Baina bai antidiglosikoa, eta garrantzizkoena hori da, zalantzarik gabe. Tratamendu antidiglosiko hori ez da kantitatezkoa, kalitatezkoa baizik: gai-eremu orotan normaltasunez erabili du euskara ETBk. Mezu-komunikabide da euskara ETBn.

Nola defini daitezke ETBren egitekoak euskararen normalizazioaren funtzioan?

Ez dugu zertan atzera azpimarratu, zein garrantzi handia duen telebistak hizkuntza baten bizitzan. Edozein hizkuntzaren bizitzan telebista erreminta garrantzitsua bada, areagotu egiten da pisu hori euskara bezalako hizkuntza minorizatu baten kasuan. Zein funtzio bete behar dituen telebistak jakiteko, hizkuntz egoeraren diagnosia zein den jakin behar aurrenik. GALekin batean honela interpreta genezake, oraingoz, euskararen egoera:

> «Euskara, diglosia marginaleko egoeran dagoen eta oraindik oso geldia eta ahula den zuzpertze-prozesua hasten ari den gertakari sozial **minoritario, zatikatu** eta **desegituratua**»[27].

Egoera hau iraultzea ez da bakarrik ETBren eginkizuna. Hizkuntz politikak gizarteko barruti askoz gehiago biltzen du, noski. Baina horien artean gizarte-komunikabideak, eta hor bereziki ETB.

ETBko euskararen erabilpen antidiglosikoak euskararen gertakari sozial minoritario, zatikatu eta desegituratuari jaramon egin

behar dio, berezitasun horiexek bait dira normalizaziorik ezaren adierazle. Horregatik uste dugu, euskara hutsez eta euskara batuan behar duela ETBk eta euskararen irakaskuntza ere asumitu behar duela. Euskararen eta euskal populazioaren hedatzaile, homogenotzaile, egituratzaile eta finkatzaile izan behar bait du ETBk. Izan ere, minorian egoteaz gain, euskal populazioa ez dago egoera berean euskararen ezagutzaren aldetik, zati-zati eginda dago; desegituratua dago, etenduraz josia (belaunaldien artekoa, etxea/kalea, geografikoa, bizitza erreala/ofiziala, etab.)

Egoera hau gainditzen telebistak asko lagun dezake, ikus--entzungailua izanik, eragin handia du eta populazioaren gain.

Hizkuntza minorizatu bateko herri batean, bidezko iruditzen zaigu hizkuntz normalizazioaren funtzioan legitimatzea telebista.

3.2. ETBren LEGITIMAZIO SOZIALA ETA AUDIENTZIA

Audientzia masiboa bilatzen du ETBk. Horrela eratua dago bere programakuntzaren eredua. Arrazoi bi ditu horretarako. Bateko, alternatiba linguistiko bezala ikusten badu bere burua, ahalik eta populazio handienaren bila jo behar du, bestela helburuan bertan hutsegiten du. Besteko, telebista publikoa da, herri--zerbitzua, irekia, zabala, denentzakoa. Presupostu ideologiko/politiko hauetan oinarritzen da ETBren jatorrizko projektua.

Baina, hain zuzen publikoa delako, ez da *à tout prix* audientzia masiboko telebista. Erizpide guztien gainetik audientzia bilatzea, hori telebista komertzialaren logika da batez ere. Joera arriskutsua, gainera, audientziarik gehienaren prezioa, sarri, programakuntzaren kalitate-eskasia bait da. Telebista publikoak audientziari adina jaramon egin behar dio kalitateari. Audientzia hutsean ez dago –ezin da egon– ETBren gizarte-legitimazioa.

Esanguratsu da oso audientziaren arazoa nola planteatzen den gurean.

Audientzia neurtzeko inkesta, hauteskunde politikoen pareko da askorentzat. Botu gutxi, beraz eszena publikotik kanpora, alternatiba politikoari leku uzteko. Berdintsu, telebistaren kasuan. 250-300 milako teleikusentzulegoak ez du ETB bat justifikatzen. Luxu bat da hori, diru publikoaren zarrastelkeria. Diskriminazioa da guztion diruarekin banaka batzurentzat bakarrik muntatzea ETB. Audientzia gehitzera jo behar da, guztion telebista egitera. Nola? Gaztelaniaren bidez, jakina. Konstatazio gisa esan dezake-

gu, audientziaren arazoa beti hizkuntz arazo bilakatzen dela. Sekula hutsegin gabe.

Arazo-sail minbera da aipatu-berri dugun hau denau. Ez da falta zer azterturik hor. Puntutxo bat edo beste ukitzearekin aski dugu guk hemen.

250-300 milako audientzia, zer da ETBrentzat, aski ala gutxiegi? Erreferentzia bezala Euskal Herriko biztanlegoa hartzen bada, bistan da konklusioa. Besterik da, aldiz, euskaldungoa aintzat hartuta. Euskararen eta Euskal Herri euskaldunaren funtzioan dagoen tresna batek, badirudi batez ere euskaldungoari begira zuritu beharko duela bere izateko arrazoia.

Bigarren puntua, diskriminazioarena da. Gai zabala hauxe, zabalik bada. Euskararen gizarte- eta lurralde-eskubiderik onartzen ez duen legerian oinarriturik, euskararen edozein presentzia sozial aise bilakatzen da antikonstituzional edo/eta antiestatutario gure herrian. ETBren kasuan ere, erreakzio berak funtzionatzen du. Badirudi, telebistaren kasuan, ahaztu egin dela ingurunea bere osoan begiratzea, ekologia informatiboa, badirela, alegia, beste bi katea erdara hutsez, eta euskaldunok ere ordainduak.

3.3. ETB ETA KOMUNIKAZIO-INGURUNEA

Legez eta izpirituz ETB ez dago inoren menpe. ETB ez da TVEren osagarri, lagungarri. Autonomikoa ez baino autonomoa da ETB. Bere buruaren jabe da, laugarren kanala izaki, Eusko Agintaritzaren telebista propioa bait da. Konpetitiboa da, ba, printzipioz.

Konpetitiboa bai; baina zein aginte telebisibo errealez, azken batean? Galdera larria, ETBk konpetentzian izan dezakeen marginazioa planteatzen ari bait gara. ETB txikia da, badakigu, baina ez minikatea.

Erabaki benetan inportantea izan zen bere garaian Eusko Jaurlaritzak hartu zuena; hots, TVEren sarean sartu beharrean, telebista propioa eraikitzea. Bere abantaila eta desabantaila guztiekin. Abantaila nagusia askatasuna da, bere buruaren jabe izatea, ondorio guztiekin: hizkuntza, programazioa, ordutegia. Desabantailen artean, kostuaren handia aipatzen dute denek. Eta Miquel Moragas-ek, efikaziarena[28].

Aginte telebisiboa, audientzia, M. Moragas-en ustetan, ez dago

ordutegiaren eta programakuntzaren funtzioan bakarrik. Faktore inportantea da, baita, kanala bera. Lehen kanalak, adibidez, berezko indarra du. Lehen eta bigarren kanalen arteko audientzi erlazioa 9/1 erlazioa omen da[29].

Zer pentsaturik ematen du honek, ez da dudarik. Baina irtenbiderik ez, zeren eta aukera ez bait dago Euskal Herriaren esku, TVEk zentralista eta monopolista jokatzen bait du, bai orduan, erabakia hartu zenean, eta bai orain, arazoa planteatzen ari garenean.

